



## **FILOTHEA**

**Silvain Pouvreau**

Iturria: *San Frances de Sales Genevako Ipizpicuaren Philothea*, Silvain Pouvreau. Paris, 1664.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/P/PouvreauFilotea.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**San Franzes de Sales,  
Jenebako ipizpikuaren  
FILOTHEA  
eta Xapeletaren andre dana Mariaren ohoretan  
debozionerekin erraiteko antzea**

Silvain Pouvreau apezak eskaraz emana

Parisen  
M. DC. LXIV.  
avec approbation



**ALEXANDRO,  
IZEN HUNEZ ZAZPIGARREN AITA  
SAINDUAREN GUTHUNA,  
DON ANTONIO BIXO BERE  
ILLOBA GANA,  
SAN FRANZES DE SALES, JENEBAKO  
IPISPIKUAREN FILOTHEAREN  
GAINEAN**

Ene illoba maitea, damu harturik zu ene ganik urruntzeaz, berriz has nadinatzat zurekin minzaten elkarganako guthunetan, hemendik abiatu zinenean erran nerauskitzun hitzez orai ere urrun zarelarik orhoituko zaitut. Arren nagotzu, noiz eta non ere nahi den, duzun Franzes de Sales maite, laket bekizu haren baitan, iar zaite haren seme obedienta, hura irakur ezazu erneki, har ezazu haren gainean prestuki bizitzeko moldea. Haren Filothea, erran nahi da, bizitze deboterako introdukzioea gana hogoi urthetarik huna, Iainkoaz lekora zordun naiz, deus ere bada ene baitan kutsu gabekorik. Hura hamarretan irakurri eta ehunetan irakurtzen badut ere, bethi iduri dagot geiago erraiten derautala, lehen erran derautan baino. Zinetsten banauzu, liburu hari itxekiko diozu zure bizitzeko, bai kanpoko, bai barreneko urratz guzien moldatzeko eta neurtzeko. Ezterautzu erraiten har dezazula bide hersirik, egon zaitezila ermitaua bezain bakarrik, besarka dezazula ohiz kanpoko bizitze thailurik: baina gogoan duena da, zure ekartzea girstinoaren perfekzionera, eta zuri zinezko debozionearen irakaztea nor nahiri dagokan antzeaz. Bertutea, zioen zahar batek ikus ahal baledi kolore biziz errepresentaturik, bere begitartearen botherez diren guziak ekar letzake bere ganako amoriora. Segur hori, ene ustez, ardietsi du Franzes de Sales handiak, hain amolsuki, hain konpliki bertutearen maiestatea, edertasuna eta grazia guzia begien aitzinean emaiten baiterauku ezen. Ordea haren liburuetan ohore, laudorio eta amorio geiago merezi duena da, zeren gure Salbatzaillea mirail eta molde harturik, hasi baita bera lehenik ongi egiten, eta gure irakasten: hala non erran baititeke, noiz ere haren konseilluak irakurtzen eta enseiartzun baititu, haren bizitzea ere irakurtzen duela, eta frogatzen haren

irakasmenduak errazago direla, hark aitzinetik obratu dituela ikusirik. Gizon hura ethorki noble eta aberats batetarik sorturik, nobleak hazten ohi diren bezala, bertutetan eta szienzia ederretan gazte danik ikasia zen. Erregeen Kortetan, Prinzeen Palazioetan, Partikularen etxetan, adiskideen batzarretan, munduko egitekoetan, debozionezko eserizetan, Ispikuari dagoskan eginbidetan eta lanetan hura gure mendean ikusi dugu hain ohorezki eta sainduki zebillala eta hari zela, non gure alfertasuna aithorturik, behar baigindeske ahalkez gorritu, ikustez munduko legeak, egiteko handiak edo gure ethorkizko ozpea gatik eskusatzen garelako egiazko Girstinoari dagokan bizitzeari lotzetik. Bada zer ere Gizon handi haren Filotheaz erran baitut, orobat haren Theotimoz, erran nahi da, Iainkoazko amorioaren gainean egin duen urrezko liburuaz, eta utzi derauzkigun eskiribu guziez erraiten dut. Hek eskuztatzen eta irakurtzen ditudanean gauaz eta egunazm ezub bagije garebn dotrinatik hitz ederrenak eta puntu prinzipalak hautatu, bildu eta beregain eman gabe, gero astiak diostanean, hekin erabilteko neure gogoan, ene baitan barrenasartzeko, eta hala erraitera, neure odolean eta sustanzian ahal bezanbat nahasteko. Hori da nik diodana Gizon saindu hartaz, eta hau da emaiten derautzudan konseillua, ene illoba prestua, baldin hura hautatzen baduzu zure saihetseko lagun eta Senekak zioen arauera, zure bizitzearen xuxentzaille eta nausi hartzen baduzu, hura zurekin bazendu bezala bazabiltza, eta haren keinura prestik bazaude, etzait urrikutuko nik zuri eman konseilluaz, eta zuk eztuzu sekulan izanen damurik hari iarraitzeaz. Hitz batez, ene illoba maitea, Horazok dioena erraiten derautzut, Iainkoak dizula osasuna, zaude zure gogara, eta abisu hau baino hobeagorik badakizu, gogotik egidazu parte, hobeagorik ezpaduzu, hautaz balia zaite ni bezala.

Koloniatik Apirillaren lehenean 1642

## OTHOITZA

*Alexandro VII gure Aita Sainduak egin Franzes de Sales Doatsuaren besta eguneko, zeina egin baitzen lehenik Erroman, Iondone Petriren eliza nausian, urtharrillaren 8, 1662*

### ANTIFONA

O Iainkoaren elizako Apez eta Ipizpiku merezizkoa, bertuteen obratzaille miragarria, haren pobluaren Arzain leiala, othoitze egiozu Iainkoari



gure gatik. O Franzes Doatsua, zarella gure ararteko Iainkoaren aitzinean. Arren gai gertha gaitezin Iesu Kristo haren seme gure Iaunaren promesez gozatzeko.

O Iainkoa, nahi izan duzuna arimen salbamenduko Franzes Doatsua zure Konesora eta Ipizpikua egin ledin guzia guzientzat; iguzu grazia, guk zure konseillu onez gidaturik, haren merezimenduak lagundurik, zure lorian sekulako bozkarioak ardiets detzagun. Hortaz gagozkitzu Iesu Kristo zure Seme, gure Iaunaren izenean, zeina Espiritu sainduaren batusanean zurekin bizi eta Errege baita Iainko bera sekula sekuloronekotz. Biz hala.

## GOMENDIOZKO OTHOITZA

O Iesus ezia, ene Iauna, ene Salbatzailea eta ene Iainkoa, hura ni zure Maiestatearen aitzinean ahuzpez iarririk, eskiribu hau zure loriaren aitzinamenduari konsekratzen diodala. Bizi etzatzu hartan dauntzan hitzak zure benedizinoz, arren, zeinen ere gatik hura egin baitut, arimek hura irakurriz har detzaten desiratzen deraustedan inspirazione sakratuak, eta bere othoitez ene gainera bereziki zure neurrigabeko miserikordiaren erakartzekoa; beldurrez bertzei mundu hunetan debozionerako bideak erakutsiz gero, neroni bertzean egon nadin bethierekotz ahalkaturik eta arbiaturik: aitzitik bizitze hilkizun hunetako kasuen eta perillen artean, zure gana fidel naizelako seinaleztat, neure bihotz guziaz hekin batean bozkariozko kantaz sekulakotz kanta dezadan ahoan dudan hitz eder hau: Bizi dadilla Iesus. Bizi dadilla Jesus. Bai, Jesus Jauna, bizi zaite, eta iar zaite gure bihotzetan Errege sekula sekuloronekotz. Biz hala.

## PREFAZA

*Ene irakurle maitea, othoitez nagotzu  
prefaza hunen irakurtzeaz zure eta ene satisfazinotan.*

Glyzera flokagilleak hain zotilki zeakien hainitz aldetara loreen ordenatzen, itzultzen eta nahasten, non lore berez hainitz floka molde egiten baitzuen; hala non Pausias Peintadorea, nor hobekienik bezala hari zela, bere koloreez hek ziren bezain bertze ardietsi nahiz, ezin bertzez hutsik

egon baitzen, zeren ezpaitzeakien bere peinturaren itzultzen, Glyzerak bere flokak egiten zituen bezanbat moldetara; halaber Espiritu sainduak bere serbitzarien mihiez eta eskiribuez emaiten dituen irakasmenduak hain bertze maneraz ordenatzen eta arrimatzentu, non haren Dotrina bethi bera bat delarik, guziarekin ere hartaz egiten diren liburuak hagitz diferent baitira bata bertzetik, hekin egiteko antze diferent arauera. Gerthuz, Introdukziona hunetan ezin eskiriba dezaket, eta ez tut nahi, ez behar ere eskiribatu, gure aitzinekoek debozionearen gainean iadanik argira eman dutenaz bertzerik. Lore berak eskaintzen derauskizut, ene Irakurlea, bainan hetaz egin dudan floka ezta hekinenak bezalakoa izanen, zeren hura bertzela arrimatu baitut.

Debozionezko libururik egin duten guziak hurren, iarri dira munduko tratuetarik urrun apartatu direnei irakazten, edo ezpere mundutik osoki apartatzen duen debozione suerterik irakatsi dute. Ene intenzionea da hirietan, mainadetan, Kortetan, Palazioetan eta bere bizitze thailuaz, kanpoko lanez bezanbatean, bide komun batetara obligatuak direnei irakasteko, iakinik hainitzetan horrelakoek buruan sartu duten ustezko ezinaren aitzakiaz ez tutela orhoitu ere nahi bizitze debotari lotzeaz, zineten dutela, nola ezpaita ausart den animaliarik *Palma Christi* daritzon beharraren hazitik dastatzera, halaber ez tala nihor Giritinoaren debozioneko palma ardietsiren duelako uste behar duenik, munduko egitekoetan balsaturik dagozino. Eta nik erakuzten derauet ezen, perla-amak itsasoan bizi diren bezala itsas-ur xortik hartu gabe, eta nola Kelidoniako Irla alde hetan ur ez tizko ithurrik baita, nola Piraustak ere hegaldaka baitabilta suaren karretan bere hegala erre gabe, halaber arima bihotzduen eta fermu batek bere bizia daramakeiela munduan, munduko egiterik hartu gabe, aurki dezakeiela debozione ez ti batetako ithurbururik mende hunetako uhin gazien eta zaminen erdian, eta hegaldaka dabilkeiela lurreko guthizietako karren artean, bizitze debotazko desir sakratuen hegala erre gabe. Egia da hori gaitz dela, eta halakotz desira nuke hartara bere antzea ekar balezate berokiago, nihork hunerainokoan oraino egin duen baino, ni febleena naizelarik eskiribu hunez enseiatzen naizen bezala lan saindu horri bihotz handi batez lotuko zaizkonei nolazbait heltzera.

Halarik ere ordea Introdukziona hau ezta ilki argira, nik neure buruz edo oldez nahirik. Arima ohorez eta bertutez egiazki bethe batek zenbait urthez gerostik Iainkoa ganik izan zuenean bizitze debotera ardietsi nahizko grazia, desiratu zuen ni partikularki hartarakotzat hel eta lagun nenkion, eta nola hainitz aldetara zordun bainintzen haren gana, lehen aspaldi danik haren baitan debozionerako antze hainitz ikusirik, artha



handi batez iarri nintzen hari ongi irakazten; eta hura gidatu nuen ondolan haren desirari eta kondizionarioi zegosten eserziza eta bide guzietarik, utsi niotzan eskiribu eta seinale batzu, hetaz behar orduan baliatzeko. Hark gero erakuzi ziotzan gizon handi iakinsun eta Iainkotiar bati, zein gizonak, ustez hainitzek probetxu athera lezaketela hetarik, handiro gomendatu baitzerautan hek kanpora netzala guzien serbituko. Hori errazki ardietsi zuen ene ganik, zeren haren adiskidetasunak eta iujeamenduak esku eta bothere handia zuten ene borondatean eta iujeamenduaren gainean.

Bada den guzia hobeago eta ederkiago egitea gatik, hura berriz miraturik eta irakurririk, hartan zenbait elkarren ondoko iarraitkiza ezarri dut, hainitz abisu eta irakazmenu geiago emanik ene intenzionearen arauera; bainan hori guzia egin dut astirik bat ere hurren enuela. Hargatik eztuzu hemen deusik eztudiatu ikusiko, baina xoilki bilduma bat fede onezko konseilluz egina, deklaritzen ditudala hitz ageriez eta adi diteskeien bezala, behintzat hala egiteko desira izan dut; hitzkuntzako edergailluz bezanbatean, nola hainitz bertze egiteko baitut, eztut gogorik ere izan hetaz orhoitzeko. Ene hitzak erraiten diotzat Filotheari, zeren nola hainitz arimaren probetxuko hari bainaiz, lehenik batentzat xoilki egin nuen eskiribua, hari emaiten diot debozionatean iarri nahi duten guziei dagoten izena, ezen Filothea erran nahi da Iainkoa maite duen arima, edo arima Iainkotiarra.

Behatzen diodala beraz hortan guzian debozionateko desiraz Iainkoaren amoriora heltzeko gogo duen arimari, Introdokzioe hau egin dut bertz partetan berezirik. Lehen partean enseiatzen naiz zenbait abisuz eta eserziziez Filothearen desir sinplearen ekartzera erresoluzio oso batetara, zein erresoluzioe noizbait finean egiten baitu konfesionen jeneralaren ondoan zin zinezko premez eta protestazione batez, gero komunione sainduan bere burua emaiten dioela bere Salbatzaillari, eta Salbatzaile hari berea, doatsuki sartzen da haren amorio sainduan. Hori eginik, aitzinago haren gidatzea gatik erakuzten diotzat bi bide handi geiagotik guziagora bere buruaren bat egiteko Iainkoaren maiestate sainduarekin: bata da Sakramenduez usatzea, zeren hek direla bide Iainko guzien ona heldu da gure gana, bertzea da Orazionea, zeren hartaz Iainkoak bereganatzen gaitu. Hunetan emaiten dut bigarren Partea. Hirugarren Partean erakuzten diot nola enplegatu behar den bere aitzinamenduari hobeki dagozkan bertutetan, eta hargatik nihon bertzetan edo bere buruz ezin errazki hartuko zituen abisu partikular batzu xoilki emaiten diotzat. Laugarren Partean agertzen diotzat bere etsaien zelatak eta sareak eta era-

kuzten diot nola hetarik itzul eta urrunago iragan ditek. Finean bortzgarren partean hura aphur bat erakartzen dut apartera bere burua gana, freska dadin, hats har dezan, eta indar berririk bil dezan gatik, arren gero agudokiago bidean abia, eta bizitze debotean aitzinago dadin.

Mende hunetako jendea xoil da bihurria: badakusat aitzinetik eta urruitik, hainitzek erranen dutela Fraidei eta debozionetiarrei baizen eztagotela hain antze partikularik egitea nihor saindutasunera gidatzeko; hartarakotzat asti eta epe geiago behar dela, nik dudan Diozesa bezain pisuaren kargua duen Ipizpikuak ahal dukeien baino; horrelako lanak barraiatzenegi duela kontuzko gauzetan enplegatu behar den adimendua.

Nik ordea diotsut, ene Irakurle maitea, San Denys handiak zioen bezala, Ipizpikuei, beregainki dagotela arimen perfektionatzea, zeren hekin Ordena gainekoa baita gizonen artean, Serafinen Ordena Angeruen artean gainekoa den bezala; hala non Ipizpikuek ahal duketen astia ezin hobeki eman baitezakete debozionateko tratuetan aino. Lehenagoko Ipizpikuek eta elizako Dotorek gutiengan guk bezanbat afekzioe guten bere karguetara, halarik ere artha zedukaten bere gomendioan iarten ziren arima partikularren gidatzeaz, hekin guthunetarik ageri den bezala. Hortan Apostoluei zerraisten, zeinek mundu guziko ustaillean bihi buru seinalatuago batzu biltzen baitzitusten afekzioe berezi eta partikular batez. Nork eztaki Thimoteo, Tiro, Filemon, Onesimo, Santa Thekla eta Apia, Iondone Paulo handiaren umeak zirela San Marko, eta santa Petronila, Iondone Petrirenak ziren bezala? Santa Petronila diot, zeina, Batroniok eta Galoniok ederki frogatzen duten arauera, ezpaitzen Iondone Petriren belhauneko umea, baina xoilki hren alaba espiritualak baitzen. Eta Iondone Ioanis ebanjelistak ez othe zuen bere guthunetarik bat eskiribatu Elektra andre debota gana?

Pena da, aithortzen dut, arimak, zein beregain gidatzea, baina nohor arintzen eta konsolatzen duen pena da, eta ogi epailleek edo beruinsaleek duten bezalako pena da, ezen hek eztira nihoiz ere heuregiago, lan eta karga handirik daramatenean diren baino. Trailla da egiakzi, baina lotzen zaikonei bihotza sosegatzen eta bizitzenderauna hartarik heldu zaiena ezitasun gozoaz, usain onezko *zinamonak* egiten derauen bezala, hura Arabia doatsuan darabillatenei.

Erraiten da tigre emeak kausitu duenean bere umetarik bat, ihiztariak bidean utsiten dioena haren eragoiteko eta gibelatzeko, berak bertzeak eramaitaen dituen bizkitartean, ume arukitu hura berea gainean hartzen duela, zenbat ere lodi-larri baita, eta eztela hargatik pisuago aitzitik arinago dela egiten duen lasterrean haren gordetzeko bere lupeko zilho-



an, naturalezazko amudioak hura bere kargaz arinduz. Zenbatenez gogotikago aitaren bezalako bihotz batek bere karguan hartuko du prefekzio-ne sailduaren desiran arukitu dukeien arima? Zenbatenez hura mindurikiago besoetan eta bulharretan iasanen du, ama batek bere haurtxoa isaiten duen bezala, fardela maite hartaz unhatu gabe? Ordea, dudarik gabe, hori da aitari dagokan bihotz baten egitekoa, hargatik eztaritzate aski dela bere diszipuluei erraitea *gure haurrak*, baina are mindurikiago erraiten derauezate, *gure haurtxoak*.

Gainerakoan, ene Irakurle maitea, egia da eskiribatzen dudala bizitze debotaz, debot enaizelarik; baina enago segur gabe noizbait debot izaiteko, eta hau da oraino zure debozionearen irakazteko bihotzik emaiten derautan afekzioea, ezen gizon iakin handi batek zioen arauera, ikazteko bide ona, da ikazten iartea; hobeia, da enzutea; hobereana, da irakaztea. San Agustinok bere Florentina debota gana eskiribatzen duenean erraten du, bertzei partitzeko ofizioak edo eginbideak dadukala merezimenduaren lekua gero hartzeko, eta irakazteko ofizioa dela ikazteko zimendua.

Alexandrok hanbat maite zuen Konpasphe donzeilla ederra peinta arazi zioen Apellez zeritzon beregaineko peintadoreari, eta Apellesek Konpasperean edertasuna luzaro miratuz eta kontsideratuz haren begitar-tearen arraidurak telaren gainean trazatzen zituen eredura, haren amoriozko dardoak sartu zituen bere bihotzean, eta hala gertatu zen hartaz pasionaturik, non Alexandrok hori ezaguturik, urrikalduz hura eman baitzioen emaztetzat, eta horrela bere Peintadorearen amorea gatik bera gabetu zen munduan zuen maiterik maitenaz; hortan, dio Pliniok, bere bihotzaren handitasuna erakutsi zuen, eginen zuen bezanbat, biktoria seinalaturik eraman balu bere etsaietarik.

Bada iduri dagot, ene irakurle maiea, Ipizpiku naizenaz gero, iainkoak nahi duela gizonen bihotzen gainean peinta detzadan ez xoilki ohiko bertuteak, baina oraino haren debozione guziz maitea eta guziz oneritsia; eta nik lan hura gogotik hartzen dut, bai ene ganik hori nahi dutenen obeditzea eta ene eginbidearen egitea gatik; bai zeren esperanza baitut debozionea bertzeen arimetan eskiribatzen dudana bizkitartean, agian enea hari sailduki amoratuko zaiola. Bada Iainkoaren Maiestateak nihoiz ere ikusten banau hartaz biziki ukiturik eta harturik, hura emanen deraut sekulako espostzat. Errebeka ederra eta garbia, Isaken abreak eradanez, hautatu izan zen haren espos izaiteko, eta hartarakotz hark ez eman izan zeiskon beharri-dilindakariak eta urrezko esku-muturioiak; ni halaber fida naiz ene Iainkoaren neurrigabeko ontasuna baitan haren ardi maiteak

ekartzen ditudanean debozioneko ur salbagarrietara eginen duela ene arima debozionearen espos, emanen dituela ene beharrietan bere amudio sailduaren urrezko hitzak eta ene besoetan hekin arauera obratzeko indarrak, zeinetan baitatza egiazko debozionea, othoitzez nagokala Iainkoaren maiesteari hura digula niri eta bere Elizako ume guziei, zein elizaren eskuetan eta iujeamenduaren azpian ezarri eta sekulakotz utsi nahi baititut ene eskiribu, obra akzioe, hitz, borondate eta pensamendu guziak.

Anerin Santa Madalena egunean, 1608



**FILOTHEA**  
**EDO BIZITZE DEBOTERAKO**  
**INTRODUKZIOEA**  
**LEHEN PARTEA**

Non baitauntza behar diren abisuak, eta exerzizak arimaren gidatzeko, bizitze debotaz hartu duen lehenbiziko desiratik, haren besarkatzeko erresoluzione oso batetaraino.

**Zein den egiazko deboziona**

**LEHEN KAPITULUA**

Baduzu, Filothea, debozionaeren ardiesteko goga eta desira, zeren, nola giristino baitzara, badakizu bertute hura Iainkoaren Majestateari guziz eder zaiola. Zeren ordea egiteko baten hastetik egiten diren huts xipiak, aitzinerakoan emendatzen baitira, eta azkenean ezin kasik erremedia baititezke, behar da, gauza guziak baino lehen, iakin dezazun, zer den debozionaeko bertutea: Ezen, nola ezpaita egiazkorik, bat baizen, bai falsorik eta banaloriazkorik hainitz, ezagutzen ezpaduzu, zein den egiazkoa, engana ahal zindezke, eta iarraiki zinkidizkeo zenbait deboziona erhori, errebelaturi eta legez kanpokori.

Areliok peintatzen ohi zituen egiten zituen imajinen begitarte guziak maite zituen emazteen idurira eta airera: eta guziak ere peinturatzen dute deboziona, nork bere buruaren eta gogoaren arauera. Nor ere barurtzera emana baita, uste izanen du xoil debot dela barurtzen bada, bihotza herraz bethea ekartzen duelarik, eta ausart eztela mihiaren bustitzera mahats-arnoz, ez urez ere, hain zuhur eta hersia baita ezen, eztu dudarik eginen haren sartzeaz lagunaren odolean barrena bere erran gaixtoez eta falsoez. Bertzeak bere burua debot daduka, zeren hainitz orazione erraiten duen egun guziez, gero hekin ondoan haren nihia urtzen delarik hitz garratz, gaitz, gaixto muthiri, eta urguillu suerte guzietan, etxekoen eta hauzoen artean. Bertzeak gogotik aumoina atheratzen du molzatic pobrei emaiteko, bainan emadurarik eztezake bihotzetik ekar, bere etsaiei barkatzeko. Bertzeak barkatuko deraue bere etsaiei, bainan bere hartzekodunez konturik eztezake egin, iustiziaren bortxa hutsez baizen. Jende hek guziak komunzki debotzat ahotan dabilta, eta bizkitartean eztira debot bat ere. Saulen jendeak Dabiten bilha zebiltzan bere etxean: Mikolek zurezko imajina bat haren ohean emanik, eta Dabiten tresnez estalirik, zinetsarazi zerauen Dabit bera zela, eta lo zetzala eriz: hala ere hainitz estaltzen dira deboziona sainduari dagotzan obra kanpoko batzuez; eta munduak zinetsten du debot direla, bainan egiazki eztira debozionaeren itxurak baizen.

Deboziona egiazkoak eta biziak, Filothea, bertze guziak baino lehen, nahi du Iainkoaren amudioa; aitzitik deboziona ezta Iainkoaren egiazko amudioa baizen; ez ordea nola halako amudioa, zeren Iainkoaren amu-



dioa, gure arima edertzen duen bezala konsideraturik, grazia deitzen da; eder egiten baigaitu Iainkoaren begien aitzinean; obra onik egiteko indarra emaiten deraukun bezala konsideraturik, deitzen da karitatea, baina ardietsi duenean perfektionearen puntura, non, ez xoilki obra onik eragiten baiterauku, baina bai obra arazitzen baigaitu arthatsuki, maiz eta agudoki, orduan deitzen da deboziona. Austruxak eztira behin ere hegaldatzen, oilloak bai, baina pisuki, eta hala ere beheara, eta gutitan, ordea arranoak, usoak, enadak, maiz, laster, eta gora hegaldatzen dira: hala bekatoreak eztira hegaldatzen Iainkoa baitara, aitzitik bere laster guziak egiten-tuzte lurrean, eta lurrarentzat; deboziona oraino ardietsi ez tuten jende prestuak Iainkoa baitara hegaldatzen dira: hala bekatoreak eztira hegaldatzen Iainkoa baitara, aitzitik bere laster guziak egitentuste lurrean, eta lurrarentzat; deboziona oraino ardietsi ez tuten jende prestuak iainkoa baitara hegaldatzen dira bere obra onez, bakanki eta gutitan ordea, baratxe eta pisuki; presuna debotak hegaldatzen dira Iainkoa baitara, maiz, agudoki eta gora. Hitz batez, deboziona ezta bertzerik, agudotasun eta bizitasun espiritual bat baizen, zeinaren bidez karitateak egiten baititu bere obrak gure baitan, edo guk egiten baititugu haren bertutez agudoki eta afekzionatuki. Eta nola karitateari baitagoka gure Iainkoaren manamendu guzien jeneralki, eta non nahi, obra arazitzea, hala ere debozionario dago-ka guri hekin eragitea agudoki eta arthatsuki. Hargatik nork ere ezpaititu Iainkoaren manamendu guziak begiratzen, ezin estima diteke ez on; ez debot dela; halaz eta on izaitekotz, karitatea bere baitan izan behar duenaz gero; eta debot izaitekotz, karitateaz bertze alde, karitatezko obretan bizitasun eta agudotasun handi bat ekarri behar duenaz geroztik.

Eta zeren deboziona baitago karitate ekzelentaren gradu batetan. ez gaitu xoilki agudo, fexo, eta arthatsu egiten Iainkoaren manamenduen begiratzaera, baina are geiago, erxatzen gaitu ahal bezanbat obra onik agudoki eta gogotik egitera, manatuak eztirelarik, baina xoilki konseillatuak eta inspiratuak. Ezen nola zenbait eritasunez gizon sendatu berria nezesario duen bezanbat baitabilla, baratxe ordea eta pisuki, hala bekato-rea bere bekatuetarik sendatu denean, badabilla Iainkoak manatzen duen bezanbat, badarik ere pisuki eta baratxe, deboziona ardietsi duen artean; zeren orduan gizon ongi sendatua bezala, ez xoilki dabilla, baina oraino lasterka doa, eta iausika Iainkoaren manamenduen bidean, eta gero aitzinago iragaiten da, eta laster egiten du zeruko konseilluen eta inspirazio- neen bide xidorretan. Finean ezta diferentzia geiago karitatearen eta debo- zionearen artean, karrarean eta suaren artean den baino. Zeren karitatea, nola su espiritual bat baita, hagitz irazekia, pitztua eta karreztatua denean,

deboziona deitzen da; hala non deboziona ezpaitio karitatearen suari bertzerik emaiten geiago, karra baizen, zeinak egiten baitu karitatea erne, agudo eta arthatsu, ez xoilki Iainkoaren manamenduen begiratzaera, bai- nan eta zeruko inspirazioen eta konseilluen besarkatzaera ere.





## Debozinearen propietatea eta ekzelenzia

### BIGARREN KAPITULUA

Israeltarrak gibelatzen zituztenek lur prometaure ioaitetik, erraiten zerauen herri hark iretsten zituela han zeudezinak, erran nahi da, hain gaixtoa zela airea, non hartan ezin bizi baitzitekeien nihor luzeki, eta berriz bertze alde, hango jendeak hain harrigarriki handi zirela, non bertze gizonak iaten baitzituzten larrepothe gisa. Hala ere munduak, Filothe maitea, beltzten du deboziona ahal bezanbat, peintatzen dituela presuna debotak bisaia gaitz, triste eta zimurtu batekin, eta leku guzietan darasala ezen deboziona emaiten dituela humore melankoniosak eta ezin pairatuzkoak. Bainan nola Iosuek eta Kalebek segurutzen baitzituzten Israeltarrak, ez xoilki lur prometatua ona zela eta ederra; baina bai han egoitea dulce izanen zela, eta etzela arraitasunik baizen izanen, hala Espiritu Sainduak Saindu guzien ahotik, eta gure Salbatzaileak berak segurutzen gaituzte bititze debota, bititze ezta dela, bititze doatsua, eta maitatzekoa.

Badakusa munduak barurtzen direla debotak, othoitzetan daudezila, atsekabeak eta bidegabeak pairatzen dituztela, eriak serbitzatzen dituztela, pobrei aumoina emaiten derauela, beillak egitentuztela, bere kolera bortxatzen dutela, bere pasioneak eta gutziak ithotzen dituztela, sensuetako plazerez berak gabetzen direla, halako eta bertze suertetako obrak egitentuztela, zeinak beronez, bere izaitzez, eta nolakoak diren konsideraturik, gaitzak baitira eta garratzak. Bainan munduak ezakusa barreneko eta bihotzeko deboziona, zeinaren bertutez akziona hek guziak amolsu, dulce eta erraz baitira. Miratzatu erleak xarpotaren gainean, han aurkitzen dute ur hagitz kirats bat, bainan edoskiz hura ez tira ganbiatzen dute, zeren hekin naturalezak hala baitakarke. O mundukoa! arima debotek hainitz kiratstasun kausitzen dute bere mortifikazioneko exerjizetan: egia da, bainan hek egiten dituzten orduan berean ez titasunera eta gozotasunera ganbiatzen zute; suak, karak, arrodak, ezpatak iduritzen zitzaizten Martirei loreak eta usain onezko keak zirela, zeren debot ziren. Baldin deboziona eman ahal badieze ez titasunik krueltasun handienei eta herioari berari, zer eginen du bertutezko akziona gatik? Azukreak ez tizentu fruitu zorhitsu eta ondugabeak, edekiten deraue gordintasuna zorhitsu eta ondu direnei, eta begiratzen gaitzik egitetik. Bada deboziona

da egiazko azukre espirituala, mortifikazionetan kausitzen den kirastasu-na eta latztasunak kentzen du, eta beagiratzentu konsolazionaek kalterik egitetik, eramaiten deraue pobrei bere tristegitasuna, eta aberatsei bere arthatsuegitasuna; hura dela moien bertzeren maliziaz bidegabezki kaltetan erori dena, eta atsekabeztaturik dagoena ezta deskonsolaten, eta faborea bere alde duena ezta urguillutzen, begiratzen bititze apartatua daramatenak melankoniatzetik, eta konpainietan dabilzanak largoegi izaitetik. Deboziona da sua neguan, eta ihintza udan: badaki frankiaz gozaten, eta pobrezia ere pairatzen; ohoretik bezala, mespreziotik ere orobat atheratzen du probetxu; atsegina eta atsekabea bihotz bethi kasik berdin batez hartzen du, eta gozotasun ezti eta miragarri batez bethetzen gaitu.

Miratzatu Iakoben zurubiak (zeren deboziona egiazko imajina da) saiets biek, zeinen artetik ikaiten baigara, eta zeinetan sartuak baitira pausamakillak, erreprezentatzen dute Iainkoaren amudioa, orazionaek ardiesten duena, eta erreprezentatzen zuten Sakramenduak, amudio hura emaitendutenak: pausamakillak ez tira bertzerik, karitatearen gradu eta gradu baizen, zeinen bidez baigabiltza bertutez bertutera, edo iautes gure obrez lagunari heltzera, edo kontenplazioneaz ikanez Iainkoarekiko batasun amolsura. Ordea miratzatu, othoi, zurubien gainean daudezinak, gizonak dira Angeruzko bihotzak ituztenak, edo Angeruak dira gizonen bezalako gorputzekin: ez tira gazte, bainan badirudite gazte direla, zeren sendo dira eta agudotasun espiritual batez betheak; hegalak ituzte hegaldatzeko eta Iainkoa baitara oldartzen dira oraziona sainduak; oinak ere ituzte gizonekin ibilteko konbersaziona saindu eta amoriozko batez: hekin begitarteak eder dira eta arrai, zeren gertatzen zaizten gauza guziak plazerki eta mansoki hartentuzte, hekin zangoak, besoak eta burua ageriak dira, zeren bere afekzionetan eta obretan ez tute bertze borondaterik Iainkoari on eta eder zaionaren egiteko baizen: gainerako gorputza estalia dute, bainan arropa eder eta arin batez, zeren serbitzaten dira, egia erraitera, munduak eta munduko gauzez, bainan manera garbi batez, hetarik hartzen dutela bere kondizionaek agintzen duen bezanbat xoilki; halakoak dira presuna debotak. Zinets nazazu, Filothe maitea, deboziona da ez titasunen ez titasuna, bertuteen erregina, karitatearen perfekziona. Baldin karitatea esne bat bada, deboziona haren goiena da, landarea bada, deboziona haren lorea da; harri preziatua ada, deboziona haren distiadura da; balsamu preziosa bada, deboziona haren usaina da, eta usain ona gizonak bortitzten dituen, eta Angeruak alegratzen.



## Deboziona da gotela jende-thaillu guziei, zer ere ofizio eta estatu duten

### HIRURGAREN KAPITULUA

Iainkoak mundua kreatu, eta bere parte guziez konplitu zuenean, manatu zituen landareak, eta belhar suerte guziak, iasan zezatela, zeinek bere motharen araberako fruitua; hala ere manatzentzu giristinoak, zeinak baitira Elizaren landare biziak, ekar dezatela debozionaeko fruitu, zeinek bere ofizioaren eta ezatuaren eredura. Debozionaeri bertzela iarraiki behar zaio Aitonon Semea, eta bertzela ofizialea, langillea eta mutilla; bertzela Prinzea, eta bertzela emakume alharguna, ezkongia edo ezkondua; eta ez hori xoilki, bainan debozionaeko obretan ere, behatu behar da bat-bederaren indarretara, egitekoetara, eta eginbidetara. Othoi, Filothea, arrazoin othe lizate, Ipizpikuak nahi balu gelan egon gorderik, Kartrusak bezala? eta ezkonduak nahi ezpalute deus ere bildu, Kapuzinek baino geiago? ofizialeak iragan baleza eguna Elizan, fraideak bezala? eta fraidek sar baleza burua inkontru eta egiteko suerte guzietan lagunaren serbitzuko, Ipizpikuak bezala? Deboziona hura ez othe lizate irrigarria, erreglatik ilkia, eta ezin pairatuzkoa? Badarik ere falta hura maiz gertatzen da, eta munduak, nola ezpaitu emaiten, edo ezpaitu eman nahi diferentziarik debozionaeren eta bere burua debot daukatenen indiskreziorearen artean, badarasa, eta deboziona gaizki aipatzen du, faltarik eztuelarik desordenu hetaz.

Ez, ez, Filothea, debozionaek eztu deus ere gaizkitzen, egiazkoa denean; aitzitik den guzia konplitzen du, eta noiz ere nohori dagokan ofizioaren kontra iarten eta hari baita, duda gaberik, falsoa da. Erleak, dio Aristotek, eedokitzen du bere ezta loretarik, hei kalterik egin gabe, osorik eta freskorik utzten dituela, kausitu dituen bezala: bainan egiazko debozionaek hobeki egiten du oraino. ezen, ez xoilki eztu gaixtatzen, ez ofiziorik, ez egitekorik bat ere, aitzitik ordenatzentu eta ederkitzen. Harri preziatu suerte guziak eztaian barrena emanik, hartarik athera direnean, distiatzenago dute, zeinek bere kolorearen arauera: hala ere bere ofizioari ederkiago lotzen zaio, eta gogotikago hari da nihor, hartzen duenean deboziona lagun. Etxeko mainada baketiago da, senhar-emaztearen arteko amudioa garbiago, Prinzeari zor zaion serbitzua fidelago eta egiteko suerte guziak eztiago eta gogarakoago dira.

Enganamendua da, bai eta fedearen kontrako puntua, bizitze debo-taren deserratea soldaduen artetik, ofizialeen botiketarik Prinzeen kortetik, jende ezkonduen etxetik. Egja da, Filothea, kontenplaziona hutsera emana den deboziona, ermitauei eta fraidei dagotena, eztagokeiela tratu hetan: bainan hirur deboziona suerte hek bertze alde direla, badira hainitz bertze suertetako, munduko estatuetan dabilzanez prefekzionaren emaiteko onak. Abraham, Isaak, Iakob, Dabid, Iob, Tobias, Sara, Errebeka eta Iudith lekuko dira Lege zaharraren liburuetan; eta Lege berrian Sain Iosef, Lidia ea S. Krispino, bere botiketari xoil debot izan ziren; Santa Ana, Santa Monika, Akila, Priszila, bere etxeko filden artean; Kornelio, San Sebastiano, San Maurizio armen eta gerlateen artean. Konstantino, Helena, Sain Luis, Amadeo doatsua, Sain Eduard bere tronuetan. Bai eta gertatu da, hainitzek galdu dutela prefekziona bakarrik eta jendetarik apartaturik egonez, bakar-lekuak haindesiratzekoak direlarik prefekzionaren ardiesteko, eta hura begiratu dutela jendeen artean ibilliz, dirudielarik munduko abarrotsak hain guti faboratzen duela prefekziona. Loth, dio Sain Gregorio, kasto eta garbi izan zen hirian zebillala, eta handik ilkirik, bera bakarrik zegoela lizundu zen. non ere baigara, prefekziona ardiets dezakegu, eta gogo hartara behar dugu etxatu.



## Gidari baten beharra dugula debozionatean sartzeko eta aitzinatzeke

### LAUGARREN KAPITULUA

Tobias gaztea manatu izan zenean Erragezara ioaiteaz; eztakit, dio, biderik, zoaz bada, diotza berriz Aitak, bilha zazu gizon bat zure gidatzeke. orobat nik ere, Filothea, erraiten derautzut, nahi zaizko zinetan debozionateari iarraiki? bilha zazu zenbait gizon prestu zure gidatzeko haren bidean. Hau da abertimenduen abertimendua; zeren ere bilha baitzabiltza, dio Abila debotak, sekulan eztuzu Iainkoaren borondatea hain seguratu ki aurkituko, nola aurkituko baituzu aitzineko debotek hanbat gomendatu eta iduki duten obediencia humil haren bidez. Theresia ama doatsuak, ikusirik Katalina Korduako andreak penitentzia handiak egiten zituela, desir handi bat hartu zuen hark bezala egiteko, bere konfesoraren abisuaren kontra, eta hura debekatzen zuelarik halakorik egitetik, aiertzen zen haren ez obeditzera puntu hartan. Eta Iainkoak erran zioen, ene alaba, bide onean eta segurean zabiltza. Ikusten duzu hark zer penitentzia egiten duen? Nik ordea kasu geiago egiten dut zure obedienciaz. hala ere bertute hura hanbat zuen maite, non bere superioerei zor zerauen obedienciaz lekora, botu guziz partikular bat egin baitzioen gizon ekzelent bati, haren obeditzeaz, obligatzen zela haren konseillu eta erran guziei iarraikitera. Hala egiteaz neurrigabeki konsolatu izan zen, bai eta hainitz bertze arima prestu, haren ondoan, eta hura baino lehen, handiro konsolatu dira bere borondatea iainkoaren serbitzarien borondatearen azpian emanez, Iainkoaren hobeki obeditzea gatik, zein baita Santa Katalina Sienekoak fingabeki laudatzen duena bere liburuetan. Santa Elizabet Prinzesa debota obediencia paregabeko batekin iarri zen Iaun Konrad Doktoraren eskuetan. Eta huna Sain Luis Franziaiko errege handiak hil baino lehen bere semeari utzi ziotzan abisuatarik bat, Konfesa zaite maiz, hauta zazu egiteko dituzten gauzak seguratu ki irakats diatzaketzun konfesor iakinsun eta zuhur bat.

Adiskide fidela, dio Eskiritura Sainduak, begirale eta defendatzaile bortitza da, hura ediren duenak tresor bat ediren du. Adiskide fidela da bizia emaiten duen, eta hiltzetik begiratzen duen miritzina; Iainkoaren beldur direnek hura edireiten dute. Iainkozko hitz hauk, dakusazun bezala, behatzen diote sekulako bizitzeari, zeinaren ardietstea gatik guza

guzien gainetik halako lagun baten beharra baitugu gure akzionateen gidatzeko haren abisuez eta konseilluez, eta manera hartaz gure begiratzeko gaixtoaren saretatik eta enganamenduetarik; adiskide hura guretzat izanen da zuhurziaren tresora bezala gure aflikzionatean, tristeziatan eta erortetan; hura izanen dugu miritzinatez gure bihotzen arintzeko eta konsolatzeko eritasun espiritualetan; hark begiratzeko gaitu gaizkitik, zerbait onik badugu, hura eginen du hobe, eta zenbeit flakotasun gerta dakigunean, hura tratatuko du heriotzeraino hedatzetik, zeren hartarik atherako baigaitu.

Ordea nork aurkituko du adiskide hura? zuhurrak ihardetsten du, Iainkoaren beldur direnek, erran nahi da, bere aitzinamendu espiritualak hagitzen desiratzen duten humillek hura aurkituko dutela. Hala eta, Filothea, hambat doatsuaz gero ida on batekin ioaitea debozionatearen bide saindu hunetan, zagotza zinetan Iainkoari othoitzez, dizula bere bihotzaren arauerako bat, eta eztagizula dudarik, zeren Angeru bat zerutik igorri behar balerautzu ere, Tobias gaztearek egin zioen bezala, on eta fidel bat emanen derautzu.

Bada kontu egin behar duzu bethiere gida hura zuretzat Angeru bat dela, erran nahi da, hura aurkituko duzunean, eztagizula gizon simple bat bezala; eta etzaitezila fida haren batan, ez eta haren munduko iakintasunean, bainan fida zaite Iainkoa baitan; hura zure alde iarriko baita, eta minzatuko baitzaitzu gizon haren mihiaz, emaiten duela haren bihotzean eta ahoan zer ere behar baita zure zori onik ekartzeko: hala non hura enzun behar baituzu zerutik iauststen den Angeru bat bezala, zure halaber zerura eramaiteko.

Minza zaite harekin bihotz ageriz, garbiki eta fidelki, hari klarki erakusten diozula zure ongi eta gaizki guzia, bernizarik eta disimularik gabe, eta bide hartaz zure ongia frogaturen da eta segurago izanen da, eta zure gaizkia erremediaturen da eta onera itzuliko; handik arinduko zara eta bortitztuko zure aflikzionatean, handik ordenatuko dituztu zure konsolazioneak eta neurriz hartuko. Duzun haren baitan fidanza guziz handi bat erreberenzia sakratu batekin, hala non erreberenziak guti eztezan fidanza, eta fidanzak traburik ekar ezti ozon erreberenziari; fida zaite haren baitan, alaba batek bere aitari ekartzen dioen bezalako errespetuekin, zagotza errespetuz seme batek bere ama baitan duen bezalako fidanzarekin. Hitz batez, behar da adiskidetasun hura den bortitza eta ezti, guzia saindu, guzia sakratu, guzia Iainkozko eta guzia espiritual.

Hartarakotzat hauta zazu gida bat millaren artetik, dio Abilak, eta nik diot hamar millaren artetik; zeren erran ditekeien baino gutiago edi-



reiten da ofizio hartako gai eta baso denik. Behar da karitatez, iakintasunaz eta zuhurzia den bethea; hirur parte hetarik baten eskasa badu, bada peril; ordea berriz erraiten derautzut, eska zakizko Iainkoari, halako bat dizula, eta hura ardietsi dukezunean, benedika zazu Iainkoaren Majestatea, zaude fermu, eta etzabiltzala bertzerik bilha, aitzitik zoaz sinpleki, humilki eta fidatuki, zeren xoil zori onezko bidea eginen duzu.

## Hasi behar dela arimaren purgazionetik

### BORTZGARREN KAPITULUA

Loreak, dio Espos Sakratuak, ageri dira gure lurrean, garbitzeko eta ebakitzeko denbora etorri da. Zein dira gure bihotzetako loreak, O Filothea, desir onak baizen? Bada ageri diren bezain sarri, puda hartu behar da eskuan gure konszienziatik obra hillen, eta sobera diren guzien ebakitzeko.

Atz-herriko alabak israeltarrarekin esposatsekotz behar ditu bere gathibusuneko arropak erauntsi, bere behatzak motztu eta bere buruko illeak ebaki; Iainkoaren Semearen espos izaiteko ohorearen bilha dabillan arimak ere behar du gizon zaharra erauntsi, eta berria iauntsi bekatua utzirik, gero Iainkoaren amoriotik hura errebelatzen eta gibelatzen duten trabu suerte guziak behar ditu motztu eta ebaki; gure osasunaren lehenbiziko hasteada ur gaixtoetarik purgatzea. Iondone Paulo berehala purgatu izan zen purgazione oso batez, Santa Katalina Jenekoa ere, Santa Madalena, Santa Pelajia, eta bertze batzu; bainan berehalako purgazione hura mirakuilluz da guzia eta ordinariozko legetik kanpoan, graziaren bide komunaz bezanbatean, nolakoa baita hilletarik pitzberritzea, naturalezaren legea konsideraturik, hala non ezpaitugu halakoaren esperanzarik behar. Ordinariozko purgazionea, dela gorputzena, dela arimena, ezta egiten baratxe, gerotik gerora, aitzinatuz eta aitzinatuz, nekez eta astirekin baizen.

Angeruek hegalak ituzte Iakoben zurubien gainean, bainan ez tira hegaldatzen; aitzitik ikaiten dira eta iautsten bata bertzearen ondoan, pausutik pausura bekatutik debozionera berriz ikaiten den arima konparatzen da argi begiarekin, zeinek goiti ilkiten denean ezpaititu berehala ilhunbeak kasatzen, bainan baratxeka; emeki eta baratxe egiten den osasuna, dio midikuak, segurago da bethiere. Bihotzeko eritasunak, gorputzekoak bezala, zamariz heldu dira, eta laurerroz, bainan oinez bihurtzen dira eta urrats geldian.

Bihotz ona beraz eta pazienza behar da, O Filothea, egiteko hune-tan. Helas! zein urrikalkizun diren arimak, zeinek dakusatela hainitz eskasetan erorkorrak direla, debozioneari emaiten dioten denbora baten buruan hasten baitira unhatzen, asaldatzen eta bihotz flakutzen, bere bihotza hurren utzten diotela den guziaren largatzeko eta gibela itzulteko



tentazioneri eramaitera; bainan bertze alde, ez othe da peril handi bat arima hekintzat, zeinek bertze tentazione kontrako batez zinets arazten baitiote bere buruari bere eskaseterik purgatuak direla bere lehenbizi purga egunean; uste dutela perfet direla, kasik egin ziren baino lehen, eta hegaldatu nahiz dabiltzala hegalik gabe? OFilothea, zein peril handitan diren berriz erorteko, zeren lasterregi ilki diren midikuaren eskuetarik! Ha! etzaitezela iaiki argitu baino lehen, dio profetak, iaiki zaitezte iarririk egon zareten ondoan; eta bera, bere erranari datxekola, lehen garbitu izan zelarik, othoitzez dago berriz garbi dadin.

Arimako purgazionearen exerziza ezin akaba diteke, eta ezta ere akabatu behar gure biziarekin baizen; ezgaitzezila bada nahas gure eskasak gatik, zeren gure perfekzioa da hekin kontra gerla egitea; ezin egin dezakegu ordea hek ikustean ezpaditugu, ezin ere garai gakidizkeie buruz buru hari ezpagara; gure garaia ezta hekin ez sentitzea, baina bai ez konsentitzea.

Ordea hetaz penatua izaita, ezta hekin konsentitzea, hala ere behar da, gure humiltasunari lan emaita gatik, zenbati aldiz gudu espiritual hartan zaurt gaitazin; badarik ezgara sekulan garaituak, edo bizia edo bihotza galtzen dugun orduan baizen. Bada gure eskasek eta bekatu benialek ezin eraman diazakegute bizitze espirituala, zeren ezta galtzen bekatu mortalaz baizen. Beraz gainerakoa da, bihotza galaraz eztiagutzen. Libra nazazu Iauna, dio Dabitek, bihotzgabetsunetik; kondizione doatsua da guretzat, gerla hortan garaia gure alde bethi izaita, baldin gudukatu nahi badugu.

## **Lehen purgazioneaz, zein baita bekatu mortalez**

### **SEIGARREN KAPITULUA**

Lehen egin behar den purgazionea da bekatu mortalez, haren egiteko bidea da Penitenziatzako Sakramendu saildua: bilha zazu ahalik konfesor hoberena, har ezazu eskuetan ongi konfesatzen irakasten duten liburuetarik bat, irakur ezazu erneki, eta mira zazu puntuz puntu zertan ofensatu duzun, hasten zarela arrazoinaz baliatu zarenetik oren hunetaraino. Eta fida ezpazara zure memoriaz, eskiribuz emazu orhoitu zarena, eta hala preparaturik eta zure konszienziaren garriak bildurik, arnega zazu hetaz damu eta dolu zure bihotzak iasan dezakeien bezain handi batez; konsideratzen duzula bekatua dela kausa Iainkoaren grazia galdu duzula, zure Parabisuko partea utzi, Ifernuko sekulako penak hartu eta Iainkoaren bethiereko amorioari uko egih. Badakusazu, Filothea, monzo naizela zure bizitze guziaz egin behar duzun konfesione jeneral batez; aitortzen dut egiazki eztela behtiere osoki haren premiarik, bainan konsideratzen dut ere neurrigabeki on izanen zaitzula lehenbizi haste hunetan. Geienetan bizitze komuna eta lanoa daramatenen ordinariozko konfesio-neak alfer dira, eta eskas handiz betheak. Zeren hainitzetan bada preparamen eztenik, edo guti baizen, eta behar bezalako urrikirik eztueniuk: aitzitik maiz gertatzen da nihor konfesatzera doala bekatutara bihurtzeko borondate ixillarekin, zeren nahi eztuen bekatuaren okasionetik ihes egin, eta bere bizitzearen oneratzeko behar den bidea hartu; kasu hautan guzietan konfesione jenerala behar da, arimaren seguratzeko.

Bainan hortaz lekora, konfesione jeneralak erakartzen gaitu gure buruaren ezagutzera, gonbidatzen gaitu gure bizitze iraganaz ahalkadura salbagarrizko baten hartzera, miretzaraziten derauku Iainkoaren miseri-kordia, ikusirik pazienziarekin egon dela gure begira, baketzendu gure bihotzak, arintzentu gure espirituak, borondate onak pitztentu gure baitan, emaiten dio gure Aita espiritualari leku guri gure estatuari hobeki dagokan konseillurik eta abisurik emaiteko; finean idekiten derauku bihotza gure ongi eta fianzarekin preparamen hemendik harako konfesioetara.

Beraz minzo naizenean gure bihotzaren berritze jeneral batez, eta gure arimaren Iainkoa ganako itzultze osoaz, bizitze debotean sartzeko, badut arrazoin, ene ustez, Filothea, zure konseillu emaitiaz konfesione jeneral bat egin dezazun.



## Bigarren Purgazioneaz, zein baita bekatuaren afekzionez

### ZAZPIGARREN KAPITULUA

Israeltar guziak ilki ziren egiazki Ejipteko lurretik, etzuten ordea guziek haren ganako afekziona utzi: hargatik desertuaren erdian hetarik hainitzek damu zuten zeren etzituzten berekin Ejipteko tipulak eta haragiak. Hala ere bada penitent bekatutik egiazki ilkiten denik, ez ordea gogoz eta afekzionez: erran nahi da, gogoa hartzen dute ez geiago bekatu egiteko, bainan bihotzean garri bat dutela bekatuaren atsegin dohaka-beez gabetzeaz, eta ez gozatzaz; hekin bihotzak uko egiten dio bekatuari, eta hartarik apartatzen da; halarik ere hainitzetan alde hartara itzultzen da, Lothen emaztea Sodomara bezala; begirutzen dira bekatu egitetik, eriak meloin iatetik bezala, eztute hetarik iaten zeren Midikuak erraiten derauen hillen direla iaten badute, bainan damu dute ez iateaz; hetaz minzo dira, galdea dute ea ian lezaketenz, hekin usaina bederen aditu nahi dute, eta doatsu dadukate hetarik iaten duena; zeren manera berean penitent flako eta bihotzgabe hek muga batetakotz begirutzen dira bekatu egitetik, bainan damurekin, nahi lukete egin ahal balezate bere buruak dantatu gabe; minzo dira bekatuaz sentimendurekin eta gusturekin, eta uste dute kontent direla bekatua egiten dutenak.

Mendekatzeko borondatea buruan sartu duen gizonak bere gogo hura ganbiatuko du konfesionean, bainan handik sarri hura arukituko duzu bere adiskideen artean atsegin hartzen duela bertzerekin izan duena aharraz eta guduaz minzatzaz, erraiten duela Iainkoaren beldurra gatik ezen, hori eta hori eginen zuela, eta Iainkoaren legea barkatzeko artikulu hortan gaitza dela; Iainkoak nahi lueta zori lizen mendekatzea. Ha! nork eztakusa gizon gaizo hura, bekatutik ilki delarik, guzia korapillatua dela bekatuaren afekziona, eta Ejiptetik kanpoan delarik, hango apetitua deula, bere han iaten ohi zituen baratxurien eta tipulen gutiziaz? orobat da emazteki hartaz, uko egin deraute bere amuruseria gaixtoei, guziarekin ere atsegin hartzen du bere burua solastaturik eta inguraturik ikustez. Helaz! zein peril handitan daudezin halako jendeak.

O! Filothea, bizitze debotari zinetan lotu nahi zaizkonaz gero, eztuzu xoilki bekatua utzi behar; bainan osoki behar duzu zure bihotza garbitu bekatuari datxezkon afekziona guzietarik, zeren hetan berriz erortzeko

lizatekeien perillaz lekora, afekziona esteiari eta miserable hek bethiere zure espiritua langi araz eta pisu egin lezaketek halako maneraz, non obra onak ezin egin bailetzake agudoki, erneki eta usuki, non baitago bizkitartean debozionaren egiazko puntua. Bekatuaren estatutik ilki diren, eta afekziona eta langiadura hek oraino dituzten arimak, ene ustez kolore horiak dituzten neskatoen iduria dute, zeinak ezpaitira eri, baina bai hekin akziona guziak dira eri, iaten dute gusturik gabe, lo egiten dute pausatu gabe, irri egiten dute alegeratu gabe, eta herrestatzenago dira ibiltzen diren baino. Zeren orobat arima hek ongia egiten dute hain espirituzko unhadura handirekin, non edertasun guzia edekiten baiterauezate bere exercizio onei, guti eta txipi direlarik.





## Bigarren purgazioe hunen egiteko maneraz

### ZORTZIGARREN KAPITULUA

Bada bigarren purgazioe hunen lehenbiziko bidea eta zimendua, da biziki eta zinki ikustea, zein handi den bekatuak ekartzen deraukun gaitza, zein ikusteren bidez sartzen baigara urrikimendu bortitz eta barrerako batetan. Zeren nola urrikimenduak, egiazkoa bada, zenbat ere txipi baita, eta guzien gainetik Sakramenduen bertutearekin iuntatua denean, aski den bezala garbitzen baigaitu bekatutik; hala, handia denean eta bortitza, garbitzen gaitu bekatuari datxezkon afekzioe guzietarik. Gaitzerizte arin eta ezdeus bezalako batek bihotzean emaiten derauku higoindura bat gaitzesten dugunaz, eta ihes eragiten derauku haren konpainiatik, bainan gaitzerizko bortitza eta heriotzerainokoa bada, ez xoilki ihes egiten diogu gaitzesten dugunari bainan are, ezin sar, ezin ibil, ezin bizi gaitzeke haren ahaidekin eta adskidekin, ezin ikus dezakegu ere haren iduria urtsaren, taularen edo paperaren gainean, nardatzen gara eta erdeinatzen hari ukitzen zaizkon, eta haren diren guziez. Manera berean penitentak gaitzesten duenean bekatua urrikimendu arin, bainan egiazko batez, egia da borondate hartzen duela ez geiago bekatuak egiteko; ordea hura gaitzesten duenean urrikimendu bortitz eta zinezko batez, ez xoilki bekatuaz arnegatzen du, baina bai haren ganako afekzioe, hari datxezkon, eta hartara daramaten gauza guziez. Behar dugu bada Filothea, gure ahal guziaz gure urrikimendua emendatu, berretu eta handitu, bekatuari ukitzen zaizkon gauzetarik txipienetaraino heda dadin amorea gatik. Hala Madalenak Iainkoa ganat itzuli zenean, bekatuen eta lehen hetan hartu zituen atseginen gustua halako suertez galdu zuen, non ezpaitzen geiago hetaz egundaino orhoitu; Dabitek ere zinetan zioen ez xoilki bekatua gaitzesten zuela, bainan eta hartara daramaten bide guziak; puntu hunetan dago, profeta hark berak arranoaren berritzearekin konparatzen duen ari-maren gaztetze berria.

Bada bekatuak dakarkeien gaitza ikus dezazun, eta hartaz behar den urrikimendua ardiets dezakezun amorea gatik, behar da arthatsuki hari eta egon zaitezin hemen diren meditazioe gainean. Baldin ongi bazarraizte, zure bihotzetik, Iainkoren graziarekin batean, bekatua atherako dute errotik, eta bekatua ganako afekzioe prinzipalak; hala ere osoki hartarakotzat egintut. Hek eginen tutzu bata bertzearen ondoan, eman ditu-

dan bezala, bat baizen hartzen eztuzula egun bakoitzeko; hura eginen duzu, ahal badagizu, goizean, zein baita mugarik hoberena espirituaren akzioe guzien egiteko, eta hura gogoan erabiliko duzu egun haren garaitikoan. Baldin oraino usatua ezpazara meditazioe egiten, mirazazu zer erranen den hartaz bigarren partean.



## Lehen meditazioena. Kreazioez

### BEDERATZIGARREN KAPITULUA

#### *Preparazioena.*

1. *Iar zaite Iainkoaren presentzian.*
2. *Othoitz egiozu inspira zaitzala.*

#### **Konsiderazioeak**

1. Kontsidera zazu eztuela hunein bertze urthe baizen etzinelan munduan, eta zure izaitea egiazko ezdeus bat zela. Non ginen, O ene arima, orduan? munduak iadanik hainitz iraun zuen, eta gutaz etzen berririk bat ere.
2. Iainkoak athera zaitu ezdeus hartarik zure egitea gatik zaren bezalakoa, zure beharrik etzuelarik, bainan bere ontasun hutsaz.
3. Kontsidera zazu Iainkoak eman derautzun izaitea, zeren ikusten diren munduko izaitetarik lehena da; gaia eta baso baita sekulakotz bizitzeko, eta Iainkoaren maiestatearekin bizitzeko, eta Iainkoaren maiestatearekin osoki bat izaiteko.

#### **Afekzioeak eta erresoluzioeak**

1. Humil zaitez hagitz Iainkoaren aitzinean, bihotzez erraiten duzula errege profetarekin, Hâ Iauna! ni naiz zure aitzinean ezdeus egiazko bat bezala, nolatan orhoitu zara nitaz ene atheratzeko ezdeus hartarik? Helaz, ene arima! hondatua zinen ezdeus zahar hartan, eta han ginundezke orai ere, Iainkoak ekarri ezpazinitu handik, zer zeneidike ezdeus hartan?
2. Emoitzu Iainkoari eskerrak. O ene kreatzaille handia eta ona, zein zordun naizen zure aldera, ene ezdeusean hartu nauzunaz geroztik ene egiteko zure miserikordiaz naizen bezalako! Zer eginen dut sekulan zure izen sailduaren behar legez benedikatzeko, eta zure neurrigabeko ontasunari eskerren emaiteko?
3. Ahalka zaite. Bainan, helaz! ene kreatzaillea, zurekin bat amudioz eta serbitzuz iari behar bidean, zure kontra altxatu naiz ene afekzioe desordenatuez, zure ganik hastandu naiz eta apartatu, bekatuari lotzeko, geiago ohoratzen enuela zure ontasuna, ene kreatzaillea izan ezpazine baino.

4. Behiti zaite eta apal Iainkoaren aitzinean. O ene arima, iakin ezazu iainkoa dela zure Iauna, hark egin zaitu eta etzara zeronek egina, O Iainkoa, ni naiz zure eskuetako obra.

Eztut beraz nahi sekulan geiago ene baitan ene plazera eman, nitaz deus ere enaizenaz geroztik. Zertaz loriatzen zara hautsa eta erhatua? Ordea, Oegiazko ezdeusa, zertaz altxatzen zara? Bada ene humiltzea gatik, nahi dut humelako eta halako gauza egin, halako eta halako mesprezioa pairatu, nahi dut bertze bizitze bat hartu, nahi batzaio hemendik hara ene kreatzailleari iarraiki, hura nahi dut ohoratu eman derautan izaitearen kondizioez, hura osoki enplegatzen dudala haren borondate sailduaren obeditzeko, irakasiko zaizkidan, eta ene aita espiritualari galdeginen diotzadan bidez.

#### **Konklusioena**

1. Eskerrak emoitzu Iainkoari. Benedikazazu zure Iainkoa, O ene arima, eta ene barreneko guziek lauda bezate haren izen saildua, zeren haren ontasunak athera nau ezdeusetik, eta haren miserikordiak kreatu nau.
2. Ofrenda egiozu. O ene Iainkoa, ofrendatzen derautzut eman derautazun izaitea neure bihotzarekin batean, hura bihurtzen derautzut eta konsekratzen.
3. Othoitz egiozu. O Iainkoa, bortitz nazazu afekzioe eta erresoluzioe hautan. O Birjina saildua, gomenda nazazu zure seme maitearen miserikordiari, eta gomenda diotzotzu ene othoitzetan parte behar duten guziak ere, etc.

*Pater noster. Abe Maria, etc.*

Meditazionetik ilki ondoan, apur bat pasajeatzen zarela, bil ezazu debozioezko flokatxo bat egin dituzun kontsiderazionetarik, haren usainaren hartzeko egun hartan.





## Bigarren meditazioea. Zertara kreatuak garenaren gainean

### HAMARGARREN KAPITULUA

#### *Preparazioea.*

1. *Iar zaitte Iainkoaren aitzinean.*
2. *Othoitz egizu zure inspiratzeaz.*

#### **Konsiderazioeak**

1. Iainkoak etzaitu ezarri mundu hunetan zure beharrik zuelakotz, ikusirik ezdeusgai zarela harentzat; bainan xoilki bere ontasunaren erakustea gatik, emaiten derautzula bere grazia eta bere loria. hargatik eman derautzu adimendua, haren ezagutzeko, memoria, hartaz orhoitzeko, borondatea, haren maitatzeko, imajinazioea, haren ongi-eginen gogoratzeko, begiak, haren obra miragarrien ikusteko, mihia, haren laudatzeko, eta hala bertzeez.

2. Intenzioea hartara kreatua, eta mundu hunetan ezarria zarenaz gero, haren kontrako akzioe guziak behar dira arbuiatu eta urrun igorri, eta fin hartara heldu eztirenak mesprezatu behar dira, alferrak eta ezdeusetakoak bezala.

3. Konsidera zazu munduaren dohakabetasuna. Eztu hori gogoratzeko, bainan bizi da uste balu bezala, eztela kreatua etxerik egiteko, zuhaitzik landatzeko, aberastasunik biltzeko eta ergelki ibiltzeko baizen.

#### **Afekzioeak eta erresoluzioeak**

1. Ahalka zaitte, erakus diozozu zure arimari bere miseria, hain handia izan baita hunerainokoan, non hori guzia ezpaitu gogoan izan ere, edo guti baizen. Helaz! erranen duzu, zer nuen gogoan, ene Iainkoa, zu etzinitudanean? Zertaz orhoitzen ninzen, zutaz ahantzirik nengoenean? zer nuen maite, zu etzinitudanean maite? Helaz! egiaz bizi behar nuen, eta bazkatzen nintzen banaloriaz, nik serbitzatzen nuen mundua, eta mundua ezta egina ene serbitzatzeko baizen.

2. Haserra zaitte zure bizitze iraganaren kontra. Arnegatzen dut zuetaz gogoeta alferrak, orhoitzapen ezdeusetakoak eta madarikatzekoak, arnegatzen dut zuetaz adiskidetasun falsoak, serbitzu galduak, ongi-egin eskergabeak, begitarte eman fastikagarriak.

3. Itzul zaitte Iainkoa gana. Zu, O ene Iainkoa, ene Salbatzaillea, zu xoilki izanen zara hemendik hara ene gogoeta eta pensamendu guzien xede bakhoitza, ez ez, sekulan eztut neure gogoan pairatuko zure gogara ezten gauzarik. bizi naizen egun guzietz behkeko dut neure memoria hain eztiki ene aldera erakutsi duzun zure emetasunaren handitasunaz, zu izanen zara ene bihotzeko plazerak, eta ene afekzioeentz eztitasuna.

Bada, zinetan nago, halako eta halako nenrabillaten ergelkeriaz, ene egunak eramaiten zerauzkidaten halako eta halako ioan-etorrian, ene bihotza amarraturik zedukaten halako eta halako afekzioeak hemendik hara higoinduko zaizkit, eta hartarakotzat serbitzatzeko naiz halako eta halako erremedioz.

#### **Konklusioea**

1. Emozu esker Iainkoari, zeren egin zaituen hunein fin ekzelet batetako. Egin nauzu, Iauna, zuretzat, arren zure neurrigabeko loriaz sekulakotz goza nadin, noiz izanen naiz gai eta baso, eta noiz benedikatuko zaitut egin behar zaitudan bezala?

2. Ofrenda egizu. Ene kreatzaille maitea, ofrendatzen derauzkitzuten ene afekzioe eta erresoluzioe hek berak, ene arima eta bihotz guziarekin.

3. Othoitz egizu. Ene Iainkoa, othoitzez nagotzu ene desiren eta botuen gogo onez hartzeaz, eta ene arimari zure benedizinoaren emaitzez; zure Semeak gurutzearen gainean isuri duen odolaren merituz hek konpli ahal detzan amorea gatik.

*Egizu debozioezko floka.*



## Hirurgarren Meditazioea. Iainkoaren ongi-eginez

### HAMEKAGARREN KAPITULUA

#### *Preparazioea.*

1. *Iar zaite Iainkoren presenzian.*
2. *Othoitz egizu inspira zaitzala.*

#### **Konsiderazioeak**

1. Konsidera etzatzu Iainkoak emaiten derauzkitzun gorputzeko graziak, nolako gorputza, nolako onhasunak haren mantentzeko, nolako osasuna, nolako sori diren konsolazioeak, nolako adiskideak, nolako helzakitzak; bainan hori konsidera zazu zure burua konparatzen duzula hain bertze, dohain hetaz gabeturik daudezin eta dabiltzan jendekin, zuk baino geiago balio dutelarik; batzu daude gorputzez, osasunaz eta mienbroez galdurik; bertzeak laidoetan, mesprezotan eta desohoretan daude eroririk; bertzeak dabilta errumesturik eta hondaturik; Iainkoak eztu nahi izan hain ondikozko zinundezen.

2. Konsideratzatu espirituaren dohainak. Zenbat dabilta munduan adimendugabeturik, arindurik, erhoturik, errabiaturik? zergatik etzara hetarik bat? Iainkoak faboratu zaitu. Zenbat dira basaki haziak, eta egundaino deus ere ikhasi eztutenak? zu bizkitartean korteski eta ohorez alxatu izan zara, eta Iainkoak hala nahi izan du.

3. Konsidera etzatzu grazia espiritualak. O Filothea, zu zare elizako umetatik bat, Iainkoak irakhasi derautzu hartaz behar zenduen ezagutza zure gazte danik. Zenbatetan eman derauzkitzu bere Sakramenduak? zenbatetan inspirazioeak eta barreneko argiak igorri derauzkitzu? zenbatetan eranzunak egin diotza zure bihotzari zure oneratzeko? zenbatetan barkhatu derauzkitzu zure faltak? zenbatetan libratu zaitu zure galtzeko zinen okasione agerietarik? ioan diren urthe hetan ez othe zenduen epheirik eta lekurik aski zure arimaren onean aitzinatzeke? Beha zazu xehero, zein eme eta grazios izan den Iainkoa zure gana.

#### **Afekzioeak eta erresoluzioeak**

1. Miretsezazu Iainkoaren ontasuna. O zein on den ene Iainkoa ene aldera! O ontasuna! O ene Iaunaren bihotzaren miserikordios izana! O

mansotasunaren ithurria! Erran diezegun guziei, ene arima, zenbat grazia egin derauzkitzun Iainkoak.

2. Harri zaite zure eskergabetasunaz. Ordea zer naiz ni, Iauna, orhoitu baitzara nitaz? O zein merezigabea naizen! helaz! oinetan zapatu itut zure ongi-eginak; desohoratu itut zure graziak, hetaz baliatu naiz zure ontasun beregainekoaren mesprezatzeko, ene eskergabetasun handia iarri arazi dut zure grazia eta fabore handiaren kontra.

3. Atzar zaite eskerren emaitera. Ea bada, ene bihotza, etzarella gei-go falso eta eskergabe hain ongi-egille haidiaren aldera. Eta nola? ene arima ezta gaurgero Iainkoaren azpian iarriko, dakiela hain bertze mirakuillu eta grazia egin duela ene baitan eta enetzat?

4. Ha! beraz, Filothea, apartazazu zure gorputza halako eta halako plazer lizunetarik; ezarezazu harentzat huneinbat egin duen iainkoaren azpiko; iararaz ezazu zure arima haren ezagutzen eta hari esker emaiten, hartarakotzat on diren halako eta halako exerzitez. Balia zaite artharekin elizan diren bideez zure salbatzeko eta Iainkoaren maitatzeko. Bai, iarrikiko natzaio meditazioeari, eta Sakramenduei, enzunen dut Iainkoaren hitz saildua, eginen dut emanen zaizkidan inspirazioeen eta konseilluen arauera.

#### **Konklusioea**

1. Eskerrak emoitzu Iainkoi orai eman derautzun zure eginbidea-zen ezagutzaz, eta huneraino haren ganik izan ditutzun ontasun guziez.

2. Ofrenda diozozu zure bihotza, zure erresoluzioe guziekin.

3. Othoitz egizu dizula indar hekin fidelki egiteko bere Semearen pasionearen merituz; harezazu Birjina sakratua, eta bertze sailduak ararteko.

*Pater noster. Abe Maria etc*

*Egizu floka espiritual.*



## Laugarren meditazioa. Bekhatuez

### HAMABIGARREN KAPITULUA

#### *Preparazionea.*

1. *Iar zaite Iainkoaren presentzian.*
2. *Othoitz egiozu zure inspiratzeaz.*

#### **Konsiderazioneak**

1. Orhoit zaite noizez geroztik hasten zaren bekhatu egiten, eta mira zazu lehenbizi haste haren danik, zenbat berretu diren bekatuak zure bihotzean; nola egun guzietz hek handitu itutzun Iainkoaren kontra, zure buruaren kontra, lagunaren kontra, obrez, hitzez, desirez, gogoz.

2. Konsidera etzatzu zure inklinazione gaixtoak, eta zenbat iarraiki zaizten. Eta bi puntu hetaz ikusiko duzu geiago direla zure faltak zure buruko illeak, bai eta itsas-hareak baino.

3. Konsidera zazu beregain Iainkoaren alderako eskergabetasunaren bekatua; zein baita bekatu jeneral bat bertze guzietara hedatzen dena, eta hek infinituki handiago egiten dituen; beha zazu bada zenbat ontasun egin derauzkitzun Iainkoak, eta nola guzietz gaizki baliatu zaren emaillearen kontra; bereziki, zenbat inspirazione mesprezatu itutzun, zenbat gogo eta gogoramendu on utzitutzun alferrik. Eta zein baita geiago zenbatetan Sakramenduak errezebitu ditutzun; eta non da probetxua? Zer egin dira ure eta preleria preziatu hek, zeinetaz zure espos maiteak edertatu eta bistatu zinituen? Hori guzia estalirik dago zure gaixtakerien azpian. Zer preparazionerekin errezebitu itutzu? Orhoitezazu zure burua eskergabetasun hartaz; Iainkoak hanbat bide zure ondoan egin duela zure salbatzeko, eta zu bethi ioan zaizkola ihesi zure galtzeko.

#### **Afekzioneak eta erresoluzioneak**

1. Ahalka zaite zure miseria. O ene Iainkoa, nolatan ausartzen naiz zure begien aitzinan agertzera? Helaz! enaiz munduko handitsu zaurnatu, enaiz eskergabetasunaren eta gaixtakeriaren putzu lizun bat baizen. Egia othe da hain traidore izan naizela, non ezpaitut utzi ene sensuetarik, ene arimako inarretarik bat ere galdu eta lizundu gabe; eta eztela bizi izan naizen egunetarik bat ere iragan, non eztudan hain obra gaixtorik egin?

Behar othe nituen halako ordainaz ene kreatzaillearen ongi-eginak, eta ene Salbatzaillearen odola pagatu?

2. Eska zakizko barkhazino, eta egotz zaite Iaunaren oinetara, seme gastosa bezala, Madalena bezala, bere espos-ohea bekhatu lizun suertez guzietz lizundu lukeien emazte bat bezala. O Iauna, miseriakordia arima bekatorez hunen gainean; Helaz! miseriakordiarene ithurri bizia urrikal bekizu inkontru gaitzezko kreatura hau.

3. Har ezazu gogo hobeki bizitzeko. O Iauna, ez sekulan, ez geiago zure graziarekin batean; ez, sekulan eztiot bekhatuari lekurik emanen. Helaz! eztut hura sobera baizen maitatu. O miseriakordiarene Aita, nahi dut bizi eta hil zure baitan.

4. Ene bekhatu iraganen hiltzea gatik, hetaz zinetan akhusatuko naiz, eta eztut utziko bat ere, kanpora egotzi gabe.

5. Egin ahala eginen dut hekin landareen errotik osoki atheratzeko ene bihotzetik, eta partikularki geienik darraizkidan eta unhatzen nauten halakoak eta halakoak etxatukotut.

6. Hala egitekotzat, zinki besarkatukotut emanen zaizkidan konseiluak eta bideak; uste eztudala sekulan aski eginen dudala, hain falta handien erremediatzeko.

#### **Konklusioa**

1. Esker emozu Iainkoari, zeren iguriki derautzun oren hunetaraino, eta afekzione on hek eman derauzkitzun.

2. Emozu zure bihotza.

3. Othoitz egiozu bortitz zaitzala etc.



## Bortzgarren meditazioea. Heriotzeaz

### HAMAHIRURGAREN KAPITULUA

#### *Preparazionea.*

1. *Iar zaitte Iainkoaren aitzinean.*
2. *Eska zakizko bere grazia.*
3. *Iduri bekizu ohean zauntzala eriturik  
hiltzeko hiltzeko puntuan, esperanzarik gabe handik ilkitek.*

#### **Konsiderazioneak**

1. Kontsidera zazu eztela hillen zaren egunaz segurantzarik. O ene arima ilkiko zara egun batez gorputz hunetarik. Noiz ordea? udan ala neguan? hirian ala kanpoan? gauaz ala egunaz? ustegaberik edo abertiturik? erituz edo kasuz? izanen othe duzu astirik konfesatzeko, edo ez? lagunduko othe zaitzu zure konfesora eta aita espirituala? Helaz! hortaz guziaz eztakigu deus ere; gauza bat xoilki dakigu segurik, hillen garela, eta bethi uste dugun baino lehen.

2. Kontsidera zazu orduan munduak fina izanen duela ukitzen zaitzunaz bezanbatean; ezta izanen zuretzat geiago; itzuliko da azpitik gora zure begien aitzinean. Segur, zeren orduan munduko plazerak, banaloriak, alegrianzak idurituko zaizkitzu ingumak, itxurak eta izaizunak bezala. Ah gaizoa! zer fits eta ergelkeriak gatik ofensatu dut ene Iainkoa? Ikusiko duzu Iainkoa utzi dugula ezdeus gatik. Kontrara debozionea, eta obra onak hain desiratzeko eta ezti idurituko zaizkitzu, non erranen baitutzu, he! zergatik enatzaio bide arrai eta eder hari iarraiki? orduan xipi ziduriten bekhatuak, ageriko dira mendiak bezain handi, eta zure debozionea xoil xipi.

3. Kontsidera etzatzu zure arimak mundu behereko huni erranen diotzan adiu handiak eta langituak; adiu erranen deraue aberatstasunei, banaloriei, konpainia alferrei, plazerei, dostetei, adiskidei, hauzoei, ahai-dei, umei, senharrari, emasteari, hitz batez kreatura guziei; eta finean bere gorputzari, hura utzten duela deseginik, harrigarriturik, erpildurik xarpildurik, usteldurik, kirasturik.

4. Kontsiderazazu nola khexatuko diren gorputz haren alxatzera, eta lurrean estaltzera; hori eginik, munduak eztuela zutaz konturik eginen

guti baizen, eta eztela zutaz orhoitzapenik izanen, bertzeez izan duzun baino geiago. Iainkoak demola bakea, erranen dute, eta horra guzia. O herioa, zein kontsiderazionegabea zaren! zein eztuzun nihor urrikari.

5. Kontsidera zazu arimak, gorputzetik ilkhi denean, bere bidea hartzen duela, edo eskuin, edo ezker. Helaz! norako da zurea? zer bidez abiatuko da? etzaio bertzeri jarraikiko munduan lehenik egin zaionari baizen.

#### **Afekzionaek eta erresoluzionaek**

1. Othoitz egiozu Iainkoari, eta laster egizu haren besoetara. Ha Iauna, har nazazu zure gomendioan egun harrigarri hartako. Biz oren hura zure graziaz ene faboretan, eta bira lehen bizi izan naizen bertze guziak enetzat triste eta damugarri.

2. Mesprezazu mundua. Eztakidanaz geroztik zer orenetan utzi behar aizen, O mundua, eztiat hirekin amarratu nahi. O ene adiskide eta ahaide maiteak, utz nazazue maita etzaitzatedan, sekulakotz iraun deza-keien maitarasun saindu batez baizen; Ezen zergatik amarratuko natzaitzue utsi eta urratu behar den amarratz? Nahi dut bada preparatu oren hartara, eta behar den artha iduki iragaitza haren doatsuki egiteko; Nahi dut ene konszienziaren estatua seguratu neure ahal guziaz, nahi ditut halako eta halako egiten ditudan hutsak erremediatu.

#### **Konklusioea**

Esker emozu Iainkoari eman derauzkitzun erresoluzione hetaz, eta ofrenda diotzotzu haren maiestateari; berriz egiozu othoitz dizula bere Semearen heriotzearen merituz doatsuki hiltzeko grazia. Gomenda zakizte Andre Dana Mariari eta Sainduei.

*Pater noster. Abe Maria, etc.*

*Egizu floka bat mirrhaz.*



## Seigarren meditazioea. Iujeamenduaz

### HAMALAU GARREN KAPITULUA

#### *Preparazioea.*

1. *Iar zaite Iainkoaren aitzinean.*
2. *Othoitz egiozu zure inspiratzeaz.*

#### **Konsiderazioeak**

1. Finean, Iainkoak mundu hunen irauteari finkatu dioen muga etorri denean, eta hainitz seinale aitzindari eta harrigarri, zeinak gatik gizonak ihartuko baitira beldurrez eta izialduraz, gerta ditezkeienean, uholde bat bezala etorriko den suak lurreko zabalatasun guziaz erreko du eta hauts eginen, haren gainean ikusten ditugun gauzetarik bat ere hartarik itzuli gabe.

2. Khar eta hozpin uholde haren ondoan, gizon guziaz pitzberrituko dira lurretik (iadanik pitztu direnez lekhora) eta Arkanjeluen bozean kausituko dira Iosafateko haranean. Helaz ordea! nolako diferentziarekin! zeren batak han izanen dira bere gorputz lorioekin, alde guzietarik distiatzen dutela, eta bertzeak bere gorputz itsusiekin nondik nahi harritzen dutela.

3. Konsidera zazu nolako Maiestaterekin guzien gaineko Iujea etorriko den, Angeru eta Saindu guziaz inguraturik, bere aitzinean duela Gurutzea, iguzkia baino argia, zein baita graziaren seinalea prestantzat, eta koleraren, gaixtoentzat.

4. Gaineko Iuje hark bere manu izigarriaz, eta berehala konplutuko denaz berezikotu prestuak gaixtoetarik, batak bere eskuinean, bertzeak ezkerrean ezarten dituela; sekulako berezitzea, zeinaren ondoan bi konpania eta biltzarre hekl ezpaitira sekulan elkharrekin geiago kausituko.

5. Hek hala apartaturik, eta konszientzietako liburuak zabaldurik, ikusiko da klarki gaixtoen malizia, eta Iainkoaz egin zuten mesprezioa; bertze alde ageriko dire prestuen penitentzia, eta iainkoa ganik izan zuten graziaren obrak. Deus ere ezta gordeko edo estaliko. O Iainkoa! nolako ahalketasun hekintzat, nolako konsolazioea bertzentzat!

6. Konsiderazazu gaixtoei aurtikiko zaien azken sententzia; zoazte madarikatuak deabruari eta haren lagunei preparatu zien sekulako sutara.

Pisa etzatzu hitz pisu hek; zoazte, dio, Iainkoak dohakabe hetaz egiten duen sekulako arbuamenduaren hitza da, desterratzen dituela sekulakotz bere begietarik. Madarikatuak erraitaen deraue: O ene arima, zer madarazino! Madarazino jenerala, gaitz suerte guziaz bere baitan dadutzana, madarazino ezin ganbiatuzkoa, sasoin, urthe, mende guziaz eta sekulakotasuna bera serratzen ituela. Dio geiago, sekulako penetako eternitatea, zein harrigarri zaren.

7. Konsidera zazu bertze alde prestuei erraiten zaien sententzia: Zatozte, dio Iujeak, ah! agur-hitz ezta da, zeinetaz Iainkoak bereganatzen baigaitu eta bere ontasunaren alzora hartzen. Ene aitaren benedikatuak; O benedizino maitea, den benedizino guziaz dadukana! Iabe zakizkote munduaren hastetik preparatu izan zaitzuen erresumari. O Iainkoa, zer grazia? zeren Erresuma hark eztu sekulan finik izanen.

#### **Afekzioeak eta erresoluzioeak**

1. Ikharra zaite, O ene arima, hautaz orhoiturik. O Iainkoa, nork segura nazake egun hartako non zeruko harroinak ikharatuko baitira izialduraz.

2. Arnega zazu zure bekhatuez, zeren hek xoilki gal zaitzakete egun izigarri hartan.

Ah! neronek orai iujeatu nahi dut neure burua, orduan iujea enadintzat: nahi dut ene konszientzia examinatu, akusatu, kondenatu, eta xuxendu, Iujeak egun beldurgarri hartan kondena enazan amorea gatik. Konfesatuko naiz bada, hartukotut behar diren abisuak etc.

#### **Konklusioea**

Emoitzu Iainkoari eskerrak, zeren eman derautzun ordukotz zure seguratzeko bidea, eta penitentzia egiteko muga. Emoizu zure bihotzaeta othoitz egiozu dagizula grazia haren ongi egiteko, eta konplitzeko.

*Pater noster. Abe Maria etc.*

*Egizu floka espirituala.*



## Zazpigarren meditazioea. Ifernuaz

### HAMABORTZGARREN KAPITULUA

#### *Preparazioea.*

1. *Iar zaitte Iainkoaren prezenzian.*
2. *Humil zaitte, eta eska zakizko hel dakizula.*
3. *Iduri bekizu ikusten duzula hiri ilhumbetsu bat sufrez eta bikez erretzen, ezin ilki ditezkeien jendez betherik.*

#### **Konsiderazioeak**

1. Dannatuak ifernuko lezean eta putzuan barrena daude hiri inkontru gaitzezko hartan bezala, non pairatzen baitituzte ezin erranezko penak bere sensu eta mienbro guzietan, zeren nola bere sensuez eta mienbroez baliatu baitira bekhatu egiteko, hala ere hetan guzietan pairatuko ituzte bekhatuari zor zaizkon penak: begiak, bere behatze falsoak eta gaixtoak gatik, penatuko dira deabruen eta ifernuaren ikuste harrigarriaz; beharriek, zeren plazer hartu zuten solas lizunetan eta gaixtoetan, eztute sekulan enzunen nigarrik, hatsbeherapenik, marraskarik baizen, eta hala bertzez.

2. Pena hetaz guziez lekhora, bada oraino handiago bat, zein baita iainkoaren loriaz gabetua izaitea, ezpaitute hura sekulan ikusiko. Baldin Absalonek bazedukan bere aita Dabiten begitarte maitea ikusi gabe egoitea gaitzago eta unhagarriago zitzaiolea, zeinetan bait zegoen desterrua baino. O Iainkoa, zer damu eta dolu, zure begitarte eztiatz eta emeaz sekulakoz gabetzea.

3. Konsidera zazu guzien gainetik pena hekin sekulakotasuna, hura bera gatik bertzerik ezpaliz ere ezin iasanezkoa baita Ifernua. Helaz! baldin khukusu batek gure beharrian, sukhar arin batek gau labur bat egiten baderauku hain luze eta unhagarri, zein harrigarri izanen da sekulako guaa hanbat penarekin? sekulakotasun hartarik sortzen dira sekulako etsitzeak, bethiereko burhoak eta neurrigabeko errabiamenduak.

#### **Afekzkoneak eta erresoluzioeak**

1. Izi ezazu zure arima Ioben hitzez. O ene arima, bizi othe zinategike arduraki, behti dirauten khar hetan, eta su iretsle hartan? Nahi othe duzu zure Iainkoa utzi sekulakotz?

Aitor ezazu hura merezi izan duzula, bainan zenbatetan? Bada hemendik hara nahi dut haren kontrako bidez abiatu. Zergatik iausiko haiz putzu hondatzaille hartara? Hargatik neure buruari egingen diot hune-lako eta halako bortxa bekhatutik ihes egiteko, hark xoilki heriotze sekulako hura eman diazakedanaz geroztik.

*Esker, off: othoitz.*



## Zortzigarren meditazioea. Parabisuaz

### HAMASEIGARREN KAPITULUA

#### *Preparazioea.*

1. *Iar zaitte Iainkoaren aitzinean.*
2. *Gomenda zakizko.*

#### **Konsiderazioeak**

1. Konsidera zazu gau eme eta eder bat, eta ikusazu zein gauza ona eta arraia den Zerua ikustea bere izar guziekin, bada emazu orai edertasun hura egun eder baten edertasunarekin, hala non iguzkiaren argitasunak eztezan traba izarren eta illargiaren ageriz ikustetik, gero errazu ausartki edertasun hura guzia elkharrekin bildurik eztela deus ere Parabisu handiaren exzelenziaren aldean. O leku desiratzekoa eta maitatzekoa! O hiri preziatua.

2. Konsidera zazu herri doatsu hartako burgesen noblezia, eta edertasuna, Angeruen, Kerubinen, Serafinen miliunak eta miliunak, Apostoluen kopainia, martiren, Konfesoren, Birjinen, Andre sainduen tropelak; ezin konda ditezke, hanbat hainitz izanez. O konpainiaren doatsu! ederrago da hetarik xipienaren ikustea mundu guziaren baino, zer izanen da guzien ikustea? Ene Iainkoa zein doatsu diren: bethi kantatzen dute bethiereko amorioaren kanta, bethi gozatzen dira ardurako bozkarioaz, bata bertzeari ezin erranezko kontentamenduak emaiten diotzate, bizi dira batasun doatsu eta ezin ethenduzko baten konsolazionean.

3. Konsidera zazu finean zer ontasun duten guziek Iainkoaz gozatzaz; hark sekulakotz bere begi maiteez behatzen deraue, eta begitarte hartaz plazeretako itsaso neurrigabeko bat isurtzen du hekin bihotzetara. Zer ontasun bere ithurburuarekin sekulakotz iuntaturik egoitea? han dira ezin zinetsizko plazerez alde guzietarik inguratzen dituen Iainkotasunaren airean sekulakotz hegaldaka dabilzan, eta kantaz daudezin xori doatsuak bezala; han guziek, nork hobeki eta bekhaiztu gabe kantatzen tuzte Kreatzaillearen laudorioak. Benedikatua zarela sekulakotz, O gure guzien gaineko Kreatzaille ezia, O gure Salbatzaille maitea, gure aldera hain on izan zarena, hain bizargi zure loria partitzen deraukuzuna. Eta ordainez Iainkoak benedikatzentu Sainduak bethiereko

benedizinoz. Benedikatuak zaretela sekulakotz, dio, ene kreatura maiteak, munduan serbitzatu nauzuena, eta sekulakotz laudatuko nauzuena hain amorio eta bihotz handirekin.

#### **Afekzioeak eta erresoluzioeak**

1. Zaude herri zeruko haren miretsten eta laudatzen. O zein eder zaren ene Hierusalem maitea, zein doatsu diren zure burgesak.

2. Erantzute egiozu zure bihotzari, zergatik hain flako izan den orai arteraino, zergatik hanbat apartatu den egoitza doatsu hartarako bidetik. Zergatik hain urrundu naiz ene guzien gaineko ontasuna ganik? Ha miserable! plazer hain arin eta desplazergarri hekin gatik millatan, eta millatan neurri eta mugagabeko plazer hek utzitut. Zer espiritu nuen hain ontasun desiratzekoen mesprezatzaz hain desir mesprezatzekoak eta ezdeusak gatik?

3. Badarik ere etxazazu bortitzki zure gogoia egon-leku plazertsu hartara. O halaz eta, ene Iaun ona eta beregainekoa, plazer izan ditutuz naz geroztik ene urratsak xuxendu zure bidetan, ez, sekulan enaiz gibela bihurtuko. Goazen, O ene arima maitea, goazen errepausu infinitu hartara, erdu gaitezin prometatu zaikun lur benedikatu hartara. Zer hari gara Egipteko lurtean?

Libratuko naiz bada, bide hartarik errebelatzen edo gibelatzen nauten halako eta halako gauzetarik.

Eginentut bada hara gida, eta ekhar nazaketen halako eta halako gauzak.

*Esker, ofr, othoitz.*





**Bederatzigarren meditazioea.**  
**Parabisuaren hautatzeko kontuan bezala**

## HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

*Preparazioea.*

1. *Iar zaite Iainkoaren presentzian.*
2. *Humil zaite haren aitzinean, eta othoitz egozu inspira zaitzala.*

**Konsiderazioeak**

Iduri bekizu landa handi eta ordoki batetan zarela bakharrik zure Angeru onarekin, Tobias gaztea zen bezala Erragezara zioanean, eta goiti erakusten derautzula Parabisua idekirik, Parabisuaz egin duzun meditazioean errepresentatu zaizkitzun plazerekin, eta behereko aldetik erakusten derautzula Ifernua zabaldurik, Ifernuaz egin duzun meditazioean deklaritzen diren penekin. Hala iarririk zaudezila iduriz, eta zure Angeru begiralearen aitzinean belhaunikaturik.

1. Konsidera zazu egia dela Parabisuaren eta Ifernuaren erdian zaudela, eta bata eta bertzea idekirik daudela zure hartzeko eginen duzun hautuaren arauera.
2. Konsidera zazu batz edo bertzeaz mundu hunetan egiten den hautuak bertzean iraunen duela sekulakotz.
3. Eta bata eta bertzea idekiak direlarik zure hartzeko hautatuko duzun bezala, guziarekin ere Iainkoak, nola preparatua baita, edo zuri bataren emaitera bere iustiziaz, edo bertzearen bere miseriak, desiratzun du desir paregabeko batez Parabisua hauta dezazun, eta zure Angeru onak hartara ertxatzen zaitu bere ahal guziaz, eskaintzen derautzkitzula Iainkoaren partez milla eta milla helzakitza zuri laguntzeko ikhaiten.
4. Gure salbatzailleak zerutik goiti behatzen derautzu bere mansotasunean, eta gonbidatzen zaitu emeki; zato, O ene arima maitea, sekulako errepausura ene ontasunaren besoetara, zeinak prepaetatu baiterauzkitzu bethiereko atseginak bere amorioaren frankian. Beha zazu barreneko begiez nola Birjina Sanduak gonbidatzen zaituen ama legez. Har ezazu bihotz, ene alaba, ezetzatzula mespreza ene semearen desirak, eta zure gatik aurtikitzen ditudan hatsbeherapenak, nahiz hark bezala sekulakotz salba zaitezin. Ikusazu nola Sainduak bihotz emaiten derautzuten, nola milla eta milla arima sainduak gonbidatzen zaituzteneztiki, desirik ez tutelatu

egun batez zure bihotzaren berearekin iuntaturi ikusteko baizen, Iainkoaren sekulakotz laudatzeko; seguratzun zaituztela Zeruko bidea ez trela munduak dioen bezain gaitza. Ausartki, diote, arima maiteena, Nork ere ongi konsideratuko baitu, zeinetaz ikhan garen eebazioaren bidea, ikusiko du etorri garela plazer hautara plazer gozoagoekin konparaziorik gabe mundukoak diren baino.

**Hautua**

1. O Ifernua, orai arnegatzen diat hitaz sekulakotz, arnegatzen diat hire penez, eta hire inkontru gaitzeko eta dohagabeko eternitateaz; guzien gainetik arnegatzen diat Iainkoaren kontra bethi eta bethi aurtikitzen dituan blasfemioez, burhoez eta madarazinoez; zure gana, O Parabisu ederra, itzultzen naiz bihotzez eta arimaz, O sekulako loria, bethiko doatsutana, hautatzen dut sekulakotz, eta ezin ganbia dakidikedan borondatez ene egoiteko lekua zure etxe ederretan eta sakratuetan. Benedikatzen dut, ene Iainkoa, zure miseriak, hartzen dut egin plazer derautazun eskaintza. O Iesus ene Salbatzaillea, besarkatzen dut zure egundainoko amorioa; hartzen dut, enetzat Hierusalem doatsu hartan erosi duzun lekua; ez bertze deusetako hanbat, nola zure maitatzeko eta benedikatzeko sekulakotz.

2. Haretzatzu Andre Dana Mariak eta Sainduak presentatzen derautzkitzuten faboreak, prometa diezezu erdutuko zarela hekin gana; emozu zure Angeru begiraleari eskua gida zaitzan gatik; zaude bihotz guziaz hautu hartan.





## Hamargarren meditazioea. Bizitze debotaren hautatzeko kontuan bezala

### HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

#### *Preparazioea.*

1. *Iar zaite lainkoaren presentzian.*
2. *Behetizaita haren begien aitzinean, eta othoitz egiozu lagun dakizula.*

#### **Konsiderazioeak**

1. Iduri bekizu berriz landa zabal eta ordoki batetan zarela, zure Angeru begiralearekin baxharrik, eta ezkerreko aldean ikusten duzula Deabrua Tronu handi batean gora iarririk, eta hainitz Ifernuko espiritu daudela haren aldean, eta haren inguruan mundukoen saldo handi bat, guziak burua agerturik, xapelak erauntzirik, hura Iaun etsten dutela, eta agur egiten diotela, batak bekhatu batez, bertzeak bertze batez. Mira zazu Errege madarikatu haren Kurtisano dohakabe guzien erremangua; beha zazu nola batak errabiatzen diren herraz, inbidiaz eta koleraz; bertzeek elkhar hiltzen duten, bertzeak gogoetatsu daudezin, eta gero khexa dabil-tzan aberatstasunak bildu nahiz, bertzeak banaloriari darraizkon, plazerik ez tutelata bat ere ezpada alferrik eta ezdeusetakorik; bertzeak lizundurik, galdurik, usteldurik bere urdezko maitarasunetan. Ikusazu nola diren errepausurik, ordenanzarik eta erremangurik gabe; nola batak bertzea mesprezatzen duten eta ez tuten elkhar maite itxura falsoz eta gezur-ma-naz baizen. Finean ikusiko duzu Errege madarikatu hark nausiturik darabillan erresuma galdu bat eta urrikalduko zaitzuna.

2. Eskuineko aldean ikusazu nola Iesus gurutzean iosia bihotzeko amudio batez othoitz dagoen deabrutu gaizo hekin gatik, hekin atherat-zeko tiranotasun hartarik, eta nola bere gana deitzen dituen. Ikusazu haren inguruan bere angeruekin dauden deboten tropela handia, zagotza debozionario Erresuma haren edertasunare beha. Zein eder egiten duten, ala gizon, ala emaste Birjina hek! Andre Dana Maria arrosa baino xuriao dira. Zein eder diren berriz mortifikazioe sainduaz eta humiltasun barrenaz betheak diren Alhargun hek! Ikusazu hainitz presuna ezkontu-ren arrimua; hain ezтики bizi dira elkharrekin elkharaganako errespeturekin, non ezin baititeke karitate handi bat gabe. Mira zazu nola arima debot hekl bere kanpoko etxeaz duten arthaz ezkontza saindu bat egiten duten barrenekoaz dadukaten artharekin, senharraren amorioaz zeruko esposa-

ren amorioarekin. Beha zazu jeneralki alde guzietara, guziak ikusikotutzu erremangu saindu, eme, eta onetsgarri batetan, gure Salbatzaillearen enzuten daudezila, eta hura guziek nahi luketela bere bihotzaren erdian landatu.

Bozten dira bainan bozkario graziatsu, begitartetsu, karitatetsu, eta ongi ordenatu batez, maitatzen dute elkhar, bainan maitarasun sakratuaz eta garbienaz. Poblubebot hartan aflikzionerik dutenak ez tira hartatik hagitz khexatzen eta ez tora aendaratzem bat ere. Finean ikusazu nola gure Salbatzailleak konsolatzen dituen bere begiez eta nola hek ere guziek elkharrekin bere gogoak dituzten haren gana.

3. Utzi duzu gaugeru Sathana bere tropela itsusi eta zori gaixtozko harekin, hartu dituztun gogo onez, eta halarik etzara oraino etorri Iesus Errege gana, etzara oraino sartu haren deboten konpainia doatsuan eta sainduan, bainan egon zara bethi bataren eta bertzearen artean.

4. Munduan bizi zian diren Birjina sainduak, Sain Iosefek, Sain Luisek, Santa Monikak eta bertze ehun millak zure deia dute, eta bihotz emaiten derautzute.

5. Errege gurutzatuak deitzen zaitu zure izenaz: zato, ene maitea, zato khoroa zaitzadan.

#### **Hautua**

1. O madarikatzeko tropela, O mundua, ez, sekulan enauk ikusiko hire banderaren azpian. Utzitat sekulakotz hire gaixtakeriak eta banaloriak. O Errege urguillua, inkontru gaitzeko Erregea, Ifernuko espiritua, arnegatze diat hitaz hire banaloriazko ponpiresunekin; madarikatze aut, eta hire obra guziak.

2. Zure gana, ene Iesus ez tia, zure gana, ene Errege doatsua, eta sekulako loria, itzultzen naiz, besarkatzen zaitut ene arimako indar guziez, adoratzen zaitut ene bihotz osoaz. Hautatzen zaitut orai eta sekulakotz ene Erregetzat, eta ene ezin hautsizko fidelitasunaz emaiten natzaitzu, sekulan neure eskuko ezin iar naitekeien bezala, bethiere zure lege eta ordenanza sainduen obediencia azpian nagoela.

3. O Birjina saindua, ene Andre maitea, hautatzen zaitut ene gidaritza, iarten naiz zure banderaren azpian, prometatzen derautzut errespetu eta erreberentzia partikular bat.

O ene Angeru saindua, presenta nazazu biltzarre sakratu hartara, eta enazazula utz hel nadin artean konpainia saindu haren gana, zeinarekin batean, egiten dudun hautuaren seinaleztat erraiten baitut eta sekulakotz erranen. Bizi bedi Iesus, bizi bedi Iesus.



## Nola egin behar den konfesione jenerala

### HEMERETZIGARREN KAPITULUA

Horra bada, Filothe maitea, gure intzionatearen arauera behar diren meditazioeak. Hek egin dituzketzunean zoaz gogotik espiritu humillarekin zure konfesione jeneralaren egitera, bainan othoi, etzaitzezila asalda zein ere nahi den beldurrez. Ausiki gaituen arluria pozointsua da ausikitzen gaituenean; ordea bera egin denean olio, erremedio handi da bere ausikiaren beraren kontra; bekhata eza ahalkatsu, hura egiten dugunean baizen; bainan konfesatua denean eta penitentiara itzulia, ohoratua da eta salbagarria. Kontrizioea eta konfesioea hain dira eder eta usain onezko, non khentzen eta borratzen baitute bekhatuaren itsuskeria, eta haren usain gaixtoa airatzen. Simon sorhaioak zioen Madalena bekhatoresa zela; bainan gure Salbatzailleak ezez dio, eta eza minzaten banatu zituen usain onez eta haren karitate handiaz baizen; humil aski bagara, Filothea, damu paregabeko bat izanen dugu gure bekhatuaz zeren iainkoa den ofensatua; bainan gure bekhatuaz eginen dugun akusazioea izanen zaiku ezti eta gogarako, zeren hartaz ohoratzen baita iainkoa; nolazpait arintzen gara midikuari penatzen gaituen gaitzaren erraiteaz. Zure Aita espiritua-laren belhaunetara zarenean iduri bekizu Kalbarioko mendian zarella Iesus gurutzatuaren oinen azpian, eta odol preziosa kantoin guzietarik dariola, zure garbitzeko zure gaixtakerietarik. Zeren haren odola bera orduan isurten eztelarik, badarik ere Pasionean isuri zen odolaren meritua da, penitentak konfesatokietan largoki bustitzen dituena. Zabalezazu bada zure bihotza, hartarik bekhatuaren atheratzeko konfesioeaz; zeren ilkiko diren arauera, Iainkoaren Pasionearen meritu preziosa sartuk zaio, haren bethetzeko benedizinoez.

Ordea erraitzu guziak simpleki eta ageriki, diren bezala; kontentazazu ongi zure konszientzia aldi on batetako. Hori eginik enzun etzatzu Iainkoaren serbitzariak emanen derauzkitzun abisuak eta ordenanzak, eta errazu zure bihotzean: minza zaite, Iauna, zeren zure neskatoak enzuten zaitu. Bai Filothea, Iainkoa da zuk enzuten duzuna, erraiten derauneaz ero bere Bikarioei, enzuten zaituztenak enzuten nau. Harezazu gero eskuan hemen eman dudan protestazioea; hura izanen da zure kontrizioearen azken burua, eta behar da hura lehen erabilli duzun gogoan eta konsideratu. Hura bada irakur ezazu erneki, eta ahal dukezun sentimendu handienarekin.

## Protestazione seinalatua

### Iainkoaren serbitzatzeko

### erresoluzioearen ariman eskiribatze

### eta penitentiako akteen serratzeko

### HOGOIGARREN KAPITULUA

Nik hemen beherean neure izena emanik natzan horrek, Iainko handiaren eta Zeruko korte guziaren aitzinean iarririk nagoela, haren ontasunaren ene alderako miseriak neurrigabekoa konsideraturik, nola, kreatura ezdeus eta merezigabeko bat naizelarik, ezdeusetarik athera nauen, nola begiratu, mentenatu, hanbat perilletarik libratu, eta hanbat ontasunez bethe izan nauen. Bainan guzien gaintetik konsideraturik, nola bere ezin erranezko ezitasunaz eta emetasunaz hain mansoki pairatu nauen ene gaixtakerietan, hain maiz eta hain maiteki inspiratu eta gonbidatu onera itzultzera, hain pazientki iguriki derautan ene adineko urthe N. hunetaraino, ea eginen nuenz penitentia eta urrikituko zitzaitanz, hura hain ahalkegabeki ofensatu dudalarik ene esker eta leialgabez, bethi luzatuz haren gana itzuli gabe, eta haren egunoroko graziak mesprezaturik. Konsideraturik oraino ene Bataio Sakratuaren egunean hain zori onez eta hain sailduko eman eta konsekratu izan nintzaiola ene Iainkoari ni haren alaba izaiteko, eta orduan ene izenean egin zen profesaren kontra hanbat eta hanbat aldiz hain inkontru gaixtoz eta maradikatuki lizundu eta gaixtatu dudala enen espiritua, haren iainkozko Majestatearen kontra alxatuz eta iararaziz; orai finean bihurtzen naizela neure gana, Iainkozko iustiziarren thronuaren aitzinean bihotzez eta espirituz neure burua lurreraino egoitzirik, ezagutzen dut, aitortzen eta konfesatzen legezki edireiten eta erakusten naizela hobenduri Iainkoaren Majestate ofensatuaz, eta Iesus ene Salbatzaillea paira eta hilarazi dudala nik egin ditudan bekhatez, zeinak gatik hil baita eta gurutzeko penak pairatu baititu, hala non merezi baitu sekulakotz gal eta dana nadin.

Bainan Iainko handiaren beraren neurrigabeko miseriak neurrigabeko thronua itzulirik, neure bihotz osoz eta neure indar guziez arnegatzen dudala ene bizitze iraganaren gaixtakeriez, othoitzez nago ahal dagidan bezain humilki, eman dakidala ene bekhatez barkhamendu eta absolbazione osoa, ene arimaren Salbatzaille eta iaun haren beraren pasionearen



eta heriotzearen bertutez; zeinaren gainean, ene esperanzaren zimendu bakhhoitzaren gainean bezala, permatzen naizela, laudatzen baitut berriz, eta berriz egiten ene Iainkoari ene partez bataiatu nintzenez egin zitzaion profesa eta promesa fidel izanen nintzela, ukho egiten diodala deabruari, munduari eta haragiari, arnegatzen dudala hekin gogoratze, banaloria eta gutizia gaixtagarri guziez orai bizi naizen orduko, et sekulakotz. Eta bihurtzen naizela ene iainko emea eta urrikalsua gana, sekulan hautsi nahi ez tudan desira, goga eta borondatea hartzen dut haren serbitzatzeko eta maitatzeko orai eta sekulakotz, hartarakotzat emaiten eta konsekratzen diodala ene espiritua eta arima bere indar guziekin, ene bihotza bere afekziorik, eta ene gorputza bere sensu guziekin; zinetan nagoela enaizela bliatuko ene izaitetik ditudan partetarik batez ere haren borondate sainduaren eta guzien gaineko Majestatearen kontra, sakrifiziatzat diodala ene espiritua, kreatura leial, obedient eta fidel haren alde-za izaiteko, nahi ez tudala, sekulan ene hitzaz ukhatu edo urrikitu. Helaz ordeal baldin etsaiak gogora ekharriz, edo neroni flakoz eroriz gertatzen baninz orai hartzen dudan erresoluzioaren eta neure buruaz egiten dudan konsekrazioaren zerbaitetan hautsten, orai danik deliberatzen dut eta goga zinetan hartzen, Espiritu sainduaren graziarekin batean, handik iaikituko, ene hutsa ezagutuko dudana bezain sarri, eta berriz bihurtuko naizela Iainkoaren miseriordia gana, bat ere berandu eta luzatu gabe. Hau da ene borondate, ene intenzione, ene erresoluzio sekulan ez hautstekoa eta ez itzultzekoa, erakusten eta finkatzen dudana, deus ere lekhatu gabe, ene iainkoaren prezentzia berean, Zeruan loriaz gozatzen den Elizaren eta hemen bere etsaien kontra guduan hari den Eliza amaren begien aitzinean, zeinek ene deklarazio hau enzuten baitu, obra hunetan haren partez eta haren orde bezala Aita espiritualak enzuten nauen puntuan. Plazer duzula, Oene bethiereko Iainkoa, guziz botheretsua, guziz ona, ene baitan erresoluzio hau firmatu, eta neure buruaz egiten derautzudan bihotzeko eta barreneko sakrifizioa, usain on bat bezala begi arraiez hartu. Eta nola plazer izan baiterautazu erresoluzio hunen hartzeko inspirazionea, eta haren egiteko borondatea eman, indazu halaber haren konplizetako behar dudana grazia eta indarra. O Iainkoa, ene Iainkoa zare, ene bihotzaren Iainkoa, ene arimaren Iainkoa, ene spirituararen Iainkoa, halako zaitut ezagutzen eta adoratzen orai eta sekulakotz. Bizi bedi Iesus.

## Konklusioa lehen purgazioe hunez bezanbatean

### HOGOI ETA BATGARREN KAPITULUA

Protestazione hau eginik zaude ernerik, ta zabal etzatzu zure bihotzeko beharriak, espirituz enzuteko, nola zure arimaren Salbatzaileak berak bere miseriordiaren thronuan iarririk Zeruan gora, Angeru eta Saindu guzien aitzinean, bere ahoz emanen derautzun absolbazionea, Apezak haren izenean hemen behean absolbatuko zaituen puntuan berean. Hala non doatsuen tropela hark guziak, zure zori onaz bozturik, kantatuko baitu kanta espirituala paregabeko alegrianzaz, eta guziek emanen baitiote bakezko musua zure bihotz graziara bihurtarazi eta saindu-tuari.

O Iainkoa, Filothea, zein miragarri den kontratu hau! zein tratu doatsu egiten duzun Iainkoaren majestatearekin, halaz eta hari zure burua zeronek emaiten diozunean, zuk hura irabazten duzunaz geroztik eta zure burua ere bera sekulakotz bizitzeko? Ezta gainerakorik lekhat pluma eskuan harturik, bihotz onez zure promesa zure seinaleaz firma dezazun, eta gero zoazin aldarera, non Iainkoak ere bere aldetik bere seinalea eta sigillua emanen baitu zure absolbazioaren, eta bere Parabisuaz eginen derautzun promesaren gaietan, berak bere burua bere Sakramenduaz kaxeta eta sigillu bat bezala ezarten duela zure bihotz berrituaren gainean, Manera hartaz, ene ustez, Filothea, zure arima egondn da bekhatuaz eta bekhatuaren afekzioe guziez garbiturik. Ordea zeren afekzioe hek berriz errazki sortzen baitira gure ariman gure flakotasuna eta gutizia gaixtoa dela kausa, ikusirik mortifika ditekeiela, ezin orde hil, hemen behean bizi gareino, emanen derautzkituz abisu batzu, zeinek, ongi eginik, begiratuko baitzaituzte hemendik aitzina bekhatu mortaletik, eta haren afekzioe guzietarik sekulan zure bihotzean lekurik ardiets eztezan gatik; eta nola abisu hek berak on baitira oraino purgazioe perfetago batentzat, hek eman diatzatzudan baino lehen, zerbait erran nahi derautzut garbitasun osoago hartaz, zeinetara nahi baitzaitut gidatu.



## Purgatu behar dela nihork bekhatu benialetara dituen afekzionetarik

### HOGOI ETA BIGARREN KAPITULUA

Egunaren argia heldu zaizun eredura, klarkiago ikusten ditugu gure bisaiaren nothak eta lizundurak; hala ere Espiritu sainduaren barrneko argiak gure konszientzia argitzen duen arauera, xeherokiago eta klarkiago ikustentugu egiazko debozionatearen ardiestetik traba ahal gaitzaketen bekhatuak, inklinazioneak, eta imperfekzioeak. Eta notha eta eskas hek erakusten derauzkigun argiak berak berotzen gaitu, eta hetarik garbitzeko desira har arazitzen derauku.

Ikusiko duzu bada, ene Filothe maitea, bekhatu mortalez eta bekatu mortalen afekziorik lekhora, zeinetarik garbitu baitzara lehen eman zaizkitzun exerzizez, zure ariman oraino hainitz inklinazione eta afekziorik duzula bekhatu benialetara; eztiot bekhatu benialik ikusiko duzula, bainan diot hetarako afekzioeak eta inklinazioneak ikusiko ditutzula; bada diferentzia handia da batoren eta bertzearen artean, zeren ezin gaudezke sekulan osoki bekhatu benialetarik garbi, behintzat luzeki garbitasun hartan irauteko; bainan bagaudezke bekhatu benialetarako afekzionerik izan eta iduki gabe. Gertuz bertze gauza bat da behin ezpa bietan bihotz alegeraz gezur erraitea kontu gutitako gauzetan; eta bertze bat da gezur erraitean lakhetzea, eta halako gezurretara afekzioe izaitea.

Badiot beraz orai gure arima garbitu behar dugula bekhatu benialetara dituen afekzioe guzietarik, erran nahi da, eztugula borondatezki iduki behar bekatu benialetan, zein ere nahi den, egoiteko eta finkatzeko borondaterik. Ezen hala ere laxotasun handiegi bat lizate, iakiara gure konszientzia Iainkoari hain itsusi zaion gauza baten haztea, nola baita haren gogoaren kontrakorik egiteko borondatea. Bekhatu beniala zenbat ere xipi baita, Iainkoari itsusi zaion, hain itsusi etzailarik, non haren gatik nahi gaituen danatu edo galdu. Baldin bekhatu beniala haren gogoaren kontrakoa bada, bekatu benialetara nihork duen borondatea eta afekzioe ezta bertzerik, haren Majestate sainduari lakhet etzaion gauzarik egiteko erresoluzioeak baizen. Egin othe diteke arima ongi sortu eta ikhasi batek nahi duen, ez xoilki bere Iainkoari lakhet etzaion gauzarik egin; bainan eta hari desplazer egiteko afekzionerik iduki?

Afekzioe hek, Filothea, xuxen ioiten dute debozionatearen kontra, bekatu mortaletarako afekzioeek karitatearen kontra egiten duten bezala: espirtuaren indarrak langi arazitzentuzte, Iainkoa ganikako konsolazioeak trabatzentuzte, tentaziorik athea idekitzen deraue, eta arima hiltzen eztutelarik, hura azken punturaino eritzen dute. Uliek bere hillez, dio zuhurrak unguentaren gozoa gaixtatzen dute eta hiltzen. Erran nahi du uliek unguentaren gainean ez egonez, guti bat baizen, eta hartarik iragaitan ianez, eztutela gaixtatzen hartzen dutena baizen, eta gainerakoa osorik dagoala, baiñan hiltzen direnean unguentan barrena, eramaiten diotela bere balioa eta prezioa, eta hura mespreziotan ezarten dutela; Hala ere bekhatu benialek arima debotean sartuz, eta ez luzeki egonez, eztiote kalte hainitz egiten, bainan bekhatu hek berak ariman badaude, hetan emaiten duen afekzioe gatik, dudagaberik galarazitzen diote unguentaren gozoa, erran nahi da, debozioe saindua.

Armiermek eztiutuzte erleak hiltzen, bainan hekin ezta gaixtatzen dute, hekin kofaue-zilhoak eta beraskak nahastentuzte hetan egiten dituzten sareez, hala non erleek ezin egin baitezakete bere lana hori aditzen dela armiermak han luzeki daudezinean. Manera berean bekhatu benialak ezta gure arima hiltzen, bizkitartean ordea gaixtatzen du debozioe, eta arimako indarrak hain bortitzki nahastekatzen inklinazione gaixtoez, non ezin geiago hari baititeke agudoki karitatezko obretan, zeinetan baitatza debozioe; bainan hori aditzen dela, bekhatu benialak gure konszientzia hainitz egun egiten duenean, hari ekhartzen diogun afekzioeaz. Ezta deus, Filothea, zenbait gezur arin erraitea, hitzketan, akzionetan, behatzetan, tresnetan, edergailluetan, iokotan danzetan aphur bat errebelatzea, kondiziorik armierma espirtual hek, gure konszientzia sartu diren bezain sarri, etxa eta desterra detzagun, erleek dabilzten armierma biziak bere artetik khentzen dituzten bezala. Ordea utzten baditugu gure bihotzetan leku hartzera, eta ez hori xoilki, bainan afekzionerik hartzen badugu hekin idukitzeko eta utzteko emendatzera gure baitan, sarri ikusiko dugu gure ezta galdurik, eta gure konszientziaren kofauea nahastekaturik eta urraturik. Berriz bad diot, zer arrazoin iduri du arima bihotzduen batek atsegin har dezan bere Iainkoari atsekabe egiteaz, gogotik iar dadin haren gogoaren kontrakorik egiten, eta nahi duen hark nahi eztuela eta unhagarri zaiola dakien gauzarik?



## Nihor purgatu behar dela ezdeusetako, eta perillos diren gauzetarako afekzionetarik

### HOGOI ETA HIRURGARREN KAPITULUA

Iokoak, danzak, banketak, ponpiresunak, komediak beronez ez dira niholatako maneraz gaixto; aitzitik ez on ez gaixto dira, ikusirik ongi eta gaizki har eta egin ditezkeiela; halarik ere bethi perillos dira, eta hetan gogo emaita, are perillosago. Nik diot bada, Filothea, sori delarik iokotan eta danzetan haritzea, bere buruaren edertatzea, komedia garbirik enzutea, banketatzea, badarik hetarako afekzionerik izaita, debozionearen kontrako gauza dela xoil kaltegarri eta perillos. Ezta gaizki halakorik egitea, baina bai hetan afekzione emaita. Kalte da gure bihotzeko lurtean hain afekzione banaloriazkorik eta erhorik ereitea; hartzen dute ereitza onen eta espiritalen lekua, eta tratatzen dute gure arimaren gozoa inklinazione onezko fruiturik ekhartzetik.

Hala leheneko Nazareoak zeudezin ez xoilki hordi zezaketen guzietarik edan gabe, baina oraino mahatsik eta agaratzik ere ian gabe; ez zeren mahatsak edo agaratzak hordi dezakeien, baina zeren peril baitzen agaratzik iaten bazuten, mahats ere iateko gutzia pitz zezaten, eta mahatsik iaten bazuten, mahats-arno ere edateko apheetua erakhar zezaten. Eztiot ordea ezin har dezakegula gauza perillos hetarik, baina diot sekulan ezin demakegula hetan afekzionerik, debozioneari kalte ekharri gabe. Oreinak, sobera gizendu direnean, uruntzen dira eta bere berroetan sartzen, ezaguturik bere gizenegiz kargatuak direla, eta hala eliratezkeiela gai laster egiteko, suertez akometa balitez; gizonaren bihotza kargatzen denean afekzione ezdeusetako eta perillos hetaz, duda gabe bere Iainkoaren ondoan ezin ibil diteke lasterka, agudoki eta errazki, zein baita bizkitartean debozionearen egiazko puntua. Haur xumeak afekzionatzen dira eta izertzeraino khexatzen pinpirinen eta xixiteren ondoan; ezta hori nihork gaizki hartzen, zeren haurrak baitira; baina ez othe da gauza irri-garria, bai aitzitik nigargarria, gizon eginak ikusteaz khexatzen eta bere gogoaren sartzen hain guti merezi duten fitsetan, nola baitira erran ditudanak, zeinek berezdeuzetarasunaz lekhora, perillean ezarten baigaituzte gure buruaren nahasteko eta errebelatzeko eta irraikiteaz? Hartarakotz, ene Filothea maitea, erraiten derautzut purgatu behar zarela afekzione hetarik, eta halakorik noizbait egitea eztelarik bethi debozionearen kontra egitea, guziarekin ere hetaratzen diren afekzioneek bethi ekhartzen diotela debozioneari kalte.

## Purgatu behar dela inklinazione gaixtoetarik

### HOGOI ETA LAUGARREN KAPITULUA

Baditugu oraino, Filothea, naturalezatik sortzen diren inklinazione batzu, zeinak, zeren ez tuten bere sortzea hartu gure bekatu partikularetarik, ongi minzatzera, ezpaitira bekatu, ez mortal ez benial, baina erraiten dugu inperfekzioneak direla, eta hekin egitea dela eskasa eta hutsa. Exenplutzat, Santa Paulak, Sain Hieronimok eskiribatu duen bezala, inklinazione handi bat zuen tristeziatar eta doluetara, hala non haren haurrak eta senharra hil zirenean, bethi damuz hiltzeko perillean iari baitzen. Hori zen inperfekzione bat eta ez bekatu, haren gogoaren eta borondatearen kontrako gauza zenaz gero. Bada naturalezaz jende arinik, bada nabarbenik eta molde gaitzik, bada gogorrik bertzeren erranak nekhez hartzen dituenik, bertzeak mesprezakor dira, bertzeak haserrekor, bertzeak amoriora emanak dira; hitz batez guti edireiten da zenbait halako inperfekzionetarik ez tuenik, eta hura noizbait erakusten ez tuenik.

Ordea batbederaren naturalezati datxezkolarik, halarik ere artha ekharriz eta hekin kontrako afekzionea hartuz neurrira eta onera ekhar ditezke, eta hetarik garbi eta libra diteke ere nihor. Ediren da bidea armendola ondo khiratsen ez titara ganbiatzeko, ondoan zilhatze hutsaz handik gozo khiratsaren ilki arartzeko, zergatik gure inklinazione gaixtoak ezin kanporako ditugu hobe gaitzezintzat? Ezta hain naturaleza onezkorik, non ezin gaixta dadin ohitza gaixtoez, ezta ere hain olha gaitzik, non Iainkoaren graziaz lehenik, gero antzez eta arthaz ezin hez eta garai dadin.

Banao bada orai eman eta erakus detzadan abisuak eta exerzizak, zeinen bidez garbituko baituzu zure arima afekzione perillosetarik, inperfekzionetarik eta bekatu benialeterako afekzione guzietarik, eta zure konszienza geiagotik geiagora seguratuko baituzu bekatu mortal guzien kontra.

Iainkoak dizula grazia hei ongi irraikiteko.





## Orazionearen premiaz

### LEHEN KAPITULUA

## FILOTHEAREN BIGARREN PARTEA

Hainitz abisu dadukana arimaren Iainkoagana alxatzeko orazioneaz eta sakramenduez

1. Nola Orazioneak ezarten baitu gure adimendua Iainkoaren argian, eta gure borondatea paratzen baitio zeruko amudioaren berotasunari, eztu deusek ere gure adimendua bere iakingabetarik eta gure borondatea bere afekzione gaixtoetarik orazioneak bezanbat garbitzen. Orazionea da benedizinozko ura, bere ihintzaduraz gure desira onen landareak berriz heza eta lora araziten dituena, gure arimak bere inperfekzionetarik garbitzen dituena, eta gure bihotzak bere pasioenen egarsutik libratzen dituena.

2. Bainan guzien gainetik konseillu emaiten derautzut mentalari, erran nahi da, bihotzekoari eta bereziki gure Salbatzailearen bizitze eta pasione sainduaren gainean egiten denari lotzea zeta iarraikiteaz; hari maiz behatzen diozula meditazioez, hartaz betheko da zure arima, haren ibil-bideak eta iar-mainak ikhasiko tutzu, eta zure akzioeak haren gainean moldatuko. Hura da munduko argia, beraz haren baitan, haren ganik, eta haren gatik behar gara argitu; hura da desirazko arbola, zeinaren itzalean behar baigara freskatu; hura da Iakoben ithurri bizia gure garbitzeko lizundura guzietarik. Finean hurrek bere amak maiz adituz eta hekin batean mihia erabilliz, mothelki bada ere, ikhasten dute hek bezala minatzen. Guk halaber gure Salbatzailearen aldean bagaude meditazioez, eta behatzen baderauegu haren hitzei, akzioei eta afekzioei, haren graziarekin batean ikhasiko dugu hura bezala minzatzen, hark bezala egiten, eta duen bezalako nahiaren hartzen. Hortan egon behar da, Filothea, eta zinets nazazu ezin goazke Iainko aita gana athe hartaz baizen, zeren nola mirail baten berinak ezin geldi bailezake gure bista, estainu edo berun iratxekiten ezpalitzaio gibeletik; hala ere Iainkotasuna ezin ongi mira genezake mundu behere hunetan, iuntatu ezpaliz gure Salbatzailearen gizontasun sakratuarekin, zeinaren bizitzea eta heriotzea baitira gure ordinarozko meditazioez hauta dezakegun xederik eta punturik hoberena, gozoena, plazersuena, probetxosena, eta gure indarren arauerakoena. Gure Salbatzaileak eztu ezdeus gatik Zerutik iautsirikako ogiaren izena hartu, zeren nola ogia behar baita ian iaki fuerte guziekin, hala ere gure Salbatzailea behar dugu meditatatu, konsideratu eta bilhatu gure Orazione eta akzioe guzietan.



3. Haren bizitzea eta heriotzea hainitz puntutan berezia da liburuetan, irakhastea gatik zer eta nola medita. Emazu hetan egun guzietan oren bat barazkaldu baino lehen, ahal badagizu goiz hastean, zeren orduan espiritua izanen duzu idekiago, gutiago nahasia eta freskoago gauazko pausaren ondoan. Ez eman ere oren bat baino geiago, zure aita espiritualak berriaz erraiten ezpaderautzu geiago eman dezazun.

4. Zure meditazioa egin ahal badezazu elizan, eta han bakerik aski edireiten baduzu, gauza xoil erraza izanen da zuretzat, zeren elizan oren bat egoitetik ezin tratatuko zaituzte arrazoinekin ez aitak, ez amak, ez emasteak, ez senharrak, ez bertze nihork ere, bainan norbaiten azpiko bazara, etzenduke naski oren baten ephea hain osorik zure etxean.

5. Has ezazu orazione suerte guzia, dela bihotzekoa, dela hitzekoa, Iainkoaren presenziatik, eta erregla hau idukazu lekhatzerik gabe, eta ikusiko duzu denbora gutiren barrenean zein probetxu handi ekharriko derautzun.

6. Zinetsten banauzu, erranen duzu zure *Patera*, *Abe Maria* eta *Kredoa* latinez, bainan ikhasiko duzu ere ongi, zer hetan diren hitzek erran nahi duten zure hitzkuntzaz, arren hek erraiten ditutzularik eliza amaren hitzez, gozoki erabil ahal dezakezun hetan datzan endelegu miresteko eta plazergarria. Hargatik hek erraiten ditutzunean finka zazu zure gogoia hetan barrena, eta pitzkitzu zure afekzioak erran nahi dutenaren gainean, eta etzaitzila bat ere lehia hainitzen erraitera, bainan hari zaitte erranen duzunaren bihotzki erraiten, zeren *Pater* batek, sentimendurekin erranik, geiago balio du hainitz lasterka iraganek baino.

7. Xapeleta da probetxu handizko manera othoitzteko, baldin bada-kizu haren ongi erraiten; eta halakotz har ezazu haren erraiteko bidea zenbait irakhas diazakezun liburu. On da ere Iesusen, Andre Dana Mariaren, Sainduen letarinen eta liburu aprobatuetan diren bertze ahoko othoitz guzien erraita; kondizinorekin ordea orazione mentarlaren egiteko donua baduzu, lekuri prinzipalena emanen diozula; hala non hura egin ondoan, edo hainitz egiteko izanez, edo zenbait bertze arrazoin gatik ezin egin badezakezu ahoko othoitzik, ezpaitzara hargatik khexatuko, baina bai kontentatuko Pater nosterraren, Abe Mariaren eta Kredoa bertzetik gabe erraitiaz.

8. Baldin ahoko othoitzik egiten duzunean, sentitzen baduzu zure bihotza gonbidatua eta eramana dela barreneko edo bihotzeko orazione-ra, ez egin ukhorik, aitzitik utzazu zure espiritua emeki ioaitera alde hartara, eta eztuzula axolarik deliberatu zinituen ahoko othoitzak ez errana gatik; zeren hekin orde egiten duzun orazione mentala Iainkoaren gogo-

rakoago da eta zure arimarentzat hobeago, lekhatzen dut elizako ofizioa, obligatua bazara haren erraitera, zeren kasu hartan eginbidea pagatu behar da.

9. Baldin gertatzen bazine zure goiz guziaren iragaiten orazione mentalik egin gabe, edo egiteko sobera izanez, edo zerbiat bertzerik lize-la kausa, zure ahala egin behar duzularik hala gerta eztaadin, enseia zaitte zure huts egin haren erremediatzera barazkal ondoan, othuruntzatik zenbait oren urrunenean, zeren orazione egin bazeneza othurunza hartu bezain sarri, eta iadanik hagitz eho baino lehen, hainitz logaletasun etor lekidikezu eta zure osasuna zaurt liteke.

10. Baldin egun guzian ezin egin badezazu bat ere, kalte hura erre-mediatu behar duzu hainitz orazione labur usu zerura aurtikiz, zenbait debozionezko liburu irakurritz, eta zenbait penitentzia hartuz, zure begiratzeko halako hutsik geiago egitetik; gero egizu erresoluzione bortitz bat biharamun berean zure debozionearen bidean berriz sartzeko.



**Antze laburra meditazioarearen egiteko,  
eta lehenik Iainkoaren prezentziak,  
zein baita preparazioarearen lehen puntua**

**BIGARREN KAPITULUA**

Ordea eztakizu naski Filothea, nola egin behar den orazione mentala, zeren gauza bat da, zori gaixtoz gutik dakitena gure adinean; hargatik presentatzen derautzut antze labur eta erraz bat haren egiteko, haren gainean eskiribatu izan diren liburuak irakurriz eta guzien gainetik zeroni maiz meditazioari iarraikiz geiago ikhas dezakezun artean. Preparazioea emaiten derautzut lehenik, eta hura bi puntutan dago: lehena da Iainkoaren prezentzian iartea, bigarrena hari othoitz egitea lagun dakizula. Bada Iainkoaren prezentzian iartekotzat, lau bide prinzipal emaiten derauzkizut, zeinetaz serbitza zaitezke lehenbizi haste hunetan.

Lehena da biziki eta erneki, Iainkoaren leku-guzikotasuna gogoan sartzea, erran nahi da, Iainkoa dela gauza guzietan eta non nahi. Ezta lekurik ez gauzarik mundu hunetan, non ezten egiazko prezentziak, hla non, nola xoriek nora ere hegaldatzen baitira, bethi airea aurkitzen baitute, guk halaber, nora ere baigoaz, non ere baigaude, Iainkoa aurkitzen baitugu han dela; aitoritzen dute guziek hori hala dela, ez ordea guziek biziki kontsideratzen. Itsuek ikusten eztutelarik hekin aitzinean den Prinzea, badarik errespetuz iarten dira erraiten bazaie han dela; bainan egia da, zeren eztuten hura ikusten, errazki ahantzten zaiela hura bere aitzinean dutela, eta ahantzi ondoan, errazkiago are galtzen dutela hari zor dioten errespetua. Helaz, Filothea! eztugu ikusten Iainkoa gure aitzinean dela, eta fedeak erraiten deraukularik hura garen lekuan dugula, halarik ere, zeren eztugun hura gure begiez ikusten, hainitzetan ahazten zaiku, eta orduan bagabiltza Iainkoa gure ganik urrun baliz bezala; ezen dakigularik gauza guzietan dela, badarik ez akhordatuz ikusten gaituela, ezpageneaki bezanbat da. Hargatik bethi orazionean iarri baino lehen, gure arima atzartu behar dugu zinetan orhoitzera eta kontsideratzera Iainkoaren aitzinean garela. Hori gogoan zuen Dabitek oiuz bezala zioenean: *ikhaiten banaiz Zerura, ene Iainkoa, han zaude; iausten banaiz ifernuetara, han zare*. Hala ere hartu behar ditugu Iakoben hitzak zeinek zurubi sakratuak ikusirik, *zein beldurgarri den leku hau, dio, egjaki Iainkoa hemen da, eta eneakien*, erran nahi du etzela orhoitzen; zeren ezin zegokeien iakin gabe Iainkoa gauza

guzietan eta non nahi dela. Orazionerakoan bada zure bihotz guziaz eta zure bihotzareie erran ehar diozu, O ene bihotza, ene bihotza, egiaz Iainkoa hemen da.

Bigarren bidea prezentzia sakratu hartan iarteko, da gogoan erabiltea, ez xoilki Iainkoa zu zaren lekuan dela, bainan partikularkienik zure bihotzean eta espirituaren barrena, hari bizia eta arima emaiten dioela bere prezentzia sainduaz, han dagoela zure bihotzeko bihotza eta zure arimako arima bezala; zeren nola arima gorputzeko parte guzietara hedaturik, hetan guzietan edireiten baita, eta halarik bihotzean baitago, egoite partikular batez; manera berean Iainkoa gauza guzietan delarik, guziarekin ere fazoin beregaineko batez gure espirituaren dago. Hargatik Dabitek Iainkoa deitzen zuen, *bere bihotzaren Iainkoa*, eta Iondone Paulok zioen ezen Iainkoa baitan bizi garela, gabiltzala eta gaudezila. Egia hau kontsideratzen duzula bada pitztuko duzu erreberentzia handi bat zure bihotzean Iainkoa gana, dakizula hartan barrena dela.

Hirurgarren bidea da kontsideratzea gure Salbatzailleak gizon bezala Zerutik behatzen derauela munduan diren guziei, bainan partikulari girstinoei, zein baitira haren umeak, eta are partikulariago orazionean daudenei, bereziki ikusteko nola hari diren, eta zer erremangu dadukaten. Ordea ezta hori iduripen huts bat, bainan egiazko egia bat, zeren hura ikusten eztugularik, gain hartarik kontsideratzen gaitu. Iondone Estebek hura hala ikusi zuen bere martirioaren denboran, hala non erran baitezakegu Espos Andrearekin, horra non den paretan gibelean lehioetarik ikusten duela, ielosietarik behatzen duela.

Laugarren fazoina da iduritze sinpleaz serbitzatzea, gure espirituari errepresentatzen diogula gure Salbatzaillea bere gizontasun sakratuan, gure aldean baliz bezala; hala nola gure adiskideak ekhartzen ohi baititugu gure begietara, erraiten dugula, iduritzen zait horrelakoa ikusten dudala hala eta hala egiten. Bainan Aldareko Sakramendu Sainduaren aitzinean bazine, orduan prezentzia hura egiazkoa lizate eta ez idurizkoa xoilki; zeren ogiaren iduriak karpeta eta tapizeria bat bezala liritezke, zeinaren gibeletik gure salbatzailleak egiazki dagoela ikusten baigaitu eta kontsideratzen, guk hura den bezala ikusten eztugularik. Hartuko duzu bada lau bide hautarik bat zure arimaren ezarteko Iainkoaren prezentzian orazione egin dezazun baino lehen, eta eztira guziak batetan hartu behar, bainan aldi bat xoilki, eta hori laburki eta sinpleki.





**Inbokazioneaz,  
zein baita preparazionearen bigarren puntua**

**HIRURGARREN KAPITULUA**

Inbokazionea hunela egiten da: zure arimak sentitzen duenean Iainkoaren presenzian dela, erreberenzia handi batetan sartzen da, ezagutzen duela hari eztagokala bat ere hain majestate beregainekoaren aitzinean egoitea; guziarekin ere dakiela ontasun handi hark berak hala nahi duela, eskatzen ziao grazi haren ongi serbitzatzeko eta adoratzeko meditazio hartan. Baldin nahi baduzu, serbitzatzeko ahal zara zenbait hitz laburre eta irazekiz, nolakoak baitira Dabitek erraiten zituen hauk: Enazazula khen Iainkoa, zure begitartetik, eta eztiadzazula zure Espiritu Saindua edeki; Argi araz ezazu zure begitartea zure serbitzariaren gainean, eta kontsideratuko itut zure miragarriak, indazu endelegamendua, eta behatuko diot zure legeari, eta hura begiratuko dut ene bihotz guziaz. Ni naiz zure serbitzaria, indazu espiritua; eta bertze halako hitzak.

Hartarakotz on izanen da ere zure Angeru begiraleari gomendatzea, eta meditatuko duzun misterioan edirenen diren presuna sakratuei, hala gure Salbatzailearen heriotzeko misterioan gomendatuko ahal zaizko Andre Dana Mariari, Iondone Ioannisi, Madalenari, ohoin onari, arren partale egin zaitzaten berek hartan izan dituzten sentimenduetan. Eta zure heriotzeko Meditazioan gomendatuko ahal zaizko orduan zurekin izanen den Angeru onari zuri behar bezalako kontsiderazioneen inspiraziaz. Eta orobat da bertze misterioez ere.

**Misterioaren begietaratzeaz,  
zein baita preparazionearen hirugarren puntua**

**LAUGARREN KAPITULUA**

Meditazioneko bi puntu ordinarizko hekin ondoan, bada hirugarren bat Meditazioe suerte guzietara hedatzen eztena: hari batzuk erraiten diote, leku aphaintzea, bertzeek, barreneko lekzioea. Bada puntu hau ezta bertzerik, lekhat mediatu nahi dugun misterio osoaren erakustea gure gogoari, gure aitzinean egiaz eta eginez egiten baliz bezala. Exenpluzat, nahi baduzu gure Salbatzailea gurutzean mediatu, kasu emanen duzu Kalbarioko mendian zarela, eta ikusten Pasione egunean egin eta erran zen guzia, edo nahi baduzu, zeren orobat da, idurituko zaitzu zaren lekuan berean gurutzefikatzen dela gure Salbatzailea Ebanjelistek eskiribatzen duten maneran. Gauza bera eginen duzu meditatuko duzunean heriotzea, lehen erakusi derautzudan bezala, orobat ere Ifernuazko Meditazioan, eta bertze halako misterio guzietan, egiten direnean ikus eta senti ditezkeien gauzen gainean: zeren Iainkoaren handitasunari ukitzen zaizkon bertze misterioez, bertutearen exzelenziaz, zertako kreatu garen finaz bezanbatean, nola ezin ikusizko gauzak baitira, ezta zer halako iduritzearen edo leku aphaintzearen bilhatzerik. Egia da zenbait konparazio bat ditekeiela kontsiderazioneari heltzeko, baina nolazbait gaitz da halakorik kausitzea, eta ez tut zurekin hari nahi, ahalik sinplekiena baizen, eta hala non zure espiritua ezta din hagitz nekha deusik asmatzean. Bada deklaritzen dudun imajinazioe hunen bidez serratzen dugu gure espiritua mediatu nahi dugun misterioan, hara huna laster egin eztezan gatik, xoria kagiolan emaiten den, edo belatza bere lokharriez lotzen den bezala, eskuaren gainean iar dadintzat. Halarik ere erranen derautzute batzuk hobe dela fedezko gogo sinpleaz, eta osoki espiritual den kontsiderazioe huts batez serbitzatzea, misterio hekin errepresentatzean, edo kontsideratzea, gauza hek egiten direla zure espirituan berean, bainan hori zutilegi da lehen hasteko: eta Iainkoak gorago alxa zaitzan atean konseillu emaiten derautzut, Filothea, erakusten derautzudan behereko haranean egoiteaz.



## Konsiderazioneaz, zein baita Meditazionearen bigarren partea

### BORTZGARREN KAPITULUA

Imajinazioneak bere lekua aphaindu duenean, iarten da adimendua bere lanaren egiten, zein baita *Meditazione* deitzen duguna, eta ezpaita bertzerik, gure afekzioren Iainkoa baitan eta Iainkoaren gauzetan pitzteko eta finkatzeko hartzen eta gogoan erabilten dugun konsideraziorik bat ezpa hainitz baizen. Hargatik Meditazionea diferent da bertze estudiantetarik eta konsideraziorik, zeinak ezpaitira egiten bertutearen ardiets-teko edo Iainkoaren amorioz, bainan zenbait bertze fin eta intenziorik, hala nola iakinsun izaitea gatik, hetaz liburu egitea edo disputatzea gatik. Zure espiritua bada zerratu duzunean, erran dudana bezala, meditatutua nahi duzun sujetean barrena, edo imajinaziorik, sujetara senti baditeke, edo porposiorik sinpleaz, ezin senti ditekeena bada, hasiko zara haren gainean konsideraziorik egiten, zeinetaz exenplu moldatuak ikusiko baitituzu eman derauzkitzudan meditaziorik.

Baldin zure spirituak aurkitzen badu gustu, argi eta fruitu aski konsideraziorik hetarik baten gainean han finkatuko zara, urrunago iragan gabe, egiten duzula erleek bezala, zeinek ezpaitute lorea utzten hartan ezti biltzekorik aurkitzen duteino. Ordea kausitzen ezpaduzu zure gutziaren arauerakorik konsideraziorik batetan, hura aphur bat erabilli eta enseyatu ondoan, iraganen zara bertze batetara, bainan zoaz baratxe, eta sinpleki lan hunetan zure burua kexatu gabe.

## Afekziorik eta erresoluziorik zein baita Meditazionearen hirugarren partea

### SEIGARREN KAPITULUA

Meditaziorik isurtzen tu atzarmendu onak gure borondatean, edo gure arimaren afekziorik partean, nola Iainkoaren eta lagunaren amudioa, Parabisuaren eta loriaren desira, arimen salbamenduaren zeloa, gure Salbatzaillearen bizitzearen imitaziorik, bihotzberatasuna, urrikalsutasuna, admiraziorik, botzatasuna, Iainkoaren graziaren galtzeko beldurtasuna, Iujeamenduazko eta Ifernuazko izialdura; bekhatuaren gaitzerikoa, Iainkoaren ontasuna eta miserikordia baitako fidanza, gure bizitze gaizki iraganazko ahalketasuna; eta behar da gure espiritua ibil eta heda dadin afekziorik hetan ahal bezanbat. Baldin nahi baduzu hortan hel dakizunik, harezazu esuan Don Capilliak Meditaziorik gainean egin duen lehen liburua, eta irakur haren prefaza: zeren hartan erakusten du nola behartutzun zure afekziorik hedatu, eta are geiago aita Ariasek Oraziorik gainean egin duen liburuan.

Guziarekin ere, Filothea, ezta afekziorik jeneral hetan hanbat trikatu behar, non eztezazun hetaz erresoluziorik partikularik egin zure oneramentuko. Konparaziorik: Gure Salbatzailleak gurutzearen gainean erran zuen lehenbiziko hitzak isuriko du dudagabe zure ariman afekziorik on bat haren imitatze, eta hekin onetste. Badiot beraz orai deus guti dela hori, erresoluziorik partikular bat hartzen ezpaduzu geiago, hunela. Ea bada, enaiz geiago minduko hunelako eta hunelako hauzokoek, edo etxeok nitaz erraiten duten halako eta halako tarritagarrik hitzak, hunelakok edo halakok nitaz egiten duten halako eta halako mesprezioaz; aitzitik eginen dut halako eta halako gauza hekin ematzeko eta irauasteko ene gana, eta hala bertzeaz. Bide hunetaz, Filothea, gutiren barrenean zure faltak xuxendukotutzu, bainan afekziorik xoillez berant erremediatutzu, eta nekhez.



## Konklusioneaz eta flokha espiritualaz

### ZAZPIGARREN KAPITULUA

Finean Meditazionea zerratu behar da ahalik humilkiena egin behar diren hirur akzioez. Lehen da, Iainkoari eskerren emaita eman derauskigun afekzioak, eta erresoluzioak gatik, eta Meditazioneko misterioan agertu zaizun haren ontasuna eta miserikordia gatik. Bigarrena da, Iainkoari ofrenda egitea bere ontasunaz eta miserikordia beraz, bere Semearen heriotzeaz, odolaz eta bertutez eta hekin batean gure afekzioenez eta erresoluzioenez.

Hirugarrena da Iainkoari othoitz egitea, zinetan eske gagozkala arren partidatzagula bere Semearen graziak eta bertuteak, eman diezela bere benedizinoa gure afekzioei eta erresoluzioei, hek fidelki konplihala detzagun gatik. Gero othoitz egiten diogu halaber, Eliza gatik, gure Arzainak, ahaideak, adiskideak eta bertzeak gatik, hartarakotzat ararteko emaiten ditugula Andre Dana Maria, Angeruak, eta Sainduak. Azkenean erran dut erran behar dela *Pater Nosterra*, eta *Abe Maria*, zein baita fidel guzieren othoitz jenerala eta nezesarioa.

Haukin guzieren ondoan erran dut debozioezko flokhaxo bat bildu behar dela, eta huna zer erran nahi dudana. Baratxe eder batetan ibilli direnak ez dira gogotik ilkiten lau ezpa bortz lore eskuan hartu gabe hekin usainaren aditzeko, hartzeko eta idukiteko egun guzian: hala ere gure espirituak solas egin duenean Meditazionez zenbait misterioaren gainean, hautatu behar dugu gure aitzinamenduko hobe iduritu zaizkigun puntuetarik bat, edo bia, edo hirur, hetaz orhoitzea gatik egun hartan, eta hekin usainaren spiritualki aditzea gatik. Bada hori egiten da meditazionea egin dugun leku beraren gainean, han gaudezila Meditatu dugunaren gogoan erabilten, edo meditazionearen ondoan zenbait aphur gabiltzala bakharrik, pasajetan bezala.

## Probetxu handitako abisu batzu Meditazione sujetaren gainean

### ZORTZIGARREN KAPITULUA

Behar da guzieren gainetik, Filothea, Meditazioneetik ilki zaitezinean iduki detzatzun hartu dituzun erresoluzioak eta deliberazioak, hekin arthatsuki obratzeko egun hartan. Hoiri da Meditazioneetik heldu den fruitu handia, zeina gabe ez xoilki hainitzetan ezpaitakharke probetxurik, baina bai kalte: zeren bertute meditatuek eta ez obratuek, batzutan hantxen dute espiritua eta bihotza, iduritzen zaizula hala ere, deliberatu dugun bezalako garela, eta hori duda gaberik egia da, baldin gure erresoluzioak bizi eta zail badira; bainan ez tira hala, aitzitik banaloriozkoak dira eta perilosak, obratzen ezpadira: behar da beraz antze guziez enseiatu hekin obratzera, eta hala egiteko okasioak, direla xipi, direla handi behar dira bilhatu. Exenplutzat, gogoan hartu badut ene manso iarriz eneganako dudala ofensatzen nautenen espiritua, egun hartan behatuko dut non kausi detzakedan, hekin maiteki salutatzeko, edo ezin ikus badeztat, bederen hetaz ongi minzatuko naiz, eta othoitz eginen diot Iainkoari hekin faboretan.

Orazione bihotzezko hartarik ilki zaitezinean, begiratu behar zara zure bihotzaren berehala inharrostetik. Zeren isur zenezake orazioneetik athera duzun balsamua, erran nahi dut, aphur bat, egin ahal badadi, ixil egon behar duzula, eta zure bihotza emeki erabilli orazioneetik egitekoetara, ahalik luzekiena dadutzatzula hartu dituzketzun sentimendu onak eta afekzioak. Ur prezio handitako bat unti preziatu ere batetan hartu lukeien gizona bere etxera ekhartzeko, baratxe lebilke saietsera behatu gabe, bainan bere aitzinean, zenbait harrirara ioiteko, edo urrats gaixtorik egiteko beldurrez, gero beha lezake bere unzira, ikusteko, ea ezten isurtzen: gauza bera egin behar duzu Meditazioneetik ilki zarenean: etzaitezila berehala barraya, bainan beha zazu sinpleki zure aitzinean, erran nahi baliz bezala, kausitu behar bazara norbaitekin eta obligatua bazara haren enzutera, edo harekin solasik egitera, ezta erremediorik, hala behar da egin, bainan halako maneraz non beha diozozun halaber zure bihotzari, zure orazioneko ur saindua ahalik gutiena baizen isur eztaadin gatik.

Bai eta kostuma hartu behar duzu iakiteko nola iraganen zaren Orazioneetik zure bizitze-tailuak zuzenaz eta legez nahi dituen lan suerte



guzietara, iduritzen zaitzularik urrun direla Orazionean hartu ditutzun afekzionetarik. Erran nahi dut, abokat batek iakin behar du nola ilkiko den Orazionetik hauzikeriara, merkataria bere tratura, emaste eskonduak eskonzako eginbidera, eta etxeko lanetara, halako emetasunarekin eta bakerekin, non hargatik haren espiritua eztaadin aldara: zeren bata eta bertzea Iainkoaren borondatearen arauerakoak direnaz gero, batetik bertzera iragan behar da debozionario eta humiltasuneko espirituarekin.

Batzutan gertatuko zaitzu preparazionarioen ondoan berehala zure afekzioa Iainkoa baitan guzia pitztuko dela: orduan, Filothea, utzazu largo ioaitera, nik eman antzeari lotu gabe. Zeren komunski konsiderazioa aitzindu behar zaitzelarik afekzioei eta erresoluzioei; badarik ere Espiritu Sainduak konsiderazioa baino lehen afekzioek emaiten derauzkizunean, eztuzu zer ibil konsiderazio bilha, egiten eztenaz gero afekzioeen pitzteko baizen. Hitz batez, afekzioek presenta dakizkitzunean begitarte eta leku egin behar derauezu, heldu badira ere konsiderazioek bain lehen edo hekin ondoan. Eta afekzioek ezarri ditudalarik konsiderazio guzien ondoan, eztut hala egin, Orazioneko parteen hobeki berezitzeko baizen: zeren, nahiz dena dela, erregla jeneral bat da, etzaiela sekulan afekzioei athea hersi behar, baina bethiere utzi behar direla ilkitera presentatzen direnean. Eta hori erraiten dut, ez xoilki bertze afekzioek gatik, baina eta konsiderazioen artean egin eta eman ditezkeien eskerrak, ofrenda, eta othoitza gatik ere, zeren eztira gelditu behar bertze afekzioek baino geiago, gero berriz Meditazionarioen serratzeko hartu eta erabilli behar direlarik.

Ordea erresoluzioenez denaz bezanbatrean, egin behar dira afekzioen ondoan, eta Meditazioa osoki akabatzerakoan konklusioa baino lehen, zeren nola orduan gauza partikularak eta familierak behar baite-rauzkigute gogora erakharri, ezar ginitzakete barraiatzeko eta errebelatzeko perillean, hek egin bagenetza afekzionetan gauden mugan.

Afekzionetan eta erresoluzionetan on da batean gure Salbatzaillarekin solas egitea, bertzean Angeruekin, Misterioan erreprezentatzen diren presunekin, Sainduekin, bere buruarekin, sentimendugabeko kreaturekin, ikusten dugun bezala Dabitek hala egiten duela bere Salmoetan, eta bertze sainduek bere Meditazionetan eta orazionetan.

## Meditazionarioan gertatzen diren agorteez eta idortasunez

### BEDERATZIGARREN KAPITULUA

Gertatzen bazaitzu, Filothea, gusturik eta konsolazionario ez izaitza Meditazionarioan, arren nagotzu, etzaitzela aldara; baina ideki diezazu batzutan athea ahoko hitzei: egizu zure burua urrikalkizun gure Salbatzaillarean aitzinean, erakuzazu zure merezigabea, othoitza egiozu lagun dakizula, emozu haren imajinari musu, baldin baduzu, erroitzu Iakoben hitz hauk: *Bada etzaitut utziko, Iauna, zuk niri zure benedizinoa eman artean;* edo Kanako emastearenak, hunela: *Bai, Iauna, potxo bat naiz, baina potxoek iaten dute bere nausiaren mahaineko paporretarik.*

Bertze aldiz harezazu liburu bat eskuan, eta irakur erneki, zure espiritua iratar, eta bere gana bihur dadin artean. Eragiozu batzutan zure bihotzari zenbait kanpoko debozionario erremanguz eta higuimenduz, lurrean ahuzpez iarriz, besoak bulharraren gainean gurutzatuz, gurutzefika bat besarkatuz, hori aditzen dela, zenbiat baster-lekutan bazara. Baldin haukin guzien ondoan konsolatu gaberik bazaude, zenbat ere handi baita zure idortasuna, etzaitzela aldara; aitzitik zaude bethiere erremangu debot batetan zure Iainkoaren aitzinean. Zenbat Kortezale ehunetan urthean sartzen dira Prinzearen ganbarten hari mintzatzeko esperanzarik gabe: baina xoilki hark ikus detzan gatik? Hala iarri behar dugu, ene Filothe maitea, orazione sainduan garbiki eta simpleki gure eginbidearen egiteko eta gure fideltasunaren erakusteko. Baldin Iainkoaren Majestateak plazer badu gurekin minzatu eta solas egin bere inspirazionario sainduz, eta barreneko konsolazionarioz, duda gabe ohore handi eta plazer guziz gozo izanen da guretzat; baina plazer ezpaderauku grazia hura egin, han utzten gaituela guri minzatu gabe, ikusten ezpaginitu, eta haren aitzinean ezpagine baino geiago, eztugu hargatik ilkhi behar: aitzitik egon behar dugu beregaineko ontasun haren aitzinean erremangu debot eta bakezko batekin, eta orduan falta gabe gogotik behatuko dio gure pazienziari, eta seinaletan emanen du gure finki egona, hala non bertze aldi batez bihur gaitzinean haren aitzinera, faboratuko baigaitu, eta gurekin eginen baitu solas bere konsolazionarioz erakusten deraukula orazione sainduaren arraitasuna. Ordea egin ezpaleza ere, kontenta gaitzela, Filothea, ohore handi baino handiago zaizula haren aldean eta begietan egoitez.



## Goizeko exerzizaz

### HAMARGARREN KAPITULUA

Orazione mental oso eta formatu hartaz, eta egunean behin egin behar dituzun bertze ahoko othoitzez lekhora, badira bertze bortz othoitz suerte laburragoak, eta zeinak baitira, hala mintzatzeraz, bertze Orazione handi haren aldakak, xertoak eta aphareillua. Hekin artean lehena da, goizean egiten den othoitzaz eguneko obra guzietarako prepa-  
razione jeneral bat bezala: Hura bada hunela eginen duzu.

1. Eskerrak emoitzu Iainkoari, eta hura adorazazu hagitz humildurik egin derautzun grazia gatik zure begiratzeaz aitzineko gauean, eta hartan bekhatarik egin baduzu, eskazakisko barkhamendu.

2. Orhoitzaite egungo eguna emaiten zaitzula datorren sekulako eguna hartan irauas ahal dezazun gatik, eta harezazu borondate fermu bat egunaren iragaiteko obra onetan fin hartara.

3. Behazazu aitzinetik zer egiteko eta zer tratu erabilli behar duzun, eta zer okasione gerta dakidikezun egun hartan Iainkoaren serbitzatzeko, eta zer tentazione etorriko ahal zaitzun haren ofensatzeko, ala koleraz, ala banaloriaz, ala zerbaot bertze desordenamenduz, eta erresoluzione saindu batez prepara zaite presentatu behar zaizkitzun bidez baliatzera Iainkoaren serbitzatzeko eta zure debozionatearen aitzinatzeke; eta kontra-  
ra zaude erne nola ihez eginen duzun zure salbamenduaren eta Iainkoaren loriaren kontra iaiki ditezkeien gauzetarik, nola eginen deraue-  
zun buru, nola garaituko zaizten. ETa ezta aski erresoluzione haren har-  
tzea, baina preparatu behar dira bideak haren ongi konplitzeko. Exenplutzat, aitzinetik ikusten badut behar dudala egiteko batez minzatu presuna pasionatu eta haserrekor batekin, ez xoilki deliberatuko dut ez lango izaitera haren ofensatzera, baina preparatukotut hitz emeak hari aitzintzeko, eta hartuko dut hura iduki dezakeien lagun bat. Aitzinetik ikusten badut zenbait eri bisita dezakedala, hartuko dut haren muga eta oreana, eta preparatukotut hari eman behar diotzadan konsolazioneak: eta hala bertzeez.

4. Hori eginik humil zaite Iainkoaren aitzinean, ezagutzen duzula zeronek zure buruz ezin daidikezula deliberatu duzun gauzarik, dela gaiz-  
kiari ihes egiteko, dela ongiaren egiteko. Eta zure bihotza eskuetan bazi-  
nadutza bezala, hura ofrenda diozozu zure deliberazione on guziekin

batean Iainkoaren Majestateari, othoitz egiten diozula haren bere gomen-  
dian hartzeaz eta hari indar emaitiaz haren serbitzuan ongi haritzeko; eta hori hitz barreneko hautaz edo hau bezalakoez: O Iauna, horra, zure ontasuna ganik hainitz afekzione on errezebitu duen bihotz gaizoa: Helaz ordea; flakoegi da egin nahi lukeien ongiaren egiteko zuk ezpadiozu zure zeruko benedizinoa partitzen: Hartakotzat haren eske nagotzu, O aita bihotz bera, zure Semearen Pasionearen merituz, haren ohoretan konse-  
kratzen dudala egungo eguna eta ene gainerako bizitze guzia. Gomenda zakizko Andre Dana Mariari, zure Angeru onari, eta Sainduei, arren hel dakiskitzula hala egiten.

5. Ordea akzione espiritual hek guziak egin behar dira laburki eta biziki, gelatik ilkhi baino lehen, ahal badadi, arren exerziza hunen moie-  
nez egun hartan eginen duzun guzia Iainkoaren benedizinoaz ihinzta dadin; baina othoitzez nagotzu, Filothea, ez behin ere faltatzeaz horrela egin gabe.



## Arratseko exerzizaz, eta konszienziaren examinaz

### HAMEKAGARREN KAPITULUA

Nola gorputzeko baraskaria baino lehen eginen baituzu baraskari espirituala Meditazionea dela moien; hala afal zaitezin baino lehen egin behar duzu afaritxo, edo ezperez kolazino debot eta espiritual bat. Hautazazu bada zenbait ephe, afal-muga baino lehexe, eta Iainkoaren aitzinean beheititurik, zure espiritua biltzen duzula Iesus gurutzatuaren aldean (hura errepresentatuko baitiozu zure buruari konsiderazion simple, eta barreneko begistatze batez) pitzberrizazu zure bihotzean goizeko meditazionearen sua dozena bat hatzgorapen biziz, humilmendu eta oldazarre amoriozkoz, hek aurtikhitzen ditutzula zure arimaren Salbatzaille maite haren gana, edo goizeko meditazionean gozo geiago emand derautzuten puntuak bihotzean berriz iraganez, edo zenbait bertze gauzaren gainean afekzionaek pitztuz, hobe zaitzun bezala.

Bethiere ohera baino lehen egin behar den konsziaren examinaz bezanbatean, batbederak daki nola egin behar den.

1. Eskerrak emaiten diotzagu Iainkoari zeren begiratu gaituen iragan egunean.

2. Examinatzen dugu nola ibilli garen eguneko oren guzietan, eta horren erraskiago egiteagatik, konsideratuko dugu, non, norekin, eta zer egitekotan hari izan garen.

3. Ikusten badugu zerbait onik egin dugula, hartaz emaiten diotzagu Iainkoari eskerrak; kontrara zerbait gaizki egin badugu gogoz, erranez, edo obraz, barkhamendu eske gagotza Iainkoari, borondaterekin lehenbizi orduan hartaz konfesatuko garela, eta artha handi batekin halakorik ez geiago egitetik begiratuko.

4. Haukin ondoan gomendatzen diotzagu Iainkoari probidenziari gure gorputza, arima, Eliza, ahaideak, adiskideak, Othoitz egiten diogu Andre Dana Mariari, gure Angeru onari, eta bertze Sainduei gure gainean eta gure gatik iratzarririk egoiteaz, eta Iainkoaren benedizinoa harturik, hark nahi izan duen bezala behar dugun errepausuaren hartzera goaz.

Ezta sekulan exerziza hunez ahantsi behar goizekoak baino geiago: zeren goizekoak idekitzen diotzatzu zure arimako lehioak Iustiziako Iguzkiari, eta arratsekoaz hertsten deraustetzu ilhunbei.

## Bakhartze edo aparta espirituala

### HAMABIGARREN KAPITULUA

Hemen, hemen, Filothe maitea, da ene desir handia afekzionaek zarraskon ene konseilluari: zeren artikulu hunetan zure aitzinamendu spiritualeko bide segurenarik bat datza.

Erakharzu ahalik maizena egunean zure espiritua Iainkoaren prezentiara erakusi derauskizudan lau manerarik batez: behazazu zer hari den Iainkoa, eta zu zer hari zaren; ikusikotuztu haren begiak zure gana itzulirik, eta bethiere zure gainean finkaturik ezin konpratzuko amorio batez. O Iainkoa, erranen duzu, zergatik ezterautzut bethi behatzen, zuk niri bethi behatzen derautazun bezala? Zergatik hunein maiz gogoan nadukazu, eta nik zergatik hunein gutitan gogoratzen zaitut? Non gare, O ene arima? gure egiazko lekua da Iainkoa, eta bizkitartean non kausitzen gara?

Nola xoriek bere habiak baitituzte zuhaitzen gainean, hetan gordezko behar duten orduan, eta Oreinek ere bere beroak eta sasipeak, non sartzen baitira udan eta gerizatzen, itzaleko freskaduraren hartzea gatik: Hala, Filothea, gure bihotzek egun guzietan hautatu eta hartu behar dute zenbait leku, edo Kalbarioko mendiaren gainean, edo gure Salbatzailearen zaurietan, edo zenbait bertze lekutan haren hurbillean, harat apartatzeko okasione suerte guzietan, eta gure buruaren han arintzeko eta sosegatzeko kanpoko egitekoen artean, eta forta edo azkarleku batetan bezala egoiteko tentamenduetarik begiratzea gatik. Doatsu izanen da arima gure Salbatzaileari egiaz erranen ahal dioena, zu zare, Iauna, nora ihesi ahal noaken etxea, zu ene murailla segura, zu ene geriza, hegatzta eta teillatua uriaren kontra, zu ene itzala beroaren kontra.

Orhoitzaite bada, Filothea, bethi hainitz bakhartzeren edo apartaren egiteaz zure bihotzeko bakhartokian. Gorputzez jend-artean eta egitekotan zabiltzan bizkitartean bakhartoki mental hura ezin niholatakomaneraz traba diteke zure ingurunetan jende hainitz izana gatik, zeren eztaude zure bihotzaren, bainan xoilki zure gorputzaren inguruan; hala non zure bihotza baitago bera bakharririk Iainko ber beraren prezentian. Hori egiten zuen Errege Dabitek hanbat zituen egitekoen artean, berak dioen bezala bere Salmoetako milla lekutan, hala nola erraiten duenean: O Iauna, ni halaber zurekin naiz bethiere: ene Iainkoa ikusten dut bethi ene





aitzinean: goititu itut ene begiak zure gana: ene Iainkoa Zeruetan zaude-na, ene begiak zure gana daude bethiere.

Hala ere konpainiak eztira bethi hain hersiak, non noizbaitetik noizbaitea gure bihotza ezin aparta dezagun hetarik, haren sar arazitzeko berriz ere Iainkozko bakhar-egoitza hartan.

Santa Katalina Sienekoari aitak eta amak edeki ziotenean den leku eta epe suerte guzia othoitz eta Meditazione egiteko, gure Salbatzaileak inspiratu zioen barreneko orazinotegitxo baten egiteaz bere bihotzean, arren bera hartan gogoz sartzan zela harekin kanpoko egitekoen artean minza ahal zedintzat halako bihotzeko bakhar-egoki sainduan. Gerostik munduak hura akometatzen zuenean etzuen trabu garabik sentitzen; zeren, zioenez, sartzan baitzen bere barreneko gelan, non konsolatzen baitzen bere zeruko Esposarekin. Hala ere ordu hartarik konseillu emaiten zerauen bere ume espiritualei gela baten egiteaz bere bihotzean eta han egoiteaz.

Bihurezazu bada batzutan zure espiritua zure bihotzean barrena, non gizonetarik berezirik bihotzez bihotz minza ahal zaitezin zure arimaz bere Iainkoarekin, Dabitekin batean erraiteko: *Egon naiz iratzarririk, eta egin naiz bakharrik dagoen pelikanaren kide, egin naiz, harri zaharretan dagoen hontza bezala, eta teillatuetako Elizatxori bakharra bezala.* Zein hitzek, eskiribaturik dauntzan bezala aditurik, seinale emaiten dutelarik Errege handi harkoren iakin batzu hartzen zituela bakharrik egoiteko gauza espiritua-len konsideratzen, erakusten baiterauzkigute bere endellegatze mistikoan hirur aparta exzcellent, hirur ermitautasun bezala, zeinetan egin baitezakegu gure bakhar-zokoa gure Salbatzailearen imitazionetan. Zeren Kalbarioko mendiaren gainean izan da bere xito hillak pitzberritzen dituen bakhar-lekuetako Pelikana bezala, Bere sortzean izan da establia largo-utzi batean harri zaharretako hontza bezala plainuz eta nigarrrez zegoela gure bekhatuak gatik: eta bere zeruratze egunean izan da Elizaxoria bezala, hegaldaka ioanez zerura, zein baita munduko teillatua bezala, eta hirur leku hetan guk ere gure gordelekuak egin detzakegu gure egiteko tratuen artean. Elzear Probenzako Ariango Konde Doatsua hainitz denbora egonik Delfina bere emazte garbia eta debota ikusi gabe, Andre hark gizon bat igorri zioen berariaz iakitea gatik ea osasunarekin zegoenz, eta ihardetsi zion: Ene emaste maitea, osasuna dut, eta nahi banauzu ikusi bilhanazazu gure Iesus eztiaren saietzeko zaurian, zeren han da ene egoiteko lekua, eta han kausituko nauzu, bertzetan alferrik bilhatuko nauzu. Hura, hura zen zaldun Giristinoa.

## Hatsgorapenez, othoitz aurtikiez eta gogoeta onez

### HAMAHIRURGAREN KAPITULUA

Iainkoa gana eramaiten gara zeren hatsgorapenez hari gagozka, haren gana heltzeko; hala non Iainkoa ganako hatsgorapena eta Iainkoa baitarako aparra espirituala elkharri baitatxezko, eta bia sortzen eta heldu baitira gogoeta onetarik.

Zabilzko bada maiz Iainkoari hatsgorapenez, Filothea, zure bihotzeko oldar aldi laburrez, bainan irazekiez; mirets ezazu haren edertasuna, othoitz egiozu hel dakizula, iar zaite gogoz gurutzearen oinetan, adora zazu haren ontasuna, galdegiozu maiz zer izanen den zure salbamenduaz, emozu millaten zure arima egunean, saretzatu zure barreneko begiak haren ezttasunean, heda diozozu eskua haur xume batek bere aitari egiten dioen bezala, gida zaitzan gatik, hura emazu zure bulharren gainean flokha plazergarri bat bezala, hura landa zazu zure ariman bandera bat bezala, eta milla oldarzarre egituz bihotzez Iainkoaren amudioaren pitzteko zure baitan, eta zure atzartzeko iainkozko espos haren maitarasun pasionatu eta samur batetara.

Hala egiten dira othoitz aurtikiak, zeinetaz San Agustin handiak hain konseillu hertsiki emaiten baitzioen Broba zeritzon andre debotari. Filothea, gure espiritua familiarri eta olheki bere Iainkoarekin iarriz eta usatuz usain oneztatuko da haren perfekzione guziaz, eta ezta gaitz egitea; zeren exerziza hura sar diteke gure lan eta egiteko guzietan, hei trabu garabik ekharri gabe; ikhusirik dela aparta espiritualean, dela barreneko oldarmenduetan eztiela egiten Iainkoa ganako itzul-aldi laburrak baizen, deusetan ere tarabatzen ez gaituztenak, aitzitik bilha gabiltzanaren ardiesteko hagitz on direnak. Arno guti bat bihotzaren alegeratzeko, eta ahoaren bustitzeko hartzen duen bidezko gizonak, aphur bat trikatzen delarik, eztu hargatik bere bidea hautsten, aitzitik indar hartzen du lasterago eta errazkiago haren iragaiteko, ikusirik eztela gelditzen hobeki ioaiteko baizen.

Hainitzek hainitz hitzeko hatsgorapen bildu ituzte, eta egiaz probetxu handitako dira, guziarekin re, neure konseilluz, etzaizko hitzez hitz lotuko hetarik nahiz den suerteri bat ere, bainan bihotzez edo ahjoz erranen tutzu amudioak berehala ekharriko derauzkitzunak, zeren hark emanen derautzu nahi duzun bezanbat. Egia da badirela hitz batzu indar par-



tikular bat dutenak bihotzaren kontentatzeko leku hunetan, nolakoak baitira Dabiten Salmoetan hain usu diren oldarzarre espiritualak, Kantiken Kantikan dauntzan amoriozko tragazak: kanta espiritualak on dira ere fin hartako gogo finkaturekin kantatzen badira.

Finean nola nork ere nihor maite baitu naturalezako amorioz, bethi hurren bere gogoetak baititu maite duenaren aldera itzuliak, bere bihotza afekzinez, eta ahoa laudorioz betheak baititu harentzat, eta harekin ezte-nean ezpaitu utzten okasionerik ioaitera bere amorioa guthunez erakusi gabe, eta ezpaitu aurkitzen zuhaitzik non eztuen maite duenaren izena eskiribatzen haren azalaren gainean; hala nork ere Iainkoa baitu maite, ezin dagoke geldirik hartaz gogoeta egin gabe, harentzat hats hartu gabe, haren gana hatsgorapenez alxatu gabe, eta hartaz minzatu gabe, eta nahi luke, ahal balegi, munduan diren guzien bulharren gainean Iesus izen saindua eta sakratua eskiribatu.

Hala egitera ere gauza guziek gonbidatzen tuzte Iainkoa maite dutenak, eta ezta kreaturarik bere maitearen laudorioa erran eztiezenik; eta San Agustinok, San Antonioren ondoan dioen bezala, zer ere munduan baita, hitzkuntza ixil, bainan klarki adi ditekeien batez minzo zaie bere amorioaren faboretan, gauza guziek atzartzen tuzte gogoeta onik egitera, eta handik sortzen dira gero hainitz oldarmendu eta hatsgorapen iainkoagana. Huna exenplu batzu. San Gregorio Nazianzako Ipizpikua, berak bere pobluari kondatzen zioen bezala, pasajetan zebillala itsas-hegian, iarri zen konsideratzen nola uhinek utzten zituzten harearen gainera barraiaturik itsasoak iraitzten zituen, eta hala erraitera, thuak bezala hegira etxatzen zituen maxkorak, adarxoak, belhar ondoak, ostria azalak, ziztapurrak, eta bertze halako nahaskeriak eta ezdeuskeriak; gero nola itsasoak, berriz bihurtzen zela bertze uhinez, berriz ere fitskeria hetarik parte bat hartzen zuen eta iretsen, inguruetakoa arroak bizkitartean tinketz zeudezila higitu gabe, hek urak bortitzki ioiten zituelarik. Bada horren gainean gogoeta eder hau athera zuen, flakoak direla ostria hezurak, adarrak eta belhar zathiak bezala, eta batean aflikzionarioi, bertzean konsolazionarioi utzten diotela bere burua eramaitera fortunaren uhinek nahi duten aldera; ordea bihotz handiak finko eta ezin higituzko daudezila tenpesta suerte guzien kontra. Eta gogoeta hunetarik athera zituen Dabiten oldarmendu hauk. *O Iainkoa, salba nazazu, zeren urak sartu dira ene arimaino; Iauna, athera nazazu ur barrenetatik; eramaiten naiz itsas-hondora eta tenpesta hondatu nau. Zeren orduan aflikzionetan zegoen, Maximok hari bere Ipizpikutasuna bidegabezki eramanez.*

San Fulgenzio Erruspeko Ipizpikua gertatu zenean Erromako Aitonon semeen biltzarre jeneral batetan, non Theodoriko Gothen erregea minzo baitzitzairen bere thronutik, hain bertze iaun handi ederki lerroz lerro, nor bere graduaren eta tituluaren arauera iarririk ikusirik; *o Iainkoa, zioen, zein eder behar den izan zeruko Hierusalem, hemen behearen lurreko Erroma hain ponpirosa denaz geroztik!* Eta mundu hunetan hanbat handiresun emaiten bazaie banaloriazalei, zer loria preparatu behar zaie bertzean, iarri direnei egia hutsaren miratzen?

Erraiten da San Anselmo Kantorbiako Arzipizpikua (zeinaren sortzeak handiro ohoratu baititu gure mendiak) miragarri zela halako pensamendu onik egiten. Herbino batek, potxoek kexaturik, laster egin zuen, orduan bidean zebillan Prelat saindu haren zamariaren sabel-azpira, hiltzeko peril ageriak emaiten zioen ihes lekura bezala, eta haren inguruan saingaz deudezin potxoak, ezin ausartuz bere ihiziaren atheratzeru sartu zen begira-lekutik. Ikuskari gerthuz ohitugabea, zeina gatik irriz baitzeudezin guziak, bizkitartean ordea Anselmo handia hatsbeherapenez hasi zen eta nigarrez: Ha! zioen, irriz zaudete, bainan animalia gaizoa eztago irriz; arimaren etsaiek hura behin akometatu dutenean, eta bekatu suerte guzietako sar-ilkietan hainitz moldez gaizki erabili eta bilhakatu dutenean heriotzeko bide hersian daude haren begira, haren atzemaiteko eta iresteko, eta hura alde guzietarik iziturik, guzietan leku bilha dabilla nora ihes egin eta non gorda; baldin aurkhitzen ezpadu nondik itzul, hartaz burlatzen dira etsaiak eta irriz dagozka; hori erranik ioan zen hatsbeherapenez.

Konstantino handiak egun batez ohorezki eskiribatu zioen San Antonioren, hala non harekin ziren fraideak espantatu baitziren; hark ordea erran zerauen, nolatan miretsten duzue errege batek gizon bati eskiribateaz? aitzitik mirets ezazue nolatan bethiereko Iainkoak bere legea eskiribatu derauen hil behar diren gizoni, bai eta nola minzatu zaien ahoz aho bere semearen ahotik.

San Franzesek ardi bat ikusirik hainitz akherren artean, ikusazu, zionsan bere lagunari, nola ardi gaizo hori manso den ahutz hekin balsan, gure salbatzaillea hala zebillan manso eta humil fariseuen artean. Bertze aldi batez saindu hark berak ikusirik urde batek bildots bat iaten zuela, He! bildotsa, zioen nigarrez, zein biziki begietaritzen derautazun ene salbatzaillearen herioa.

Franzes Borgia gure mendeko gizon handi hark (orduan Kandiako Duke zen oraino) ihizian zebillala milla gogoeta saindu egiten zituen: miretsten nuen, zioen berak gero, nola aztoreak bihurtzen dire esku gainera, nola bere begiak utzten dituzten estaltzera, eta aztaparrak hagan





estekatzera, eta bizkitartean gizonak hain gor eta gogor direla Iainkoaren hitzera.

San Basilio handiak dio ezen arrosak elhorrien artean lekzione hau egiten derauela gizonei: Zer ere munduan baita ederrenik, O hil beharrak, tristeziaz nahasia da, ezta deus garbirik, bethi alegrianzari datzeko damua, ezkontzari alharguntza, hainitz onhasun eta haur izanari artha, loriari laidoa, ohorei gastua, gauza gozoei nardamendua eta osasunari eritasuna. Lore ederra da arrosa, dio gizon saindu hark, ordea tristezia handi bat emaitend eraut, orhoitzen bainau ebe bekhatuaz, zeina gatik lurra kondenuatu izan baita aranzeen ekhartzera.

Arima debot batek, xirripa baten miratzen zegoela, eta hartan zeruko izarrak gau eme batez ikusten zituela errepresentaturik: O ene Iainkoa, zioen, izar hauk berak ene oinen azpian izanen dira, har nazazunean zure leku sainduetara, eta zeruko izarrak lurrean errepresentatzen diren bezala, hala lurreko gizonak errepresentatzen dira zeruan Iainkozko karitatea- ren ithurri bizian.

Bertze bat, ibiri bat ikusirik beheiti ioaiten, oiuz hasi zen hunela, ene arimak eztu sekulan hartuko pausurik honda dadin artean iainkotasunaren itsasoan, zeina baita haren ithurburua.

Santa Franzesa, xirripa eder baten konsideratzen hari zela, haren hegian belhaunikaturik bere othoitzaren egiteko, eraman zen gogoz bere gainera, hitz hauk berriz eta berriz erraiten zituela emeki. Ene Iainkoaren grazia horrela iarieiten da emeki xirripa xume hau bezala.

Bertze bat, arbolak liliturik eta loraturik ikusirik hatsbeherapenez hasi zen: zergatik xoildurik nago loregabea elizako baratzean?

Bertze batek, xitoak ikusirik amaren azpian bildurik: O Iauna, zioen, begira gaitzatzu zure hegalean itzalaren eta gerizaren azpian.

Bertzeak iguzki belharra ikusirik: Noiz ene Iainkoa, zioen, noiz ene arima iarraikiko zaie zure ontasunaren dei amolsuei? eta baratzeko ielosiak ikusirik, zeinak baitira ederrak ikusteko bainan usaingabeak: he, dio, halakoak dira ene gogoetak, ederrak dira erraiteko, bainan obra eta fruitugabeak.

Horra, ene Filothea, nola atheratzen diren gogoeta onak eta hatsgorapen sainduak bizitze hilbehar hunetan hainitz eta hainitz moldez begietaraten diren gauzetarik. Dohakabe dira, kreaturak bere kreatzaille ganik bekhatutara itzulten dituztenak. Doatsu dira, kreaturak bere kreatzaillearen loriara ordenatzen dituztenak eta hekin banotasuna egiaren ohoretan emaiten dutenak. *Certuz*, dio san Gregorio Nanzianzakoak, *ene kostuma da gauza guzieren ekhartzea ene probetxu espiritualera*. Irakur ezazu San

Hieronimok egin zuen bere Santa Paularen hilharri gaineko eskiribu debota, zeren eder da ikustea nola den bethea ordu eta inkontru guzietan Andre hark atheratzen zituen hatsgorapen eta gogoeta sakratuez.

Bada aparta espiritualaren eta orazione aurtikitzkoen eserziza hunetan datza debozionearen obra handia, zeren hark bertze othoitz guzieren eskasia konpli dezake, bainan hura utzten bada, ezin kasik errepara diteke niholatako maneraz. Hura gabe ezin ongi egin diteke bizitze kontenpatiba, eta aktiba ezin diteke gaizki baizen; hura gabe errepausua ezta alferkeria baizen, eta travaillua ezta nahaskeria baizen; hargatik arrenez nagotzu haren besarkatzeaz zure bihotz guziaz, nihoiz ere hartarik apartatu gabe.



## Meza sailduaz, eta nola enzun behar den

### HAMALAU GARREN KAPITULUA

1. Enatzaitzu oraino minzatu eserziza espiritualen Iguzkiaz, zein baita mezaren sakrifizio eta sakramendu guziz saildua, guziz sakratua eta guziz sendagarria, giristinozko erreljionearen punturik barrenera, debozitonearen bihotza, Iainkotiartasunaren arima, ezin erranezko misterioa, jainkozko karitatearen ondogabeko itsasoa bere baitan dadukana, eta zeina dela bide, Iainkoak gurekin egiazki iuntaturik, largoki partitzen baiterauzkigu bere graziak eta faboreak.

2. Iainkozko sakrifizio harekin batean egiten den orazioneak ezin erranezko indarra du, hala non Filothea, haren bidez arima gaineraino bethetzen baita zeruko faboreez, permatua bezala dagoela bere maitearen gainean, zeinak hura hanbat bethetzen baitu usain eta eztitasun espiritualetan, non baitirudi khezko arroin bat dela usaingarritzko egurrez, mirhaz, inzensuz eta usaingillearen erhauts on guzietan eginga, Kantiketaren erraiten den bezala.

3. Egizu beraz zure ahal guzia egun oroz meza sailduaren enzuteko, zure salbatzailearen sakrifizioa Iainko aitari zuretzat eta giristino guzientzat apezarekin batean ofrenda diozozun gatik.

Bethiere hainitz eta hainitz angeru elkharrekin bildurik hartan kausitzen dira, san Krisostomok dioen bezala, misterio saildu haren ohoratzeke, eta hartan aurkhitzen bagare gu ere hekin batean, eta duten bezalako intzionerekin, ezin gaudezke hainitz ontasun ardietsi gabe halako konpainiaren moienez, zeren zeruko eta lurreko elizako fidel guzietan batzarreak elkharganutzen dira, eta iuntatzen zaizko gure salbatzaileari jainkozko obra hartan, arren harekin batean, haren baitan eta haren arartekotasunaz Iainko aitari bere bihotza eraman diozotenzat, eta haren miserikordia osoki egin dezatentzat gurea. Zein zori on zaion arima bati halakoekin bere afekzitoneen debotki ezarteaz, hain ontasun preziatu eta desiratzeke baten ardietsia gatik.

4. Baldin zenbait bortxa bortxatuz beregaineko sakrifizio hura egiten denean ezin kausi bazaitezke hartan, gorputzeko prezentzia batez, bederen hara eramazu zure bihotza haren enzuteko prezentzia espiritual batez. Halakotz goizeko zenbait orenetan zoaz gogoz elizara, ezin bazozake bertzela, iunta zazu zure intzentionea giristino guzietan intzentioneari

kin, eta egitza zaren lekuan, zenbait elizan egiazki bazinunde meza sailduaren enzutun, egin zenetzakeien barreneko akzitoneak berak.

5. Ordea haren enzutekotzat behar bezala, dela gorputzez, dela gogoz. 1. lehen hastetik, apeza aldarean sar artean, egizu preparazionea harekin batean, erran nahi da, iar zaite Iainkoaren prezentzian, ezagutezazu zure merezigabea, eta eska zakizko zure bekhatuez barkhamendu. 2. apeza aldarean sartu denetik ebanjelioraino, konsidera zazu gure salbatzailearen mundu hunetarako etortea, eta bizitza konsiderazione simple eta jeneral batez. 3. ebanjeliotik kredoa erranez geroraino, konsidera zazu gure salbatzailearen predikua, eta zinetan errazu nahi duzula bizi eta hil haren hitz sailduaren fedean eta obediengan, eta eliza katolikaren batasunean. 4. kredotik pater nosterraraino, zatxezte bihotzez sakrifizio saildu hartan egiaz eta izanez erreprezentatzen diren gure salbatzailearen pasioneko eta Heriotzeko misterioei, sakrifizio hura zuk ere apezarekin eta gainerako pobluarekin batean ofrendatzen diozula Iainko aitari, harenohoretan eta zure salbamendutan. 5. pater nosterratik komunioraino, zure ahalaz pitzkitzu milla eta milla desir zure bihotzetik, beroki erraiten duzula nahi zendukeiela sekulakotz iuntatua eta bat eginga bazine gure Iainorekin, zeina baita sekulako amorioa.

6. Komunietatik azkeneraino, eskerrak emoitza haren majestate sailduari bere inkarnazionea, bere bizitza, bere pasionea, eta sakrifizio saildu hartan erakusten deraukun amorioa gatik, zinetan zagozkala arren bere amorio bera gatik gerta dakizuela begitartetsu, zuri eta zure ahaidei, adiskidei eta elizan diren fidel guziei; gero zure bihotz osoz humiltzen zarela har ezazu debotki zure salbatzaileak bere apezaren eskuz emaiten derautzun benedizino saildua.

Ordea meza erraiten den bizkitartean nahi baduzu zure meditazionea egin egunetik egunera zarrastan misterioen gainean, ezta premiarik izanen egon zaitezkin akzitone partikular hekin egiten; aitzitik aski izanen da hasterakoan xuxen dezazun zure intzentionea eta gogoz erran dezazun nahi duzula zure meditazionea eta orazionea egin sakrifizio saildu haren adoratzeko eta ofrendatzeko, dakizula meditazione guzietan lehen erran diren akzitone hek kausitzen direla edo klaraturik edo ixilik eta adi ditezakeien bezala.



## Bertze exerziza publikoez eta komunez

### HAMABORTZGARREN KAPITULUA

Hautaz lekhora, Filothea, bestetan eta igandetan kausitu behar zara elizan egiten diren goizeko eta arratseko ofizioetan zure egitekoek aginduko duten bezanbat, zeren egun hek Iainkoarentzat konsekratuak dira, eta hetan obra geiago egin behar da haren ohoretan eta loriatan bertze egunetan baino: bide hartaz milla debozinezko eztitasun sentituko itutzu, San Augustinok bezala; berak erraiten baitu bere Konfesioetan, Iainkoaren federa lehenbizi itzuli zenean, elizako ofizioak enzuten zituen orduan, bihotza urtzen zitzaiola eztitasunetan eta begiak debozinezko nigarretan. Eta hala ere behin guzietakotz derradantzat, bethi ontasun eta konsolazione geiago da elizako ofizio publikoetan, akzione partikularetan baino, Iainkoak hala ordenaturik guziendakotasunari eman dakiola garaia partikulartasun suerte guzien gainean.

Sar zaitte gogotik zaren lekuko konfrarietan beregainki bere exerzitez fruitu geiago eta exenplu hobe dakharketenetan, zeren hortan hagitx Iainkoaren gogarako den obediencia suerte bat eginen duzu, zeren elizak manatzen eztituelarik konfrariak, badarik ere gomendatzentzu, eta erakustea gatik desir duela hainitz sar ditezin hetan, konfrariakoei emaiten derauzte induljenziak eta pribilejioak. Geiago ere bethi karitate handizko gauza da hainitzekin biltzea eta bertzei laguntzea bere borondate onen konplitzen. Eta gerta ditekeielarik nihork, bera denean, egin dezakeiela konfrarioko guziekin egiten den bezain obra onik, eta naski lakhetago lekidikeola hekin egitea bere partikularean, halarik ere Iainkoari loria geiagoheldu zaio gure anaiekin eta lagunekin egiten ditugun obra onetarik.

Orobat erraiten dut othoitz eta debozione publiko suerte guziez, zeinetan ahal bezanbat exenplu onik erakusi behar baitugu, gure lagunari mirail saindu baten emaiteko; eta ahal bezanbat afekzione ere ekharri, Iainkoaren loriaren eta guzien intenzione onaren aitzinatzeke.

## Sainduak ohoratu eta othoitztu behar direla

### HAMASEIGARREN KAPITULUA

Halaz eta Iainkoak hainitzetan inspirazioneak igortzen derauzkigunaz gero bere angeruak mandatari eginik, guk halaber maiz igorri behar diotzagu gure hatsgorapenak, Angeruak berak ararteko emanik. Parabisuan angeruekin dauden, eta, gure salbatzailleak dioen bezala, angeruen pare eta berdin diren arima saindu ioanek ere ofizio bera egiten dute; gure gatik hatsgorapenez baitaude, eta gogoramendu onak ardiesten baiterauzkigute bere orazione sainduz. Ene Filothea, bil detzagun gure bihotzak zeruko espiritu eta arima doatsu hekin gana. Errosiñol umeek ikhasten dute kantatzen handiekin kantatuz, guk ere, sainduekin eginen dugun tratu sainduaz hobeki iakinen dugu othoitz egiten, eta Iainkoaren laudorioen kantatzen. *Salmoak kantatuko itut, zioen Dabitek, angeruen aitzinean.*

Ohore, erreberenzia eta errespetu ekhar diozozu amorio beregain batez Andre Dana Maria Birjina sakratuari eta loriosari, gure guzien gaineko aitaren ama da, eta halatan gure amasoa da. Dagigun bada laster haren gana, eta haren illobatxoak edo haurxoak bezala sar gaitezin haren alzoepen fidanza guziarekin; ordu eta leku guzietan dei dezagun ama manso eta ezti hura, gomenda gakizkon haren amazko amorioari, eta enseia gaitezin haren bertutei irraikitera, ekartzen dugula haren aldera egiatzko umeek ohi duten bezalako bihotza.

Treba zaitte hagitx angeruekin, mira zazu maiz gogoz nola ezin ikus ditezkeien bezala zurekin daudezin eta beha dagozkan zure bizitzeari; guzien gainetik ohore eta amorio ekhar diezezu zu zaudezin Diozesako, eta zeinekin bizi baitzara, hekin angeruei, beregainki ordea zureari: othoitz egiezu maiz, laudorio emezu arduraki, gomenda zakizte zure egiteko guzietan, bai espirituzkoetan, bai mundukoetan, zure intenzionetan hel eta lagun dakizkitzun amorea gatik.

Pierres Faber Iesusen izeneko konpainia sainduko lehen apezak, lehen predikariak, lehen theologu nausiak, eta Sant Ignazio konpainia haren zimendatzaillearen eta buruzagiaren lehenbiziko lagunak, egun batez heldu zela enperadorearen lurretarik, non hainitz serbitzu saindurik egin baitzuen Iainkoaren loriatan; eta iragaiten zela Genebako diozesatik, zein baita haren sor lekua, kondatzen zuen ezen bide egiten zuenean fedearen kontrako hainitz lekutarik, milla konsolazione izan zituela sar-



tzen zen herrietako angeru begiralei agur egiteaz, eta frogatu zuela hek izan zituela alde eta lagun, dela haren begiratzeko Hignoten artetarik, dela hainitz arimaren mansotzeko era erakartzeko salbamenduko dotrinaren hartzera. Eta hori halako bihotzez eta gomendioz erraiten zuen, non donzeilla gazte batek gauza bera haren ahotik enzunik, hura sentimendu paregabeko batez kondatzen baitzuen eztu lau urthe baizen, erran nahi da, enzun zuenetik hirur hogoi urthe baino geiagoz geroztik. Iaz konsolatu nintzen aldare baten konsekratzeaz Iainkoak gizon saildu hura iaio arazi zuen lekuaren gainean, Villareteko herri xumean gure mendi gaitzenen erdian.

Hautatzatu saildu batzu partikularki hekin bizitzearen hobeki gozatzeko, zeinen gainean zurea molda dezazun eta zeinen artekotasunean fidanza beregain bat ezar dezazun. Zure izeneko saildua iadanik ordenatu ziatzu zure bataiotik.

## Nola enzun eta irakurri behar den Iainkoaren hitza

### HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

Zarela debozionetsu Iainkoaren hitzera: dela hartaz minza zaitezin solhas familieretan zure adiskide espiritualekin, dela hura enzun dezazun predikuetan; hura bethiere enzun ezazu erneki eta erreberenziarekin; egizu hartaz probetxu onik, eta hura eztezazula utz lurrera erortera; aitzitik sar ezazu zure bihotzean, birjina guziz sailduak egiten ohi zuen bezala, zeinak berean barrena gordetzen baitzituen bere semearen ohoretan erraiten ziren hitz guziak. Eta orhoitzea gure salbatzailleak biltzen dituela gure othoizetan erraiten diotzagun hitzak, guk predikuetan harkhez erraiten zaizkigunak biltzen ditugun arauaz.

Duzun bethiere zure aldean zenbait debozinezko liburu eder, nola-koak baitira Iesusen Imitazioneazkoa, Gudu espirituala, edo bertzerik, aurkhitzen baduzu. Egunoroz irakur ezazu hetarik zerbaitek debozitione handirekin, guthunik irakur bazeneza bezala sailduak zure gana zerutik igorrikerik zure hango bidearen erakustera eta bihotz emaitera hara ioaiteko.

Irakuretzatu halaber sailduen historiak eta bizitzeak, zeren hetan mirail batetan bezala ikusiko duzu girstinoak hartu behar duen bizitzeko moldea, eta balia zaite hekin akzioneer zure probetxuko, zuk daramazun estatuaren eta ofizioaren arauera. Ezen munduko tratuetan eta egitekotan dabilzanek ezin osoki imita detzaketelarik sailduen akzioneer guziak, badarik ere iarraiki dakidizkeie edo hurbilletik edo urrunetik.

San Paulo lehenbiziko ermitaua bakharrik zegoen mundutik apartaturik, hura imita dezakezu, zure aparta espiritualetan eta berariakoetan, lehen erran eta gero erranen dugun bezala.

San Franzes ezin erran bezanbat pobre zen, hura imitatuko duzu pobrezia besakatzen baduzu erakusiko dugun maneran.

Egia da historia batzuk argi geiago emaiten deraukutela gure bizia- ren gidatzeko bertzeek baino; nolakoak baitira Santa Theresaren, San Luis Franzia- ko erregearen bizitzeak.

Badira bertzeak lehen miretsi behar direnak imitatu baino, nolakoak baitira Santa Maria Ejiptienaren eta bertze batzuen bizitzean; halarik ere bertzeak bertze direla jeneralki emaiten dute gustu handi bat Iainkoaren amorio sailduaz.



## Nola hartu behar diren inspirazioneak

### HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

Inspirazioneen hitzaz aditzentugu Iainkoak gure baitan egiten dituen erakhartze, eranzute, barreneko ausiki, argi eta ezagutza guziak, noiz ere aitzintzen baitzaio gure bihotzare bere benedizinoez aita bati dagokan arthaz eta amudioz gure atzartzeko, irakihiteko, ertxartzeko eta erakhar-tzeko bertute sainduetara, zeruko amudiora, erresoluzione onetara, finean gure sekulako ontasunera garamatzaten gauzetara.

Badio espos sainduak hori dela athearen bulkatzea, eta bere espos andrearen bihotzari minzatzea, haren iratzartzea lo datzanean, hari oiugitea, haren deitzea kanpoan denean, haren gonbidatzea bere ezititik iatera, bere baratzean sagarrak eta loreak biltzera, eta bere boz eztiak kantalaritzera haren beharrietan.

Konparazione baten beharra dut ene erranaren adiarazteko. Ezkontza baten osoki egitekotzat, hirur gauza behar dira, nohork ezkondu nahi duen donzeillaz edo andre gaiaz bezanbatean. Lehenik erraiten zaio noekin ezkonduko den; hark gero erakusten du on zaiola, eta azkenean bere konsentimendua emaiten du. Halaber Iainkoak nahi duenean gure baitan, gure eskuez eta gurekin batean zenbait karitatezko obra handi egin, lehenik hura deklaratzeko derauku bere inspirazioneaz gero hura on ea ederetsten dugu, azkenean konsentitzen dugu. Zeren nola behatutan iautsteko hirur pausu baitira: tentazionea, atsegina eta konsentimendua; halaber hirur gradu dira bertutetara ikhahiteko; Iainkoa ganikako inspirazionea, tentazinearen kontra, inspirazionean hartzen dugun atsegina, tentazioneak eskaintzen deraukun plazeraren kontra, eta inspirazionearek emaiten diogun konsentimendua tentazioneari egin giniozokeon amoraren kontra.

Inspirazioneak iraun baleza ere bizi garen mende guzian ezginatezke hargatik niholarako maneraz Iainkoaren gogarako, hartan lakhetzen ezpalitzaigu; aitzitik haren maiestate saindua ofensa liteke, egin zen bezala Israelarren kontra, zeren berrogoi urthez, berak dioen bezala, egon zen hekin aldean, gonbidatzen zituela onera bihur zitezila, eta egundaino etzuten haren hitza enzun nahi izan; hargatik bere haserrean hekin kontra zin egin zuen, sekulan etzirela sartuko haren errepausuan. Manera berean aitonen semea, denbora handiz donzeilla bat serbitzatzuz gero

hagitz desobligatua lizate, gero ere nahi ezpalio niholatan hitz eman desideratzen duen ezkontzaz.

Inspirazionean nihork hartzen duen atsegina abiadura handia da Iainkoaren loriara, eta iadanik atsegin hura dela bide, halakoa hasten da Iainkoaren maiestatearen gogarako izaiten, ezen atsegin hura eztelarik oraino konsentimendu oso bat, guziarekin ere hartarako preparamendu nolazbaitekoa da, bai eta seinale ona da, eta probetxu handizko gauza atsegin hartzea Iainkoaren hitzaren enzuteaz, zein enzute kanpoko inspirazione bat bezala baita. Gauza ona da halaber eta Iainkoaren gogarako barreneko inspirazionean plazer hartzea. Plazer hartaz espos Andre sakratua minzo denean hunela dio, *Ene arima urtu da bozkarioz ene maitea minzatu den orduan.*

Orobat ere kontentik dago aitonen semea serbitzatzeko duen donzeillaz, eta badaduka faboratua dela dakusanean atsegin duela hark egiten dioen serbitzuaz.

Finean konsentimendua konplitzen du bertutezko obra, zeren inspiratu izan garenean eta inspirazionean lakhetuz gero emaiten ezpadiogu Iainkoari gure konsentimendua, neurrigabeki eskergabe gare haren Iainkozko maiestatearen aldera, ezen badirudi hortan mesprezio geiago badela. Hori gertatu zitzaion espos andreari, zeren bere maitearen hitz eztiak ukitu zioelarik bihotza bozkario saindu batez, badarik ere etzioen athea ideki, bainan eskusa ezdeus bat eman zioen, hargatik esposa samurturik ioan zen urrunago eta hura utzi zuen. Halaber baldin aitonen semeak donzeilla bati denbora handiz iarraiki eta bere serbitzua onetsarazi ondoan, balekusa arbuaturik eta mesprezaturik dagoela, arrazoin geiagoluke haserretzeaz, izan zukeien baino hari begitartetik egin ezpalio, eta haren ioan-etorriak onetsi ezpalitu. Harezazu bada borondate Filothea, Iainioak egin plazer derauzkitzun inspirazioneen bihotz onez hartzeko, eta hel ditezinean sar arazkitzu, eta egiezu begitarte, zurekin ezkontzeko desira duen zeruko erregeren anbasadorei bezala. Enzun ezazu plazerki zer erraitaen derautzuten, konsidera zazu nolako amudiorekin inspiratzen zaren, eta egiozu inspirazione sainduari amor. Emoza konsentimendu, ordea oso, amoriozko eta finko bat, zeren manera hartan ezin obligadezakezun Iainkoak idukiko du bere burua zure gana obligaturik zure afekziona gatik; ordea inspirazioneak konsenti detzatzun baino lehen kontuzko, extraordinariozko eta lehen ez bezalako gauzetan, engana zaitezin beldurrez, konseilla zaite bethi zure gidariarekin, frogadezantzat ea inspirazionea denz egiazkoa, ala falsoa, zeren etsaiak dakusanean arima batek laster konsentitzen dituela inspirazioneak hainitzetan ekhartzen dio



falsorik haren enganatzeko, baina sekulan eztaidike deus, hark bere gidaria humilki obeditzen dueino.

Konsentimendua emanik, behar dira artha handirekin inspirazioearen arauerako obrak bilhatu eta egin, zein baita egiazko bertutearen mukuru; ezen konsentimendu idukitzea bihotzean, hura obratu gabe, hori lizate mahasti bat landatzea eta ez nahi izaita mahatsik ekhar dezan.

Bada hunetakotzat miragarriki on da goizeko eginbidea, eta lehen erakusi ditudan aparta espiritualak ongi egitea, zeren bide hartaz prepa-  
raitzen gara ongiaren egitera, ez xoilki preparazione jeneral, baina orai-  
no partikular batez.

## Konfesionen sainduaz

### HEMERETZIGARREN KAPITULUA

Gure salbatzaileak utzi dio bere elizari penitentiako eta konfesioneko sakramendua, arren hartan garbi gaitzin gure bekhatu guzietan. Beraz, Filothea, ezteazula nihoiz ere zure bihotza utz denbora luzez bekhatuz lizundurik, hain erre-  
medio prestik eta errazik duzunaz geroztik. Lehoian emea leopardarekin batu denean, laster garbitzera doa, batze hark utzi dioen usain gaixtoaren khentzeko bere ganik, lehoina hel dadinean haserre eztaidintzat. Bekhatua konsentitu duen arimak bere burua harritu behar du, eta lehen bai lehen garbitu, hari beha dagokan maiestate sainduaren begiei ekharri behar derauen ohorea gatik. Ordea zergatik hillen gare arimako herioaz, hain erre-  
medio beregainetako dugunaz geroztik?

Konfesa zaitte humilki eta debotki zortzi egun guzietan, bethiere egin ahal bazaitez errezebi dezazunean, zure konsenziaren gainean sentitzen eztuzularik bekhatu mortaleko narrantik edo garririk; zeren konfesionen bidez ez xoilki ardietsiko duzu konfesatuko dituzun bekhatu benia-  
len absolbazionea, baina oraino indar handi bat hetarik itzulteko ethor-  
kizunera, argi handi bat hekin ezagutzeko, eta grazia franko, hek egin zerautzuten kaltearen erremediatzeko. Iarraikiko zaizte humiltasunari, obedienziari, sinpletasunari eta karitateari, bai eta konfesioneko akzione huts hartaz bertute geiagotan iarriko zaren bertze akzione guzietan baino.

Duzun bethiere desplazer egiazko bat konfesatuko dituzun bekhatuez, zenbat ere xipi baitira, borondate fermurekin handik hara hetarik apartatzeko. hainitzak bekhatu beniazez konfesatzen dira ohitzaz, hala dagidanz eta bere buruaren ederki atheratzeko, axolarik eztutela hetarik itzultez, eta horrela hainitz ontasun eta probetxu espiritual galtzen dute. Bada konfesatzen bazare gezurrik erran duzula, nihori kalterik ekarri eztiolarik, edo behar ez legezko hitzez minzatu zarela, edo iokotan sobe-  
ra hari izan zarela, duzun hetaz urriki eta borondate tinkeko batez geia-  
go halakorik egiteko; zeren enganamendu bat da bekhatu mortalik edo benialik konfesatzea, hetarik purgatu nahi gabe, halaz eta konfesionen hartarakotzat baizen ordenatua eztenaz geroztik.

Ez erran ere deusik eztakharkeien akusazionerik, batzuek egiten duten bezala, bere ohiko usanzaz erraiten dutela: eztut iainkoa behar





nuen bezain maite izan, eztitut neure debozionaek egin behar bezanbateko debozionerekin, ez tut giristino laguna behar nuen arauera oneritsi, ez titut sakramenduak behar bezalako erreberenziarekin errezebitu, eta hala bertzeez; zeren horrela minzo zarenean eztuzu deus berezirik erraiten, konfesorari adi araz diozokeonik nolako estatuan den zure konszienzia, ikusirik parabisuko saildu eta lurreko gizon guziek gauza hek berak erran ahal letzaketela konfesatzen balira. Mira zazu bada, zergatik partikulariki egin behar duzun halako akusazionerik, eta ikusten duzunean zer arrazoin duzun hala erraiteko, akusa zaite hartan egin duzun hutsaz, ordea sinpleki eta ageriki. Exenplutzat, akusatzen zara eztuzula laguna maite izan behar zenduen bezala, agian zeren pobre bat behar handitan ikusirik ezpaituzu hartaz konturik egin, hura errazki konsola eta fabora zenezakeielarik eta hel zinenkidikeolarik; Ea bada, akusa zaite hortaz partikulariki eta errazu, pobre behar bat ikusi dut eta enatzaio heldu izan ahal bezala, ansi gabez, edo bihotz gogorrez edo mesprezioz, halako faltaren okasionea ezagutugo duzun arauera; berriz, ezterrakula Iainkoa eztuzula othoitztu behar duzun bezalako erreberenziarekin; baina izan baduzu borondatezko barraiamendurik, edo izan ezpaduzu axolarik zure othoitzten erneki egiteko behar zen lekuaren, mugaren eta erremanguren hartzeaz, akusa zaite hortaz sinpleki, jeneralki minzatu gabe, ezen hala konfesateaz ezta hotzik ez berorik ageri.

Etzaitezila kontenta erraiteaz bekatu benialik egin duzula, baina errazu oraino zer dela kausa egin dituzun. Konparazionera, ez takizula iduri aski dela erraitea, nihori kalterik ekharten ez tioen gezurra erran duzula, baina deklaratu zazu ea hura erran duzun banaloriaz, zure bururen laudatzeko eta eskusatzeko, edo alegrianzaz airaturik edo nabarben durik; bekhatu egin baduzu iokotan, errazu, ea irabazi nahiz, edo bertzeekin atsegin hartzea gatik, eta hala bertzeez. Errazu ea ephe luze eman duzun zure gaizki egitetan, zeren komunzki denbora uzeak hagitz handitzen du bekhatua, iakinik bertze gauza bat dela oren laurden batez gogotan iragan zaizun banaloria airatua eta hagitz berzeago gure bihotzean trikatu dena egun bat, bia, hirur; beraz erran behar da zer bekhatu egin dugun, zergatik egin dugun, eta zenbat egon garen haren egiten. Ezen komunzki premiarik ez telarik hain zorrotzki bekhatu benialen konfesatzeko, eta, zein baita geiago, nihor obligatua ez telarik hetaz bada eta ezpada konfesatzera, badarik ere bere arima ongi garbitu nahi dutenek, deboziona sailduaren hobeki ardiesteko, behar diote midiku espiritualari artha handirekin aditzera eman senda arazi nahi duten gaitza, zenbat ere xipi baita.

Eztagizula dudarik behar den guziaren erraiteaz ongi adiarazteko nolakoa den zure falta, hala nola zergatik haserretu zaren, edo zer dela kausa norbaiten eskasak ez tituzun pairatu. Exenplutzat, nardatzen nauen batek erranen deraut hitz arin bat irri egiteko; hura gaitzera hartuko dut eta samurtuko naiz, ene gogarako den bertze batek garratzagorik erran baleraut, onera hartuko nuen; ez tut bada dudarik eginen erraiteaz, largatu naiz haserragarrizko hitzen erraitea presuna baten kontra, zerbait erran derautanik gaitzera hartuz, ez haren hitzak berak gatik, baina zeren presuna hura ezpaitzen ene gogarako; eta erran behar bada oraino nolako hitzak partikulariki erran dituzun zure faltaren ongi erakusteko, uste dut on lizatekeiela hekin erraitea; ezen zeroni hala akusatzen zarenean, ez xoilki egin dituzun bekhatuak agertzen tutzu, baina oraino zure aztura eta usanza gaixtoak eta bekhatuaren erro guziak, eta hek erakusirik aita espiritualak osokiago ezagutzen du tratatzen duen bihotza, eta nolako erremedioak behar zaizkon eman; guziarekin ere bethi behar duzu ahal bezanbat ixil egon, zurekin bekhatu egin duen lagunaz.

Zaude beha, hainizetan sentitu gabe zure bihotzean bizi diren eta nausitzen duten bekhatu hainitzen gainean, hetaz konfesa eta garbi ahal zaitez kentzat. Hartarakotzat irakur etzazu erneki hirugarren parteko sei, hogoi eta zazpi, hogoi eta zortzi, hogoi eta bederlatzi, hogoi eta hamaseigarren kapituluak, eta laugarren parteko zortzigarren kapituluak. Eztezazula errazki zure konfesora ganbia; baina bat hautatuz gero, emozu arduraki kontu zure konszienziaz, hartarakotz hartu dituzuen egunetan erraiten diozula bihotz ideki eta largo batez zer bekhatu egin dukezun; eta noizbatetik noizbaitera, hala nola illabethetik illabethera, edo bi illabethetik bi illabethera, errozu oraino nola zaudezin eta zertara emana zaren, nolakoak diren zure inklinazionaek hekin gatik bekhatu egin eztuzularik; konparazionera, ea tristeziak akometatzen zaituen edo alegrianzak eramaiten, ea onhasunik biltzeko guthiziak ukhitzten zaituen, eta hala bertzeez.



## Maizko errezebitzeaz

### HOGOIGARREN KAPITULUA

Erraiten da Mithridatez Ponteko erregeak bere espirituetik egin zue-  
nean oraiko botikariek darabillaten haren izeneko miritzina, hartaz bere  
gorputza hala bortitztu zuela, non bera gero enseiatu bazen ere bere  
buruaren pozoinez hiltzera Erromakoen gathibutasunetik itzultzeko,  
nihola ere hura ezin hil baitzuen pozoinak. Gure salbatzaileak ordenatu  
du eukaristia guziz sailduaren guzien gaineko sakramendu hura, zeinak  
baitaduka egiazki haren haragia eta odola, arren hura iaten duena sekula-  
kotz bizi dadin. Hargatik nork ere hura maiz hartzen baitu debozionere-  
kin, halako manieraz azkartzen eta finkatzen du bere arimaren osasuna eta  
bizia, non ezin kasik pozoa baititeke niholatako afekzione gaixtoz; nor ere  
biziaren haragi hartaz othuruntzatzen baita, ezin bizi diteke herioaren  
afekzioneez; eta nola lur-parabisuan zeudezinek ahala baitzuten gorputzez  
ez hiltzeko, Iainkoak baratze hartan ezarri zuen fruitu bizigarriaren inda-  
rrez; hala ere sakramendu bizitzaille hunen bertutez badu batbederak esku  
ez hiltzeko arimako herioaz. Baldin fruitu samurrenak eta bustelkorrak,  
nolakoak baitira gereziak, abrikotak eta arregak, errazki begiratzen eta  
gordetzen badira urthe bethean azukrez edo eztiz konfituraztaturik, ezta  
zer miretsirik, baldin gure bihotzak, zenbat ere hautskor eta flako baitira,  
begiratzen badira bekhatuaren ustelduratik, Iainkoaren semearen ezin  
ustelduzko haragiaz eta odolaz azukreztatu eta eztiztatu direnean. O  
Filothea! danatuko diren giristinoak egonen dira deus ere ezin ihardetsiz,  
iainkoak erakus diezenean falta handia izan dutela arimako herioaz hilt-  
tzeaz, hain errazki mantena zitezkeienaz gero bizirik eta sendorik, ian izan  
balute hartarakotz utzi zerauen bere gorputza. Dohakabeak, erranen du,  
zergatik hil zarete, biziaren fruitua eta iakia eskuetan zendutenaz geroztik?

Egun oroz eukaristia sailduaren hartzea, eztut erraiten ongi dela, ez  
eta gaizki dela; ordea igande guzietan errezebitzeaz guzietan emaiten derauet  
konseillu, eta zinetan emaiten; kondizionerekin, bihotza izanen dutela  
bekhatutarako afekzione guzietarik libro. San Agustinen hitzak berak dire,  
zeini narraiola ezpaitut osoki erraiten gaizki dela, ez eta ongi dela egun  
guzietan errezebitzea, baina hori utzten diot iujeatzera puntu hunen gai-  
nean deliberatu nahiko duenaren aita espiritualaren zuzerari; zeren nola  
hain maiz errezebitzeko preparazionea behar baita bereziena izan, ezta on

guzietan konseillu emaita maiz errezebitzeaz; eta zeren preparazione hura  
bereziena bada ere, ediren baititeke hainitz arima prestutan, ezta on ere  
guziak jeneralki hartarik urruntzea, baina hori uijeatu behar da batbede-  
raren barreneko estatua partikulari kontsideratuz.

Zuhurgabetasuna lizate guzietan orobat hain maiz errezebitzeko kon-  
seillu emaita; baina zuhurgaberia ere lizate nihortaz gaizki erraita,  
zeren maiz errezebitzen duen, behintzat gidari zuhur baten konseilluari  
badarraio. Santa Katalina Sienekoak ederki ihardetsi zuen, erran zitzaio-  
nean bere maizko errezebitzearen gainean, San Agustinok etzuela lauda-  
tzen, ez eta kondenatzen egunoroko errezebitzea. Ea bada, zioen, San  
Agustinok hura kondenatzen eztenaz gero, othoi, eztezuuela zuek ere  
kondena, eta kontent izanen naiz.

Ordea, Filothea, badakusazu San Agustinok zin zinezko konseillu  
emaiten duela igande guzietan errezebitzeaz, zarrasko bada ahal bezanbat.  
Halaz eta, kontu egiten dudan bezala, eztuzunaz gero ez bekhatu morta-  
lerako, ez benialerako afekzionerik, San Agustinok nahi duen prepara-  
ziorik zare, eta are desiratzen duen baino handiagoan, zeren ez xoilki  
ezpaituzu bekhatuaren egiteko afekzionea, baina oraino zeren bekhatu-  
tarako afekzionea ezpaitadukazu. Hala non zure aita espiritualari on bali-  
tzaio, probetxurekin errezebi baitzenezake igande guzietan baino maizago.

Guzia gatik ere hainitz arrazoinetako trabu gerta dakidikezu, ez hala  
ere zure aldetik, baina, zeinekin bizi baitzara hekin burutik, eta hargatik  
eman liozokete leku gida zuhurrari zuri erraiteko ezteazula horrein maiz  
errezebi.

Konparaziorik, nola ere nahi norbaiten azpikoa bazare, eta zure  
ganik obediencia eta ohore behar dutenak hain gaizki ikhasiak eta hain  
bihurriak badira, non asalda eta fastika ditezin ikusteaz hain maiz erreze-  
bitzen duzula, agian gauza guzietan kontsideraturik, on izanen da hekin  
sensu apurrari amor egitea, eta ez errezebitzea hamabortzetik hamabor-  
tzetara baizen; baina hori aditzen dela kasu emanik nihola ere trabu hura  
ezin khen ditekeiela. Hori ezin ongi ordena diteke jeneralki minzatzera;  
aita espiritualak erranen duena egin behar da, segurtzat ahal derrakedala-  
rik luzenazko errezebitzea dela illabetherik illabetherakoa Iainkoa debo-  
zionerekin serbitzatu nahi dutenen artean.

Zuhur bazare, ezta aitarik, ez amarik, ez emazterik, ez senharrik  
maiz errezebitzetik tratatuko zaituenik. Zeren dakusatenean errezebitzen  
duzun egunean etzaudezila hargatik geldirik artha iduki gabe zure esta-  
tuari eta kondizioneari dagotzan gauzez, emeago eta begitartetsuago zare-  
la hekin aldera, eta eginbide suerte guzietan egiten derauztetzula, ezta ageri



seinalerik nahiko zaituztela deboziona hartarik gibelatu, dakitela ezterauela kalterik ekharriko, baldin berez xoil puntutsu eta desarrazoinezko ezpadira; kasu hartan erran dudan bezala, agian zure gidariak nahiko du amor egin diezezun.

Hitz hau erran behar dut ezkonduentzat. Lege zaharrea etzitzaion Iainkoari on hartzekodunak besta egunetan eska litezin zor zitzaiena; bainan etzuen egundaino erakusi zordunek etzutela ongi egiten hartzekorik eskatzen zirenei emaitiaz eta pagatzeaz. Gauza itsusia da, eztelarik bekhatu handi, errezebi egunean bere lagunaren gonbidatzea ezkontzako eginbidearen emaitera; bainan ezta gauza itsusia, aitzitik merituzkoa da bere esposaren obeditzea. Hargatik bere lagunari ezkontzako eginbidea pagatzen dioena ezta sakramendu sainduaz gabetu behar, bertzenak deboziona emaiten badio haren errezebitzeko desira. Segur, lehenagoko giristinoek egun guzietz errezebitzen zuten, ezkonduak zirelarik, eta haur hainitz izaiten zutelarik ere. Hargatik erran dut maizko errezebiteak ezterauela kalte garabik ekhartzen ez burasoei, ez senharrei, ez emaztei, zuhur bada errezebitzen duen arima. Gorputzeko eritasunez bezanbatean, ezta bat ere legezko traburik partaletasun saindu hari ekhar diozokeon legezko traburik, goiti ekhartzera eta entorzera maiz ertxa lezakeien eritasuna lekhatu.

Nihork zortzi egun guzietz errezebitzekotzat, behar da eztuen bekhatu mortalik ez eta bekhatu benialerako afekzionerik, eta behar da desor handia duen komuniatzeko; bainane gun guzietz errezebitzekotz, behar da erran dugunaz lekhora, garaitu zaien bere geien inklinazione gaixtoei, eta iarraiiki dakion bere aita espiritualaren konseilluari.

## Nola errezebitu behar den

### HOGOI ETA BATGARREN KAPITULUA

Has zaite aitzineko arratsetik komunione saindura preparatzen hainitz amoriozko hatsgorapen usuz, eta goizago etzan zaite goizago ere iaiki ahal zaitezintzat. Baldin gauaz iratzartzen bazare, bethe zazu berehala zure bihotza eta ahoa zenbait usain onezko hitzez, eta hetaz usainzta zazu zure arima esposaren hartzeko, orhoitzen zarela hura erne dagoela zu lo zauntzan bizkitartean, eta preparatzen dela zuri milla grazia eta fabore ekhartzera, zure aldetik edireiten bazare preparaturik hetaz gozatzera. Goizean iaiki zaite bozkario handi batekin zori doatsu haren esperanzan, eta konfesatu ondoan zoaz fidanza handirekin, ordea humiltasun handirekin ere sekulakotz othurunzatu behar zaituen zeruko ianhari haren hartzera. Gero hitz hauk erranik: *Domine non sum dignus, etc*, erran nahi da, *Iauna, ez tut merezi ene baitan sar zaitezin, bainan errazu hitz huts bat eta salbo izanen da ene arima*. Eztezazula burua, higi ez ezpainak ere, dela othoitzik egiteko, dela hatsbeherapenik atheratzeko, bainan ahoa emero, baratxe eta aphur bat idekiten duzula, eta burua altxaturik behar den bezanbat, apezak ikus dezantzat zer egiten duen, fedez, esperanzaz eta karitatez betherik, Iaun hura har ezazu, zeina baitan, zeina dela bide eta zeina gatik zinetste, esperanza eta amorio baituzu. O Filothea, iduri beki zu, nola erleak zeruko ihinza eta lurrekko gozorik hautuena eta hoberena loreen gainetik bildu eta eztitara itzuli duenean, hura baitarama bere kofauera: hala apezak aldarearen gainean hartu duenean munduaren salbatzaillea, Iainkoaren egiazko semea, zerutik ihinza bezala iausti dena eta birjina sainduaren egiazko semea ere dena, gure gizontasunetik lore bat bezala ilkhi dena emaiten duela zure ahoan eta gorputzean iaki gozogarritzat. Hura errezebitu ondoan, gonbida zazu zure bihotza datorla salbamenduko errege hura agur egitera, minza zaite harekin zure barreneko egitekoez, hura konsidera zazu zure baitan, nola iarririk dagoen zure bethetzeko zori on guzietz. Finean egiozu begitarte ahalik hoberena, eta hala zabilta, non zure obra eta hitz guzietan guziek ezagut dezaten Iainkoa zurekin duzula.

Ordea ontasun hura ezin ardiets dezakezunean meza sainduan haren errezebiteaz hostia sakratuaren azpian, hura bederen errezebi zazu biho-



tzez eta gogoz, zure burua zure salbatzailearen haragi bizigarri harekiko bat egitren duzula haren ganako desir bero batez.

Behar duzun intenzionerik handiena errezebitzen duzunean, da, Iainkoaren amorioan aitzinatzeko, zure buruaren bortitzzeko, azkartzeko eta konsolatzeko; zeren hartu behar duzu amorioa gatik, amorio hutsak eman arazten derautzuna. Ez ez, gure salbatzailea ezin konsidera diteke obra amolsuago, ez eta bihotzgarriago batetan, hau den baino; zeinetan hala eraitera, ezdeusten eta ianhari egiten baita gure arimetan barrena sartzeko, eta bere fidelen bihotzekin eta gorputzekin bat osoki egin dadintzat.

Mundukoek galdegiten baderautzute zergatik horrein maiz errezebitzen duzun, errozute hori egiten duzula, khasteko nola Iainkoa behar duzun onetsi, zure garbitzeko zure eskatarik, zure libratzeko zure miserietarik, zure konsolatzeko zure ordu gaitzetan, zure permatzeko zure feblezietan. Erran diezezu bi jende suertek behar dutela maiz errezebitu; prestuek eta konpliek, zeren ongi preparatuak direnean, falta handia baidukete perfektzionarearen ithurburuari ez hurbiltzeaz, inperfetek eta eskasek orobat behar dutela maiz errezebitu, arren noizpait perfektzionarearen bide zabala xuxen ardiets ahal dezaten; bortitzek, flaka ezтитеzin gatik, flakoek, bortitz ditezin gatik; eriek, senda ditezintzat, sendoek, eri ezтитеzintzat; zutaz denaz bezanbatean, nola eskas, flako, erbal eta eri baitzare, premia duzula zure perfektzionari, zure indarrari, zure midikuari maiz hurbiltzeko eta minzatzeko. Errozute hainitz munduko egitekorik ezтutenek behar dutela maiz errezebitu, zeren denbora eta astia baitute; eta hainitz munduko lan dutenek ere, zeren haren beharra baitute; eta hainitz nekhetan eta trailla lutan dagoenak, ianhari ere zaillak eta indarsuak ian behar dituela, eta maiz. Errozute sakramendu saindua hartzen duzula, ikhasteko haren ongi errezebitzen, zeren obra bat gutitan egiten baita ongi, maiz erabilliz eta usatuz baizen.

Errezibi zazu maiz, Filothea, eta ahalik maizena, zure aita espiritua-laren konseillua harturik; eta zinets nazazu, herbiak neguan gure mendietan egiten dira xuri, zeren ezтuten ikusten eta iaten elhurraz bertzerik, zu ere edertasuna, ontasuna eta garbitasuna bera iainkozko sakramendu hartan maiz eta maiz adoraturaz eta ianez, guzia eginen zara eder, on, eta garbi.

## FILOTHEAREN HIRURGARREN PARTEA

Hainitz abisu dadukana bertuteen eserzizaren gainean



## Egin behar den hautuaz bertuteen eserzizaz bezanbatean

### LEHEN KAPITULUA

Erleen erregea ezta behinere kanpora ilkhiten, non ezten bere poblua eta jende xehe guziaz inguratua; halaber karitatea ezta nihoiz ere bihotz batetan sartzen, non ezten hartan berekin ostatatzen bertute guzien konpainia; hek ordenatzen dituela, eta zein bere lanean eta eginbidean iara azasten duela, kapitain batek bere soldaduak manaiatzen dituen bezala; baina ezterauzte bere lanak ordenatzen, ez berehala, ez berdin, ez ordu, ez leku guzietan. Gizon iustua da dabillan uraren aldean landatua den, eta bere fruitua bere mugan iasaiten duen arbolaren pare, zeren karitateak arima bat ihintzaten duenean, haren baitan dagoela, obra bertutetsuak ekhartzen tu, zein bere denboran. Kantak, berez hain plazergarri direlarik, orduz kanpokoak dira doluan, dio errefauak. Eskas handi dute hainitzek, zenbait bertute partikulareko lani lotzen zaizkonean; thematzen baitira haren erakustera ordu eta leku guzietan, eta nahi baitute, filosofo zaharrek bezala, edo bethi nigar, edo bethi irri egin, eta gaizkiago oraino egiten baitute, darasatenean eta erraiten dutenean berak bezala darraitsten bertutei bethi ezterraistenek ezutela ongi egiten. Alegerekin alegeratu behar da, eta nigarrez daudenekin nigar egin, dio apostoluak; hala ere karitatea pazienziatsua da, mansoa, idekia, zuhurra, begiratua, amorgillea, begitartetsua.

Guziarekin ere badira bertuteak, zeinen eginbideak eta ofizioak hurren alde guzietakoak baitira, eta zeinek ezpaitutze xoilki bere obrak egin behar beregian; aitzitik behar baitute bere bezalakotasuna bertze bertute guzien obretara hedatu eta barraiatu. Bortitztasunaren, bihotz handitasunaren, handiresunaren erakusteko ordua eta okasionea ez tira maiz edireitan; baina mansotasuna, neurritasuna, ohoretasuna eta humiltasuna bertute batzu dire, zeinez gure biziaren obra guziak behar baitira koloreztatu.

Badira hauk baino bertute ekzelentagoak, badarik ere hautazko usanza premiazoago da. Azukrea ekzelentago da gatza baino, baina gatza maizago eta gauza geiagotara hartzen da. Hartarakotzat bethi hanitz eta laster bildu behar dugu guzietarako bertute hautarik, hetaz bethi hai-

nitz eta laster bildu behar dugu guzietarako bertute hautarik, hetaz behti kasik baliatu eta serbitzatu behar garenaz geroztik.

Bertutezko lanetarik lehen hautatu behar dugu gure eginbideari hobeki dagokana, ezen ez gure gustuaren arauerago dena. Gozo zitzaion Santa Paulari bere gorputzarren garratzki hezte eta sebatzea, ez titasun espiritualez errazkiago gozatzea gatik, baina obligatuago zen bere superiorren erranen egitera. hargatik San Hieronimok aitortzen du gaizki egiten zuela bere ipizpikuaren konseilluaren kontra neurrigabeko barurik egiteaz. Apostoluek kontrarea, ikusirik ordenatuak zirela ebanjelioaren predikatzeke, eta zeruko ogiaren arimei partitzeko, ongi xoil iujeatu zuten huts handi bat egiten zutela prediku sainduaren utzteaz, iarraitze gatik pobreez artha duen bertuteari, guziz exzelenta delarik. Batbederaren bizitze thailuak zenbait bertute bereziri lotzeko premia du. Bertute batzu dagozta elizako buruzagiari, bertze batzu prinzeari, bertzeak soldaduari, bertzeak emazte ezkonduari, bertzeak alhargunari, eta guziek behar dituztelarik bertute guziak izan, etzaizte guziei orobat lotu behar baina batbedera partikulari iarrai ki behar zaizte hartu duen bizitzeko antzeari beha dagozkan bertutei.

Gure eginbide partikulari ukitzen etzaizkon bertuteen artean hartu behar dira ekzelentenak, ez eder eta handi iduriago dutenak. Kometek, erran nahi da, izar adats, xirlo eta buztan dunek komunzki handiago dirudite egiazko izarrek baino, eta leku geiago dadukate gure begietan; badarik ere ez tira izarrek konparatzeke, ez handitasunaz, ez eta ahalaz edo bertutez, eta ez tirudite handiak direla, zeren gure gana hurbillago diren, eta materia lodiago bati datxezkon baizen. Manera berean badira bertute batzu, zeinak, zeren ukitzen ditugun eta sentitzen, eta, hala erran behar bada, zeren materian dauntzan, handiro eta bethi berzeak baino geiago estimatzen baitira jende xehearen artean; hala komunzki kontu geiago egiten da gorputzeko aumoinaz, ezen ez espirituaz; baruraz, zilizioaz, sedazko athorraz, billustasunaz, diziflinaz eta gorputzaren hezturaz, ezen ez emetasunaz, mansotasunaz, modestiaz eta bihotzaren sebadura guziez, hagitz ekzelentagoak direlarik. Hautatzatu bada, Filothea, bertute probetxosenak, ez estimatuenak; beregainekoenak ez itxurazkoenak; hobere-nak, ez berreginenak edo begizatuenak.

On da batbederak hauta dezan zenbait bertute berezirik, haren arauera obratzeko, ez ordea bertzeen utzteko kontuan, baina ba bere espirituaren xuxenkiago iarri rik idukitzeko bere lanetan.

Neskato gazte eder eta iguzkia baino argiago bat, erregina bezala berregindurik, azitun arramuzko khoro batez khoroaturik agertu zitzaion



San Iuan Alexandriako ipizkuari, eta erran zioen: Ni naiz erregeren andre-gaia, nahi banauzu maitetzat hartu, gidatuko zaitut haren ikustera. Ezagutu zuen andre hura zela pobreen alderako miserikordia, eta Iainkoak bertute hura gomendatzen zioela; hala ere gero halako maneraz iarri zen aumoin edo limosna egiten, non hargatik leku guzietan hari baitzaritza San Iuan aumoinera edo limosnaria.

Eulojio Alexandrinok desira harturik zenbait serbitzu berezirik Iainkoari egiteko, eta indarririk aski ez izanez bakharriko bizitzearen besarkatzeko, ez eta bertzeren eskuaren azpian iartzeko, hartu zuen bere etxera gizon ondikoizko, lazeriatu, galdu eta sohaiotasunez bethe bat, bere karitatearen erakusteko haren baitan, eta bere buruaren bildumatzeko. Hori egitekotzat merezimendu geiagorekin, botu egin zuen hura ohoratuko errekaitatuko eta serbitzatuko zuela mutil batek bere nausia eta iauna egin zezakeien bezala. Ordea zenbait tentamendu gertaturik, bai sorhaioari, bai Eulojiori elkharren largatzeko, ioan ziren San Antonio handiagana konseillu eske, eta hark erran zerauen begirauzue, haurrak, elkhar ganik apartatzetik, zeren nola biok zuen azken finari hurbildu baitzaizkote, angeruak edireiten ezpazaituzte elkharrekin, zuen khoroen galtzeko peril handitan zarete.

Sain Luis Franziaiko erregeak, dirua irabazi nahiz bezala, bisitatzen zituen hospitaleak, eta eriak serbitzatzen zituen bere eskuez. San Franzesek pobrezia zuen maite guzien gainetik, eta hura deitzen zuen bere andrea. San Domingo besarkatu zuen predikuaeren ofizioa, eta haren ordenakoak handik deitzen dira predikadore.

San Gregorio handiak plazer hartzen zuen sainduralei begitarte eta serbitzu egiteaz, Abraham patriarka mirailtzat harturik, eta hala ere hark bezala loriako erregea ostatatu zuen saindurale baten iduriaren azpian. Tobiasek bere karitatea emaiten zuen gorputzen ehorztean. Santa Elisabetek, zenbat ere prinzesa handi baitzen bere buruaren beheitimen-dua zuen maite guzien gainetik. Santa Katalina Genesekoa alhargunduz geroztik iarri zen hospitalean erien serbitzatzen. Kasianok kondatzen du donzeilla debozionetsu bat, desira harturik norbaitek eman liozon pazienziatzeko bertutearen ardiesteko bidea, ioan zela San Athanasio gana, eta hark haren galde enzunik, eman zuela harekin lahargun errumes, grinatsu koleratsu, burugogor, arrankurati eta ezin pairatuzko bat, zeinak bethiko liskarrez, hitz gaitzez, arrankurez eman baitzioen andre iainkotiar hari leku franko emetasunean eta obediengan behar bezala iarteko. Halaber Iainkoaren serbitzarien artean batzu iarten dira erien serbitzatzan, bertzeak arima galduen eta errebelatuen hoberatzen, bertzeak elizen

edertatzen eta aldareen berregintzen, eta bertzeak gizonen artean bakearen emaiten. Hortan brodatzailleak bezala dira, zeinek hainitz mothazko oialaren gainean hainitz moldez ere sartzen baitituzte sirikuak, urrea eta zilharra suerte guzietako lorerik egiteko, zeren zenbait debozinezko lan bereziri hala lotzen zaizkon arima deboziona zaleak hartaz baliatzen dira oial huts batez bezala bere brodadura espiritualaren egiteko haren gainean gertze bertute guziak, zein bere lekutan ezarteko eta hedatzeko, eta hala bere akzionaek eta afekzionaek hobeki dadutzate bizirik eta arrimaturik, hek bere lan espiritualera ordenatuz, eta bere espiritua erakusten dute bere aldagarri urre irunez iosiarekin, eta hainitz obradura moldez bereziarekin.

Bizio batek akometatzen gaituenean, haren kontrako bertuteari behar gaizko ahal bezanbat iarraiki; zeren bide hartaz garaituko gaizko gure etsaiari, eta ez gare hargatik egonen bertute guzietan aitzinatu gabe. Uргуиллукериак edo kolerak eramaiten banau, beharko dut gauza guzietan neure burua apaldu, makurtu eta plegatu humiltasunaren eta mansotasunaren aldera, eta hartarakotzat orazioneaz, sakramenduez, prudenziaz, fermutasunaz neurritasunaz baliatuko naiz. Ezen nola basurdeek hortzak hortzez agurtzen baitituzte eta garbitzen, hekin zorrotzeko, eta nola bataak eta bertzeak orobat hagitz zorrotzen baitira eta pikagarritzen, hala gizon bertutezaleak borondatea hartu duenean bere buruaren begiratzeko, beharrago duen bertutearen osoki ardiesteko; hura behar du limaztatu eta zorrotz bertute bertuteen eserzizaz, eta hala hek ere, batak bertzea ongituz, finkatuz eta edertuz, ekzelentago eginen dira eta ederrago. Hala gertatu zitzaion Iobi, zeren nola partikularki baitzerraion pazienziari, hura akometatzen zuten hain bertze tentazioneren kontra, alde guzizko saindu egin zen, eta bertutetsu bertute guzietan. Halaber, San Gregorio Nazianzakoak dioen bezala, gertatu da presuna batek ardietsi duela bertuteez neurria mukuru, xoilki zenbait bertute ongi eta tinkezki segituaren obra batez, Rahaben exenplua ekhartzen duela, zeinak bidezkoen ostatazko ofizioa behar legez eginik, bere gaineko loria bat ardietsi baitzuen; hori ordea aditzen da halako obra egiten denean ahalik hobekiena, bihotz bero eta karitate handi batekin.





## Bertuteez egin behar den hautu beraren gainean

### BIGARREN KAPITULUA

San Augustinok ederki dio, deboziorik lehenbizi hastetik iarten direnak egiten dituztela huts batzu gaizki hartzeko direnak deboziorik lege hersien arauera, halarik ere laudatzekoak direla, aitzinetik emaiten duten ethorkizuneko deboziorik beregaineko baten seinalea gatik, bat eta debozionerako preparaziorik bat direla. Beldurtasun lodi eta larri hura, bekhatuetako bide zabaletik berriroki ilkhiten diren arimetan narriok eta garriak ezarten dituen, da bertute gomendatzeko bat lehenbizi haste hartan eta seinale aitzindari segura gero ere konszientziaren garbitasuna ardie-tsiko dutela; bainan beldur hura bera gaizki erraitekoa lizate deboziorik iadanik hainitz aitzinatu direnetan; hekin bihotzetan manatu behar baitu beldurtasun hura aphurka eta baratxe khentzen eta kanporatzen duen amorioak.

San Bernardo bere lehenbizi haste hetan xoil zen hersia eta garratzasunez bethea, haren gobernuaren azpian iarten zirenen aldera, eta berehala erraiten zerauen gorputza erauntsi behr zutela, eta haren gana ethorri espiritu irutsarekin. Hekin konfesioak enzuten zituenean, ezin deklaratzeko garratzasunaz erabilten zituen eskas suerte guziak, zenbat ere xipi baitziren, eta perfekzionerik ikhastun berri gaizo hek hala etxatzen zituen, non khexatuz eta khexatuz debozionetik apartatzen baitzitu; bihotza eta hatsa galtzen baitzuten ikusteaz hark bethi eta bethi lehiatzen zitzaiela hain ikhe xut eta gora batetan. Ikusten othe duzu, Filothea? garbitasun oso baten desir guziz irazeki hark bulkatzen zuen saindu handi hura halako biderik hartzera, eta zelo hura bertute handi bat zen, ordea etzen laudatzeko. Hala ere Iainkoak berak behingo aldi sakratu batez hari agerturik bertze bide bat hararazi zioen, isurtzen zuela haren arima baitara spiritu eme, manso, maitagarri eta urrikalmendutsu bat, eta hala guziz bertze bat eginik, akusatu zuen bere burua handiro, zeren hain garratz eta hersi izan zen, eta hain amolsu eta begitartetsu egin zen guzien aldera, non egin baitzen nahiz nahia guzientzat guziak irabazte gatik.

San Hieronimok kondatu duenean santa Paula bere alaba espiritual maitea ez xoilki sobera iarria, bainan are thematua zela bere gorputzeko mortifikaziorik, hala non ezpaitzioen amor egin nahi San Epifanio bere ipizpikuak hartarakotz eman zioen kontrako abisuari, eta hortaz lek-

hora beretarik nihor hiltzen zenean hala bere burua largatzen zuela damura eta dolura, non bethi bera sartzen baitzen hiltzeko perillean; azkenean hunela dio, erranen dute andre saindu haren laudorioak eskiribatu behar bidean, eskiribatzen ditudala haren eskasak, makhurrak eta baiak, lekuko egiten dut hark serbitzatu duen, eta nik ere serbitzatu nahi dudan Iesus iauna, eztudala gezurrik erraiten, ez alde batetik, ez bertzetik; aitzitik hartaz dena garbiki erraiten dudala, giristinoak giristinoaz behar duen bezala, erran nahi da, eskiribatzen dudala haren bizitzearik lerroa, ez laudorioetako liburu, eta haren bizioak bertzeen bertuteak direla. Erran nahi du Santa Paula baitan ziren eskasak eta makhurrak izanen zirela bertute arima gutiago konpli batetan; eta egiaki badira akzioe batzu inperfekzionerik estimatzen direnak presuna perfetetan, eta halarik perfekzionerik handi estima liratzekoan inperfetetan. Seinale ona da eri batentzat zangoak hantzen bazaizko eritasunetik ilkhiten denean; zeren hantura hark erakusten du naturaleza iadanik bortitzuak iraitsten dituela soberazko urak; bainan seinale hura bera gaixto lizate barriatzeko eta kanporatzeko. Ene Filothea, uste ona behar dugu bertuteen ondoan dabiltzan guziez, hainitz eskas egiten dutelarik, sainduak berek maiz halako hutsik egiten zutenaz gero bertutei zerraistenean. Ordea gutaz bezanbatean artha iduki behar dugu bertutean iartzeaz eta haritzeaz, ez xoilki fidelki, bainan zuhurki ere; eta hartarakotz hersiki begiratu behar da zuhurraren konseillua, ez garelara permatu behar gure zuhurziaren gainean, baina bai Iainkoak eman derauzkgun gidarien zuhurziaren gainean.

Badira gauza batzu, uste baitute hainitzek bertuteak direla, eta ezpaitira nihola ere; hetaz hitz bat erran behar derautzut: hek dira extasak, sentitu eta pairagabetasunak, bat egite Iainkoari, bertze formatasunak, eta bertze horrelako perfekzionerik, zeinek liburu batzu minzo baitara, prometatzen dutela bide hetaz arima altxatuko dutela kontenplaziorik osoki endeleguzko batetara, espirituaren aplikaziorik esenzialera eta bizitzerik gorenera. Ikusten duzu, Filothea? perfekzionerik hek eztira bertute, aitzitik bertuteak gatik Iainkoak emaiten dituen errekonpensa, edo are ethorkizuneko bizitzeko doatsutasunen limar eta erakuskari batzu dira, zenbait aldiz gizonei presentatzen zaiztenak parabisuan gora diren peza osoez guthizia arazitzeko. Ordea hargatik ez gara nekhatu behar halako graziak ardieksi nahiz, hetaz bat ere premiarik eztugunaz gero Iainkoaren ongi serbitzatzeko eta oneritzeko, zein behar baita gure xede bakhoitza izan: hala ere hainitzetan eztira graziak nihoren trabailuz eta antzez ardieks ditezkeienak, ikusirik hek egin ditezkeiela gure baitan, ez ordea guk eginik. Geiago diot, eztugula borondate hartu gizon prestu eta debo-



zionetsu, emazte prestu eta debozionetsu izaiteko bazen, hargatik behar gare hartara ongi enplegatu. Baldin Iainkoak nahi bagaitu angeruzko perfekzione hetaraino goititu, angeru prestu izanen gara ere; bainan bizkitartean iar gaitezin eta hari gaitezin sinpleki, humilki eta debotki bertute xipietan, zeren gure salbatzailleak utzi dio gure arthari eta traillauari hetaz egin ditekeien irabazia; halakoak dira pazienza, mansotasuna, obediencia, pobrezia, kastitatea, lagunaren alderako bihotzberatasuna, haren eskasen pairamendua, agudotasun eta berotasun espiritual saindua. Utz detzagun gogotik gaingoititasunak arima gaingoituentzat, eztugu merezi hain leku gora bat Iainkoaren serbitzuan: doatsuegi izanen gara hura serbitzatzan badugu bere kuisinan, bere okintzan, haren lekhaio, karga+garraitzaille, axelari, ganbarazain bagara ere; hari dagoka gero, plazer badu, gure sararazitzea bere sekeretuzko gelan, eta konseillari berezien artean. Bai, Filothea, zeren loriaren errege hark eztitu bere serbitzariak sarizatzen egiten dituzten ofizioetako graduaren arauaz, bainan hetan ekhartzen eta erakusten duten amorioaren eta humiltasunaren ereduaz. Saulek bere aitaren astoen bilha zebillala aurkhitu zuen Israeleko erresuma; Errebeka Abrahamen kameluak eradaten zituela egin zen haren semearen espos. Ruth Boozen ogi epailleen ondoan ogi buruzkak biltzen hari zela, eta haren oinetan etzanez, ekharri izan zen haren saietsera, eta haren espos egin zen. Gertuz ohi gabeko gauzen hain nahitze gorak eta alxatuak hagitz dira suiet lilluramenduetara, enganioletara eta falserietara, eta batzutan gertatzen da bere burua angeru dadukatenak eztirela xoilki gizon prestu eta debozionearen gainean egiten dituzten hitz mothak handiago direla, hartaz duten sentimendua eta obratzen dutena baino; bada-rik ezta deus ere mesprezatu, ez eta arinki iujeatu behar, bainan Iainkoa benedikatzan dugula bertzeen gaingoititasunaz, gaudezin humilki gure bide beheragoan, dakigula hura hobeki dagokala gure ahalari eta aphurkeriari; hartan humilki eta fidelki bagabiltza, Iainkoak goitituko gaitu handiresun guziz handietara.

## Pazienziatz

### HIRURGARREN KAPITULUA

*Pazienziaren beharra duzue, arren Iainkoaren borondatea egiten duzuela, hark egin promesa ardiets dezazuen, dio Apostoluak; bai, zeren gure Salbatzailleak erran zuen bezala, zuen pazienziaren eginen zarete zuen arimen iabe* Gizonak, Filothea, ahal dukeien zori onik handiena da bere arimaren iabe izaitea, eta zenbatenaz perfetago bata pazienza, hanbatenaz perfekiago iabetzen gaizte gure arimei. Orhoitzaite maiz gure Iaunak salbatu gaituela bere penez eta pairamenduez, eta guk halaber gure salbamendua obratu behar dugula aflikzionateak iasanez, ahalik emekiena pairatzen ditugula gaizki erranak, kontrakotasunak eta atsekabeak.

Eztezazula zure pazienza epha egiten edo eginen zaizkitzun horrelako edo halako bidegabetan, bainan hura heda zazu iainkoak zure gainera igorriko edo ethortera utziko dituen ondiko guzietara; badira pairatu nahi eztutenak tribulazione ohorezkorik baizen, nolakoak baitira gerlan zaurtu izaitea, gerlako presoner sartzea, gaizki erabilli izaitea fedea gatik, pobreturik gelditzea zenbait irabazi, duten hauzi edo gudu gatik; horrelakoek eztute tribulazionea maite, baina bai tribulazioneak ekhartzen duen ohorea. Egiatzko pazientak eta Iainkoaren zinezko serbitzariak berdinki iasaitentu tribulazioneak, hala laidozkoak, nola ohorezkoak. Gizon bihotzdunarentzat ezta ezitasunik baizen, hura gaixtoek mesprezatzan, gaizki aiphatzen eta akusatzen dutenean; bainan prestuek, adiskidek eta ahaideek hura gaizki erraiten, akusatzen eta erabilten duten orduan, hortan doa seinalerik hoberenaz. Kontu geiago egiten dut mansotasunaz, zainarekin San Xarles Borromeo handiak luzeki pairatu baitzituen ordena guziz hertsu batetako predikari famatu batek kadiratik haren kontra guzien aitzinean aurtikhitzen zituen eranzuteak, bertzetarik izan zituen akometamendu guziez baino. Ezen nola erleen aursikiak edo ezten-kolpeak mingarriago baitira ulienak baino; hala prestuek egiten derauzkiguten gaizkiak eta kontratasunak gutiengo hagitz paira ditezke bertzek baino; guzia gatik ere hori hainitzetan gertatzen da, bi gizon prestuk, biek intenzione ona dutelarik, zein bere usteari iarraigiz batak bertzeari gerla eta kontratasun handiak egiten diotzatela.

Zarela pazienziatsu, ez xoilki etorriko zaizkitzun aflikzionateak berak gatik jeneralki, bainanoraino hek berekin eta bere ondotik dakhazketen



gertanzak eta kasuak gatik. Hainitzek nahi lukete zerbaiz gaitz izan, kondizionerekin ordea traburik elizela egin. Eztut damurik, dio batak, zeren pobretu naizen, lekhat zeren pobreziak trabatuko nauen ene adiskideen serbitzatzetik, ene umeen handitzetik, eta neroni ohorezki bizitzetik, desira nukeien bezala. Bertzeak erranen du, enuke ansiarik, munduak uste ezpalu hori gertatu zaitala neure faltaz. Bertzeak atsegin har lezake norbait hartaz gaizki minzo baledi, eta hori gogotik paira lezake, kondizionerekin nihork gaizki erraillea zinetsten eluela. Badira bertzeak bere gaitzetik, uste dutenez, hartu nahi dutenak zenbait trabu, ez ordea guzia: ezti-ra pazienziatiak ilkhiten, diote, zeren eri diren, bainan zeren eztuten dirurik bere buruaren errekaitezko, edo zeren hekin aldean direnak trabatzen diren eta penatzen.

Bada nik diot, Filothea, pazientzia behar dugula, ez xoilki zeren eri garen, bainan eta zren halakatu garen Iainkoak nahi duen eritasunaz, nahi duen lekuan, nahi duen jendeen artean, eta nahi duen penekin, eta orobat da bertze tribulazionez. Gaitzik gerta dakizunean, har etzatu haren kontrako erremedio ahalezkoak eta Iainkoarenm arauerakoak, zeren bertzela egitea, lizate haren maiestate sainduaren tentatzea, bainan hori egirik ere, osoki iarten zarea Iainkoaren borondatearen azpian, zaude begira zer plazer duen erremedioek egin dezaten. Plazer badu gaitzari garai dakizkon, hari eskerrak emanen diotzatzu; bainan plazer badu gaitza garai dakien erremedioei, hura benedikatuko duzu pazienziarekin.

Ni narraio San Gregorioren konseilluari; zuzenez akusa zaitezinean zenbait egin duzun hutsez, humil zaite hagitz, aitor ezazu geiago merezi duzula zure kontra egiten den akusua baino. Baldin akusua gezurrezkoa bada, eskusa zaite zinero, ukhatzen duzula hobenduri zarea, zeren ohore hura zor eta ekharri behar diozu egitari, eta laguna gatik eman behar duzun exenplu onari; ordea zuk egiazko eta legezko eskusa ekharritz gero, zure akusatzaillea hala ere lehiatzen bazaitzu, etzaitezila niholaz ere asalda, eta ez khexa zure eskusa balia arazi nahiz, ezen zure eginbidea eginez gero egia aldera, hura humiltasunari ere egin behar diozu. Manera hartan eztiuzu kalterik ekharriko zure aiphamen ona zbehar duzun arthari, eta bihotzeko bakeari, mansotasunari eta humiltasunari zor derauezuna afekzioea eztuzu galduko.

Arrankura zaite ahalik gutiena eginen zaizkitzun bidegabeez; berdin gauza segura da, nor ere arrankuratzen baita, hark egiten ohi duela bekhatu; zeren gure buruari diadukogun amorioak bethi erraiten derauku gure atsekabeak handiago direla diren baino. Guzien gaintetik ordea ezti-tzetzula zure arrankurak egin errazki haserretzen direnei eta gaizki pen-

satzen ohi dutenei. Baldin on bada nihori zure arrankurak erran diotzotzun, edo egin zaitzun ofensaren erremediatzeko, edo zure gogoaren baketzeko, behar derauztetzu egin gizon bakezkoei eta Iainkoa zinetan maite dutenei; bertzela zure bihotza arindu behar bidean, hura leramakete asaldu handiagotara, eta zilhatzen zaituen aranzea athera utsez, hura barrenago sar lezakete zure oinetan.

Hainitzek, erituz geroztik, edo nihork bidegabeztatu dituenen, egia ki bere burua dadukate arrankuratu eta minberadurarik erakusi gabe, zeren uste baitute, eta hala da, erakus lezaketela indarrak flakatu zaitzela eta bihotzek eztutela; hala bainan handiro desiratzen dute eta hainitz moldez enseiatzen dira, batbederak urrikari dituen, eta zinets dezan, ez xoilki penetan daudela, bainan oraino pazientzia eta bihotz handia dutela. Bada hori da, hala ere pazientzia bat, ordea pazientzia falsoa, bere izaitez ambizionerik eta banaloriarik finena, eta ez bertzerik: *Loria dute*, dio apostoluak, *ez ordea Iainkoaren aitzinean*.

Egiatzko pazientia ezta nihoiz ere bere gaitzaz arrankuratzen, eztu desirik nihork hura duen urrikari, bere ondikoaz minzo da garbiki, egia ki eta sinpleki, plainurik gabe, arrankurarik gabe, bere mina hitzez handitu gabe: nihork hura plainatzen badu, pazientki utzten du egitera, lekhat hura plainatzen badu zenbait eztuen gaitzez; zeren orduan klarki eta modetski erraiten du eztuela halako gaitzik, eta manera hartan baketi dago egiaeren eta pazienziaren artean, bere gaitza aithorturik, hartaz plainatu gabe.

Debozisioneko bidean gertatuko zaizkitzun kontratasunetan (berdin eztira faltatuko) orhoitzaite gure salbatzaillearen hitzaz: *emazteak alhadura handiak itu erditzen denean, bainan haurra sorturik ikusirik, bere hertsturez ahantzten da, zeren gizon bat iaio baitzaika mundura*. Ezen zuk ere zure ariman konzebitu duzu munduan den haurrik hoberena, zein baita Iesu Kristo; hartaz osoki erdi zaitezain baino lehen ezin zaudezke nekhatu gabe; duzun ordea bihotz ona, zeren dolore hek iraganez gero sekulako bozkarioa izanen duzu, halako gizona zuk mundura emanez. Bada osoki sortua izanen da zuretzat, zuk hura zure bihotzean eta obretan osoki formatu dukezunean, zure bizia harenaren gainean moldatuz.

Eri zaitezinean ofrendatzatzu zure dolore, pena eta langiadura guziak gure Iainuren serbitzuko, eta egiozu othoitz hek ezar detzala berak zure gatik hartu dituen penekin. Obedizazu midikua haretzatzu miritzina, edariak, iakiak eta bertze erremedioak Iainkoaren izenean, orhoitzen zarea gure gatik edan zuen minaz, desira zazu sendatzera hari serbitzu egiteko; zaude gogotik langiaduretan, haren obeditzeko, eta prepara zaite



hiltzera, hala plazer badu, haren laudatzeko eta hartaz gozatzeko. Orhoitzaite erleak bizi direla belhar xoil khiratsetarik eta saminetarik ianez ezta egiten duten denboran, eta guk ere sekulane zin daidikegula ezitasun ea pazienza handiagoko obrarik, eta bertute beregainekoetako ezta ezin bil dezakegula hobeki, khiratstasunezko ogia iaten dugun, eta hersturetan bizi garen orduan baino. Eta nola erle belharraz, zein baita belhar xume eta khirats bat, egiten den ezta guzietarik hoberena baita; hala behehenak eta mesprezatzekoenak diren tribulazionetako khiratsturan lantzen den bertutea guzietarik ekzelentena da.

Mira zazu maiz barreneko begiez Iesu Kristo gurutzean itzatua, billusia, gaizki aiphatua, arnegatua eta finean unhadura, tristezia eta nekhadura molde guziez zapatua, eta konsidera zazu zure pairu guziak, ez izanez harenak bezalakoak eta bezanbatekoak, eztirela nihola ere konparatzekoak haren penekin, eta sekulan eztuzula deusik haren gatik pairatuko, hark zure gatik pairatu duenaren aldean.

Konsideratzazu lehenagoko martirek pairatu zituzten, eta orai hain bertzek pairatzen dituzten, konparazionerik gabe, zuk dituzun baino pena gaitzagoak, eta errazu: Helaz! ene nekheak dira konsolazioneak, eta ene penak dire arrosak, konparatzen banaiz helzakitzarik eta arintzarik gabe ardurako herio batetan bizi direnekin, ondiko neurrigabeki handiagoetan hondaturik.

## Kanpoko humiltasunaz

### LAUGARREN KAPITULUA

*Zoaz*, diotsa Eliseo profetak emazte alhargun pobre bati, *maillega zazu zure hauzoko guzietarik hainitz untzi hutsik, eta duzun olio isurezazu hetera*. Nahi badugu Iainkoaren grazia gure bihotzetan sararazi, hutstu behar ditugu gure buruko estimaz. Kreserela daritzon xoriak oiueginez eta hegaztin ihizilariak begiztatuz, hek izizentu berari dagokan eta nihork eztakien bertute batez; hargatik usoek hura dute maite bertze xori eta hegaztin guzien gainetik, eta segurik bizi dire haren aldean; halaber humiltasunak kanporatzen du Satana, eta gure baitan begiratzentzu Espiritu Sanduaren graziak eta dohainak. Horren gatik saindu guziek, beregainki ordea Sainduen erregeak eta haren ama sakratuak bethi ohore eta amudio geiago ekharri diote bertute merezi onezko hari, gizona zuhur eta prestu dezaketen bertze guziei baino.

Erraiten dugu gure buruari emaiten diogun loria dela banoa, noiz ere loriatzen baigara, edo gure baitan eztenaz, edo gure baitan denaz, baina gure eztenaz, edo gure baitan denaz eta gure denaz, baina balio eztenaz hargatik loria gaitezin. Ethorkizko aitonen semetasuna, handien faborea, jendarteko ohorea, gauzak dire gure baitan eztirenak, bainan edo gure aitzinekoetan dauntzanak, edo urlien uste onean eta ahotan dabilzanak. Badira burukaritzen eta kokotzlarritzen direnak, zeren zaldi on baten gainean ikhanak diren, zeren plumaia duten xapelan, zeren aberatski berregindurikako aldagarria darabillaten, ordea erhokeria hura nork eztakusa? zeren baldin loriarik bada halako gauza gatik, zaldiaientzat da, xoriarentzat, eta dendariaentzat. Eta zer bihotz gaberia da bere balentia maillegatzeaz, zamari, plumaia, blaxeta edo koleta hantu eta ixurtu batetarik? Bertzeak prezatzen, gorgoinatzen eta mirailletan dira mustaxa xutak eta armatuak, bizar ongi orraztatua, xirlo ixurtuak, eta esku leunak gatik, zeren dandan lindo, iokoan artez, kantetan fetxo diren; ordea ez othe dira bihotz flakatuak hain gauza fitsezkoz eta ergelez bere balioa eta aiphamena handitu, berretu eta alxatu nahi dutenean? Bertzeek, zeren zerbait dakiten, nahi dute munduak ohore eta agur egin diezen, guziek hekin gana eskolara ibilli behar balute, eta hek nsusizat iduki behar balituzte bezala; hargatik basherriko irakhastunlariak deitzen dire. Bertzeak hantzen eta paoatzen dira bere edertasuna miratuz, eta zinetsten dute mundu



guziak datutzala begiak hekin gainean: hori guzia neurrigabeki ergel, erho eta itsusi da, eta hain gauza aphurretarik eta floxetarik hartzen den loriaz erraiten ohi da loria ergela, erhoa eta fitsezkoa dela.

Egiazko ontasuna ezagutzen da egiazko balsamua bezala: balsamua enseiatzen eta frogatzen da urera isuriz, hondoratzen eta azpian iartzen bada iujeatzen da finena eta preziosena dela: halaber ezagutzekotz ea gizon bat egiaz zuhur, iaginsun, bihotzdun eta noble denez, ikusi behar da ea haren baitan diren ontasunak xedatzen eta abiatzen diren humiltasunera, modestia eta obediencia, zeren orduan egiazko ontasunak izanen dira; baina ginetik igerikatzen badira, eta nahi badute agertu, ontasunak izanen dire hanbatenez gutiago egiazkoak, zenbatenez agerturenago baitira. Haizetean eta igorziri karrasketan zortzen eta hazten diren perleriek eztute perla-azala baizen, eta barrenean eztute sustanziarik ez mamirik; halaber urguillukerian, ban[atasunean eta banokerietan iaiozten eta gurentzen diren gizonen bertute eta abantail ederrek eztute on iduri hutsa baizen, gozorik, muinik eta zailtasunik bat ere gabe.

Ohoreak, graduak, kargu handiak safrana bezalakoak dire; hura sendoago eta usuago sortzen baita oinetan zapatua izanez. Eder izaitea ezta geiagotik ohore, nihork edertasuna gatik bere buruaren miratzen hari denean; edertasuna eder izaitekotz, behar da ansigabertzatua izan: iakintasunak desohoratzen gaitu hantzen gaituenean eta irakhaztunkeriara itzultzen denean.

Puntutsu bagare graduak, iar-lekuak eta tituluak gatik, bertze alde dela leku emaiten diogula bertzeari nor, nongo, eta nolakoak garen bilhartzeko, sondatzeko eta kontrakoaren erakuzteko, geurok apurtzen eta itsustentugu gure abantailak; zeren dohainik emanez eder den ohorea, itsusi egiten da khexadurarekin haren bilha eta eske gabiltzanean. Paboa, itzul-inguruz manaiatzen denean bere gorputzaren miratzeko bere pluma ederrak axatuz zizkurtzen da guzia, eta alde batetik eta bertzetik agertzen du zer ere baitu itsusienik: lurrean landaturik eder diren loreak zimeltzen eta ihartzen dira eskuztatuz. Eta nola mandragoraren usaina urruititik eta iragaitzaz aditzen dutenek ezitasun gozogarri bat hartzen baitute hartarik, baina hurbilletik eta luzaro hartaz usainztatzen direnak lolaetzen eta eritzen baitira: halaber ohoreek konsolazione ezti bat emaiten diote hekin usaina aditzen duenari urruititik eta arinki, hetan trikatu eta hetaz kexatu gabe, baina hetara gogoa eta xatzen duena eta hetaz baskatzen dena baitan xoil baiatzekoak dira eta gaizki erraitekoak.

Bertuteari iarraikiz eta bertutea oneritsiz hasten gare bertutetsu izaiten, baina ohoreen ondoan ibilliz eta ohorezale izanez hasten gara ere

mesprezatzeko eta gaizki erraiteko izaiten. Onera sorturikako bihotzak eztire trikatzen ohoreen graduetako nahaskerietan eta agur nahikundetan, badute zer egin bertzerik; hori dagote bihotz alferrei. Perleriarik ahal dekeiena ezta kargatzen maxkorrez, eta bertutea ardietsi nahiak ez tira kexatzen ohoreak gatik. Gerthuz, sar diteke nihor bere graduan eta hartan ahal dagoke, humiltasunari atekarik edo kalterik egin gabe, baldin hala dagidanz eta iharduki gabe hari bada. Ezen nola Perutik heldu direnek, handik atheratzen duten urrieriaz eta zilharreriaz lekhora, ximiñoak ere eta papagaiak ekartzen baituzte, zeren etzaizten hainitz gosta, eta untzia guti kargatzen duten; halaber bertuteari darraizkonak eztaude har-gatik zor zaizten graduak eta ohoreak hartu gabe, kondizionerekin ordea, hortan ansia eta artha guti gostako zaiela, eta den guzia eginen dela aldaratu, afaldatu, iharduki eta bilhakatu gabe. Badarik ere enaiz minzaten komunari behatzen dioen gradurik eta kargurik dadukatenez, ez eta kontu handizko dainurik edo kalterik bere ondorean gero ere dakhasketen okasione partikular batzuez: zeren hortan batbederak behar du bereari itxeki, karitatea eta kortesia lagunak dituen zuhurziarekin.





## Barrenago humiltasunaz

### BOTZGARREN KAPITULUA

Ordea desira duzu, Filothea, aitzinago gida zaitzadan humiltasunean barrena; zeren erran dudan bezala haritzea eta egitea, zuhurziago da hurren, humiltasun baino: orai bada urrunago noa. Hainitzek ezte nahirik ez ausartziarik ere Iainkoak hereziki egin derauzten grazien gogoratze eta kontsideratzeko, beldurrez hardezaten banaloriarik edo gogalgintzarik: hortan segun enganatzen dire. Zeren Angeruzko Dotor handiak dioen bezala, halaz eta Iainkoak egin derauzkigun ontasunen kontsiderazionea haren amoriora heltzeko bide egiazkoa denaz gerostik, zenbatenez haren ongi eginak ezaguturenago baititugu, hanbatenez hura izanen dugu maiteago: Eta nola guri bereziki egiten zaizkigun ontasunek atzartzenago baigaituzte, guziei oro bat egiten zaiztenek baino, behar dire halaber ernekiago kontsideratu. Gerthuz, deusek ere ezin humil gaitzake Iainkoaren miseriordiaren begietan, hark egin derauzkigun ortasunen hainitztasunak humil gaitzakeien bezanbat, eta deusek ere ezin humil gaitzake haren iustiziaren aitzinean, gure gaizki egin handiek bere hainitz izanez egin gaitzaketen bezanbat. Kontsidera dezagun zer egin duen gure gatik, eta zer egin dugun haren kontra; eta gure bekhatuak xehero kontsideratzen ditugun bezala, kontsidera detzagun halaber haren graziak xeheroki. Ezta beldur behar gure baitan eman dituen ontasunen ezagutzak hant gaitzan, baldin erneki beha bagozka egia huni, zer eta gure baitan onik baita, eztela gure ganik. Helaz! Mandoak ez othe dira bethiere abre pizuak, eta galtzen othe dute bere usain gaixtoa, Prinzearen filda edo tresna preziatuez eta usain onetakoez kargatuak direlarik? Zer dugu onik eman etzaikunik? eta hura bertzeren ganik badugu, zergatik nahi hartaz urguillutu? Kontrara, eman zaizkigun grazien kontsiderazione biziak egiten gaitu humil, zeren ezagutzak baitakharke eskerrak. Ordea Iainkoak egin derauzkigun graziak ikusirik, zenbait banaloria suerte heldu baliz gure kilikatzer, ezin faltatuzko erremedioa izanen da, laster kontsideratzea, zein eskergabe garen, zein eskas, zein miseriatsu. Miratzen badugu zer egin dugun, Iainkoa gurekin etzenean, ongi ezagutuko dugu egiten dugun guzia, hura gurekin denean, eztela heldu gure antzetik edo burutik. Egia da guk ongi eginaz gozatuko eta boztuko garela zeren gure baita, baina Iainkoari xoilki hartaz emanen diogu loria, zeren haren eskutik heldu baita.

Hala Birjina sainduak aitortzen du Iainkoak egin diotzala gauza guziz handiak, bainan hori ezte egiten bere buruaren humiltzeko eta Iainkoaren handietsteke baizen. *Ene arimak, dio, handiro laudoriotzen du Iainkoa, zeren gauza handiak egin baiterauzkit.*

Hainitzetan erraiten dugu ezgarela deus ere, miseria bera, eta munduko istilla garela, baina damu handi genduke nihork hitzean har baginitza, eta guzietan erran baleza gukurok diogun bezalakoak garela: Aitzitik, ihez eta gorde iduri egiten dugu, berzeek laster dagitentzat gure ondoan eta bilha gaitzaten gatik: itxura egiten dugu nahi dugula azkenik eta mahainaren lekurik beberenean iarri; bainan horrela gaude mahain burura abantail geiagorekin ikhateko. Egiazko humiltasunak ezte humil iduririk egiten, eta humiltasuneko hitz guti atheratzen du, zeren ezte xoilki desiratzen bertze bertuteen estaltzeko, baina bera oraino, eta beregainki gorde nahia da. Eta zilhegi baliz gezur erraitera, ezten bezalako iaertza, edo lagunari eskandalurik emaitera, burugogorka iar liteke, eta urguillukeriazko obrak egin letzake, bere buruaren hekin azpian estaltzeko eta han bizitzeko gorderik eta ezagungaberik. Huna beraz ene konseillua, Filothea, edo ezterragula humiltasuneko hitzik, edo derratzagun egiazko sentimendu barreneko, eta kanpora atheratzen ditugun hitzen arauerako batekin: eztezagula nihoiz ere begiak beheiti, bihotzak humildurik bizen: eztezagula azkenik iarri nahi garelako iduririk, non bihotz onez azken lekuan eztegun iarri nahi. Bada erregra hori hain hedatua dadukat guzientzat, non ezpaitut hartarik deus ere lekhatzen, gauza bat xoilki diot geiago, korteziak nahi duela, batzutan abantailla eskaini diezegun hura duda gaberik hartuko ezteutenei: hargatik ezta hortan bi aldetarako aditzerik, ez eta gezurrezko humiltasunik, zeren orduan abantaillaren eskaintze hutsa da eman nahi dugun ohorearen abiatze ta haste bat; eta hura osorik ezin eman daidikeienaz gero, ezta gaizkirik hei hatsapenaren edo liparraren bedere emaitiaz. Orobat diot ohorezko eta errespetuzko hitz batzuez, zeinek, zorrotzki harturik, ezpaitirudite egiazkoak direla, behar bezanbat egjak direlarik, baldin hek erraiten dituenaren bihotzak egiaz gogo badu, noren ere gatik erraiten baititu, haren ohoratze eta errespetatzeko. Ezen gure hitzek nolazpaiteko soberaniaz erraiten duguna klaratzen dute larik, badarik ere eztegu gaizki egiten hekin enplegatzeaz, ohiko usanzaz hala nahi duenean. Egia da nahi nukieila hala ere gure hitzak liren gure afekzioon ahalik arauerakoan, bihotzeko idekitasunaren eta trebetasunaren non ere eta zertan ere nahi den erakusteko. Gizon egiazki humillak nahiago luke bertze batek hartaz erran lezan, ezteiarra dela, gaizoa dela, eztela deus ere, ezteula deus balio, berak erran baleza baino: ezpere





aditzen badu erraiten dela halakoa dela, eztu ukhatzen, aitzitik bihotz onez amor egiten du eta ixilik dago; zeren nola fermuki zinetsten baitu aiphatzen den bezalakoa dela, ategin du berzeek ere berak bezalako iujeamendu egin dezaten. Hainitzek erraiten dute Orazione mentala utsten dutela perfetentzat, berak ez tirela gai eta ez tutelera merezi jartzea haren egiten: badiote bertzeek ez tirela ausartzen Sakramendu sainduari maiz hurbiltzera, zeren ezpaitadukate garbi aski direla: bertzeek erraiten dute beldur direla bere miseria eta erorkortasun handia gatik debozioneari desohore eta laido egin diozoten, hartan iartzen badire: bertzeek finean ez tute bere antzea eta iakina enplegatu nahi Iainkoaren eta lagunaren serbitzuko; zeren, diote, ezagutzen baitute bere feblezia, eta beldur direla urguillu ditezin, zerbait onik eragiten badute, eta berak gal eta erre ditezin bertzei argi eginez. Hori guzia ezta bernizadura eta artificio hutsik baizen, eta humiltasun motha da, ez xoilki falsoa, baina gaixtoa ere: hartaz nahi baituzte iainkoaren gauzak ixilik eta zotilki hitzez gutitu eta mesprezatu, edo ezperere bere usteari, azturari eta nagitasunari diadukoten amorioa humiltasunaren aitzakiaz estali eta bernizatu.

*Eska zakizko Iainkoari seinale bat zeruan gor, edo beherean itsasoan barrena, ziotsan Profetak Akab dohakabeari, eta hark ihardetsi zioen: Ez bada, enaiz eskatuko, ez tute Jauna tentatuko. O gizonaren gaixtoa! Iduri egiten du ohore handia ekhartzen dioela Iainkoari, eta humiltasunaren itxurapenaz eta estakuruaz desenkusartzen da, eta gibela doako Iainkoaren ontasunak eskaintzen dioen graziari. Ordea ez othe dakusa iainkoak egin nahi deraukunean graziari, urguillukeria dela graziari ukho egitea? Iainkoaren dohainek obligatzen gaituztela hekin hartzera? humiltasun dela obeditzea, eta haren desireri ahalik hurbillenetik iarraitzea? Bada Iainkoaren desira da, perfekzioea eta saindutasuna ardiets dezagun, gu harekin bat eginik, gure bizitzea haren bizitzearen gainean ahalik finkiena moldatuz. Bere buruaz fida den superbioak arrazoin du deusik egiteko ausartziarik ez hartzeaz; bainan humilla hanbatenez bihotzdunago da, zenbatenez ezagutzenago baitu indarririk ez tuela; eta bere burua gaizo dadukan eredura, ausartzenago da, zeren bere fidanza guzia baitaduka Iainkoa baitan, dakiela Iainkoaren plazerik gozoena dela bere bothere handiaren erakustea gure indargabetasunean, eta bere miserikordiaren gainean. Beraz behar gare humilki eta sainduki ausartu egitera zer ere gure arimen gidariek iujeatzen baitute on eta eder gure salbamenduaren aitzinatzeke.*

Nihork uste badu ez takeria dakiela, erhotasun ageri da; nahi badu bere burua zerbaitz iakinsun egin, ezagutzen duelarik zer hura ez takeria, ezin pairatuzko banaloria da. Nitaz bezanbat; enuke erakusiere nahi daki-

dana dakidala, ez eta ez takeridala. Karitateak nahi duenean, trebeki eta emeki minzatu eta hari behar da lagunarekin, ez xoilki haren irakhasmenduko, bainan eta konsolazioneko on eta premiazko diren gauzez. Ezen humiltasunak gordetzen eta estaltzen dituelarik bertuteak, hekin begiratzeko; badarik ere agertzen ditu, hekin emendatzeko, handitzeko eta konplitzeko, karitateak manutzen duenean. Jprrtam Tylozko Irletako zuhaitz baten pare da, zein zuhaitzek gauaz her tsten baititu eta serraturik baitadutza bere lore-gorri ederrak, eta ezpaititu zabaltzen iguzki ilkhitean baizen, hala non herri hartakoak baitiote lore hek lo dauntzala gauaz: zeren humiltasunak horrela estaltzen eta gordetzen tu gure bertute eta perfekzioe guziak, eta ez ttitu nihoiz ere eraksten karitatea gatik baizne, zein karitate, nola ezpiata gizonaren trazazkoa, baina zerukoa, ez nihoren moldeazkoa, baina Iainkozkoa, eta haren ganik sortua, Bertuteen egiazko Iguzkia baita, zeinen gainean bethi nausi iarri behar da: hala non karitatearen kontrako humiltasunak duda gaberik falsoak baitire.

Enuke nahi neure burua erho, ez eta zuhur egin: zeren humiltasunak nahi ezpadu zuhur egin dezadan, simpleziak ere eta trebetasunak ez tute nahiko erho egin nadin; eta banaloria humiltasunaren kotrakoa bada, artezia ere, bernizadura eta disimulakeria iarriak dire oro bat trebetasunaren eta simpleziaren kontra. Baldin Iainkoaren serbitzari handi batzuk erho iduri egin badute bere burua munduaren begietan xipiago egitea gatik, hetaz miretsi behar da, ezta ordea hek bezala egin behar: zeren gizonen halako soberaniazko puntura iragaiteko izan tuzte arrazoinak, beretzat hain bereziak eta ohigabeak, non ezpaita hek bezala egiteko themarik hartu behar duenik. Dabidetez bezanbatean, lege zaharreko Arkaren aitzinean dansan eta iausika hari izan zen, aphur bat geiago ohiko ederkitasunak agintzen zuen baino: etzuen hargatik bere burua erho egin nahi, baina simpleki eta artifiziorik gabe, kanpoko iauskeria hek egiten zituen, bihotzean sentitzen zuen ohi eta neurrigabeko alegrian zaren eredura. Egia da Mikol zeritzon haren emazteak eranzute egin zionean hortaz, erhokeria batez bezala, hark etzuela damurik hartu ikusteaz gutietsten zela hargatik, aitzitik bethi trebeki bere zinezko bozkarioari iarraituz, adiarazi zuen atsegin zuela laido guti baten izaiteaz bere Iainkoa gatik. Horren ondoan erranen derautzut ezen, debozione egiazko, trebe eta ideki baten obrak gatik erho edo deus guti etsten bazare, humiltasunak bozkariotuko zaituela laido doatsu hartaz, iakinik hark ez tuela zure baitan lekurik, bainan hura egiten derautzutenetan dagoela.



## Humiltasunagatik onetsten dugula gure beheramendua

### SEIGARREN KAPITULUA

Aitzinago noa, eta badiotsut, Filothea, gauza eta leku guzietan onets dezazula zure beheramendua. Ordea, erranen derautazu, zer erran nahi du horrek, onetszazu zure beheramendua? Ihardetsten derautzut, beheramendua erran nahi dela humiltasuna, eta humiltasuna erran nahi dela beheramendua. Hala Andre Dana Mariak bere Kantu saziatuan erraiten duenean: *zeren gure Jaunak behatu baitio bere neskatoaren humiltasunari, hargatik jende guziek hura erranen dute doatsu*, erran nahi du, gure Jaunak gogo onez behatu duela haren beheramendura, aphurkeriara eta xipitasunera, haren mukurutzeko saboreez, eta graziez gaindireino bethetzeko.

Guziarekin ere bada diferentzia humiltasuneko bertutearen eta beheramenduaren artean: zeren beheramendua da gure baitan, uste eztugularik, den xipitasana, aphurkeria, eta deusgutitasuna; ordea humiltasuneko bertutea da gure beheramenduaz dugun egiazko eta borondatezko ezagutza. Bada humiltasun haren punturik gorena da, ez xoilki gure beheramendua borondatezki ezagutzea; baina haren onetstea, eta hartan lakhetzea, ez indar, edo bihotz gabez, baina Iainkoaren Maiestatearen handiago etsteke, eta lagunaz hagitx kontu geiago egiteko, gure buruaz baino. Horrela egitera gonbidatzen zaitut, eta hobeki endellega dezazun gatik, iakinezazu pairatzen ditugun gaitzetarik batzuek direla mendreziak, eta bertzeak direla ohorezkoak. Hainitzek begitarte egiten derauezate ohorezko gaitzei, eta nihor gutik egiten du kontu beheramenduzkoek. Mirazazu Ermitau debozionetsu bat zirzildurik eta hortzez hirriturik: guziek ohoratzen dute haren arropa ihetzea eta urratua, guziei urrikaltzen zaie pairatzen duena gatik: baldin ordea ofiziale pobre, aitonen seme erori, donzeilla on behartu edo errumeztu bat erremangu hartan badago, hura mesprezatzen dute eta trufatzen: horra nola haren pobrezia den beheramenduzkoa. Fraideak emeki eta debozionerekin hartzen du erantzute garratzik bere Superiora ganik, edo umeak aita ganik; guziek erranen dute mortifikazionea, obediencia eta zuhurzia dela; Zaldun, edo Andre batek gauza bera pairatuko du norbaiten ganik, eta Iainkoa gatik pairatzen dutelarik, guziek erranen dute flakotasuna eta bihotzgaberia dela. Horra bada oraino bertze gaitz beheramenduzko bat. Batak du xamarra besoan, eta ber-

tzeak ahurpegian; hark eztu gaitza baizen, bainan hunek gaitzaz lekhora mesprezioa, higoindura, nardamendua eta beheramendua ere du. Bada nik orai diot, ez xoilki oneritsi behar dugula gaitza, zein baita pazienziaren bertutez egiten duguna, bainan hartarik heldu zaikun beheramendua ere behar dugula maite izan, zein baita humiltasunaren bertutez egiten duguna. Geiago, bada beheramenduzko bertuterik, bada ohorezkorik ere: pazienzia, mansotasuna, sinplizitatea eta humiltasuna bera dire bertuteak, mundukoek deus guti eta putruz daduzatenak; kontrara, kontu handi egiten dute zuhurtasunaz, balentiaz edo bortiztasunaz eta bizartasunaz: Badire oraino bertute berbatetarik sortzen diren obra batzuek, zeinetarik bata mesprezatzen baitira, eta bertzeak ohoratzen: limosna emaita, eta ofensak barkatzen karitatezko bi obra dire; lehena ohoratzen dute guziek, eta bertze mesprezaturik dago munduko begien aitzinean. Aitonen seme edo Andre gazte bat largatzen ezpada konpainia ahalkegabe batetan erastera, dansatzera, edatera, berregintzera, hura trufatuko eta gaizki erabiliko dute guziek, eta erranen dute haren modestia eta zuhurzia dela, edo debozionezko itxura edo bernizadura: hori maite izaitea, da bere beheramendua izaitea maite. Huna bertze mothazkorik. Bagoaz erien ikhertzera eta bisitatzen, igortzen banaiz etzeiarrena gana, beheramendu izanen da enetzat munduaren arauaz; hargatik hura izanen dut maite: bidaltzen banaiz zerbait handi direnak gana, beheramendu da espirituen arauera, zeren hortan ezpaita bertzetan bezanbat bertute ez merezimendu; beraz beheramendu hartan lakhetuko zait. Nihor karrikan erorten denean, gaitzaz edo minaz lekhora, ahalkatzen da; beheramendu hura onetsi behar da. Bai eta badira huts batzuek, zeinetan ezpaita bertze gaitzik beheramendua bera baizen, eta humiltasunak eztu nahi halako hutsik berariaz egin dezagun, ordea nahi du hek eginez gero asalda ez gaitezin. Halakoak dira erhokeria, deskortezia eta ustegatasun batzuek; baina nolas behar baigare hetarik begiratu, hetan eror gaitezin baino lehen, kotesiari eta zuhurziari leku emaita gatik; hala ere halako hutsik egin dugunean, behar dugu handik heldu zaikun beheramendua pairatu, eta bihotz onez besarkatu, humiltasun sainduari iarraitzea gatik. Geiago diot oraino, kolerak eraman banau, edo largatu banaiz hitz itsusirik erraitera, ikusten badut Iainkoa eta laguna hetaz ofensatuak direla, zinetan urrikituko zait, eta neurrigabeko damu hartuko dut egin dudan ofensaz, enseiatuko ere naiz haren erremediatzera ahalik hobekiena; badarik ere onera hartuko dut handik heldu zaitan beheramendua eta mesprezioa: eta bata bertzetik berez ahal baledi, neure ahal guziaz bekhartua arbuia eta urrun neza-ke, eta beheramendua besarka niro.



Ordea gaitzetik heldu den beheramendua maite dugularik, guzia gatik re hura ekharri duen gaizkia erremediatu behar dugu on eta zuzezko diren bideez, guzien gainetik guk egin gaizkia kontuzkoa eta seinatua denean. Baldin begitaratean badut min itsusgarririk, enseiatuko naiz hartarik sendatzera, baina eman derautan notha eta beheramendua etzait hargatik ahantsiko: Egin badut nihor ofensatzen ez tuen gauzarik, enaiz hartaz eskusatuko, zeren, eskas bat delarik, ezpaitago bethiere: beraz ezin eskusa nindeke, hartarik heldu zaitan beheramendua gatik baizen; hori da ordea humiltasunak ezin paira dezakeiena nik egin dezadan: baina ustegabez, edo erhoz, nihor ofensatu edo eskandolizatu badut, ofensa erremediatuko dut zenbait egiazko eskusaz, zeren nik egin gaizkia baitago, eta karitateak obligatzen bainau haren khentzera eta borrazera. Gainerakoan, batzutan gertatzen da karitateak nahi duela gure beheramendua erremedia dezagun lagunaren hobe gatik, harentzat premia denean gure aiphamen onari garraizkon eta gatxezkon, baina kasu hartan gure beheramendua edo mesprezio khentzen dugularik lagunaren begietarik, beldurrez eskandalurik har dezan, hura bihotzean serratu eta gorde behar dugu, gure ganik exenplu onik har dezantzat.

Ordea iakin nahi zenduke, Filothea, zein diren beheramendu hoberenak: klarki erraiten derautzut ezen arimari probetxu geiago egiten dioten eta Iainkoaren gogorago diren beheramenduak, direla, edo kasuz, edo gure bizitzen thailutik heldu zaizkigunak, zeren ezpaititugu geurok hautatu, baina izan baitigu Iainkoak igorri derauzkigun bezala, dakigula hark egin hautua bethiere hobeago dela gurea baino. Guk beheramendurik hautatu behar bagendu, handienak dire hoberenak, eta handienak estimatzen dire gure gogoaren kontra iarriago direnak; baldin ordea gure bizitzeko antzearen arauerakoak badire: zeren, behin guzietan derradantzat, egiten dugun hautuak gure gehien bertuteak gaixtatzen tu eta gutitzen. Ha! nork eginen derauku grazia Errege handi harekin erraiteko: *Lehen hautatu dut Iainkoaren etxean beheraturik egitea, ezen ez bekhatoreen iauregietan?* Grazia hura nihork ezin eman diazakegu, Filothe maitea, lekhat, gure goititza gatik hala bizi eta hil izan denak, non guzien mesprezioa eta laidoa egin baita. Hainitz erran derautzut gogor idurrituko zaitzunik, konsidera dezazunean; baina zinetsnazazu, guziaz eztiago izanen dire asukrea eta ezti bera baino, hek obretan eman detzatzunean.

## Nola begiratu behar den aiphamen ona humiltasunari garraizkolarik

### ZAZPIGARREN KAPITULUA

Laudorioa, ohorea eta loria etzaitze gizonei emaiten edozein bertute gatik, baina bertute beregainekoa gatik. Ezen laudorioaz, nahi derauegu bertzei zinetzarazi norbaiten ekzelenzia estimatzekoa dela: ohoreaz, guzietan erakusten dugu geurok hura estimatzen dugula: eta loria ezta bertzerik, ene ustez, omen onezko argidura iakin bat baizen, hainitz laudorioren eta ohoreren elkharganamendutik ilkhitzen dena; hala non ohoreak eta laudorioak baitira harri preziatu batzu bezala, zeinen bildumatik loria sortzen baita, distadura edo pikailladura bat bezala. Bada nola humiltasunak ezin paira baitezake bertzeak bainoago garelako, edo bertzeen gainean abantaila behar dugulako usterik dugun; halaber ezin paira dezake geientasunari edo ekzelenziari xoilki zor zaion laudorioa, ohorea eta loria bilha dezagun, guziarekin ere leku emaiten dio Zuhurraren abisuari, erraiten deraukunean, artha iduki dezagula gure aiphamen onaz, zeren omen ona da estima bat egiten dena, ez norbaiten ekzelenziaz, baina xoilki haren jendarteko prestutasunaz eta bizitze garbiaz, eta humiltasunak konsentitzen du prestutasun hura geuron baitan ezagut dezagula, eta gero ere prestu garelako omena desira dezagula. Egia da humiltasunak mespreza lezakeiela bere aiphamen ona, haren beharrik ezpalu karitateak; ordea zeren hura baita jendarteko tratuaren zimenduetarik bat, eta hura gabe ez xoilki ezdeusetakoak, baina eta guzientzat kaltegarriak baigara, gure gatik harten duten eskandalua dela kausa, halakotz karitateak nahi du eta humiltasunak konsentitzen du gure aiphamen ona desira eta prezioski mantena dezagula.

Hortaz lekhora, nola arbolen ostoak, berez hagitz prezatzeak ezti-relarik, guziarekin ere hagitz onak baitira, ez xoilki arbolen edertzeko bainan eta fruituen begiratzeko, oraino samurrak eta ondugabeak direnean; halaber omen ona, berez etzelarik hagitz desiratzekoa, badarik premia guziz handizkoa da, ez xoilki gure biziaren ederkitzeko, baina eta gure bertuteen, eta beregainki bertute uzterren eta flakoen begiratzeko. Gure omen onaren mantentzeko, eta estimatzen garen bezalakoak izaiteko dugun obligazioneak bulkatzen du bihotz sendo bat borxa bortitz eta eme batez. Begira detzagun gure bertuteak, ene Filothea, zeren



Iainkoaren gogarakoak diren, zeina baita gure obra guzien xede handia eta guzien gainekoa. Ordea nola fruituak gerokotz begiratu nahi dituztenek ezpaitalitzate aski dela hekin konfituratzeari, bainan ezarten baitituzte ere hekin begiratzeko gai diren untzietan: halaber Iainkozko amorioa gure bertuteen begiralerik prinzipalena delarik, badarik ere, nola prestutasunezko omena guziz ona baita bertutearen mantentzeko, hartaz oraino balia gaitzke.

Ezgare bizkitartean sobera bero, zorrotz eta puntutsuegi iarri behar haren begiratzeko: zeren hain khilika, minbera eta sentikor direnak bertze aiphamenaren gainean, gaitz xipi guzien kontrako edariak hartzen dituztenen pare dira; ezen halakoek bere osasuna begiratu ustez, hura alde guziz gaixtatzen ute, eta bertzeek bere omena hain leunki begiratu nahiz, hura osoki galtzen dute. Zeren minberatasun hartaz egiten dira moldegaitz, bihurri, muthiri ezin pairatuzko, eta gaizki errailleen malizia pitsten dute.

Egiten zaikun atsekabearen eta eransten zaikun falseriaren mesprezatzeari eta ez iakin iduri egitea, ohi da erremedio hagitz sendagarriago, ezen ez sentimendu hartzea, ihardukitea eta aspertzea; mesprezaturik airatzen dira; haserretzen bagare, badirudi aitortzen ditugula. Krokodilek eztute zaurtzen hekin beldur direnez bertzerik; eta gerthuz gaizki erranek eztiote nihori minik egiten, hetaz axolatzen direnei baizen.

Aiphamen onaren galtzeko beldurtasun handiegia, seinale da fida handi ezgarela haren zimenduaz, zein baita prestuki bizi garelako seguranza. Ur handien gainean zurezko zubirik duten hiriak uholde guzietan beldur dira, hek eraman ditezin; bainan harrizko zubiak dituztenek ezte ansiarik ohiz kanpoko ur iaustiriak eta uholdeak gatik baizen: manera berean arima zinetan Giristino dutenek mesprezaten ohi tuzte mihi gaixtoen uholdeak, baina bere burua flako sentitzen dutenak asaldatzen dire ordu eta aire guzietan.

Gertuz, Filothea, nork ere nahi baitu guzien artean aipamen onaz gozatu, hura galtzen du guzien artean; eta merezi du ohorearen galtzea, nork ere ohorerik nahi baitu bere bizitze gaixtoaz laidoztaturik dabiltzanengatik.

Aiphamen ona ezta bertzerik, seinale, arramu edo bandera bat bezala baizen, erakusteko non bertuteak duen bere ostatua; beraz bertuteak abantailla behar du gauza eta leku guzietan. Hargatik nihork erraiten badu hipokrita edo itxurazko zarella, zeren debozitonean iarten zaren; nihork bazadutza bihotz erorizat, zeren barkhatu diozun bidegaberik egin derautzunari, trufa zaite hortaz guziaz. Ezen, bertze alde dela, horrelako

iujeamenduak heldu direla jende ergeletarik, zure aiphamena galdu behar bazendu ere, etzenduke hargatik bertutea utzi behar, ez eta haren bidetik aldaratu, dakizula fruituak geiago prezatu behar direla, ostoak baino, erran nahi da, barreneko eta arimako ontasunari eman behar zaiola garaia kanpoko ontasun guzien gainean. Ielozkor iarri behar gare gure aiphamenaz, bainan hartaz eztugu Iainkoaizunik egin behar; eta nola prestuen begia ezpaitugu ofensatu behar, halaber gaixtoen begiari eztiogu atsegin eman behar.

Bizarra da edergarri bat gizonaren begitartean, eta illeak emakumearen buruan. Atheratzen badira, edo bizarra kokotzetik, edo illeak burutik, nekez bihurtuko dira sekulan; baina xoilki motztzen badire, bai eta nabalaz ebakiten, berriz eta sarri sortuko dira uzuago eta saillago: halaber gure aiphamen ona pikatzen edo arraz ebakiten bada ere gaizki errailleen mihiaz, zeina baita Dabitek erranik, *Nabal zorrotza bezala*, ezta ansiarik behar, zeren laster sortuko da, ez xoilki lehen zen bezain eder, baina bai zaillago. Ordea gure aztura largoak, gure bihotzgaberiak, gure bizitze gaixtoak eramaiten baderaukute aiphamen ona, nekhez bihurtuko da, zeren errotik athera baita: bada aiphamen onaren erroa da, ongi eta presutuki bizitzea, eta prestutasu hark, gure baitan dagoeino, bethi berrekhar dezake zor zaion ohorea.

Leheneko elkharganatze banaloriazkoa, tratu ez deusetakoa, adiskidetasun alferra, konpartimendu ergela utzi behar dire, aiphamen onari ekhartzen badiote kalterik, zeren ohorezko aiphamenak geiago balio du, banaloriazko kontentamendu guziek baino. Baldin ordea, zeren Iainkotiartasunean iartzen zaren, zeren debozitonean aitzinatu nahiz zabil-tzan, eta sekulako ontasunera abiatzen zaren, bertzeek badarasate, muturtzen badira, eta gaizki aiphatzen bazaituzte, utzkitzu ozarrak illargiaren kontra sainga egitera: Zeren edozein iduripen edo estima gaixto alxa ahal badezate gure aiphamenaren kontra, eta horrela gure omenaren illeak eta bizarra motz eta ebaki ahal badetzate, berriz pitzuko da sarri, eta gaizki errailleen nabalak on eginen dio gure ohoreari, pudak mahastiari egiten dioen bezala, hari fruitu geiago eta hobeagorik erakhartzen baitio motztuz eta pikatuz.

Ditugun bethi begiak Iesu Khristo gurutzatuaren gainean: gabiltzan haren serbitzuan fidanzarekin eta sinplizitatearekin, baina zuhurki eta begiratuki, Iesus izanen da gure aiphamenaren begirale, eta utzten badu eraman dakigun, hori eginen du guri hobe baten bihurtzeko, edo gure aitzina arazitzeke humiltasun sainduan; iakinik unza huts batek humiltasunaz geiago balio duela, milla liberek ohoreaz baino. Gaizki erraiten bagare



zuzenaren kontra, derragun guk ere egia falseriaren kontra: baldin gure kontrako erran gaixtoa bethi badabilla, humil gaitzezin gu ere bethi; horrela gure aiphamena eta arima utzten dugula Iainkoaren eskuetan, hura ezin hobeki segura dezakegu. Serbitza dezagun Iainkoa, ongi edo gaizki aiphatzen garelarik, Iondone Pauloren gainean mirail harturik, erran ahal dezaguntzat Dabitekin: *O ene Iainkoa zure gatik pairatu dut laidoa, eta zure gatik ahalkeriak estali deraut begitartea.*

Badarik ere lekhatzen tut gaizki erran eta akusu hain beltz, eta desohoragarri batzu, non ezpaitu nihork pairatu behar hetaz kargaturik dagoen, hetarik deskarga ahal badadi zuzenaren bidez: presuna batzu ere lekhatzen tut, zeinen aiphamen onari baitatxeko hainitzek hartuko duten prestuki bizitzeko mirailla. Zeren kasu hartan bihotz eme eta pausatu batez behar dute egin zaien bidegabeaz satisfazione bilhatu, Theologen abisuak harturik.

## Lagunaren alderako mansotasunaz, eta haserretasunaren kontrako erremedioaz

### ZORTZIGARREN KAPITULUA

Krisma saindua, zeintaz Apostoluek irakhasirik, serbitzatzen baigara Iainkoaren Elizan Konfirmazioetako eta benedizinoetako, egina da olioiz balsamuarekin nahasirik, eta bertzeen artean erreprestatzen ditu gure Salbatzailearen presuna sakratua baitan argitzen zuten bi bertute maiteak, beregainki gomendatu derauzkigunak, gure bihotza hekin bidez haren serbitzuari bereziki konsekratu, eta haren imitazioneari iratxeki behar bali-tzaio bezala: *Ikhazazue ene ganik, dio, bihotzez manso eta humil naizela.*

Humiltasunak perfekzionatzen gaitu Iainkoaren aldera, eta mansotasunak lagunaren aldera. Ur suerte guzien hondora, lehen erran dudan bezala, bethi doan balsamuak erreprestatzen du humiltasuna? eta bethi gaineratzen den olioak erreprestatzen du emetasuna eta mansotasuna, gauza guziei garaitzen zaiena eta bertze bertuteen gainean nausi dagoena, nola karitatearen lorea baita, zein karitatek, San Bernarten erranera, bere perfekzioa ardietsi baitu, ez xoilki pazienziatsu, bainan, hortaz lekhora, eme eta manso denean. Ordea behazazu, Filothea, ea emetasunaz eta humiltasunaz eginikako Krisma mistiko hura duzun zure bihotzean barrena: ezen etsaiak bere artezia handienetarik batez hala egiten du, non hainitzak iartzen baitira bi bertute hetaz hitzgiten, eta bere buruaren ordenatzen edo gobernatzen hekin kanpoko seinaleen arauera; baina bere barreneko afekzioak ongi sondatu faltaz, uste dutelarik humil eta manso direla, eztira niholatan ez bata ez bertzea. Hori ezagutzen da, zeren bere emetasun eta humiltasun guziarekin, paregabeko superbiotasunaz hantzen eta altxatzen baitira erraiten zaien hitz makhurrik arinena, edo egiten zaien atsekaberik xipiena gatik.

Erraiten omen da Iondone Pauloren Grazia komunzki daritzon kontrapozoina hartu dutenak eztirela hantzen biperak edo sugeak ausiki dituenen, Grazia hura fina bada, manera berean humiltasunak eta mansotasunak baldin onak eta egiazkoak badire begiratzen gaituzte atsekabeek eta bidegabeek gure bihotzetan pitzten ohi tuzten hanturatik eta sukharretik. Baldin gaizki erraileek eta etsaiek ausikitzen gaituztenean urguilluki alxatzen, hantzen eta thematzen bagare, seinale da gure humil-





tasunak eta emetasunak ezirela egiazkoak eta garbiak, bainan arfiziotuak eta itxurazkoak direla.

Iosef Patriarka saindu eta famatu hark, bere anaiak Egiptetik igortzen zituela bere aitaren etxera, abisu hau xoilki eman zerauen: *Etzakizkotela elkharri haserra bidean*. Orobat diotsut, Filothea, bizitze ondikozko hau ezta bizitze doatsurako abiadura baizen: ezgakizkola beraz elkharri haserra bidean, gabiltzan ure anaiekin eta lagunekin mansoki, bakezki eta amolsuki; ordea erraiten derautzut garbiki eta lekhatzerik gabe, etzaitzilata bat ere haserra, ahal bada, eta zein ere estakuruz nahi den, eztirozozula zure bihotza ideki haserramenduari.

Zeren Iondone Iakuak laburki trinkatzen du deus ere lekhatu gabe, *gizonaren haserredurak ezuela Iainkoaren arauerako iustutasuna obratzen*. Egiazki, kontra egin behar zaio gaizkiari, eta gure karguan dadutzagunen bizioak behar dire bortizki eta zorrotzki pikatu, eta ebaki, bainan emeki eta bakeekin. Deusek ere eztu Elefanta ematen haserre denean, bildots bat ikusteak egiten duen bezanbat, eta deusek ere eztu artilleria aurtikhiaren indarra hautsten, ardi illeak egiten duen bezain errazki. Haserreduratik heldu den erantzukia, arrazoinenez egiten delarik, ezta prezatzen, arrazoin hutsetik sortzen dena bezanbat. Ezen nola arrazoinezko arima naturalez arrazoinaren azpikoa baita, kolerari ezin azpira dakidikeo tiranotasunaz edo borxatuz baizen; eta halakotz arrazoinak, kolera lagun duenean gaitzeriztekozten da, eta zuzenak emaiten dioen iauntasuna alfertzen da, lagun duenean tiranotasuna. Prinzeek bere pobluak neurrigabeki ohortzen tuzte eta konsolatzen hek bisitatzen tuztenean bakezko konpainia batekin, bainan armadak ekhartzen tuztenean, hekin ethorteak bethi desgogarakoak eta kaltegarriak dire; Zeren manatzen dutelarik armadalegeak hersiki begira ditezin soldaduen artean, badarik ere ezin hala egin dezakete, non ezten zenbait desordenu gertatzen, zeintaz etxedun gaizoa kaltiaritzen baita: molde berean, arrazoina erregina deino, gastigurik eta eranzuterik bakezki egiten dueino, hersiki eta garratziki hari delarik, guziek hura maite dute, ongi hartzen eta laudatzen, baianan haserretasuna eta liskarrak, zeinak baitire, dio San Agustinok, haren soldaduak, berekin ekhartzen dituenan izigarriago egiten da, maitatzekoa den baino, eta haren bihotza bera bethi handik gelditzen da zapaturik eta gaizki erabillirik. Hobe da, dio Saindu hark Profuturo zeritzon bere adiskideari eskiribatzen dioela, iustu eta zuenezko den kolerari athearen ukhatzea, ezen ez haren utstea sartzera, zenbat ere arin eta xipi baita: Ezen behin sartu denean, gaitz da haren atheratzea ikusirik sartzen dela urthume bat bezala, eta den gutienaren buruan loditzen eta fontal egiten dela. Baldin gure

kolerak gaua ardietsten badu, eta Iguzkias sartzten bada haren gainean (zein baita Apostoluak debekatzten duena) hura gaitzeristera itzuliz gero, ezta kasik biderik geiago haren khentzeko, zeren orduan milla zinetste falsoz baskatzen da, egundaino gizon haserretik ikusi eztenaz gero, zuzen gabe haserretu delako uste izan duenik.

Beraz hobe da kolerarik gabe bizitzera enseyatzea, ezen ez erraitza koleraz nahi dugula neurritz eta zuhurki baliatu: eta eskasez edo flakoz gertatzen garenean kolerak atzemanik, hobe da laster haren khentzea, ezen ez harekin bai-ezean iartzea; zeren emaiten zaion epherik laburren gatik, nausi eta Andre iarten da sartzten den lekuan, eta sugeak bezala egiten du, zeinak non ere burua sartzten baitu, handik gorputz guzira errazki atheratzen baitu. Ordea nola kanporako dut? Erranen derautzazu. Hura senti dezakezun bezain sarri, ene Filothea, behar ditutzu berehala zure indarrak bildu, ez lehiaka, ez burugogorka, bainan emeki, hala ere zin zinez. Ezen dakusagun bezala hainitz Iustizia-kortetan eta Parlamentetan Serjenta athalzainek oiuginez, *ixilik, ixilik*, azanza geiago egiten dutela, ixil arazi nahi dituztenek egiten duten baino: halaber hainitzetan gure kolera bueltaka hautsi nahi dugunean geurok asaldu geiago pitztzen dugu gure bihotzean, kolerak egin zuen baino, eta gure bihotza, horrela aldaraturik dagoela, ezin geiago egin diteke bere buruaren nausi.

Ahaleko enseiu eme hura eginik, zarratzko San Augustino ia zaharrrak Auxilio Ipizpiku gazteari emaiten zioen abisuari: *Egizu, ziotzan, gizonak egin behar duena*. Gertatzen bazaitzu Iainkoaren gizonak Salmoan dioena, *ene begia aldaratua da kolera handiz*, laster egizu Iainkoa gana, iouz zagozela, *Urrikal nakizula, Jauna*, bere eskuina heda dezantzat zure haserreduraren iraungitzeko. Erran nahi dut, othoitz egin behar diogula Iainkoari hel dakigula, ikusten dugunean kolerak garamatzala, Apostoluek egin zuten bezala itsaso haserreak eta haize muthirik zerabiltzatenean: ezen manatuko itu gure buruko bueltak ixil ditezila, eta kalma handi egingen da; baina bethi abisatzen zaitut presenteko eta khexagarrizko koleraren kontra egiten den meditazionea egin behar dela emeki eta pausatuz, ez gogorki edo thematuz; zein baita gaitz haren kontrako erremedio guzietan segitu behar dena.

Horrekin batean, ikusiko duzun bezain sarri kolerazko akzionerik egin duzula, erremediazazu falta eginga, noren kontra haserretu baitzinen, haren beraren aldera egingen duzun mansotasunezko akzione batez. Ezen nola gezurraren kontrako erremedio beregainekoa baita, orduan berean bere erranaren iatea, nihork dakusan bezain laster, gezur erran duela; manera berean koleraren kontrako erremedio ona da, berehala haren





erremediatzea mansotasunezko akziona batez: zeren (erraiten ohi den bezala) zauri berriak errazkiago serratzen dira eta sendatzen.

Gainerakoan, bakez zaudenean eta zer koleratzerik eztuzunean, bilezazu mansotasun eta emetasun franko, zure hitzak erraiten dituzula, eta obra guziak, ala xipiak, ala handiak egiten tutzula ahal daidikezun manera emeenarekin. Orhoitzen zarela Kantiketako Espos Andreak eztuela eztia espainetan eta mihiaren puntan xoilki, baina oraino mihiaren azpian, erran nahi da bulharrean, eta hartan eztuela eztia xoilki, baina eta ugatza ere baduela: halaber ezta asko hitz eztiak izaita lagunaren aldera, baina oraino bulhar ostoia, erran nahi da, gure arimako barrenaldi guzia behar da eztiz izan. Ezta ere aski usain onezko eztiaren eztitasuna, erran nahi da, kanpokoekiko ibilte kortesaren amolura izaita, baina oraino esnearen eztitasuna behar da etxekeoen eta hauzokeoen artean: hortan huts handi egiten dute, karrikan Angeru eta etxean Deabru diruditenek.

## **Gure buruaren alderako mansotasunaz**

### **BEDERATZIGARREN KAPITULUA**

Egin detzakegun mansotasunezko lan onetarik bat, da, gure baitan diren gauzak gatik manso izaita, nihoiz ere despitatzen ezgarela gure buruaren, ez eta gure eskasen edo makhurren kontra. Ezen arrazoinak nahi duelarik hutsik egiten dugunean, hartaz damu har dezagun: halarik ere begiratu behar gare gure hutsak gatik desplacer grinatsurik, garratzik, despitezkorik eta kolerazkorik hartzetik. Hortan huts handi egiten dute hainitzek, zeinak koleratuz gerostik, koleratzen baitira zeren koleratu diren; grineta sartzen baitira zeren grinatu diren, eta despitatzen baitira zeren despitatu diren. Ezen bide hartaz bere bihotza dadukate koleran sarturik eta nahasirik: eta dirudielarik bigarren kolerak lehenekoa khen-tzen duela; guziarekin ere athea eta bidea idekiten du kolera berri baten sararazitzeke lehenbizi gertatuko den okasionean: bertze alde dela, nihork bere buruaren kontra pitzten dituen hitz, despitasun eta grina garratz hek abiatzen direla urguillukeriara, eta eztutela bertze ithur-bururik, gure burua ganako amudioa baizen: zeina nahasten baita eta aldaratzen ikusteaz eskas garela. Beraz gure falta eginez desplacer bakezko, pausatu eta fermu behar dugu izan. Zeren, nola Iujeak hobeki sensatzen baititu gaix-taginak, arrazoinaz eta espiritu pausaturekin bere sententzia emaiten duenean, ezen ez bueltaz edo pasionaturik hari denean, ikusirik pasionez iujeatzen duenean, eztituela faltak gastigatzen, diren bezala, baina bera nolakoa den bezala: hala guk ere hagitz hobeki sensatzen dugu gure burua urrikitze emez eta fermuz, ezen ez damu gaitzez, khexatuz eta koleratuz; iakinik bueltaka hartzen diren urrikimenduak ezirela hartzen gure faltak handi diren eredura, baina bai gure azturaren arauera. Exenplutzat, kastitatearen bihotzez maite duena despitatuko da paregabeko mindura batez kastitatearen kontra egin duen falta xipiena eta arinena gatik, eta eztu eginen irrikik baizen erein duen norbaiten kontrako gaizki-erran handiaz. Kontrara, gaizki erraitetasuna hastio duenak afruntatuko du bere burua, zeren arinki minzatu den nihoren kontra, eta eztu konturik eginen kastitatearen kontra egin duen falta itsusiaz: eta hala bertzeez. Hori ezta gertatzen bertze gauza gatik, lekhat zeren eztuten bere konszienzia iujeatzen arrazoina enzunik, baina pasioneak eramanik.

Zinetsnazazu, Filothea, nola aitak bere umeari emero eta bihotzez egiten diotzan eranzunek hagitz indar geiago baitute haren oneratzeko



eta eginbideratzeko, ezen ez haserramenduek: hala gure bihotzak hutsik egin dukeienez, eranzunak egiten badiotzagu emeki eta paustuki, lehen haren urrikariz, ezen ez haserrez hura oneratzera atzartuz, bero faltaz hartuko duen damua hagitz barrenago eta hobeki sartuko zaio, ezen ez despitaturik, muturturik, hitzgaitzkaturik, eta aldaraturik hartuko duen urrikimendua.

Nitaz bezanbatean, baldin banu, konparazionera, banaloriazko bizioan ez erortzeko afekzione handirik, eta halarik ere hartan erori baninaz erorte handi batez, eniozokeo neure bihotzari eranzun hitz hautaz: Ez aiz bada gaixtoa eta arnegatzekoa, hanbat erresoluzione eginik, utzten baituk hire burua banaloriari eramaitera, hil adi ahalkez, itsua, ahalkegabea, traidorea, falsoa hire Iainkoaren aldera, ez geiago alxa begiak zerura: baina nahi nozokeo bere hutsa erakusi arrazoinez eta urrikariz bezala. Ea bada, ene bihotz gaizoa, putzuan erori gare, hanbatetan hartu genduelarik hartarik itzultzeko erresoluzione: ah! alxa gaitezin hemendik, utz dezagun banaloria sekulakotz, dagiogun Iainkoaren miseriakordiarri oi, dugun esperanza esku emanen deraukula hemendikl hara fermuago iarteko, bihur gaitezin humiltasunaren bidera. Ea bada, demogun aitzinerakoan gure buruari guardia, Iainkoa lagunduko zaiku, harekin batean askiko gara. Gero nahi nuke eranzun horren gainean erresoluzione fermu eta sail bat egin ez geiago huts hartan erorteko, hartarakotzat on diratezkeien bideak eta ene gidariaren abisuak harturik.

Guziarekin ere norbaitek, ikusten badu bihotza ezin uki dakidiokeola aski eranzute eme hortaz, gogorki eta bortitzki liskartuko ahal zaio, haren osoki ahalkatzeko: kondizinorekin bere bihotza garratzki erabilli eta haserretu duenean, azkhenean hura arinduko duela, eta bere damu eta haserredura guzia serratukoduela Iainkoa baitako fidanza eme eta saindu batez, egiten duela penitent handi hark bezala, zeinak bere arima dolaturik ikusirik, hura alxatzen baitzuen hunela. *Zergatik triste zara, ene arima, eta zergatik aldaratzen nauzu? Duzun esperanza Iainkoa baitan, zeren hura benedikatuko dut oraino ene begitartearen salbamendua, eta ene egiazko Iainkoa bezala.*

Alxazazu bada emeki zure bihotza eror dadinean, Iainkoaren aitzinean hagitz humiltzen zarela zure miseriak duzun ezagutza gatik, zure erortez bat ere izitu gabe, miretsterik eztenaz gero flakotasuna flako, feblezia feble, eta miseria miseriatsu izanaz. Badarik ere zure indar guziez arnegazazu Iainkoari egin diozun ofensaz, eta bihotz handirekin iainkoia- ren miseriakordia baitan fidaturik, bihur zaite utzi zenduen bertutearen bidera.

## Egitekoak erabilli behar direla artharekin, khexamendurik eta grinarik gabe

### HAMARGARREN KAPITULUA

Egitekoetan behar dugun artha eta ernetasuna hagitz diferent eta urrun dire grinatik eta khexamendutik. Angeruek artha dute gure salbamenduaz, hura erneki bilhatzen dute eta aitzinatzen, hargatik ordea ez tute grinarik ez kexamendurik. Zeren artha eta ernetasuna hekin karitateari dagozka; baina grina eta kexamendua osoki liritezke hekin doatsutasunaren kontrakoak: halaz eta arthak eta ernetasunak arimako pausua eta bakea lagun ahal dituzketenaz gero, ez ordea grinak eta gutiago are khexamenduak.

Zarela bada arthatsu eta erne, Filothea, karguan ditzuzun egiteko guzietan: zeren Iainkoak eman derauzkitzunaz gero errekaitezera, nahi du artha handi duzun hetaz, baina ahal badagizu, etzaitzela grina hekin gatik, erran nahi da, etzakiztela lot pausugabeki, tematuki eta berokiegi, etzaitzela khexa hekin egitean: zeren zein ere nahi den khexadurak nahasten du arrazoina eta iujeamendua, eta tratatzen gaitu, zeintaz khexatzen garen gauzaren ongi egitetik.

Gure Salbatzailleak Santa Martha abisatzen duenean, *Martha, Martha*, diotsa, *grinatzen zare, eta nahasten hainitz gauzagatik*. Ikusten duzu? artha simple bat iduki izan balu, etzen nahasiko: baina zeren baitzegoen grinatan eta pausugabea, khexatzen da eta nahasten. Eta hori da zergatik gure Salbatzailleak erraiten dioen etzuela ongi egiten. Emeki bere bide arrunteren dabilzan ur handiek, edo ibaiek untzi handiak eta marxandiza aberatsak garraiatzen tuzte, eta landetan edo larretan emero erorten diren uriek, hei belhar eta hazi franko erakharten derauezate: ordea lurraren gainera uhin handiz barraiatzen diren uholdeek bere hauzoak galtzen tuzte eta hondatzen, eta tratuaren galgarriak dire, urite bortitzek eta tenpestatsuek landak, erripirak, penseak osoki galtzen dituzten bezala. Buelaz eta khexaz eginikako obra ezta egundaino ongi egin izan: emeki ioaki, urrun ioaki, dio errefrau zaharrak. Lehiatzen denak, dio Salomonek, peril du behaztopatzeko: bethi laster aski egiten dugu, ongi egiten dugunean. Lixtorrek abarrotz edo azanza geiago egiten dute, eta khexatzenago dira hagitz erleak baino, ordea ez tute egiten ezkorik baizen, eta ez tirik ez: hala khexatzenegi direnek ez tute nihoiz ere ez hainitz, ez eta



ongi egiten bere ansia errez eta bruitosez. Uliek ez gaituzte penatzen bere akometaduraz, baina bere ozteaz eta hainitz izanaz: halaber egiteko handiek ez gaituzte hanbat nahasten, nola xipiek, hainitz direnean. Haretzatu bada gertatuko zaizkitzun egitekoak bakerekin, eta enseia zaitte hekin egitera, zein bere lekuan, bata bertzearen ondoan. Zeren berehala egin nahi badituztu, bata bertzearekin, eta behatu gabe, noiz, non, eta nola egin behar diren, eginen tutzu zapatuko zaituzten eta espiritua lagiatuko derautzuten borxazko enseiua, eta geienean geldituko zare zamaren azpian eroririk, eta deusik egin gabe.

Egiteko guzietan perma zaitte osoki Iainkoaren probidenziaren gainean, zeina xoilki dela bide, zure egin nahi guziak behar baitira behar den burura erakharri: guziarekin ere zure aldetik hari zaitte baratxe eta emeki probidenzia zuhur karekin batean, zure egitekoen egiten, eta gero zineztezazu, Iainkoa baitan ongi fidatu bazare, zer ere gertatuko baitzaitzu handik, bethi zuretzat hobe izanen dela, zure buruko iujeamenduaren arauaz, iduri zaitzularik edo gaixto dela.

Egizu haur xumeek bezala, zeinek esku batez itxekiten baitiote aitari, bertzeaz biltzen baitituzte arregak, martutsak edo matsokak hezien basterretan. Ezen hala mundu hunetako ontasunak zure eskuetarik batez biltzen eta erabiltzen ditutzularik, bertzeaz zatxeko bethi ere zeruko aitaren eskuari, noizetik noizera itzultzen zarela haren gana, ikusteko, ea zure tratuak eta lanak on eta eder zaizkonz. Guzien gaintik begira zaitte haren eskuaren eta laguntzaren utsetik geiago bilduren duzulako ustez: zeren largatzen bazaitu eztuzu urratsik eginen lurrera sudurraz io gabe. Erran nahi dut, Filothea, noiz ere iarririko baitzare hain ernetasun handirik eta tinkhezkorik behar eztuten egiteko eta lan arrunteretan, geiago beha dezazula Iainkoa gana, ezen ez egitekoetara. Egitekoak hain kontu handitako direnean, non zure gogo guzia behar baitute ongi egin ditezintzat, noizetik noizera behatuko duzu Iainkoa gana, itsasoan dabilzanek egiten duten bezala, zeinek, nahi duten leiohrrera ioaitekotzat, behatzenago baitute goiti zerura, ezen ez beheiti urak daramatzen lekura: Horrela hari bazare, Iainkoa hariko da zurekin, zure baitan, eta zuretzat, eta zure trabailluari konsolazionea iarraikiko zaio.

## Obedienziak

### HAMEKAGARREN KAPITULUA

Karitate hutsak ezarten gaitu perfekzionatean: bainan obediencia, kastitatea eta pobrezia dire haren ardiesteko hirur bide handiak: obediencia gure bihotza, kastitateak gure gorputza, eta pobrezia gure dirua konsekratzen diote Iainkoaren amorioari eta serbitzuari. Hek dira gurutze espiritualeko hirur adarrak; halarik ere hirurak dire zimendatuak laugarrenaren gainean, zein baita humiltasuna. Eztut deusik erranen hirur bertute hetaz, botu ageriz prometatua diren bezala konsideraturik, zeren horrela harturik ezpaitute ukhitzen Fraideez bertzerik, ez eta botu simple batez besarkatzen diren bezala, zeren botuak hainitz graiza eta meritu bethiere emaiten deraularik bertute guziei, badarik ere, perfet egin gaitzezintzat, ezta premiari hetaz egin dadin boturik: aski da begira detzagun. Zeren botuak, eta beregainki guzien aitzinean prometatua direnean, gizona ezarten dutelarik perfekzionateko estatuan; guziarekin ere haren ezartekotzat perfekzionatean, aski da bertute hek begira detzan; iakinik diferentzia handia dela perfekzionateko estatuaren eta perfekzionatearen artean: zeren Ipiziku eta Fraide guziak perfekzionateko estatuan dire, eta halarik ere guziak eztira perfekzionatean, sobera baizen ikusten ezten bezala. Enseia gaitezin bada, Filothea, hirur bertute hei iarraikitera, nor bere bizitze tailuaren kredura. Ezen ezarten ezgaituztelarik perfekzionateko estatuan, badarik emanen deraukute perfekzionatea bera; berdin guziok obligatuak gare hirur bertute hekin arabera bizitzera, guziak orobat obligatuak ezgarrelarik hekin obratzera manera berbategaz.

Bi obediencia suerte dira, bata da obligazinozkoa, bertze borondatetzkoa. Obligazinozkoaz bezanbatean, humilki obeditu behar ditutzu Elizako Superiorak, nola Aita Saindua, Ipizpikua, Erretora, eta hekin partez esku dutenak. Behar ditutzu munduko Superiorak obeditu, erran nahi da, zure Prizea, eta hark zure herriaren gainean ordenatu dituen Kargudunak: finean erxeko Superiorak, erran nahi da, zure Aita, Ama eta Nausia behar ditutzu obeditu. Bada obediencia horri daritza beharrezko eta obligazinozko obediencia, zeren nihor ere ezin libra diteke erran ditudan Superioreni obeditzeko eginbidetik, ikusirik Iainkoak eman derauela esku eta bothere manatzeko eta gobernatzeko, batbederak gure gainean kargu duen arauera. Egitzu beraz hekin manuak, berdin hala



behar da; ordea perfet izaiteko, zarrizte oraino hekin konseilluei, bai eta desireri eta inklinazionei, karitateak eta prudenziak aginduko duten bezanbat: obedizazu ordenatuko derautzutenean gogorako gauzarik, nola baita iatea eta alegeratzea; zeren dirudielarik ezte la bertute handirik kasu hartan obeditzea, halarik ere bizio handia lizate ez obeditzea. Obedizazu orobateko gauzetan, nola horrelako edo halako aldagarri iauntsteaz, bide batetarik edo bertzeetik ioaiteaz, konpainietan ibilteaz, edo bakhar iartez, kantatzeaz edo ixil egoiteaz, eta hori izanen da iadanik hagitz gomendatzeko obedienzia. Obedizazu gauza gaitzetan, garratzetan eta gogorretan, eta obedienzia konplia izanen da. Finean obedizazu emeki kontra ihardetsi gabe; berehala, berandu gabe; arraiki, grinatu gabe, eta guzien gainetik obedizazu amolsuki, gure ganako amorioa gatik Gurutzeko herioraino obedient egin dena gatik, zeinak, San Bernardok dioen bezala, nahiago izan baitu bizia galdu, ezen ez obedienzia.

Errazki ikhasteko zure Superioren obeditzen, zarrizko gogotik zure kideen borondetari, amor egiten diozula hekin usteari edo iujeamenduari, gaixto ez tiren gauzetan, iharduki eta nabarmendu gabe: egizu gogotik zure azpikoen desiren arauera, arrazoinak nahiko duen bezanbat, hekin gainean nausitasunezko eskurik erakuzi gabe, onak direino. Enganioa da zinetstea, Fraide edo Serora bagine errazki obedi genezakeiela, nekhez eta muthiriki obeditzen baditugu Iainkoak gure gainean ordenatu dituenak.

Erraiten dugu hura dela borondatezko obedienzia, zeintara obligatzen baigare, geurok hautaturik, eta ez nihork bertzek ordenaturik. Komunzki nihork ez tu hautatzen bere Prinzea eta Ipizpikua, bere aita eta ama, hainitzetan ez bere senharra ere, guziek ordea bere Konfesora eta Gidaria hautatzen dute. Bada, dela norbaitek, bere aita espirituala hautatu duenean, botu egin dezan haren obeditzeko (erraiten den bezala Santa Theesiak bere Ordenako Superiorari botu ageriaz prometatu zioen obedienziaz lekhora, botu simple batez obligatu zela Aita Graziano bere Gidarti espiritualaren obeditzeko) edo dela boturik gabe iar dadin norbaiten manuko, hura obeditu nahiz; bethiere erraiten da obedienzia hura dela borondatezkoa, haren zimendua gure borondatearen eta hautuaren gainean permatua izanez.

Obeditu behar dire Superior guziak, badarik ere nor gure gainean esku duen arauera. Munduko tratuetan eta guziei ukhitzen zaizten gauzetan Prinzeek obeditu behar dira; Elizako ordenanzetan, Elizako Buruzagiak; etxeko gauzetan, aita, nausia, senharra; arimako gidamendu partikularetan, Gidari eta Konfesor partikularra.

Errozu zure aita espiritualari ordena diatzatzula egin behar ditutzun debozinezko lanak, zeren hala ordenaturik, hobe izanen dira, eta bi grazia eta bi ontasun izanen tuzte: bata beretik, debozinezkoak direnaz gero; bertzea, hek ordenatuko dituen obedienziatik, zeinaren bertutez eginen baitira. Doatsu dira obedientak, zeren Iainkoak ez titu sekulan utzi ko errebelatzera.



## Kastitatearen beharraz

### HAMABIGARREN KAPITULUA

Kastitatea da bertuteen lilia, edo Andre Dana Maria arrosa; hark egiten gizonak kasik Angeruen berdin, ezta deus ederrik garbitasunaz baiden eta gizonen garbitasuna da kastiategia. Kastitateari daritzo ohoretasuna, eta kastitatea dadukanaz erraiten da, ohorea duela. Kastitateak izena du, osotasuna, eta haren kontrakoak izengoitia du, galdura. Hitz batez, bere loria guziz du beregain, zeren hura baita arimako eta gorputzeko bertute ederra eta xuria.

Ezta nihoiz ere sori gorputzez plazer itsusirik hartzea, nola ere nahi den, behar legezko ezkontzan baizen; zein ezkontzako saindutasunek zuzenezko ontasun orde batez konpli ahal baitezake gorputzari heldu zaion eskasia hartzen duen atseginan. Hala ere ezkontzan berean intenzionezko ohoretasuna begiratu behar da, arren gertatzen bada eder ezten gauzarik gorputzak hatzen duen atsegintasunean, ohoretasunik baizen eztaidin aurkhi atseginari lotzen zaion borondatean.

Bihotz kastoia da perla-ama bezala, nihondik ere zerutik baizen ur xortik ezin har dezakeiena: zeren bihotz kastoak ezin har dezake plazerik, zeruak ordenatu duen ezkontzako baizen hartaz kanpoan ezta nihor zilhegi halako gauzarik gogoan erabiltera gogoramendu atsegintsu, borondatezko eta luzarozko batez.

Bertute hunetarako lehen graduaz bezanbatean, begirazaite, Filothea, debekatuzko atsegintasun suerterik utsetik sartzera, nolakoak baitira ezkontzatik kanpoan hartzen direnak, edo ezkontza berean ere, ezkontzako legearen kontra hartzen direnean.

Bigarrenaz bezanbat, aparta zaite ahal bezain urrun, ezdeusetako eta alfer diren plazeretarik, zilhegi zarelarik hekin hartzera, eta bere sori direlarik.

Hirurgarrenaz bezanbatean, eztaduzazula gogoa manatuak eta ordenatuak direna plazeretan. Zeren premiazko atseginak, erran nahi da, ezkontza sainduaren xedera eta intenzionera behatzen dutenak segitu behar direlarik, badarik bihotza eta gogoa ez dira nihoiz ere hetan amarra-tu behar.

Gainerakoan, nor nahik bertute hunen behar handia du. Alhargundurik daudenek behar dute kastitate bihotzdun eta sendo bat iduki, ez xoilki begietaritzen eta begietarako zaizten gauzen arbuizateko,

bainan oraino ezkontza zilhegi hartu zituzten plazerek burura ekhar detzaketen gogoramenduen kontra iarteko, zeren hargatik pitzkorragoak baitira beitha itsusietara. Hunen gatik San Agustino miretsirik dago bere Alipio maitearen garbitasunaz; ikusirik osoki ahantzi zeizkola haragizko plazerak eta arbuizatu zituela, batzutan hek frogatu zituelarik bere adin gaztean. ETa egiaz, fruituak oso direino begira ditezke, batak lastoaren gainean, bertzeak harean barrena, eta bertzeak bere ostoan: baina behin pikatuz edo idekiz gero, ezin kasik begira ditezke ezta asukrez konfituraturik baizen. Halaber, oraino zaurtu eta hautsi ezten kastitatea, hainitz moldez begira diteke: baina behin edekiz gerostik, hura deusek ezin begira diro beregaineko debozione batek baizen, zein debozione, maiz erran dudan bezala, espirituaren egiazko ezta asukrea baita.

Birjinek kastitate paregabeki sinple eta minbera baten beharra dute, nahi diren pensamendu kuriosen desterratzeko bere bihotzetik, eta mesprezio soz plazer lizun suerte guzien mesprezatzeko; hala ere plazer hek ezte merezi gizonak hetaz guthizia ditezkin, halaz eta astoak eta urdeak hetara geiago direnaz gerostik. Beraz arima garbi hek begira bitez sekulan duda egitetik kastitatea konparaziongaki hobea ezpaliz bezala, kastitatearekin ezin dagokeien guzia baino. Ezen San Hieronimo handiak dioen bezala, etsaiak bortitzki ertxatzen tu birjinak haragizko plazeren frogatzeko guthiziara, gogoan erraiten derauela neurrigabeki plazersuago eta gozoago direla, diren baino; eta halakotz hainizetan hagitz nahasten dira bere baitan, uste duteino, dio saindu hark, ezta kitena eztiago dela dutena baino. Zeren nola pinpirina, argia ikusirik, kurioski baitabilko helgaldaka inguruz inguru frogatzea gatik, ea eder den bezain ezta gozo ere denz, eta nola uste hartaz eramanik ezpaita gelditzen, non ezten galtzen lehen froga aldian: manera berean haragiaren pitzturetan plazerik delako uste falsoak eta erroak hainizetan hala daramatza jende gazteak, non hainitz gogoratze kuriosen ondoan, azkenean baitoaz hetan bere buruaren galtzera, hortan erroago izanen pinpirinak baino, zeren pinpirinek zenbait okasione dute uste izaiteko sua dela plazersu, hain eder denaz gero: ordea, jende gasteek dakitelarik, bilhatzen duten hura bera neurrigabeki lizuna dela, badarik ere prezatzenago dute hartarik har diteken atsegintasuna abrezkoa eta erroa.

Bainan ezkonduz bezanbatean, gauza segura da, eta bizkitartean jende komunak ezin gogora dezakeiena, kastitatea premia handizko dela hekintzat: zeren ezkonduak kasto izaitekotz, ezta aditzen haragizko plazer osoki gabetuko direla, baina plazeraren artean neurri idukiko dutela. Bada nola manamendu hau, *haserra zaitezte eta eztagizuela bekhatu*, ene





ustez gaitzagoa baita, hau den baino *etzaitzela bat ere haserra*, eta errazago baita kolerari bidearen ebakitea, ezen ez hari neurri emaita: halaber errazago da haragizko atseginetarik osoki begiratzea, hetaz neurritz balia-tzea baino. Egia da ezkontzako zilhegitasun sailduak indar partikular bat duela guthiziazko suaren iraungitzeko eta hiltzeko, baina konturik ez-tite-ke egin plazer hetaz gozaten direnetarik zenbat iragaiten diren zilhegita-sunetik neurrigabetasunera, eta usanzatik soberaniara. Eta ikusten dugun bezala, hainitz aberatzek ebatsten dutela, ez beharrez, bainan abariziaz; orobat ikusten dugu hainitz ezkonduk lizunki darabillatela bere burua egon nahigabe, eta lizundu nahi hutsez, begien aitzinean dutelarik hek iduki behar, eta iduki letzakenez legearen arauerako laguna; hekin guthizia-dura baitoa huna hara, nihon ere pausatu gabe, xixpiltzen dabillan hai-zeak erabillirikakoa sua bezala. Bethi gauza perillosa da edar bortitzak har-tzea, zeren nihork hetarik hartzen badu behar baino geiago, edo ongi pre-paratuak ezpadira, hainitz kalte ere hartuko du. Ezkontza benedikatu eta partez ordenatu izan da haragizko guthiziaren erremediotzat, eta duda-gaberik guziz erremedio ona da, halarik ere bortitza, eta halakotz perillo-sa, zuhurki hartzen ezpada.

Geiago diot, bertze alde direla eritasun luzeak, munduko egitekoek, hainitz manerazkorik izanez, maiz urruntzen dituztela senharrak bere emaztetarik. Hargatik ezkonduak bi kastitate suerte behar tuzte, bat, osoki egoiteko haragiaren mugidari iarraiki gabe, elkhar ganik urrun dire-nean, orai erran ditudan okasionetan: eta bertzea, ezkontzaz neurritz balia-tzeko elkharrekin direnean bere ohiko tratuan. Egiaz Santa Katalina Sienekoak hainitz arima ikusi zituen danatuen artean garratzki penaturik eta erabillirik, zeren ezkontzako saindutasuna hautsi eta lizundu baitzu-ten: eta hori gertatu zen, zioen Andre saindu hark, ez zeren bekhatu hura handia zen, iakinik hiltzekak, eta Iainkoaren kontrako burhoak handiago direla, ordea zeren ezkontzako legearen kontra bekhatu dagitenez ezpai-tadukate hartaz konturik, bekhatu ezpaliz bezala, eta halatan denbora luzez hartan baitaude.

Badakusazu beraz jende suerte guziek kastitatearen beharra dutela. *Zarraizkote guziekiko bakeari*, dio Apostoluak, *eta saindutasunari, zeina gabe nihork ezpaitu Iainkoa ikusiko*. Bada saindutasunaren hitzaz aditzen du kas-titatea, San Hieronimok eta San Krisostomok erakusi duten bezala. Ez, Filothea, eztu nihork Iainkoa ikusiko, kastitatea ezpadu, ezta nihor sartu-ko haren palazio sainduan, bihotzez garbia ezpada, eta Salbatzailleak berak dioen bezala, ozarrak eta lizunzaleak handik desterratuko dira, *eta doatsu dira bihotzez garbiak, zeren hek ikusiko dute Iainkoa*.

## Kastitatearen begiratzeko abisuak

### HAMAHIRURGAREN KAPITULUA

Zarela paregabeki erne eta agudo itzultzera lizunkeriarako bide eta beitha guzietarik. Ezen gaitz hura hari da, nihork ohartu eta sentitu gabe, eta baratxeko abiadurez, aitzina darama kasu eta erorte handietara. Bethi errazago da hari ihez egitea, ezen ez hartarik sendatzea.

Gizonen gorputzak dira behiren pare, zeinak ezin erabil baititezke bata bertzearekin, elkhar ukitzen dutela, elkhar hautsteko peril gabe: frui-tuen ere pare dire, zeinak oso eta ongi aphaindu direlarik, nothatzen bai-tira batak bnertzea ukituz Urak berak, zenbat ere freskoa baita untzi bate-tan, zenbait lurreko animaliak hura ukitzen badu, ezin luzeki begira deza-ke bere freskura. Eztezazula behin ere nihor utz, Filothea, zure ukitzera deskortezki, nahiz trufakeriaz, nahiz begitarte onez bezala, zeren agian kastitatea begira ditekeielarik lehen arin, ezen ez malizios diren ukitze hetan, guziarekin ere kastitatearen lore freskoak bethi dainu eta kalte han-dik hartzen du: ordea bere buruaren utstea desohorezki ukitzera, hori da kastitatea osoki galtzea.

Kastitatea bihotzean datza bereithurburuan bezala, baina behatzen dio gorputzari bere lankideari bezala. Hargatik galtzen da gorputzaren kanpoko sensu guziez eta bihotzeko gogoetaz eta guthiziez. Bere burua lizuntzea da gauza itsusirik miratzea, enzutea, erraitea, sudurretara ekhar-tzea, eta ukitzea, bihotza hetan trikatzen denean atsegin hartzeko. Hitz batez Iondone Paulok dio, haragizko obra lizuna eztadilla ere aipha zuen artean. Erleek ez xoilki eztituzte haragi hillak ta ustelak ukitu nahi, bainan oraino neurrigabeki gaitzetsten tuzte hetarik banatzen diren usain gaixto-ak, eta ihesi doazte. Kantikhetako kantikhan Espos Andre Sakratuaren eskuei mirrha darie, zein baita uron bat busteltzetik edo galtzetik begira-tzen duena. Haren espainak lotuak dira xingola gorri batez, seinaleztat ohorezki ahalkeria dela bere hitzetan: haren begiak uso-tortoillaren begiak dire, bere garbitasuna gatik: haren beharriek urrezko dilindakak ituzte, eta hek dira garbitasunaren bandera: haren sudurra da Libango Zedroa bezalakoa, zein baita ezin bustel ditekeien zuhaitza: halakoa behar da arima debota izan, kastoia, garbia, xahua, ohorezkoa, eskuez, espainez, beharrez, begiez eta gorputz guziez.





Horren gainean presentatzen derautzut Kasiano Aita zaharrak eski-ributan ezarri duen hitz bat San Basilio handiaren ahotik ilkhi zen bezala; hark, dio San Basilio, egun batez bere buruaz minzo zela, hitz hau erran zuela: *eztakit zer den emastekiez, eta halarik enaiz Birjina*. Gertuz hanbat maneraz gal diteke kastitatea, zenbat lizunkeria eta ahalkegaberia suerte baitira, eta handi edo xipi diren arauera, batzuek hura flakutzen dute, bertzeek zauritzen eta bertzeek osoki hiltzen. Badira trebetasun deskortez, trufatu, arin, ergel eta sensuetarako batzu, zeinek, den bezala erraitera, ezpaitute kastitatea hautsten, badarik ere hura erbaltzen baitute, langiarazten, eta haren xuritasun ederra erdi beltzten baitute. Badira bertze trebetasuna pasionatuak, ez xoilki deskortesak, baina biziosak, ez xoilki trufatuak, baina deshonestak, ez xoilki sensuezkoak, bainan haragizkoak, eta horrelakoez kastitatea gutienez hagituz zuartzen da eta dainatzen. Gutienean, diot, zeren osoki hiltzen eta galtzen da, noiz ere ergelkeria eta lizundura hek plazer itsusiaren konplidura emaiten baitiote haragiari, bai eta orduan desohoreskiago, gaixtokiago eta dohakabekiago galtzen da kastitatea, ezen ez galtzen denean bertzerekiko bekhatu simpleaz, eta ere bertzeren esposarekin edo bere ahaidearekin egiten den bekhatuaz, zeren azkenik erran ditudan lizundura suerte hauk ez tire bekhatu baizen, bainan bertzeak, Tertulianok kastitatearen gainean egin duen liburuan dioen bezala, gaixtotasunaren eta bekhatuaren harrigarritasunak dire. Ordea Kasianok ez tu sinetsten, ez nik ere, San Basilio minzo zela halako desordenuez, erraiten zuenean etzela Birjina; Ezen uste dut hori etzuela erraiten gogoramendu gaixtoak eta plazergarriak gatik baizen, zeinek, haren gorputza lizundu etzutelarik, guziarekin ere nothatu baitzuten haren bihotza, zeinaren kastitateaz arima bihotzduinak paregabeki ielozkor baitire.

Etzabiltzala nihola ere presuna lizunekin, behintzat oraino ahalkegabe badira, bethi kasik diren bezala. Zeren nola akherrek armendola-ondo eztiak mihiaz ukituz, hek zamintzen eta khiratsten baitituzte: hala arima urrindu eta bihotz bustel hek gutitan minzo dira nihorekin, dela emakume, dela gizon, non hura ez tuten nolazbait erorarasten garbitasunetik, pozoina dute begietan eta hatsean, basilikek bezala.

Aitzitik, zabilta prestuekin eta garbiekin, maiz irakurtzatu gauza sakratuak eta gero erabiltzatu gozoki zure gogoan barrena, zere Iainkoaren hitza kasto da, eta hartan lakhetzen zaiztenak kastetzen tu; hargatik Dabitek Iainkoaren hitza konparatzen du *Topazion* erraiten zaion harri preziatuarekin, zeinak bere bertutez iraungitze baitu guthiziaduraren sua.

Zaude bethi Iesu Khristo gurutzefikatuaren aldean, eta gogoz hura bihotzean darabillazula meditazioneaz, eta eginez hura hartzen duzula komunione sainduaz. Zeren, nola *Agnus castus* daritzon belharraren gainean etzaten direnak, egiten baitira kasto eta garbi, hala bihotza pausatzen duzula gure iaunaren gainean, zeina baita egiazko bildots kasto eta not-hagabea, ikusiko duzu zure arima eta bihotza garbituren direla itsuskeria eta lizundura guziatarik.



## Aberatstasunen artean begirutzen den gogozko pobreziaz

### HAMAL AUGARREN KAPITULUA

*Doatsu dira gogoz pobre direnak, zeren hekina da zeruetako erresuma:* beraz dohakabe dira gogoz aberats direnak, zeren hekintzat da Ifernuko miseria. Gogoz aberats da gogoan aberatstasunak dadutzana, edo aberatstasunetan gogoa dadukana. Gogoz pobre da, aberatstasunak gogoan eztadutzana, edo gogoa aberatsasunetan eztuena. Alzion daritzan itsas-xoriak bere ohatsea egiten du pilota bezain biribil, eta eztio utzten zilhoxo bat baizen gaineko aldetik; hura arrimatzen du, itsas-hegian, eta oraino hain iunt, finko eta ezin iraganezko egiten du, non uhinek hura daramatenean, nihoiz ere ur xortik ezin sar baititeke hartan barrena, baina bethi itsas-gaietik dabillala, itsasoan baitago eta itsasoaren nausi.

Zure bihotza, Filothea, halakoa behar da izan zerura xoilki idekia aberatstasunentzat eta gauza erorkorrenentzat osoki tapatua. Baldin baduzu munduko onhasunik, idukhazu bihotza hetarako afekzionetarik libratu: har beza bethi leku hekin gainean, bego aberatstasunen artean aberatstasunik gabe eta aberatstasunen nausi. Ez, Filothea, eztemazula duzun zeruko espiritua lurreko ontasunetan, hala egizu non bethi dagoen hekin gainean, ez hetan barrena. Bertze gauza, da pozoina etxean idukitzea, eta bertze bat, pozoatua izaita. Botikari guziek kasik pozoinak dadutzate, hetan baliatzeko hainitz ordu eta kasu suertetan, baina hargatik eztira pozoatuak, zeren ezpaitute pozoina gorputzean, baina bai botiketean; zuk halaber ahal dituzketzu aberatstasunak, hetaz pozoatu gabe, baldin etxean edo molzan badadutzatzu eta ez bihotzean. Izanaz aberatz izaita, eta gogoz pobre egoitea, da Gristinoaren zoririk hoberena; zeren bide hartaz aberatstasunen abantaillak itu mundu hunetako, eta pobreziaeren merezimendua du bertze munduko.

Helaz, Filothea, ez zu nihork behinere aitortuko abarizosa dela, guziek ukhatzen dute hain bihotz eroria eta behera iarria dutela; erraiten dute ume hainitz izanak khexatzen dituela; zuhurziak nahi duela diru bil dezaten: nihoiz ere ez tute sobera, bethi gertatzen dira behar aldi batzu geiagoren izaiteko; abariziosenek berek ez xoilki ez tute aitortzen abarizios direla, baina bere konszienzia ere ez tute uste halakoak direla: ez, zeren abarizia ezin erran bezalako sukharra da, eta hanbatenez ezin eza-

gutuzkoago, zenbatenaz bortitzago eta erreago baita. Moysek ikusi zuen su sakratua berro bat erretzen zuena, hura bat ere iaten etzuela; baina kontrara, abarizien su falsoak iaten eta iretsten du abariziosa, eta biskitartean hura ez zu nihola ere erretzen; behintzat bere bero eta errealdi handienetan iantatzen da munduan den freskurarik gozoenean dagoela, eta badaduka bere ezin asezko egarsua dela egarsu bat guziz naturalezakoa eta xoil gozoa.

Luzeki, beroki, eta khexatuki guthiziatzen bazara ez tuzun aberatstasunez, nahiz bezanbat ahal derrakezu, hek ez tuzula nahi zuzenaren kontra: zeren halarik egiazki abarizios izanen zara bethiere. Luzeki, beroki, eta khexadurarekin edan nahiz dagoenak, urik baizen edan nahi ez tularik, hala ere erakusten du sukharra duela.

O Filothea, ez tuki ea zuzenezko desira denz bertze batek zuzenez bere duen gauzari iabetzeko desiratzea: zeren badirudi desir haren bidez ongi iarri nahi dugula bertzeren gaizki izanaz. Lur bat zuzenez dadukanak ez othe du arrazoin geiago haren idukitzeko zuzenarekin, guk dugun baino haren zuzenki guretzeko? Zergatik bada hedatzen dugu gure desira hark duenaren gainera, hari edekiteko? Zer ere baita, desir hura zuzena bada, segur ezta karitatezkoa: zeren ez genduke nahi nihork desira lezan, zuzenarekin bada ere, guk zuzenarekin guretzat iduki nahi duguna. Hori zen Akhaben bekhatua, zeren Nabothan mahaztia nahi zuen zuzenaz beretu, eta Nabothek hura nahi zuen zuzen geiagorekin iduki, hura Akabek desiratu zuen beroki, luzeki eta khexatuki, eta halatan Iainkoa ofensatu zuen.

Igurikazu, Filothea, eta etzaitzila has lagunaren ontasunaren desiratzin, hura has dadin artean haren saltzeko desiratzin hartzen. Zeren orduan haren desirak ez xoilki zure desira eginen du zuzenazkoa, baina eta karitatezkoa ere: bai, zeren nahi dut artha iduki dezazun zure onhasunen emendatzeaz eta berretzeaz, ordea ez xoilki zuzenki, baina oraino emeki, baratxe, eta karitateak agintzen duen bezala.

Hagitz afekzionatzen bazare dituzun onhasunetara, hainitz lan eta egiteko emaiten baderautzute, zure bihotza eta gogoa hetan sartuz eta amarratuz, eta beldurtasun bizi, bortitz eta khexatu batez beldur bazare hekin galtzeaz, zinetsnazazu, baduzu oraino zeinbait sukhar suerte: zeren sukharra dutenek edaten dute emaiten zaion hura osasuna dutenek usatzen ez tuten lehiadura, eta atsegin batekin. Nihori ezin hagitz lakhet daki-dikeo gauza batetan, non hainitz afekzione ez tuten hartan ezarten. Kasuz deusik galtzen baduzu, eta sentitzen baduzu hargatik zure bihotza hagitz deskonsolatzen dela, zinetzazu, Filothea, hainitz afekzione duzula harta-



ra; ezen deusek eztu hala erakusten gauza galdua gatik dugun afekzioea, nola haren galtzeaz hartzen dugun damuak.

Eztezazula beraz eztuzun ontasuna desira desir oso eta formatu batez, eztezazula bihotza dituzunetan barrenegi sar, etzaitezila deskonsola gertatuko zaizkitzun kalteak gatik, eta zerbait arrazoin izanen duzu zinetsteko, izanaz aberats zarelarik, etzarella afekzioez aberats; baina gogoz eta bihotzez pobre zaudela, eta halatan doatsu zarella; ezen zeruetako erresuma zure da.

## **Nola nihor iar diteken egiazki pobre, egiazki aberats dagoelarik**

### **HAMABORTZGARREN KAPITULUA**

Parrasio zeritzon peintadoreak Athenako jendea peintatu zuen asmu hagitx espiritutsu batrez, hura errepresentatzen zuela hainitz olde moldeko, koleratsu, iniustu, fermugabeko, kortez, begitartetsu, bihotzbera, urrikalsu, handinahizko, urguillu, humil, ausartsu, ihesiti, eta hori guzia figura edo erretaula batetan: Nik ordea, Filothea, zure bihotzeari ezarri nahi nituzke aberatstasuna eta pobrezia bata berzearekin, bai eta artha eta mesprezio handi bat munduko gauzez.

Zarela arthatsuago zure ontasunek probetsu eta fruitu ekhar dezaaten, mundukoak diren baino. Arren erradazu, Prinze handien baratzeazainek ez othe dadukate kontu geiago bere karguan dituzten baratzeen erneki lanteaz, agudoki iraulteaz, eta kurioski edertatzeaz, bereak, balituzte baino? Ordea zergatik hori horrela? Gertuz, zeren konsideratzen baitute, hek direla Prinzeen eta Erregeen baratzeak, eta desira baitute hekin begitartearen irauasteko bere serbitzuez. Ene Filothea, ditugun ontasunak ezti-rra gureak, Iainkoak eman derauzkigu lantzera, eta nahi du fruitu eta probetxu erakhar diezegun, eta halatan serbitzu gogarakoa egiten diogu hetaz artha idukiteaz.

Beraz behar da gure artha hura handiago eta saillago den mundukoek bere ontasunez dutena baino, zeren hek eztire hari bere burua ganako amudioa gatik baizen, eta guk Iainkoaren amorioa gatik behar dugu trabailatu. Ordea nola nihork bere buruari diadukon amudioa, amudioa bortitza, nahasgarria etakhexatua baita, hala beretzat hartzen duen artha, nahastez, grinaz, asalduz bethea da: eta nola Iainkoa ganako amudioa, emea, baketia, eta pausatua baita, hala haren ganik sortzen den artha, munduko onhasunez hartzen bada ere, amolsua, maitagarria, ezti, emea eta arraia da. Dugun bada artha grazios hura mundu hunetan ditugun ontasunen begiratzeko eta emendatzeko, zuzenezko okasioerik eskhaindakigunean, eta gure kondizionaleak agintzen duen arauaz: zeren Iainkoak nahi du horrela hari gaitezin haren amorioz.

Ordea begira zaite zure burua ganako amudioak etzaitzan engana; Ezen batzuta hain artezki hartzen du Iainkoa ganako amudioaren iduria eta egitate, non erran bailiteke Iainkoaren amudio bere dela. Bada enga-



na gaitzan beldurrez eta munduko ontasunez behar dugun artha hura abariziarra itzul eztadintzat, aitzineko kapituluan erran dudana lekhora, maiz behar gare egiaz eta eginez pobre iarri eta egon, Iainkoak eman derauzkigun ontasunetan eta aberatstasunetan.

Beraz utzazu bethiere zerbait aphur zure ontasunetarik, hura bihotz onez pobrei emaiten derauezula, zeren duenak duena emanez, hanbatez pobretzen da, eta zenbatenaz geiago emanen baituzu hanbatenaz pobreturenago zare. Egia da iainkoak hura bihurtuko derautzula, ez xoilki bertze munduan, bainan eta hunetan ere, zeren ezta deusik munduko ontasunak geiago emenda detzakeienik, aumoinak baino: ala bainan Iainkoak hura bihur diazazun artean, bethi egonen zare hartaz pobreturik. O zein saildu eta aberats den, aumoinaz egiten den pobremendua.

Ditutzun pobreak eta pobrezia maite, zeren maitatasun hartaz egiten zara egiazki pobre, halaz eta, Eskiriturak dioen bezala, *nolakoak baitire maite ditugun gauzak, hek bezalakoak egiten garenaz gero*. Amudioak egiten tu amudio dutenak berdin. *Nor dago penetan, non ez naizen harekin batean penatzen?* dio Iondone Paulok. Erran zukeien: nor da pobre, non enaizen harekin pobre? zeren amudioak hura egiten zuen maite zituenak bezalakoak: beraz maite baditutzun pobreak, egiazki izanen zare hekin pobrezian partale eta pobre, hek bezala.

Ordea maite baditutzun pobreak, iarzaite maiz hekin artean, harezazu atsegin hekin ikusteaz zure etxean, eta bisitatzeaz beretan, solhas egiezu gogotik, duzun atsegin hurbil dakizkitzun Elizetan, karrikhetan, eta non nahi: Zarela mihiaz pobre hek bezala, minzaten zaitzela hekin lagunkidea bezala; baina, nola geiago baituzu hek baino, zarela eskuez aberats, partitzen derauezula zure ontasunetarik.

Nahi duzu oraino geiago egin, Filothea. Eztaritzazula aski dela pobre izaitea pobreak bezala, baina zarelapobreak baino pobreago; eta nolatan hori? Serbitzaria mendreago da nausia baino, iarzaite bada pobreen serbitzari, zoaz hekin serbitzatzera eri direnean zure eskuez: zarela hekin kuisinari, bai eta zure gastuz, zarela hekin xuritzaille eta antolatzaile O ene Filothea, serbitzu hura loriosago da erregetasuna baino. Ezin aski mirets dezaket nolako berodurarekin Sain Luis Franziaiko Erregea abisu horri iarraiki zitzaion. Hala ere iguzkiak egundaino ikusi dituen Errege handienetarik bat zen, ERrege handia diot, handitasun suerte guzietan: hazten zituen pobreak, maiz serbitzatzen zituen mahainean eta egun guzietan kasik hirur pobre erakhartzen zituen bere mahainean, eta hainzitan hekin sopen ondarrak iaten zituen paregabeko amudiorekin. Erien hospitaleak bisitatzen zituenean (maiz egiten zituen beza-

la) iarten ohi zen eritasun itsusienik zutenen serbitzatzeten, nolakoak baitira sorhaioak, xamartsuak, eta bertze halakoak; eta serbitzu hura egiten zerauen xapela erauntsirik, eta lurrean belhaunikaturik, munduko salbatzailea errespetatzen zuela hekin baitan, eta hek maitatzen zituela ama amolsu batek bere umea maita ahal lezakeien bezain amudio samur, bera, eta mindurizko batez.

Santa Elizabetha Hongriako Erregearen alaba iarten ohi zen pobreen balsan, eta batzutan dostatu nahiz emakume pobre baten gizako tresnak iauntsten zituen bere Donzeillen aitzinean, erraiten zerauela: pobre baninz hunela nenbilke bestiturik. Ah Iainkoa! Filothe maitea, Prinze eta Prinzeza hura zein pobre ziren bere aberatstasunetan, zein aberats ziren bere pobrezian! Doatsu dira horrela pobre direnak, zeren hekina da zeruetako erresuma. *Gose izan naiz, eta emanderautazue iatera; egarri nintzen, eta eman derautazue edatera, billusirik nenbillan, eta estali nauzue, sar zaitzte iabe munduaren hastetik preparatu zaitzuen erresuman* erranen du pobreen eta Erregeen Erregeak bere iujeamendu handian.

Ezta noizpait zerbiatze eskas eztenik. Batzutan ongi hartu eta errekaitatu nahi eta behar gendukeien arrotsa heldu zaiku etxera, ordu hartan ezta hari emaitekorik, eta zertaz egin begitarte; Betzeak leku batetan bere tresna ederrak dadutza, eta bertze batetan hekin beharra luke, behar bezala burua erakusteko. Batzutan ardandegiaren arnoak nahasten dire, alentatzen eta gaixtatzen, ezta sobratzen gaixtorik eta ferderik baizen. Bertze aldi batez gertatzen garta herriz kanpoan zenbait herri xumetan, non gauza guziak eskasten baitira, non ezpaita oherik, gelarik, mahainik, serbitzurik, errekaiturik: hitz batez erraz da zerbait eskas izaitea, zenbat ere aberats baita nihor. Bada hori da egiaz pobre izaitea eskas ditugun gauzez bezanbatean. Filothea, duzun atsegin behar aldi hetaz, haretzatzu bihotz onez, eta pairatzatu arraiki.

Gerta dakizunean, dela hainitzez, dela gutiz probetuko zaituen inkontrurik, nolakoak baitira babazuzak, harriak, suak, uholdeak, agortek, arrogazeriak, hauziak: orduan, Filothea, orduan da egiazko sasoina pobreziari iarraikiteko, emetasunarekin hartzen tutzula zure ontasunen gutimenduak, eta gogo pausatu eta finko batez zure egitekoak egiten tutzula pobremendu haren eredura. Esau presentatu zitzaion bere aitari eskuak zituela illez estaliak, eta Iakob ere orobat; zeren ordea Iakoben eskuetako illeak ezpaitzitezkon larruari, bainan esku larruei, edeki zekidizkeon ille hek, hari minik egin gabe eta hura larrutu gabe: kontrara zeren Esauren eskuetako illeak baitzitezkon larruari, hura sortzetik illestua izanez, nihork athera nahi izan baliotza, min handi eginen zioen,



iarriko zen marraskaz, egin ahala eginen zuen bere eskuen begiratzeko. Gure ontasunak bihotzean sartu zaizkigunean, denbora gaixtoak, ohoiak, hauzilarik eramaiten baderauku hetarik zenbait zathi, nolako arrankurak, nolako asaldak, nolako alhadurak eta despazienziak itugu? Ordea gure ontasunak dadutzagunean, ez bihotzean barrena, baina xoilki Iainkoak nahi duen bezanbateko artharekin; eramaiten bazaizkigu, eztugu hargatik ez burua, ez bakea galduko. Hori da bestien eta gizonen artean den diferentzia arropaz bezanbatean; bestien arropak haragiari datzeko, eta gizonen arropak laurraren gainean xoilki iauntsiak dira, hala non noiz-nahi iaunts eta eraunts baitetzakete.

## **Nola gogozko pobrezia ahal dukeen nihork, izanaz pobre denean**

### **HAMASEIGARREN KAPITULUA**

Ordea egiaz pobre bazare, Filothea maitea, Iainkoaren amorez, zarella gogoz ere pobre, egizu bortxa bertute, eta balia arasezazu pobreziazko harri preziatu hura balio duen bezanbat. Haren distiadura ezta ageri mundu hunetan; badarik ere neurrigabeki ederra eta aberatsa da.

Duzun pazientzia, konpainia onean zaude. Gure Salbatzailea, Andre Dana Maria, Apostoluak, hainitz gizon eta emazte saildu izan dira pobre, eta aberatstasunez goza ahal zitezkeielarik, eztute nahi izan. Zenbat munduko Iaun eta Andre handi, bere mundua utzirik, hainitz kontrako izanagatik, ioan dira paregabeko arthaz konbentuetara eta hospitaletara pobrezia sailduaren bilha? Hainitz pena hartu dute haren kausitzeko. Lekuko dira San Alexiz, Santa Paula, San Paulino, eta bertzerik hainitz: eta horra, Filothea, non pobrezia hura zure aldera begitartetsuago eginik, zure gana heldu den: hura aurkitu duzu, haren bilha ibilli eta nekhatu gabe, hura besarkazazu bada Iesusen adiskide maitea bezala, orhoitzen zarella, hura sortu, bizi eta hil izan dela pobreziarekin, eta bere bizitze guzian izan duela pobrezia unhide.

Zure pobrezia, Filothea, bi pribilejio handi ditu, zeinez bidez hainitz merezimendu ardiets baitetzakezu. lehen da, etzaitzula etorri zuk hura hautaturik, baina Iainkoaren borondate hutsez; hark egin baitzaitu pobre, zure borondateak hari biderik eta parterik eman gabe. Bada zer ere hartzen baitugu, xoilki eta garbiki zeren Iainkoak hala nahi duen, bethiere den gauzarik gogorakoena zaio, hura hartzen badugu bihotz onez eta haren borondate sailduaren amorez gatik. Non ere gutiago baita gurerik, han geiago da Iainkoarenik. Iainkoaren borondateak simpleki eta garbiki hartzeak, penadura bat egiten du neurrigabeki garbi.

Zure horrelako pobrezia bigarren pribilejioa da, zure pobrezia egiazki pobre dela. Pobrezia laudatua, ongi etorria, ohoratua, estimatua, bere beharretan faboratua nolazbait aberatsa da, ezperezta alde guziz pobre; ordea pobrezia mesprezatua, arbuatua, eskarniatua eta utzia egiazki pobre dago. Halakoa ohi da laikoan pobrezia: zeren nola ezpaitira pobre, bere hautuaz baina bortxaz, ezta hetaz kasu handirik egiten; eta zeren nihork ezpaitadutza kontu handitan, hekin pobrezia pobreago da



Fraideena baino, bertzenaz Fraideen pobrezia ekzelenzia guziz handia eta ezin aski gomendatuzkoa duelarik, hura hautatu eta besarkatu dutenen botua eta intenzioea gatik.

Etzaitezila beraz arranzura, Filothe maitea, zure pobreziaz: zeren ezta nihor arranzuratzen desgogara zaionaz baizen, eta pobrezia zere desgogarakoa bada, etzare geiagorik gogoz pobre, aitzitik bihotzez eta nahiz aberats zare.

Etzaitezila deskonsola zeren bertzeak etzaizkitzun heltzen behar lizatekeien bezala, ezen hortan datza pobrezia ekzelenzia. Nahi baduzu pobre izan, eta penarik ez izan pobreziatik, sobera handi nahia zare; zeren horrela nahi zenduke pobrezia ohorea, eta aberatstasunen probetxua.

Etzarella ahalke pobre izaitzaz, eta Iainkoaren izenean aumoin eskatzeaz. Harezazu emanen zaitzuna humiltasunarekin, eta ukhoak pairatzatzu emetasunarekin. Orhoitzaite maiz Andre Dana Mariak iragan zuen Egipterako bideaz, hara bere seme maitea eramaiten zuenean, eta zenbat mesprezio, zenbat pobrezia, eta lazeria behar izan zituen pairatu. Horrela bizi bazare, guziz aberats izanen zara zure pobrezian.

## Adiskidetasunaz, eta lehenik gaixtoaz eta fitsezkoaz

### HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

Amorioak lehen lekua daduka arimako pasioneen artean: hura da bihotzeko *higidura* eta ibilmendu guzien erregea: gainerako guzia bere gana itzutzen du, eta egiten gaitu berak maite duenaren bezalakoak. Begirazaite beraz, Filothea, amorio gaixtorik hartzetik, zeren berehala zu ere guziz gaixtoa zinateke. Bada amorio guzietarik perillosena da adiskidetasuna, zeren bertze amorioak ahal daudezke bertzeretik partaletasunik gabe; ordea nola adiskidetasuna osoki ziemndatua eta permatua baita bertzeretikotasunaren gainean, nihork nihorekin eztuke kasik adiskidetasunik, non ezten partez bata bertzea bezalako egiten. 1. Amorio guzia ezta adiskidetasuna, zeren nihork nihor ahaldute maite, hura bertzeak maite eztuelarik, eta orduan bada amorio, ezta ordea adiskidetasunik, ikusirik adiskidetasuna dela elkharganako amorioa, eta elkharganakorik ezpada, ezta adiskidetasunik. 2. Ezta ere aski elkharganako den, baina behar da elkhar maitedutenek iakin dezaten bere elkharganako afekzioaren berria, zeren hura ezagutzen ezpadute amorio izanen dute, ez ordea adiskidetasunik. 3. Behar da oraino zenbait parte elkhari egin diozoten bere gogoaren berriaz, adiskidetasunaren zimendatzeko.

Partaliartasunak hainitz moldezko izanez, adiskidetasunak ere hainitz moldeko dire, eta partaletasunak bertze eta bertze dira, bata bertzearekin elkhartzen dituen ontasun diferententz arauera. Elkhari ekhartzen badiote ontasun falsorik eta banalorioazkorik, falsoa eta banaloriozkoa da adiskidetasuna; egiazko ontasunak badira, egiazko adiskidetasuna da, eta zenbatenaz ontasunak izanen baitira ekzelentago, hanbatenaz ekzelentago izanen da adiskidetasuna. Ezen nola ekzelentago baita ezta biltzen denean lore hoberenen mokoetan, halaber ekzelentago da amorioa, zimendatua denean elkharrekitasun hobeago baten gainean. Eta nola Ponteko Heraklean baita ezta pozoinzurik, hartarik iaten dutenak erhotzen dituenik, leku hartan franko den akonitaren gainean bildua izanez, halaber bata bertzeari bere ontasun falsoetan eta biziosetan parte eginez, hekin adiskidetasun guzia da falsoa eta gaixtoa.

Haragizko atseginen elkharganamendua abreek ohi duten pitztura eta elkharganagarri bat, gizonen artean adiskidetasunaren izena geiago merezi eztukeiena, asotek eta zamariek obra hetarakotzat bere artean





duinak baino: eta hartaz bertze elkharrekitzerik ezpaliz ezkontzan, elizate ere adiskidetasunik; baina zeren ezkonduak elkharganatze hartaz lek-hora, elkharrekin bizi baitira, elkharri emaiten diotela parte bere antzetan, ontasunetan eta afekzionetan, bata bertzeari datxokola ezin etheduzko fideltasunaz, hargatik ezkontzako adiskidetasuna egiazkoa da eta saildua.

Adiskidetasuna sensuezko atseginen ganean iarria, toldezkoa da guzia, eta eztu merezi adiskidetasunaren izena; ez eta fetsezko edo banaloriazko bertuteen ganean permatua denak, ikusirik horrelako bertuteak sensuei datxeztela, sensuetarik sortzen direla, eta sensuetan dauntzala. Sensuezko plazerez minzo naizenean, aditzen tut kanpoko sensuei artekorik gabe eta bereziki lotzen zaizten plazerak, nolakoak baitira edertasun baten ikusteko, kantari arrai baten enzuteko, zerbaiten ukhitzeko, eta bertze halakorik egiteko plazerak. Fitsezko bertuteez aditzen tut fetxotasun banaloriazko batzu, zeinak espirtu eskasek erraiten baitute bertute eta perfekzione direla. Enzunezazu nola geien neskak, emakumeak eta jende gazteak minzo diren; eztute dudarik eginen erraiteaz, horrelako zaldunak bertute handia du, hainitz perfekzione du; ederki hari da danzan, ioko guzietan fetxo da, apunki dabilla soina, kantari ona da, hitztun letranta da, begitarte ederra du. Ximiñolariek ere bere artean dadukate hark bertute geiago duela nor ere burlari, trufari eta irri egille handiena baita. Bada nola gauza hek guziek behatzen baiterauezate sensuei, halaber hetarik sortzen diren adiskidetasunez erraiten da sensuezko, banaloriazko, fitsezko adiskidetasunak direla, eta lehen merezi dutela ergelkeriaren ezen ez adiskidetasunaren izena. Horrelakoak ohi dire gazteen adiskidetasunak, zeinen egitatea baita mustatxak erhi puntez goiti biribiltzea, xirloak barraiatzea, begi dardoak aurtikitzea, kapa ukhondoaz zabaltzea, burua gogoinatzea, mihia hitzkerietan erabiltea: hauk dira amurusen adineko adiskidetasunak, zeinek ezpaitute oraino bertuterik, luman eta illetan baizen, ez eta iujeamendurik mokoan baizen: hala ere horrelako adiskidetasunak berehala iragaiten dira eta urtzen, elhurra iguzkitan bezala.

## Amuruskeriez

### HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

Adiskidetasun ergel hek erabilten direnean gizonkien eta emakumeen artean, eta eskontzeko borondaterik gabe, erraiten da, amuruskeriak direla; eta izen hura dute, zeren nola ezpaitira egiazko adiskidetasunaren haur ekhoitste, ilhor edo itxurapen batzu baizen, ezin dukete, ez adiskidetasunaren, ez eta amorioaren izena bere ezin konparatuzko banotasuna eta eskasia gatik. Bada hek direla bide gizonen eta emakumeen bihotzak gertatzen dira atzemanik eta bata bertzearekin korapillaturik, lehen erran ditudan elkharganatasun ergel eta begitarte fitsezko hek dakhazketen afekzione alferretan eta erhoetan. Eta xoriburuko amorio hek komunski doazilarik satsukeria eta haragitasun xoil itxusietan sartzera eta hondatzera, badarik ere hetan erorten direnek eztute hori lehenetik nahi, bertzela eliratezke amuruskeriak, bainan elkharkoitasun eta haragizko bekhatutarasun ageriak. Bai eta batzutan hainitz urthe iraganen dira, non ezpaita gertatuko gorputzeko garbitasunaren kontrako den berriazko gauzarik erhokeria hartaz ukhitsuak direnen artean; ikusirik hari direla xoilki bere bihotzen nahastn eta urtzen desirketan, nahikundetan, hatsbeherapenetan, sorlhaskerietan eta bertze halako ergelkerietan eta banalorietan, eta hori hainitz eta hainitz manerazko gauza buruan darabillaten arauera.

Batzuk eztute bertze gogorik bere bihotzen asetzeko baize amorio emanetz eta hartuz, hortan darraizkola bere inklinazione amurusari: horrelakoek eztiote deusi behatzen, bere amorioen hautuaz bezanbatean, bere gustuari eta gogo naturalari baizen, hala non eder zaienik aurkitzen dutenean, berehala frogatu gabe nolako den bere baitan, eta nolako erremangu daraman, hasiko baitute elkharrekkiko amuruskeria hura, eta bere burua sartuko baitute miseriagarrizko saretan, zeinetarik gero nekhez ilkhiko baitira. Bertzeak hartara daramatza banaloriak, uste dutela eztela loria xipia bihotzak amorioz atzemaitea eta amarratzea. Horiek bere hautua loria gatik eginez, bere arteak egiten eta sareak hedatzen tuzte itxura ederreko, handiresuneko, aiphameneko eta nihor guti trebe den lekuetan. Bertzeak olde amurus batek eta banaloriak ere darabiltza; zeren bihotza dutelarik amoriora itzulua, guziarekin ere eztute amoriorik hartu nahi zenbait loriazko abantaillekin baizen. Adiskidetasun hek guziak gaixto dira,



erho eta banaloriazko: gaixtoak dire, zeren azken buruan sartzen, eta ephatzen dire haragizko bekhatuan, eta ebatsten diote Iainkoari, emazteari eta senharrari zor zitzaien amudioa eta bihotza: erhoak dire, zeren eztute ez zimendurik, ez arrazoinik: banaloriazkoak dire, zeren eztakhar-kete ez probetxurik, ez ohorerik, ez kontentamendurik. Aitzitik galtzen dute amurusaren denbora, nahastekatzen dute haren ohorea, bertze plazerik emaiten eztiotela lekhat khexadura bat noizpait finean ardietsiko duela bere esperanzaren arauera, iakin gabe, zer nahi duen, ez eta zeren ondoan dabillan. Zeren espiritu xume eta flako hek bethi uste dute badaela eztaik zer desiratzekorik erakusten zaizten ordainezko amorioaren seinaletan, eta ezin derrakete zer hura zer den. Handik heldu da hekin desirak eztuela azkhen bururik, baina bethi hekin bhotza khexu darabillala ardurako ielozkortasunetan, nihori ezin fidatuz, nihon ezin pausatuz.

San Gregorio Nazianzakoa, eskiribatzen duela banaloriazko emazte-kien kontra, miragarriki minzo da horren gainean. Huna haren hitzatarik parte labur bat, egiaki emakumei erraiten derauena, baina gizonei ere merezi onez dagotena: *zure edertasun naturala aski da zure senharrarentzat, baldin hura hainitzentzat idekia baduzu sare hedatu bat bezala xori ozte baten atzemaiteko, zer gertatuko da? hura eder izanen zaitzu, nori ere izanen baitzaio zure edertasuna eder: aurtikiko duzu begi kheinu begikheinuaren, begitarte begitartearen ordain: handik laster ethorriko dira irri ixilak eta amoriozko mandatuxoak lehenbizian gordaka igorriak: ordea sarri elhatuko zarete, eta guzien aitzinean iarriko zarete elkharren solhastatzen. Begira, ene mihi minzattia, begira erraitetik zer gertatuko den gero, badarik ere egia hau erranen dut oraino. Morroinek eta emakumeek begitarte erho hetaz elkharrekin egiten duten tratuetan ezta deus ere akuillu eta pitzgarri handirik gabe. Amuruskerietako korapilladura guziak bata bertzeari datxezko eta darraizko, hala nola aimantaren bertute ixilaz eramaiten den burdinak hainitz bertze burdin bata bertzearen ondoan bere gana baitakharke.*

O zein ederki minzo den Ipizpiku handi hura! Zer uste duzu egin? amorio eman nahi duzu, ez othe? ordea nihork eztu bere oldez amoriorik emaiten, non eztuen bada eta ezpada amorio hartzen. Ioko hartan atzemailea atzema da. Aproxis daritzon belharrak sua hartzen du, sua ikusten duen bezain laster; gure bihotzek orobat nihor ikusten duten bezain sarri hekin gana amorioz sustaturik, berehala suakhartzen dire haren aldera. Norbaitek erranen deraut, amorio hartu nahi dut, eztut ordea hagitz barrena sartu nahi. Helaz! enganatzen zare, amoriozko sua biziago da eta barrenago sartzen da iduri zaitzun baino: uste duzu inhar bat xoilki hartuko duzula, eta espantaturik ikusiko duzu begi irekian iarridela zure bihotzaren iabe eta nausi, hautsa bezala xehatu eta porrokatu

dituela zure borondate sainduak, eta zure omen ona kheetara igorri duela, oiuz dago zuhurra: *Nori urrikalduko zaio sugeak ausiki duen inkantadorea?* Ni ere hura bezala oiuz nago, O erhoak eta adimendugabeak, uste othe duzue hala inkantatuko duzuela amorioa, non hura eskuetan erabil ahal dezazuen zuen nahiaren arauera? Dostetan hari nahiduzue harekin, gaixtoki ausikiko zaituzte, eta badakizue gero zer erranen den? Batbedera trufatuko da zuetaz, eta irri egingen du ikusteaz amorioa inkantatu nahi izan duzuela, eta seguranza falsoa harturik, arima gaixtatu eta ohorea galdu derautzuen perilgarrizko sugea zuen gokoan ezarri nahi izan duzuela.

O Iainkoa! zer itsutasun da hori, fitsezko bahikundeen gainean gure arimako parterik hoberenaren horrela hala dagidanz iokateaz? Bai Filothea, zeren Iainkoak eztu gizona nahi arima gatik baizen, eta arima borondatea gatik baizen, ez eta borondatea amorioa gatik baizen. Helaz! urrun gare behar dugun amorioaren neurritik eta kontutik. Erran nahi dut amorioz neurrigabeki eskas garela, erraiteko amoriorik aski dugula Iainkoaren ontsteko; eta bizkitartean guk miserable hauk duguna ere barriatzen eta emaiten dugu gauza erhoetan, banaloriazkoetan eta alferretan, sobera bagendu bezala. Ha! gure arimetako amorioa xoilki eta hutsik beretzat ordenatu zuen Iainko handiak eskerrak eman liotzoten gatik zeren kreatu, begiratu eta libratu zituen, kontu hersi bat eman-araziko derauku gure amorioaz egiten ditugun gastu erho hetaz. Baldin hain kontu xehe bilhatu behar badu hitz alferrez, zer egingen du adiskidetasun erhoez, ergelez eta galgarriez?

Elzaurondoak kalte handi egiten deraue mahaztiei eta landei hetan landatua denean. Zeren bere hain handi izanez edoskitendu lurraren gozo guzia, hala non ezpaitu gero indarrik aski bertze landareen azteko; haren ostoak hain uzu dira non itzalpe handi eta ilhun bat egiten baitute, eta finean bere gana erakhartzen tu bidezkoak, zeinek elzaurrak lurrera egoitsi nahiz haren ingurunean den guzia zapatzen baitute eta galtzen. Amuruskeriek kalte berak egiten diotzate arimari: zere hura hala dadukate eta hain bortitzi bereganatzen tuzte haren barren aldi guziak, non gero ezpaitu indarrik aski obra onik egiteko: amuruskerien ostoak, erran nahi da, elkharganatasunak, konpartimenduak, solhaskeriak hain uzu dira, non barriatzen baitute arimak ahal dukeien denbora guzia. Eta azkenean hanbat tentazione, errebelu, idurikortasun eta bertze ondore gaixto dakharkete, non bihotz guzia baitago zapaturik eta galdurik. Laburki erraitera, amuruskeria hek desterratzen dute ez xoilki zeruko amorioa, bainan oraino Iainkoaren beldurtasuna, flakatzendute espiritua eta omen ona gutitzen; hitz batez, kortezaleen iokoa, eta bihotz garbien ikurria dire.



## Egiazko adiskidetasunez

### HEMERETZIGARREN KAPITULUA

O Filothea, duzun batbedera maite karitate handizko amorioz; ordea eztezazula adiskidetasunik egin bertuteari ukhitzzen zaizkon gauzez zurekin minza ditezkenek baizen, eta zenbatenaz ederrago eta hobeago izanen baitira zuen artean konpartituko dituzuen bertuteak, hanbatenaz zuen adiskidetasuna izanen da konpliago. Zuen elkharrekiko solahsetan minzo bazarete iakintasunez, zuen adiskidetasuna segur hagitz laudatzeko da, eta are laudatzekoago hari bazarete bertuteez, prudenziaz, diskrezioenez, bortitztasunaz eta iustutasunaz. Baina zuen arteko konpartimenduak egiten badire karitateaz, debozioneaz, eta Gristinoaren perfekzioenez, O Iainkoa, zein prezios izanen da zuen adiskidetasuna! Ekzelenta izanen da, zeren Iainkoa ganik heldu den; ekzelenta, zeren Iainkoa gana doan; ekzelenta, zeren Iainkoa den haren amarra; ekzelenta, zeren sekulakotz iraunen duen Iainkoa baitan: O zein on eta gozo den lurrean elkhar maite izaitea, zeruan direnek elkhar maite duten bezala, eta ikhastea elkhar onetsten mundu hunetan, bertzean batak bertzea sekulakotz onetsiko dugun bezala. Enaiz hemen minzatzten karitatezko amorio simpleaz, zeren hura behar derauegu guziei ekharri; baina minzo naiz adiskidetasun espiritualaz, non bi ezpa hirur arimak edo geiagok batak bertzeari egiten baitiote parte bere debozioneaz, bere afekzione espiritualetan eta espiritu ber bat egiten baitira bere artean. Zein merezi onez kanta ahal dezakete halako arima doatsuek: *Huna zein eder etaon den anaia elkharrekin egoitea!* Bai, zeren debozioneko balsamu gozoa iarieten da bataren bihotzetik bertzearen bihotzera eta ardurako partaletasun batez, hala non erran baititeke Iainkoak adiskidetasun haren gainera isuri duela bere benedizioea eta sekula sekuloronetako bizia.

Badaritzat bertze adiskidetasun guziak ez tirela itzalak eta itxurak baitzen hunen aldean, eta hekin amarrak ez tirela berinazko gathe batzu baizen, debozione sainduaren amarra handi haren aldean, zeina baita guzia urrez egina.

Eztagizula bertze suertezko adiskidetasunik, minzo naiz egiten dituzun adiskidetasunez: zeren ez tira hargatik utzi edo mesprezatu behar naturalazak edo aitzineko eginbideek ordenatzen derauzkitzuten adiski-

detasunak ahaideen, urkhoen, ogi egilleen, hauzokoen eta bertzeen aldean, minzo naiz zeronek hautatzen dituztuz.

Hainitzek erranen derautzute agian eztuzula niholatako afekzione eta adiskidetasun berezirik hartu behar nihoren gana, zeren horrelako tratuak bihotza dadukan amarraturik, espiritua barraitzen duen, inbidiak dakhazken; baina enganatzen dire bere konseilluetan. Ezen, zeren irakurri duten haintz gizon sainduen eta debozionezko eskiribuetan, adiskidetasun espiritualetan eta ohizkanpoko afekzioneek neurrigabeko kalteak ekhartzen derauztela Fraidei, uste dute orobat dela munduan daudezin gainerakoez ere, baina diferentzia handia da; zeren ikusirik Konbentu ongi ordenatutan guziek hartu dutela egiazko debozionearen ardiesteko borondatea, ezta mengoarik halako elkharrekikotasun berezirik egin dezaten, beldurrez guzientzat behar dena beretzat bilhatzen badute, iragan ditezin partiluartasunetarik partitzetara; ordea munduko artean daudezin eta egiazko bertutea besarkatzen dutenez bezanbatean, adiskidetasun saindu eta sakratu baten beharra dute, bata bertzeari lotzeko: zeren hura dela bide elkharri bihotza pitzten diote, elkharri heltzen zaizko, elkhar gonbidatzen dute ongi egitera. Eta nola landa zabalean eta ordokian doazinez ezpaitute premiarik elkharri eskuaz itxekitzeko, baina bai bide pelkharretan eta legunetan direnak elkharri biatatzeko seguratiagi ibiltea gatik; hala konbentuetan daudenek ez tute adiskidetasun partikularen premiarik: baina munduan dabiltzanek hekin beharra dute elkharren alxatzeko eta elkharri heltzeko, hanbat iragan behar duten bide gaitzetan. Munduan ez tute guziek xede bat buruan, ez eta spiritu edo gogo bera: beraz dudagaberik apartatu behar gare, eta norbaite egin behar dugu adiskide berezi eta beregain gure gogoaren arauera, eta partikulartasun hark egiaki bereztura edo apartatze bat egiten du, ordea apartatze saindua, bertzetik berezten edo apartatzen ez tute ongitik gaizkia, ardiatarik ahonzak, erletarik lixtorak baizen, zein baita premiazko bereztasuna eta apartatzea.

Gertuz nihork ezin ukhadezake gure Salbatzailleak amudio begitar-tetsuago eta bereziago batez maite zituela Iondone Ioannis Ebanjelista, Lazaroa, Marta eta Madalena, zeren eskiritura saindua da lekuko. Badakigu Iondone Petrik minberaki eta samurki maite zituela San Marko eta Santa Petronilla, eta Iondone Paulok bere Timotheo eta Santa Thekla. San Gregorio Naziazakoa ehunetan loriatzen da San Basilio handiarekin izan zuen adiskidetasunaz eta bere eskiribuetan hartaz hunela minzo da: Bazirudien arima bat baizen bi gorputz zerabiltzana, behar ez padira zinetsterraiten dutenak gauza guziak gauza guzietan direla, badarik ere zinet-



te eman behar zaizu biok ginela gutrik baten baitan, eta bata ere bertzea baitan; bada gure bion xedea zen bertutearen landatzen eta lantzen haritzea, eta gure bizitze taillua ethorkizuneko esperanzetara ordenatzea, horrela lur hilkor hunetarik ilkhiten ginela, lurtean hil baino lehen. San Augustino da lekuko eta ikusle san Ambrosiok beregainki maite zuela Santa Monika haren baita ikusten zituen paregabeko bertuteak gatik, eta Santa Monikak ordainez onetsten zuela San Ambrosio Iainkoa ganikako Angeru bat bezala.

Ordea huts egiten dut hala zure idukiteaz hain gauza ageriaren gainean. San Hieronymok, S. Augustinok, S. Gregoriok, S. Bernardok, eta Iainkoaren serbitzari handienek adiskidetasun guziz bereziak izan dituzte bere perfekzionari athekarik eta kalterik egin gabe. Iondone Paulok erantzute egiten derauean Jentillei bere gaizki ibilliaz, akusatzen tu bere afekzionegabeaz, erran nahi da, etzutela adiskidetasunik bat ere. Eta San Thomasek Filosofo zuhur guziek bezala, aitortzen du adiskidetasuna dela bertute bat. Bada minzo da adiskidetasun partikularaz, halaz eta, berak dioen bezala, adiskidetasun konplia eta perfeta hainitzetara ezin heda ditekeienaz gerostik. Beraz ezta perfekzione, adiskidetasunik ez izaitea, baina adiskidetasun onik, saildurik, eta sakraturik baizen ez izaitea da perfekzionea.

## Egiazko eta banaloriazko adiskidetasunen arteko diferentziak

### HOGOIGARREN KAPITULUA

Huna bada, ene Filothea, abisu handia. Herakleako eztipozintsuak bertze ezti sendagarri dirudi: peril handia da nihork bata har dezan bertzea delako, edo biak hardetzan nahastaturik, zeren bata on izan gatik, bertzeak kalte egin lezake. Erne egon behar da adiskidetasun hetan ez enganatzko, beregainki gizonen eta emakumeen artean egiten direnean zein ere aitzakia gatik nahi den: zeren hainitzetan Satanek emaiten deraue maite dutenei gambioa. Haste dira bertutezko amoriotik, bainan hagitz zuhur ezpadire, amorio ergela hekin balsan sartuko da, gero sensuezko amorioa, gero haragizko amorioa, bai eta peril da amorio espiritualean ere, guardia onik egiten ezpada, gaitzago delarik amorio espiritualetik bertzetara iragaita, zeren haren garbitasunak eta xuritasunak hobeki agertzen baitu Satanek hartan sar-arazi nahi duen lizunkeria; hartarakotz espiritu likhitz hark halakorik ardietsi nahi duenean artezkiago hari da, eta enseiatzen da lizunkerien sar arastera kasik senti ezteitezkeien bezala.

Munduko adiskidetasuna ezagutuko duzu sailduaren eta bertutezkoaren artean Herakleako ezti bertzearen artean ezagutzen den bezala. Herakleako ezti mihiaren gainean eztiago da ohiko ezti baino, hari eztiatasun geiago emaiten dioen *akonita* daritzon pozoina gatik: munduko adiskidetasunak hainiz hitz eztiaturik atheratzen du mihitik, solhastakeria emeki darabilla hitzto pasionatu batzuek aphaindurik, laudatzen du edertasuna, grazia, apuntasuna, gorputzekoeta spirituko abantailak: ordea adiskidetasun sailduak hitzkuntza garbia eta idekia du, eta ezin lauda dezake bertuteaz eta Iainkoaren graziaz bertzerik, zein baita zimen-du bakhoitza, zeinaren gainean finko baitago. Herakleako eztiak, iretsi denean, burua hara huna darabilla, eta adiskidetasun falsoak ere espiritua lilluratzen du, aleatzen duela nihor, ea kastitatean eta debozionean iarriko denz, aurtiki arazitzen dioela begi dardo afaitaturik, legunik eta uzuegirik eragiten dioela sensuezko balakurik, legegabeko hatzbeherapenik eta nolazpaiteko arrankuririk, zeren ezten onetsia eta maitatua, hura iar-aasten duela ustez hala dagidanzko, bainan estudiaturikako eta amorgarrizko erremangu, apunkeria, muzukeria eta bertze kortezzagabeko trebetasun eta zilhegitasun batzuetan, zeinak baitira aitzin-seinale segurak eta duda-



gabekoak garbitasuna eta ohorea laster erortera doazila: ordea adiskidetasun sailduak eztu begi garbirik eta ohorezkorik baizen, eztu egiten begitarte xahurik eta zilhegizkorik baizen, eztu hatzbeherapenik zerura baizen, eztu arrankuririk, lekhat zeren Iainkoa ezten onetsten, zeinak baitira ohorestasunaren ezin faltatzeko seinaleak. Herakleako eztiak nahasten du bista, eta munduko adiskidetasunak nahasten du iujeamendua, hala non hartaz ukhituak direnek uste baitute ongi egiten dutela gaizki egiten dutelarik, eta baitaritzate bere eskusak, aitzakiak eta hitzak direla egiazko arrazoinak. Argiaren beldur dira, eta ihunbeak maite tuzte: bainan adiskidetasun sianduak begi argiak itu, eta ezta gordetzen; aitzitik gogotik agertzen da jende prestuen aitzinean. Finean Herakleako eztiak khraitasun handi bat emaiten du ahoan; halaber adiskidetasun falsoak azkenean itzultzen dira hitz busteletara eta haragizko galdetara: edo, ukhorik egiten bazaie, gaizki erranetara, gezurretara, falserietara, tristeziatarara, ahalketasunetara eta ielozkortasunetara, zeinak maiz hondatzen baitira aberatsunetan eta errabiamendutan: bainan adiskidetasun garbia bethi orobnat da ohorezko, kortez, amolsu, eta behin ere ezta itzultzen, bihotzetako batasun osoago eta garbiago batetara baizen: zein baita zeruan daudenek bere artean dadukaten adiskidetasun doatsuaren imajina eta seinale bizia.

San Gregorio Nazianzakoak dio ezen Paoa oiuz dagoenean, bere itzul inguruz paoatzen den orduan, hura aditzen duten pao emeak handiro pitzten dituela bere koitasunera. Ikusten denean nihor paoatzen dela eta beregindurik heldu dela emaste edo neskato baten beharrietara hitzkatzera, solhastatzera, legezko ezkontzan sartzeko borondaterik gabe, haladudagaberik eztu halakorik egiten, zenbait lizunkeriarara haren erakhartzeko baizen, eta ohorezko emazteak tapatukotu beharriak, hura artezki inkantatu nahi duen pauo inkantadore haren oiuren eta hitzen ez enzutea gatik: baldin beharria zabaltzen badio, O Iainkoa! zein seinale gaixto den bihotza gero galduko duela.

Jende gazteek darabillatenean erremangurik, gorgoinamendurik, balakurik edo hitzkeriarik, zeinetan ezpailukete nahi aita, amak, senharrik, emazteak edo konfesorak atzeman letzaten, erakusten dute ohorez eta konszienziak bertzerik darabillatela bere artean. Andre Dana Maria izitu zen Angeru baten ikusteaz gizon iduriaren azpian, zeren bera bakharrik baitzegoen, eta hark paregabeko laudorioak emaiten baitziotzan, zerukoak zirelarik. O munduaren Salbatzaillea! gizon iduritako Angeruararen beldur da garbitasuna, zergatik bada garbigabetasuna ezta gizonaren beldur izanen, Angeru iduria balu ere, hura laudatzen duenean gorputzeko eta munduko abantailak gatik?

## Adiskidetasun gaixtoen kontrako abisuak eta erremedioak

### HOGOI ETA BATGARREN KAPITULUA

Ordea zer erremedio amuruskeriazko, erhokeriazko, eta lizunkeriazko kasta eta xinhaurritzen hekin kontra? Hek senti detzaketzun bezain sarri itzul zaite berehala bertze aldera, eta banaloria hartaz osoki arnegatzen duzula, laster egizu Salbatzaillearen gurutzera, harezazu haren aranzeko khoroa, zure bihotzaren hartaz inguratzeko, azeari ume hek urbil eztakizkon gatik. Begirazaite etsai harekin nihola ere deliberatzetik, ezterrazula hura enzunendut, bainan ez tut eginen erranen derautan gauzarik; beharria paratuko diot, baina hersiko diot bihotza. O ene Filothea, Iainkoaren amorez zaude hersi eta garratz halako okasionetan: bihotza eta beharriak elkhari datzeko, eta nola mendi gainetik behera abiatu den uholdea ezin geldi baititeke, halaber gaitz da beharrietan sartu den amorioaren tratatzea bihotzean barrena iaustetik. Ahontzak, Alemeonen erranera, hats hartzen dute beharriez, eta ez sudurraz; egia da Aristotek hori ukhatzen duela: bada hortaz zern den eztakit, bizkitartean ongi dakit gure bihotzak hata hartzen duela beharritik, eta bere pensuak mihiaz klaratzen eta airatzen dituen bezala, halaber bertzeen pensamenduak airearekin batean hartzen dituela beharriaz. Begir detzagun bada artharekin gure beharriak hitz erhoen airetik, zeren bertzela gure bihotzak laster harlezake hekin izurria. Eztezazula niholatako mandaturik enzun, zein ere aitzakia gatik nahi den, kasu hortan xoilki ezta perillik deskortez eta moldegaitz izaitez.

Orhoitzaite zure bihotza Iainkoari botuz eman diozula, eta zure amorioa sakrifiziatu diozunaz gero, sakrilejio lizatekeiela hari hartarik den bihirik edo izpirik edekitez: aitzitik sakrifizia diozozu berriz milla erresoluzionez eta promezez, gero hetan tink eta finko zaudezila, oreina bere azkar-lekuan edo fortan barrena dagoen bezala, oiuegizko Iainkoari: helduko zaitzu eta haren amorioak zurea hartuko du bere gomendioan, harentzat xoilki eta osoki bizi dadintzat.

Baldin iadanik atzeman bazare amudio erho hekin sareetan, O Iainkoa, zein gaitz denhetrik ilkhitea! Iarzaite Iainkoaren maiestatearen aitzinean, haren presenzian ezaguttezazu zure miseriaren handitasuna, zure feblezia eta banaloria, gero bihotzeko ahalik enseiu eta indar han-





dienaz madarikatzatu hasi dituzun amorio hek, arnegazazu hetan banaloriazki eman zaizkitzun promez guziak, eta borondate handi eta oso batez finkazazu zure bihotzean nihoiz ere etzarella geiago bihurtuko amoriozko elhe eta ioko hetara.

Urrun ahal bazindez amorio emaiten deratzuna ganik, hori neurrigabeki laudanezake: zeren nola sugeek ausiki dituztenak ezin errazki senda baititezke ausikidura beraz lehen zaurtu izan direnen presenzian; hala amorioak ausiki duena nekhez sendatuko da pasione hartarik, hartaz ukhitu izan denaren hurbil dagoeno. Leku aldatzea paregabeko erremedio da, dela damuzko dela amoriozko beroduren eta asalduen ematzeko! Morroina, zeintaz minzo baita San Ambrosio penitentiako bigarren liburuan, urrun ibilliz gerotik bihurtu zen erabilli zituen amuruseria erhoetarik osoki libratu, eta hala ganbiaturik non amorante ergelak hura ikusi zuenean eta erraiten zioela: enauk bada ezagutzen? ni nintzen bera nauk hark ihardetsi baitzioen; bai segur, ezagutzen aukat, tordea ni enaun lehen nintzena bera: urruntzeak hura horrela zori onez ganbiatu zuen. San Augustinok ere erraiten du bere adiskidearen herioaz hartu zuen damuaren arintzea gatik, ilkhi zela Tagastatik, hura hil zen lekutik, eta ioan zela Kartagera.

Ordea ezin urrun ditekeienak zer egin behar du? Bada eta ezpada ebaki behar du elkharrereko ibilte berezi edo partikular guzia, gordakako solhas, begiko arraidura, azpitiko irri guzia, eta jeneralki khendu behar du usain gaixtozko eta khegarritzko su hura baska dezakeien elkharganetzen eta pitzkarri guzia: edo geieneko puntura, ezin bertzez minzatu behar badu bere bekhatuaren lankidearekin, minzabekio hari ausartki, laburki, zinetan eta bortitzki deklaratzeko sekulakotz ukho egin dioela tratu lizunari. Gora nagote oiuz amuruserietako saretan erori diren guziei, pika, ebaki, urra: ezta egon behar adiskidetasun erho hekin aphurbana ethentzen, urratu behar dira, hekin iosturak eztira baratxe lexatu behar, hautsi edo pikatu behar dire; berdin handik atera ditezkeien kordoinak eta lokharriak eztira deusetako. Ezta fildarik sobratu behar Iainkozko amorioaren hain kontrako den amorioarentzat.

Ordea esklabotasun itsusi haren gatheak nik hala hausi dituzkedanean, badarik ere zenbait ondore eta sentimendu izanen dut hetaz, eta burdin hekin seinaleak gero ere egonen dira ene oinetan. Ez ez, Filothea, zure gaitzaz merezi duen bezanbat damu hartu baduzu. Zeren hori eginik ezto deusek bertzerik zure gogoa erabilliko, amorio laidozko hartaz eta hartarik pitsten den guziaz etorriko zaitzun neurrigabeko harridurak bai-zen; eta egonen zare largatu dukezun khidearen alderako afekzione guzie-

tarik libratu, lekhat hura Iainkoa gatik onetsiko baituzu karitate guziz garbi batez. Baldin ordea zure urrikimendua eskas izanez oraino zure baitan badago inklinazione gaixtorik, bilha diozozu zure arimari gogoko bakhar-leku bat, lehen irkasi derautzudan bezala, eta hartan sarzaite ahalik maizena eta milla bihotzeko oldarmendu uzuz ukho egiezu zure inklinazione gaixtoei, arnegazazu hetaz zure indar guziez, liburu saindu geiago irakurezazu maizago; minza zaite humilki, garbiki eta klarki horre gainean etorriko zaizkitzun gogoramendu eta tentazione guziez zure gidariarekin, ahal badagizu, edo ezpere bertze arima fidel eta zuhur batekin. Eztagizula dudarik, Iainkoak libratuko zait guthizia gaixto guzietarik, fidelki arduratzen bazare eserziza saindu hetan.

Ah! erranen derautazu, ez othe da eskergabetsun izanen hain urrikalgabeki adiskidetasun baten hautsteaz? O zein zorionezko den Iainkoaren gogarakoak egiten gaituen eskergabetsuna! Ez, Iainkoari esker, Filothea, ezta eskergabetsunik izanen; aitzitik izanen da zure amuruseri eginen diozun ontasun handia: zeren zure amarrak hautsten tutzula, harenak ere hautsiko tutzu, biak orobat amarratuak zinetenaz gerostik, eta hark bere zori ona orduan berean eztakusalarik, hura laster ezagutuko du, eta milla esker emanik zurekin kantatuko du, *O Iauna, hautsituzu ene amarrak, laudoriozko hostia sakrifiziaturiko dut, eta zure izen sainduari gomendio-ko oiuz eginen diot.*





## Bertze abisu batzu adiskidetasunaren gainean

### HOGOI ETA BIGARREN KAPITULUA

Kontuzko abisu bat dut oraino horren gainean. Adiskidetasunak partaletasun handi bat nahi du adiskideen artean, bertzela ezin sort ditekete eta ezin dagoke. Hargatik hainitzetan gertatzen da adiskidetasuneko partaletasunarekin hainitz bertze partaletasun uste gabe iragaiten direla bihotzetik bihotzera bata ordainez eta aldizka bere afekzioak, inklinazioak eta egiteak bertzea baitara isuriz. Guzien gaintik hori gertatzen da, noiz ere onetsten duguna handiro prezatzen baitugu; zeren orduan haren adiskidetasunari hara zabaltzen diogu gure bihotza, non harekin batean haren inklinazioak eta egiteak errazki sartzen baitzaizkigu bihotzean, direla onak, direla gaixtoak. Gertuz, Herakleako eztiak biltzen duten erleek eztute bilhatzen eziaz bertzerik, bainan eztiarekin batean, sentitzen eztutelarik, edoskiten dute akonitaren bertute pozoin-sua, bere eztiaren gaia haren gainean bilduz. O Iainkoa, Filothea, egiteko hunetan itxeki behar diogu gure arimen Salbatzailleak erraiten ohi zuen hitzari, zaharrek irakasi deraukuten bezala; zaretela ganbiador eta dirugille zuhurak, erran nahi da, eztezazuela har diru falsoa diru onarekin, ez eta urre-ondarra urre finarekin: berezizazue preziosa guti etsiaren artetik; bai, zeren ezta nihor kasik zerbait eskas-makhur eztenik. Zer arrazoin da adiskidearen eskasak edo makhurak zure baitan orobat har detzatzun haren adiskidetasunarekin batean? Egiazki hura onetsi behar duzu, bainan haren eskasia eztuzu ez onetsi, ez hartu behar; ezen adiskidetasunak nahi du partale garen elkharren ongian, ez gaizkian. Beraz nola Tageko legarra atheratzen dutenek berezten baitute hartan aurkhitzen duten urrea, berekin eramaiteko, eta harea utzten baitute bazterrean ur hegiaren gainean; hala zenbait adiskidetasun onetan partale direnek handik behar dute eskasien harea apartatu, eta hura eztute utzi behar bere ariman sartzera. Segur, San Gregorio Nazianzakoak erraiten du, hainitzak San Basilio oneritsiz eta miretsiz iarri zirela hark bezala egiten, bere kanpoko eskasietan ere, hura bezala baratxe eta espiritu pisu eta gogoetatsu batez minzaten, hark bezala bizarra ekhartzen, hura bezala bidean ioaiten. Orain ere ikusten dugu senhar, emazte, haur, adiskide batzuk, zeren bere adiskideez, burasoez, senharrez eta emazteez kontu handi dadukaten, milla egiteko manerak tilletsu iauntsten tuztela elkharrekiko adiskidetasunaren tratuetan, edo

elkharri amori eginez, edo bata bertzeak bezala egin nahiz. Bad ezta horrelakorik egin behar nihola ere, zeren batbederak aski itu bere inklinazio gaixtoak, bertzerenak bere gainera hartu gabe; eta adiskidetasunak ez xoilki eztu horrelakorik nahi, aitzitik obligatzen gaitu elkharri ordainez heltzera eta laguntzera bata bertzearen libratzen eskas suertez guzietarik. Dударik gabe emeki behar dugu adiskidea iasan eta pairatu bere makhurretan, ordea hura eztugu hetara eraman behar, eta gutiago oraino behartugu haren eskasiak gure baitara ekharri.

Bainan enaiz minzo eskasiez edo makhurrez baizen: zeren bekhatuez bezanbatean, eztitugu adiskidea baitara ekharri, eta haren baitan pairatu behar. Adiskidetasun flakoa edo gaixtoa da, ikustea adiskidea galtzen dela eta hari ez heltzea, handitsu batez hiltzera doala, eta ez ausartzea haren lehertzera eranzutearen nabalaz haren sendatzeko. Adiskidetasun egiazkoa et abizia ezin dagoke bekhatuen artean. Erraiten da Salamandrak sua iraungitzen duela, hartan etzanez, eta bekhatuak galtzen du adiskidetasuna, hartan ostaratuz: bideazko bekhatua bada, adiskidetasunak hura berehala igorten du ihesi bere eranzunez, bainan trikatzen bada zenbait egunez, berehala adiskidetasuna galtzen da, zeren ezin dagoke egiazko beartutearen gainean baizen: zenbatenaz gutiago bada bekhatu egin behar da adiskidetasuna gatik? Adiskidea etsai da nahi gaituenean bekhatutara eraman, eta merezi du adiskidetasunaren galtzea, nahi duenean adiskidea galdu eta danatu; bai eta adiskidetasun falsoaren seinale segurenatarik bat da, noiz ere egiten eta idukitzen baita presuna biziotsurekin, zein ere bekhatu suertez nahi den. Biziosa bada guk maite duguna, duda gabe gure adiskidetasuna biziosa da: zeren egiazko bertuteari ezin beha diozozke onaz gero, bada eta ezpada behatu behar du zerbait bertute egelera eta zerbait ontasun sensualera.

Merkatarien artean munduko probetxua gatik egiten den tratua edo batzarrea ezta egiazko adiskidetasunaren figura baizen, zeren egiten baita ez elkhar maitez, bainan irabasia hutsa gatik.

Finean Iainkozko bi hitz hauk bi arroin handi dira girstinozko bizi-tzearen ongi seguratzeko; bata da zuhurak errana: *Nor ere Iainkoaren beldur baita, hark izanen du ere adiskidetasun ona*. Bertzea da Iondone Iakuarena: *Mundu hunetako adiskidetasuna, Iainkoaren etsaia da*.



## Kanpoko mortifikazioneko eserzizez

### HOGOI ETA HIRURGARREN KAPITULUA

Larretako eta landetako gauzez minzo direnek segurutzen gaituzte nihork eskiribatzen badu zenbait hitz armendodola oso baten gainean, eta hura berriz ezartzen badu bere azalean edo hezurrean, eta landatzen badu ongi plegaturik eta serraturik, hartarik sortuko den arbolaren fruitu guziak izanen duela hitz hura bere baitan eskiribatua, eta inprimatua. Nitaz bezanbat, Filothea, egundaino ezin ederetsi dut gizonaren hobertzea gatik, kanpoko gauzetarik, erremagnetarik, tresnetarik, illetarik, xirloetarik hasten direnen antzea eta manera.

Aitzitik iduri dagot hasi behar dela barrenetik: *Bihur zaitzte ene gana zuen bihotz guziaz*, dio Iainkoak. *Ene haurra indazu zure bihotza*. Zeren nola bihotza akzioneer ithurburua baita, nolakoa baita bihotza halakoak dire akzioneer ere. Espos sakratuak gonbidatzen duenean arima: *Eman nazazu*, diotsa, *kaxeta bat bezala zure bihotzaren gainean, kaxeta bat bezala zure besoaren gainean*. Bai gertuz, ezen, nork ere Iesus baitaduka bere bihotzean, hark gero hura laster du bere kanpoko obra guzietan. Hargatik, Filothe maitea, gauza guziak baino lehen, zure bihotzaren gainean eskiribatu nahi izandut hitz saindu eta sakratu hau: Bizi dadilla Iesus, segur bainaiz, armendolondoa bere hezurretik sortzen den bezala, zure bihotzetik duzun biziak ekharriko dituela bere akzioneer guziak, zeinak baitira haren fruituak, salbamenduzko hitz hortaz beraz eskiribatutik eta nprimaturik, ta nola Iesus maite hura biziko baita zure bihotzean, biziko dela halaber zure erremango guzietan, eta ageriko delaware begietan, ahoan, eskuetan, bai eta illeetan, eta sainduki erranen ahal duzula Iondone Paulok bezala, *Ni bizi naiz, aitzitik ez ni geiago, baina Iesus bizi da ene baitan*. Hitz batez, nork ere irabasi baitu gizonaren bihotza, gizona osoki irabasi du. Ordea bihotz hark berak, zeintarik hasi nahi baitugu, nahi du irakhasdiozogun nola bere kanpoko iartea eta ibiltea moldatu behar duen: arren hartan ez xoilki deboziora saindua, bainan oraino zuzurria eta disereziora handi bat ikus dadintzat. Hartarakotz hainitz abisu laburki emaitera noatzu.

Barura paira badezakezu, ongi eginen duzu zenbait egunez barurtzeaz, Elizak manutzen dituen barurez lekhora; zeren, bertze alde dela baruraren ordinariorako obra, zein baita espiritua goiti alxatzea, haragiaren hezte, bertuteari iarraitzea, eta zeruan sari eta golardo handiagorik

ardietstea, ontasun handia da bethi nausi izaitea sabelaren edo gormandizaren hersteke, eta guthizia sensualaren eta gorputzaren iar arasteke espirituren legearen azpian; eta hainitz barur egiten eztugularik, badarik ere etsaia gure beldurrago da ezagutzen duenean badakigula barurtzen. Asteazkena, orziralea eta larunbata dira egunak, zeinetan lehenagoko Girstinoak geiago barurtzen bitziren. Harezazu bada egun hetarik barurtzeko, deboziora eta zure gidariaren diskrezioarak konseillu emanen derautzuten arauera.

Gogotik erran nezake San Hieronimok Leta Andre prestuari erran zioen bezala, *Barur luzeak eta hersiegak xoil desgogara zaizkit, guzien gainetik adin samurrean edo gastean oraino daudenetan*. Frogaturik ikhasi dut Astokumea bidean unhatua denean bilha dabillala nora aparta: erran nahi da, jende gazteak sobera barurtuz erbalduak errazki bihurtzen dira gauza gozoetara. orenek nekhez egiten dute laster bi sasoinetan, gizenegi eta argaleki direnean. Hagitz idekiak gare tentaziora gure gorputza sobera sendo, eta sobera flako denean; zeren bere aisiak itunean ergeltzen da, eta ezitunean etsitzen du. Eta nola hura ezin baitaramakegu gizenegi denean, hala ere hark ezin garamatzake argalegi denean. Neurria ez idukiz baruretan, disziplinetan, ziliziotan, sedazko athorretan, gerrikoetan eta garratztasunetan hainitzen urthe hoberenak ezdeusetakotzen dira Iainkoaren eta lagunaren serbitzuko, San Bernardo berari egin zeikan bezala, urrikitu baitzitzaion bere leheneko garratzegi izanaz. Halakoek zenbatena gaizkiago erabilli baitute bere gorputza lehenbizian, nahi eztutelarik hura behar dute azkenean lausengatu. Ez othe zuketen hobeiki egin hura berdinki errekaitatu balute bere bizitze thailuak emaiten zerausten ofizioen eta traillaunen eredura?

Barurak eta traillaunak haragia sebatzen dute eta azpiratzen. Eginen duzun traillauna premiazko bada eta hagitz ona Iainkoaren loriaren aitzinatzeke, nahiago dut paira dezazun traillaunen pena, barurarena baino. Elizaren sentimendua da, zeinak Iainkoaren eta lagunaren serbitzuko behar diren traillaunetan hari direnak hargatik libratzen baititu baruretarik, manatuak badira ere. Bata penatzen da barurtzeaz, bertzea erien serbitzateaz, garzelatuen bisitateaz, konfesateaz, predikateaz, deskonsoleatuei heltzeaz, othoitzeaz, eta bertze horrelakorik egiteaz; pena hark geiago balio du barurarenak baino, zeren bertze alde dela, orobat nekhatzen duela hagitz fruitu desiratzekoagorik ekhartendu. Halakotz jeneraliki minzatzera, hobe da gorputzari indar geiago emaita premia duen baino, ezen ez hari geiago edekitea behar den baino. Zeren bethi indarrak noiz nahi ebaki dakidizkeo, ordea bethi ezin bihur ditezke noiz nahi.



Iduri dagot erreberentzia handitan iduki behar dugula Jesus gure salbatzailleak eta libratzailleak bere diszipuluei erran zerauen hitza, *Ianezazue aitzinera emanen zaitzuenetik*. Bertute handiago da, ene zinetstez, presentatzen zaitzuetatik hautatu gabe, eta presentatzen den bezala itatea, lehen lehenik, azkena azkenik, zure gustura delarik, edo eztelarik, ezen ez gutien on dena bethi hautatzea. Zeren dirudielarik bizitzeko azken manera hori hersiago dela, badarik ere bertzea iarriago da orobatasunean, ezen, hartaz ez xoilki ukho egiten diogu gure gustuari ere; eta ezta hersitasun xipia gure gustua alde guzietara itzultzea, eta haren idukitea azpiko heldu diren inkontruetan. Geiago da oraino, zeren mortifikazio-ne suerte hura ezta bat ere ageri, eztio nihori traburik emaiten, eta xoil dagoka jendeen arteko bizitzeari. Iaki baten gibelatzea bertzearen hartzea gatik, gauza guziak erhi puntez erabiltea, ganbetaz arraskatzea, deusik behin ere ez kausitzea ongi aphaindurik edo garbirik, ahamen guzietan misterio egitea, bihotz umu, malgu, flako, platetara erne eta emana baten seinalea da. Kontu geiago egiten dut zeren San Bernardok olio edan zuen, ura edo arnoa zelakotz, absinthiozko urik iakiara eta bere oldez edan balu baino, ezen seinale zen etzuela gogoan zer edaten zuen. Ez axola izaitea zer ian eta zer edan, da perfekzionerekin hitz sakratu hunen konplitzea; *Ianezazue aitzinera emanen ziatuzena*. Guziarekin ere lekhatzentut osasunari kalte egiten dioten, eta espirituia ere tratatzenduten iakiak, nolako kalte eta trabu hainitzi egiten baitiote ianhari beroek espeziatuek, khe, lanbo eta haizegarriek, nauturalezak beharra duenean alegeratzeko, arintzeko eta indar hartzeko, zerbait lan Iainkoaren loriatan egitea gatik. Ardura eta neurritz guti aitea hobe da hainitz ordutako barur hersiegiak diren baino, btaren eta bertzearen artean largamendu hanbdirik eta soberaniarik egiten denean.

Disziplinak bertute miragarri bat du debozionario aphetituairen iratzartzeko, neurritz hartzen bada. Sedazko athorrak hagitz sebatzen du gorputza, bainan hartaz usatzea, ordinarioki eztagote ezkonduerik, gorputz delikatua dutenei, ez eta bertze pena handirik iasan behar dutenei. Egia da penitentziatzeko egun seinalatuetan iaunts ditekeiela Konfesor zuhur baten konseilluz.

Gauek hartu behar da lo egiteko, bat-bederaren indarren arauera, behar den bezanbat, gero egunaz ongi eta probetxurekin zein bere lanean erneki haritzeko. Eta zeren ehun maneraz Eskiritura sainduak, Sainduen exenpluek, eta arrazoinak berak handiro gomendatzen baiterauzkigute goiztirak gure egunetako parte hoberenak eta fruitutsuenak bezala; zeren oraino gure Salbatzaillea bera deitzen baita goizeko iguzkia, eta Andre

Dana Maria argi alba, uste dut bertutezko artha dela muga onez lotara ioaitea, goiz onez iratzartzeko eta iaikiteko. Gertuz denbora hura arraigo da, emeago eta gutiago nahasia; xoriek berek orduan atzartzen gaituzte iaikitera eta Iainkoari laudorio emaitera, hala non goiz iaikitea ona baita sendo eta saindu izaiteko.

Balaam bere asto-emearen gainean ikhanik Balaken aurkitzera zioan, zeren ordea ezpaitzuen intenzione xuxena, Angeru bat egon zen bidean haren begira, espata eskuan zedukala haren hiltzeko: astoa hiruretan gelditu zen Angerua ikusirik, gibelatsu bezala: bizkitartean Balaamek hura makhillaz bortitzki zehatzen zuen haren abia arazitzeke, hala non hirur-garren zeha aldiari Balaamen azpian eroririk mirakuillu handiz minzatu baitzitaion, ziotsala; *Zergatik derautzut, zergatik zehatu nauzu iadanik hiruretan?* Eta handik laster begiak ideki zitzaizko Balaami, eta ikusi zuen Angerua, erraiten zioela: *Zergatik zehatu duzu zure astoa? itzuli ezpaliz ene aitzinetik hillen zinitudan, eta hura utziko nuen bizirik*. Orduan Balaamek erran zioen Angeruari: *Iauna, bekhatu egin dut, zeren eneakien ene kontra iarten zinela bidean*. Ikustenduzu, Filothea? Balaamek du falta, eta zehatzen du bere asto gaizoa hobetik ezteuelarik. Horrela maiz gertatzen zaiku gure egitekoetan: zeren emazte hark ikusten du bere senharra edo haurra eriturik, eta berehala iarten da barur egiten, sedazko gerrikoaren iauntsten, bere gorputzaren azotatzen eta zinganatzen, Dabitek egin zuen bezala, gauza bera gatik: helaz! adiskide maitea, asto gaizoa zehatzen duzu, zure gorputza gaizki darabillazu, eta ezta hobetik, zure gaitza ezta haren ganik heldu, Iainkoak ezta duka huragatik espata zure gainean billusirik. Xuxenezazu zure bihotza senhar hura Iainkotzat dadukana, haurra milla biziotara zilhegitzen zuena eta urguillukeriara, banaloriara, eta handi nahitasunera zeramana. Badakusa gizon batek maiz itsuski erorten dela haragizko bekhatutan: barreneko liskarra heldu zaio espata eskuan konszienziaren kontra, hare iragaiteko beldurtasun saindu batez. Eta berehala haren bihotza bere gana bihurturik: ah! haragi traidorea, dio, ah! gorputz falsoa, saldu nauzu. Eta horra non iarten den kolpe handiz haragi haren azotatzen, legerik ez tuten baruren egiten, neurrigabeko isziplinen hartzen, ezin pairatzeko athorra sedazkorik iauntsten. O arima gaizoa, zure haragia minza ahal baledi Balaamen astoa bezala, erran liazakezu: ondikozkoa, zergatik zehatzen nauzu? zure kontra, O ene arima, zure kontra Iainkoak armatzen du bere mendekua, zu zare hobenduria: zergatik naramazu jendarte gaixtoetara? zergatik ene begiak, ene eskuak, ene espainak sartzen tutzu lizunkerieta? zergatik nahasten nauzu gogogarri itsusiez? Egizu gogoeta onik, eta ezta eragintza gaixtorik izanen. Zabiltza garbie-



kin, eta ene guthiziadurak enau akometatuko. Helaz! zuk egoitsen nauzu sutara, eta eztuzu nahi erre nadin. Khea ekahrten derautazu begietara, eta eztuzu nahi irazeki ditezin. ETa duda gabarik Iainkoak kasu hetan eraiten derautzu; zeha, hautz, arrailla, porokatzatzue zuen bihotzak prinzipalki, zeren hekin kontra beregainki haserre da ene kolera. Segur hatsaren sendatzeko ezta hanbat premia mainatzeko eta garbitzeko, nola odolaren atheratzeko eta herraien freskatzeko: hala gure bizioetarik sendatzeko, on da egiazki haragiaren sebatzea, ordea guzien gainetik behar dira gure afekzioeak garbitu eta bihotzak freskatu: bada zer ere eta zertan ere nahi den ezta niholatan gorputzeko penitentzia garratsik hartu behar gure gidariaren konseilluz baizen.

## Jendarteko ibilteez eta bakhar-egoiteaz

### HOGOI ETA LAUGARREN KAPITULUA

Konpainien bilha ibiltea, eta hetarik ihez egitea bi gauza dire bata bertetik urrun direnak, eta minzo natzaitzun debozione kortesean gaizki erraitekoak. Konpainietarik ihesi doanak erakusten du laguna higoin-tzen zaiola eta hura mesprezatzan duela, eta konpainien bilha dabillanak aditzera emaiten du alfer dagoela, eta egitekorik eztuela. maite behar duzu laguna zure burua bezala; bada erakusteko, hura maite duzula, etzaitzko ioan behar ihesi haren konpainiari, eta erakusteko zure burua maite duzula, zure baitan zaudenean, han egon behar duzu. Bada zure baitan zaude bakharri zaudezinean. *Orhoitzaite zure buruaz*, dio San Bernardok, *eta gero berteez*. Beraz deusek khexatzen ezpazaitu konpainietara ioaitera, edo konpainiarik etxean hartzera, zaude zure baitan, eta solhas egizu zure bihotzarekin. Ordea konpainia heldu bazaitzu, edo zenbait arrazoinak gonbidatzen bazaitu bertzetara ioaitera, zoaz Iainkoarekin, Filothea, eta ikuzazu zure laguna bihotz eta begi onez.

Erraiten ohi da konpainia gaixtoak direla zenbait intenzione gaixtoz egiten direnak: edo hetan sartzen direnak biziosak, ergelak eta ahalkega-beak direnean: hetarik apartatu behar da, erleak lixtorren eta abeen ozte-tik egiten diren bezala. Ezen nola ozar errabiatuez ausiki izan direnen izerdia, hatsa eta ahagozua perillosa baita, eta beregainki haurrentzat eta gorputz delikatua dutenentzat: hala eztiteke konpartimendurik jende bizios eta desordenatu hekin artean perillekin baizen, behintzat debozione oraino berria eta minbera dutenentzat.

Badira konpainiak bertze deusetako on eztirenak xoilki buruaren alegeratzeko eta tinkhezko lanetarik edo egitekoetarik arintzeko baizen. Hetaz bezanbatean, nola ezpaitzaie itxeki behar, hala ere eman dakidikeie alegeratzeko ordenatu den denbora.

Bertze konpainiek ohoretzasuna dute xedetzat, nolakoak baitira elkharren bisitak, eta lagunaren ohoratzeko egiten diren biltzarre batzu. Hetaz bezanbat, nola ezpaita hetan arduratu behar, hutsik baliz bezala hekin utzteaz, eztira ere deskorteski mesprezatu behar, baina modestiarekin egin behar da hekin alderako eginbidea, larre eta xori buru ez izaitea gatik.



Gainerakoak dire arimaren probetxuko konpainiak, nolakoak baitire presuna debotenak eta bertutetsuenak. O Filothea! bethi re zuretzat ontasun handi bt izanen da maiz halakorik kausitzea. Azitunondoan artean landatua den mahaztiak iasaitentu mahatz gizenak eta azitunen gozoa dutenak, bertutetsuekin maiz dabillan arima ezin dagoke hek bezalakoa egin gabe. Lixtorrek, berak diren bezala, ezin egin dezakete ezirik, bainan erleekin batean elkarri heltzen zaizko ezti egiten. Debozioanean ongi iarteko eta haritzeko abantail handia da guretzat, arima debotekin ibiltea.

Elkharganatzte guzietan bihotz idekia, trebea, sinplea, emea eta modesta bethi da abantailatuena: badira nihola ere iarten, iaikiten, eta higitzen ezitrenak, ezpada hanbat artifizioekin non guziak unhatzen baitituzte. Eta nola behin ere urrats kontatuz baizen pasajeatu, edo kantaz baizen minzatu nahi elukeienak fastika bailetzake bertzeak, halaber artificiozko erremangu dadukatenek, eta deusik egiten ezituenek kondatuz eta pisatuz baizen neurrigabeki unhatzen dute konpainia: eta jende molde hetan bada bethiere zeinbait urguillukeria. Neurrizko alegrianza behar ohi da aitzin-nausi iarri gure konpartimenduetan. San Erromualdo eta San Antonio paregabeki laudatzen dira zeren begitarrea eta hitza baitzuten bozkarioz, arraitasunaz eta kortesiaz bethea, bere buruaren aldera guziz hersiak eta garratsak zirelarik. *Alegera zaite alegerekin:* Berriz ere erraiten derautzut Apostoluarekin, *zarella bethi alegera, baina gure launa baitn eta zure modestia biz ageria guzien aitzinean.* Gure Iauna baitan alegera zaitezintzat zerk ere emaiten baiterautzu alegeratzekorik, hura behar da ez xoilki sori, bainan eta ohorezko izan: hala diot, zeren gauza batzu sori dire, zeinak bizkitartean ezpaitire ohorezkoak, eta zure modestia ager dadintzat, begirazaite bethi dudarik gabe gaizki erraitekoak diren ahalkegaberietarik. Bataren eror arazitzea, bertzearen beltztea, aldekoaren ximikatzea, erho bati min egitea, irri eta alegrianza erhoak eta ahalkegabekoak dire.

Ordea bethiere gogoan barreneko bakhar-egokiaz lekhora, zeinetan sar baitzaitezke, konpainia handietan bazara ere; lehen erran dudan bezala; atsegin hartu behar duzu leku apartean gorputzez egoiteaz, ez ioaiteko desertuetara, Santa Maria Egipziena, S Paulo, San Antonio, Arsenio eta bertze Ermitau zaharrak bezala, bainan aphur bat egoiteko zure gelan, zure baratsean, edo nonbait bertzetan, arren gogotikago zure espiritua ekhar dezazun zure bihotzera, eta zure arima alegera dezazun zenbait gogeta onez eta sainduz, edo zenbiat liburu onik aphur bat irakurriz, Nazianzako Ipizpiku handiak egiten zuen bezala; erraiten baitzuen bere buruaz minzo zela: *Pasajetan nenbillan neroni neure buruarekin Iguzkia sartzerakoan, eta denbora iragaiten nune itsasoaren bazterretan, zeren alegeramendu hura*

*konstumatu dut neure buruaren largatzeko eta ohiko egunorozko unhadurez aphur bat arintzeka.* Eta horren gainean minzo da egin zuen gogoeta onaz, lehen erran derautzudan bezala. Egingen duzu oraino San Ambrosio mirailtzat harturik: hartaz erraiten baitu San augustinok ezen hainitzetan sartu zela haren ganbaran (zeren etzitzaion nihori hersten) eta beha zegokala nola irakurtzen zuen, eta aphur bat egonez gero haren begira, bihurtzen zela hitzik erran gabe hari traburik egiteko beldurez, konsideraturik Arzain handi hari sobratzen zitzaion ephe labur hura bere espirituari indar berri-rik emaiteko, eta haren largatzeko hanbat egitekotarik etzitzaiola eraman behar. Hala egun batez Apostoluek gure Salbatzaileari erran ziotenean nola predikatu eta hainitz gauza egin zuten, hark erran zerauen: *zatozte bakhar lekura eta pausazazue aphur bat.*





## Tresnen ederkitasunaz

### HOGOI ETA BORTZGARREN KAPITULUA

Iondone Paulok nahi du emazte debotak (orobat erran behar da gizona) ibil ditezila hei dagozten bezalako arropaz ederki bestiturik gogo garbirekin eta soberaniarik gabe.

Bada aldagarrien eta bertze trenen ederkitasuna heldu da estofatik, mol-detik eta xahutasunetik. Xahutasunaz bezanbatean, hura bethi kasik berdin iduki behar da gure arropetan, eta ahal badaidigu, eztugu kutsurik edo lizunik bat ere utzi behar hekin gainean. Kanpoko xahutasunak nolazbait seinalatzen du barreneko garbitasuna eta ohorea. Iainkoak berak gorputzeko garbitasuna nahi du haren aldaretara hurgiltzen diren eta debozio-neaz kargu prinzipala dadukaten gizonetan.

Arropen gaiaz eta moldeaz bezanbat, hekin ederkitasuna hainitz aldetarik konsideratzen da, denborari, adinari, graduari, konpainiei, okasionei behaturik. Ordinarioki nihor ederkiago preparatzen da besta egunetan, eta are hobeki besta buruetan. Penitenziatzko denboran, nola Garizuman, hagitz beharago iarten da: esteietan estei arropak iauntsten tu, eta doluzkoak ahukuetan: Prinzeen aitzinean alxatzen du bere estatua, eta etxekoen artean hura behehitu behar du. Emazte eskonduak bere burua ederki iduki dezake, eta behar du ere, bere senharraren aitzinean, hark hala nahi duenean. Orobat egiten badu senharra kanpoan denean, galdeginen zaio noren begiak nahi dituen faboratu artha partikular hortaz. Edergaillu geiago utzten zaie ezkongaei, zeren zilhegiki desidera dezakete hainitzi eder izaiteko, hala egiten ez tutelarik, xoilki eskontza saildu batez espos baten irauasteko borondaterekin baizen. Halaber nihork eztu gaizki hartzen berriz eskondu nahi duten alhargunak nolazbait apuntzen badire, baldin ergelkeriarik erakusten ezpadute; zeren nola iadanik etxeko andre izan baitira eta alhargun-dolua iragan baitute, nor nahik uste du brua dadukatela pausatua eta zuhurra. Ordea gorputzez bezala bihotzez ere egiazki alhargun direnez bezanbatean, hei eztagote bertze edergarririk humiltasuna, modestia eta debozionea baizen: zeren nahi baderauezate gizoni amoriorik eman, eztira egiazko alhargunak; eta egiazko alhargunak ezpadira, eta nahi ezpadiote nihori amoriorik eman, zertako darailtate amoriogarrizko sukaiak eta errementak? Arrotsik ostatu nahi ez tuenak khendu behar du arramua edo seinalea bere etxetik.

Bethi trufa egiten da zaharrez nahi dutenean berregindurik ibilli; erhoke-ria hura ezin paira diteke gaztetan baizen.

Zabiltza ederki, Filothea, ez utz zure gainean pertalezko gauzarik eta ongi eztagoenik. Norekin ere baitzabiltza, hura mesprezatzen duzu haren konpainian bazaude itsuski bestiturik: ordea begira zaite afaitadura, banaloria, kuriostasun eta ergelkeria guzietarik. Zaude bethiere, ahal bezanbat, sinpletasunaren eta modestiaren alde, zein baita duda gabe edergarririk handiena eder direnentzat, eta eskusarik hoberena eder ez tinentzat. Iondone Petrik emazte gazteak prinzipalki abisatzen tu, buruko illeak ez tizatela ekhar horreinbat ixurturik, komaturik, biribildurik, eta suge gisa korapillaturik. Hain umu eta flako diren gizonak non ederkeria hetan denbora galtzen baitute, leku guzietan aiphatzen dira erdi gizon eta erdi emakume balite bezala. Eta emazte banaloriatsuez erraiten ohi da bere kastatean eta ohorean floxak eta flakoak direla: ezpere baldin kastitaterik badute, hura ezin ezagut diteke hanbat nahasgarriren eta fitzkeriaren artean. Erraiten omen dute, hortan ez tute deus gaizkirik pensatzen; baina nik berriz diot, lehen ere erran dudan bezala, deabruak halako gauzetan bethi zerbait gaizki pensatzen duela. Nitaz bezanbatean, nahi nuke ene debota, dela gizon, dela emakume, bethi bere konpainiako guziak baino obeki bestitua lizen, ordea ponpiresun eta afaitadura gutiagorekin: eta errefauetan errana den bezala, aphareillatua lizen graziaz, ederkitasunaz, eta mereziez. San Luis Franziaiko Erregeak hitz batez trinkatzen du, batbedera behar dela bestitu bere graduaren eta estatuaren eredura, hala non zuhurrek eta prestuek ezin erran dezaketen, sobera egiten duzu, ez eta gazteek, gutiegi egiten duzu. Baina kasu emanik gazteek ez tute nahi-ko ederkitasunaz kontentatu, egon behar da zuhurren erranetan.





## Minzatzeaz, eta lehenik nola minzatu behar den Iainkoaz

### HOGOI ETA SEIGARREN KAPITULUA

Midikuek ezagutza handi hartzen dute gizonaren osasunaz edo ertasunaz haren mihia ikusiz, eta gure hitzak dira egiazko seinaleak erakusteko nola eta zerta iarriak diren gure arimak. *Zure hitzez*, dio gure Salbatzaillak, *justu erakusiren zare, eta zure hitzez kondenaturen*. Eskua berehala ekhartzen dugu minik sentitzen dugu lekura, eta mihia maite dugun gauzara.

Beraz Iainkoa hagitz maite, baduzu Filothea, maiz minzatuko zare Iainkoaz zure etxeokoen, adiskidekin eta hauzokoen eginen dituzun solhas familieretan. Bai segur: *zere iustuaren ahoak zuhurzia erabilliko du gogon, eta haren mihiak iujeamendua aiphatuko du*. Eta nola erleek bere mokoxoaz ezpaitute erabilten eta berezten ezti az bertzerik, hala zure mihia bethi bere Iainkoaz eztiztaturen da, eta eztu gozo handiagorik izanen sentitzeaz baino zure ezpainetarik iarieten direla haren izen sainduaren laudorioak eta benedizinoak, San Franzesez erraiten den bezala, Iesus izen sakratua aiphatzen zuenean, bere espainak edoskiten zituela eta limikatzen, munduko eztitasunik, handiena hetarik atheratzeko bezala.

Ordea bethi Iainkoaz minzazate, Iainkoaz bezala, erran nahi da, erreberenziarekin eta debozionerekin: ez; zure burua egiten duzula iakin-sun eta predikari, bainan espiritu eme, karitatetsu eta humil batekin debozionezko eta Iainkozko gauzen ezt gozoa emero isurtzen duzula xortaka, batean bataren, bertzean bertzearen beharrietara, Kantikhetan Espos Andream erraiten den bezala: Iainkoari zure bihotzean barrena othoitzez zagotzala plazer duela ihinza saindu hura enzuten zaituztenen bihotzeraino sararazi.

Guzien gainetik Angeruzko ofizio hura egin behar da eztiki eta gozoki, ez eranzule gisa, bainan inspirazinoz bezala; zeren gauza miragarria da, zein hamu eta beitha botheretsu den bihotzen erakartzeko, zerbait onez mansoki eta emeki bertzeekin minzatzea.

Beraz ez sekulan minza Iainkoaz hala dagidanz, elhe gisa eta solhas egin nahiz bezala; bainan hartaz minza zaite bethi zinetan eta debozionerekin. Horrela minzo natzaitzu zure libratzeko hainitzen baitan kausitzen den banaloria seinalatu batetarik: zeinek bere burua debozionean nausi

baitadukate, eta ordu, bai leku guzietan hainitz hitz saindu eta pitzgarrizko erraiten baitute solhasak dakharkeien bezala, hetan gogoa ezadukate-larik batere. Eta hitz eder hek erranez gero uste dute nolakoak baitira hitzak, berak ere halakoak direla; bizkitartean ezta egia.



## Hitze ohoretasunaz, eta batbederari zor zaion errespetuaz

### HOGOI ETA ZAZPIGARREN KAPITULUA

*Nihork hitzez egiten ezpadu bekhaturik*, dio Iondone Iakuak, *hura da gizon konplia*. Begira zaite erneki hitz itsusirik bat ere atheratzetik: zeren halakorik erraite eztuzularik intenzione gaixtoz, badarik ere enzuten dutenek bertzela hardezakete. Hitz itsusia bihotz flako batetan eroririk, hedatzen eta barraiatzen da olio xorta oialaren gainean bezala, eta batzutan bihotzean hala sartzen da, non hura bethetzen baitu milla haragizko gogoramenduz eta pitzgarriz. Ezen gorputzeko pozoina ahotik sartzen den bezala, bihotzeko pozoina ere beharritik sartzen da, eta hura ekhartzen duen mihia hiltzaille da, zeren hark aurtikhi duen pozoinak bere kolpea kasuz egin eztuelarik, enzuleen bihotzak zenbait kontrapoizne borthitzuak izanez, guziarekin ere ezta haren falta izan zeren eztituen hil. Eta nihork ezterradiazadala halakorik eztuela gogoan, zeren gogoaren berriak dakizkien salbatzailleak erraiten du, *mihia minzo dela, bihotzak gaindi eginez*. Eta gogo gaixtorik eztugularik, badarik ere gaixtoak hainitz gaizki pensatzen du, eta bethi hitz gaixto hetaz ixilik baliatzen da norbaiten bihotzaren iragaiteko. Erraiten da *Anjelika* daritzon belhar batetarik ian dutenek bethi hatsa dutela ezti, plazent eta gozo, halaber ohoretasuna eta kastitatea, zein baita angeruzko bertutea, bihotzean dadukatenek, hitzak ituzte bethi garbiak, kortesak eta ohoretzkoak. Gauza itsusiez eta erhoez bezanbatean, apostoluak eztu nahi aipha ditezin ere, segurutzen gaituela *deusek ere eztituela aztura onak hala gaixtatzen, nola solhas gaixtoek*.

Hitz lizunak estaliki, sotilki eta artezki erraiten badira, neurrigabeki dira pozoinuagoak; ezen nola zenbatenaz dardo bat zorrotzago baita, hanbatenaz errazkiago sartzen baita gure gorputzetan, halaber zenbatenaz hitz gaixto bat artezago baita, hanbatenaz iragaitenago da gure bihotzetan. Eta uste dutenek gizon fetxo direla, halako hitzik konbersazionean erranez, ezta kite zertako eginak diren konbersazioneak; zeren bildu behr dira, erle-elzoak bezala, eztiaren atheratzeko zenbait konpartimendu amolusitik eta bertutezkotik, ez ordea deus usteldurik edozkiteko, elkharaganatzen diren lixtafinen ozteak egiten duen bezala. Zenbait rehok erraiten baderautzu eder ezten hitzik, erakusazu zure beharriak ofensatuak

direla, edo bertzetara itzultzen zarela, edo zerbait bertzez, zure zuhurtziak irakhasiko derautzun arauera.

Espiritu batek ahal dituzkeien kondizione gaixtoenatarik bat, da, burlari izaitea Iainkoak bizio hura neurrigabeki gaitzesten du eta hartaz ezin erran ditezkeien bezalako gastiguak egin izantu. Deus ere ezta hala iarria karitatearen eta geiago are debozionatearen kontra, nola lagunaren mesprezioa eta gutimendua. Bada lagunaz egiten den burlakeria eta irria ezta nihoiz ere egiten mesprezio hura gabe; hargatik bekhatu hagitz handia da, hala non Dotorek arrazoin baitute erraiteko, burlakeria dela lagunari hiutzez egin dakidizkeon ofensa eta bidegabe guzietarik gaixtoena; zeren zerbait bertze maneraz nihork nihor ofensatzen duenean zerbait kontutan daduka ofensatzen duena, baina burlakeriak ofensatzen du mespreziorekin eta gutimendurekin.

Ordea hitzezko iokoez bezanbatean, zeinak egiten baitira batz edo bertzeaz bozkario eta arraitasun emerekin, hek *Eutrapelia* daritzon bertuteari dagote; guk hari *konbersazione onaren* izena eman diozokegu eta hitz alegera hetaz errekreazione honesta eta amolsua hartzen dugu batbederaren eskas makurrek emaiten dituzten fitsezko okasioneen gainean. Xoilki begiratu behar gare arraitasun kortes hartarik burlatasunera iragaitetik. Bada burlatzeak ertxatzen gaitu lagunaz irri egitera hura mesprezatuz eta mendreetsiz; baina arraitasunak eta dostaketak irri eragiten derauku libertate lano, fidanza garbi, eta largotasun familier batez zenbait hitzezko sotilleziarekin. San Luisek, barazkan-ondoan fraideak gauza goiez minzatu nahi zitzaizkonean, *ezta ordua*, ziosten, *horrelakoez minzatzeko, baina zenbait hitz iokolariz eta dostailluz alegertzeko, berra batbederak nahi duena korteski*. Hori erraiten zuen bere aitonon semeak faboratzea gatik, zeinak haren aldean baitzeudezin zenbait begitarte izaiteko haren maiestatea ganik. Zer ere baita, Filothea, hala iragan dezagun denbora dostaketez, non eternitate saindua begira dezagun debozioneaz.



## Jujeamendu arinez

# HOGOI ETA ZORTZIGARREN KAPITULUA

*Eztezazuela nihork iujea, eta etzarete iujeaturen*, dio gure arimen salbatzailleak. *Eztezazuela nihor kondena, eta etzarete kondenaturen*. Ez, dio apostolu sainduak, *eztezazuela iujea, denbora baino lehen, Iauna datorren artea, hark agertuko du ilhunbetako sekeretua eta bihotzetako konseilluak erakusiko tu*. O zein desgogara zaizkon Iainkoari iujeamendu arinak! Arinak dire gizonkumeen iujeamenduak zeren eztira bata bertzearen iuje, eta iarten direnean iujeatzen, gure Iaunaren ofizioa betetzen dute. Arinak dire, zeren bekhatuaren malizia eta gaixtakeria prinzipala heldu da bihotzeko intenzionetik eta konseillutik zein baita ilhunbetako sekeretua guretzat. Arinak dire, zeren batbederak aski du zer egin, bere burua iujeatu nahi badu, bere laguna iujeatu gabe. Iujeatua ez iazitekotzat, gauza orobat premiazkoa da, nihor bertzerik ez iujeatzea, eta bere burua bera iujeatzea. Ezen gure iaunak bata debekutzen deraukun bezala, apostoluak manatzen gaitu bertzea. *Geurok gure burua iujea bagezea, ez gindezke iujea*. O Iainkoa orde! guziz kontrara hari gare, zeren debekatu zaikuna ardura egiten dugu; bethiere laguna iujeatzen baitugu, eta eztugu behin ere egiten manatuak garena, zein baita geurok gure burua iujea dezagula.

Iujeamendu arinen kontrako erremedioak eman behar dira, behaturik nondik, eta zertarik heldu diren. Badira bere naturalezaz, gaitz, garratz, latz eta samin diren bihotzak, eta halaber hartzen duten guzia samintzen dutenak. Hetaz dio profetak itzulten dutela iujeamendua absinthiora, ikusirik eztutela nihoiz ere iujeamendu emaiten lagunaz ahalik zorrotzkiena eta garratzkiena baizen. Halakoak behar handia dute miduku espiritual on baten eskuetan erorteko; zeren nola bihotzeko kharmitasun hura baitute sorkuratik, gaitz da hari garaitzea, eta berez bekhatu etzelarik, bainan eskas-makhur bat xoilki delarik, guziarekin ere perillosa da, zeren, hura dela bide, iujeamendu arinak eta gaizki erranak sartzen eta nausi iarten baitire ariman barrena. Batzuek arinki iujeatzen dute, berak ez garratz, baina bai arguillu izanez, uste dutela, bere ohorea goititzen dutela bertzerena beheitzen duten eredura. Espiritu superbioak eta burupetsuak. Bere buruarekin loriatzen, pinpirinatzen, eta hain gora iarten dira bere kontuz, non gainerako guzia ikusten baitute, deus

gutiko gauza xumea baliz bezala hekin aldean. *Ni enaiz bertze gainerako gizonak bezala*, zioen fariseu zoro hark. Batzuek eztadukate arguillukeria ageri hura, bainan eztakidan atsegindura zer bat xoilki hartzen dute bertzeren gaizkiaren konsideratzeaz, bere baitan, ustez, duten gozokiago dastatze-ko eta bertzei dasta arazteko. Eta lakhetze hura hain da gordea eta ezin ezagutzakoa, non begi onek ezpaditu nihork, ezin hura ikus baitezake, eta hartaz ukituak direnek berek ezin ezagut baitirote, norbaitek erakusten ezpaderae. Bertzeek, bere buruaren lausengatzea eta ederki atheratzea gatik, bere konszienzian dituzten garrien eta auskien ematzea gatik, errazki iujeatzen dute bertzeak kutsatuak direla berek besarkatu duten bizioaz, edo enbait bertze bezain handiz. Hainitzak iarten dire arinki iujeatzen, xoilki zeren plazer hartzen duten hortik hemendik asmuz minzateaz, nolakoak diren bertzeak bere gogoaren hala dagidanz largatzea gatik. Baldin suerte gaitzez egia batzutan kausitzen badute bere iujeamenduetan, bethi gaizki iujeatzeko ausartzia eta guthizia hala berretzen zaie, non nekhez hura utz baitezakete. Bertzeek uijeatzen dute bere pasio- nearen arauera, bethi ongi maite dutenaz, eta behi gaizki gaitzesten dutenaz, kasu miragarri, bainan egiazko batetan baizen; zeintan amorio sobe- ra izanak ertxatzen baititu iujeamendu gaixtorik emaitera maite dutenaz ere. Gauza lastimagarria, bainan hala ere amorio itsusi, eskas, nahasi eta erbal batetarik sortzen dena, zein baita ielosia; zeinak, nor nahik dakien bezala, begitarte simple baten gainean, munduan den irri ixilik arinena gatik, bere kidea kondenatzen baitu fedea hautsi balu eta bertzerekin bekhatu egin baleza bezala. Finean beldurrak, handi-nahitasunak, eta bertze horrelako buruko febleziek maiz hainitz leku emaiten dute idurikorteko eta iujeamendu arinik egiteko.

Ordea zer erremedio? Ethiopiako osiusa daritzon belhar uretik edaten dutenek uste dute leku guzietan ikustentuztela sugeak eta gauza izigarririk; arguillukeria, inbidia, handi-nahitasuna, gaitzerizkoa iretsi dutenek, eztute ikusten gauzarik, non eztaritzaten hura gaixtoa eta gaizki erraite-koa dela. Lehenbizi hek senda ditezintzat, palma-arnotik hartu behar dute, eta orobat erriaten dut azkeneko hautaz. Edan ezazu, ahal bezanbat, karitatearen arno sakratua; libratuko zaitu uijeamendu makhur hek pitz- ten derauzkitzuten fuineko khe gaixtoetarik. Karitatea beldur da gaizkia- rekin inkontra dadin, ezta beraz perillik haren bilha doan, eta hura inkon- tratzen duenean, itzulten du burua hartarik, eta ez ikusi iduri egiten du; aitzitik begiak serratzentzu hura ikus dezan baino lehen, haren ikusteko sentitzen duen seinalerik xipienean; eta gero sinplezia saildu batez zinets- ten du etzela gaizkia bera, baina xoilki gaizkiaren itzala edo zenbait itxu-



ra zela. Baldin bortxaz ezagutzen badu gaizkia bera dela, berehala itzultzen da hartatik, eta egin ahala egiten du haren iduriaz ahanzteko; karitatea erremedio handia da gaitz guzien eta beregainki hunen kontra. Horitasuna dutenen begiei iduritzen zaie horiak direla gauza guziak; erraiten da hekin sendatzeko min hartarik, eman behar zaiela enada-belharra oin solaren azpian eta haren gainean ibilli behar dutela. Gertuz, iujeamendu arinezko bekhatua horitasun espirituala da; hartaz ukhituak direnei iduri dagote gaixto direla guziak; baina hartarik sendatu nahi duenak behar ditu erremedioak eman, ez begietan, ez adimenduan, baina afekzionetan; zeinak baitira arimaren oinak. Zure afekzioneak eme badira, zure iujeamendua eme izanen da; karitatetsu badira, orobat izanen da zure iujeamendua karitatetsu. Hirur miragarritzko esenplu emaiten derauzkiztut begien aitzinean. Isakek erran zuen Errebeka zuela arreba; Abimelek ikusi uen harekin hari zela dostetan, erran nahi da, hura maiteki karesatzen zuela, eta berehala iujeatu zuen haren emaztea zela; begi nordest eta gaixto batek iujeatu zukeien haren amorantea zela, edo haren arreba bazen, harekin egiten zuela bekhatu; ordea Abimelek egitate hartarik ahal zukeien opinione karitatetsuena hartu zuen. Orobat egin behar da behiere, Filothea: iujeatu behar duzu lagunaren faboretan ahal bezanbat. Akzione batek ehun begitarte ahal balitu, behatu behar zaio ederrenean. Andre Dana Maria izorra zen, San Iosefek hori klarki ikusten zuen, ordea zeren bertze alde ikusten baitzuen hura guziz saildua, guziz garbia, guziz angeruzkoa zela, nihoiz ere ezin zinetzi zuen izorra zitekeiela bere eginbidearen kontra, hala non deliberatu baitzuen haren ganik apartatzera, eta Iainkoari utztera hartaz iujeamendu eman zezala, eta Birjinaz opinione gaixtorik hartzeko seinalea handi eta bortitz izana gatik, berak etzuen hura niholatan iujeatu nahi izan. Zergatik ez ordea? zeren Iosef gizon iustuak geiago ezin eskusa dezakeienean bertzenaz prestutzat ezagutzen duen gizonaren obra eta intenzionea, halarik ere eztu hura iujeatu nahi, baina hartaz den guzia khentzen du bere espiritutik, eta Iainkoari utzten dio iujeatzera. Halaber gure Salbatzailleak, gurutzean iosirik zegoela, hura iratxekiten zutenen bekhatua ezin osoki eskusa zezakelarik, bederen hekin malizia guritu zuen, erraiten zuela etzeakitela zer hari ziren. Bekhatua ezin eskusa dezakegunean, derragun ezpere urrikalkizuna dela bekhatorea, eta iakin gabez edo flakoz erori dela, ahal dukeien aitzakiarik hoberena ekharitzen dugula haren faboretan.

Beraz sekulan ezin iujea dezakegu laguna? Gertuz ez sekulan. Iainkoak, O Filothea, kortetan iujeatzentz hobenduriak eta gaixtaginak. Egia da serbitzaten dela Iustizia-gizonen hitzez gure beharrietan klarki

minzatzeko. Iujeak haren borondatearen deklaratzailleak eta erakusleak dira, eta eztute sentenziarik eman behar haren ganik ikhasirik baizen, iakinik ordenatuak direla guri harkhez erraiteko zer nahi duen. Bertzela egiten badute bere buruko pasionei iarraikiz; orduan egiaki berek iujeatzen dute, eta halatan berak iujeaturen dira. Ezen debekatuak dira gizonak gizon bezala bertzeen iujeatzetik.

Gauza bat ikustea edo ezagutzea ezta hartaz iujeatzea; zeren iujeamenduak (behintzat eskiritura sailduaren minzatzeko maneraren arauerak) lehen egiten du kontu zerbait trabu, dela xipi, dela handi, dela egiatzeko dela idurizko, ba dela sondatzeko, klaratzeko eta khentzeko. Hargatik badio, zinetsten eztutenak iadanik iujeatuak direla, zeren ezpaita hekin danazioneaz dudatzerik. Ezta beraz gaizkirik lagunaz duda egiteaz? Ez, zeren ez gara debekatuak dudatzetik, bai iujeatzetik; guziarekin ere ordea ez gara zillhegi dudatzera, ez eta iduripen hartzera xehez xehe baizen, arrazoinek eta seinaleek dudatzera bortxatzen gaituzten bezanbat; bertzela duda eta idurikortasuna temerariozkoak dire.

Zenbait begi gaixtok ikusi balu Iakob, Errakeli ur putzuaren aldean musu eman zioenean, edo ikusi balu Errebeka Eliezer ganik esku mutur-oiak eta beharri dilindakak hartzen, nola gizon ezagutu gabea baitzen herri hartan, duda gabe gaizki gogatuko zen bi mirail kastitatezko hetaz, ordea arrazoinik eta zimendurik gabe; zeren akzione bat berez orobatekoa denean, temerariozko idurikortasuna da, hartarik gaizkirik atheratzea, hainitz aitzindarizko eta ordu bereko seinalek indar emaiten ezpadiote hartaz egiten den arrazoinamenduari. Temerariozko iujeamendua ere da, egin baten gatik erraita nork ere hura egin baitu gaizki erraitekoa dela: baina hori sarri klarkiago erakusiko dut.

Finean, bere konszienziatz zinetan artha dadukatenak guti emanak dire iujeamendu arinik egitera. Zeren nola erleak, denbora brumatsua, goibela eta uritsua ikusirik, sartzen baitira bere kofauean, eztiaren errekaitatzeko; halaber arima prestuen gogoetak eztira ilkhiten gauza nahas-tekatuen gainera, eta lagunaren obra ilhumbetsuetan eztira sartzen; aitzitik hekin ez inkontratzea gatik, biltzen dira bere bihotzean barrena, bere oneramendurako erresoluzione onen arrimatzeke eta ordenatzeko.

Arima alfer baten egitekoa da, bertzeren bizitzearen zelatatzen, sondatzen eta miratzen iartea. Lekhatzentut, bai etxeko mainadan, bai herrian bertzeez kargu dutenak: zeren hekin konszienziaren parte handi bat da, begiak iduki detzaten eta erne daudezin bertzeen konszienziaren gainean. Begite bada bere eginbidea amudiorekin: hori eginik, beudez bere baitan, horatz denaz bezanbatean.



## Gaizki erranez

# HOGOI ETA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

Iujeamendu arinak edo temerarioak bihotzean emaiten du asaldua, lagunaren mesprezioa, urguillukeria, bere burua baitako gogalgintasuna, eta ehun bertze galgarrizko obra egitentzu, zeinen artean gaizki erraitekak lehen lekua eta gradua baitaduka, jendartekotasunaren egiazko izurritea izanez. O zergatik ez tute Aldare sainduko ikhatz gorrietarik bat gizonen espainak ukhitzeko, hekin gaixotasunaren khentzeko, eta bekhatuaren garbitzeko, Serafinak Isaiasen ahoa garbitu zuen bezala! Nihork gaitz erraitekak kehn baletza mundutik gaixakeriazko bekhatuetarik parte handi bat khen lezake.

Nork ere bidegabezki omen ona edekiten baitio bere lagunari, egiten duen bekhatuaz lekhora, obligatua da hari bere ohorearen bihurtzera, bertzela edo bertzela, hartaz erran dituen gaizkiak hainitz moldezko diren eredura. Zeren nihor ezin sar diteke zeruan bertzeren ontasunik badaduka goraturik, eta kanpoko ontasunetarik hoberena da aiphamen ona. Gaitz erraiteka, da hiltzeka bat. Ezen baditugu hirur bizitze; badugu bizitze espirituala, zeina baitago Iainkoaren grazian; badugu gorputzekoa, zeina baitago ariman; badugu jendartekoa, zeina baitatza omen onean. Bekhatuak eramaiten derauku bizitze espirituala, herioak gorputzekoa, eta gaizki erranak ebakiten derauku jendarteko bizia: Ordea gaizki erraileak mihi aurtiki batez hirur heriotze egiten ohi tu: hiltzen du bere arima, eta hura enzuten duenarena hiltzeka espiritual batez, eta nortaz ere gaizki minzo baita, hari edekiten dio jendarteko bizia. Ezen San Bernardok zioen bezala, gaizki erraileak, eta gaizki errailearen enzuleak, biek orobat deabrua dute bere gainean: ordea batak hura du mihian, eta bertzeak beharrian. Dabitek, gaizki erraileez minzo dela, *Bere mihiak zorroztu ituzte* dio, *sugeak bezala*. Bada sugeak mihia du bi adarretakoa, eta bi puntetakoa, Aristotek dion bezala, eta halakoa da gaizki errailearen mihia, zeren aurtiki aldi batez enzulearen beharria, eta gaizki aiphazten denaren ohorea eta omen ona ausikitzen du pozoatzen.

Arren nagotzu bada, Filothe guziz maitea, nihortaz gaizkirik ez erraiteaz, ez xuxen, ez makhur. Begira zaitte gezurrezko hobetik edo bekhaturik lagunaren gainean emaitetik, estalirik daudezin eskasen agertzetik,

ageri direnen emendatzetik, obra onak gaizkira itzultzetik, nihoren baitan ezagutzen duzun ongiaren ukhatzetik, maliziozki disimulatzetik eta hitzez guttitzetik: zeren manera hetan guziez Iainkoa handiro ofensa zenezake; guzien gainetik ordea guzurrezko akusurik egin bazeneza, eta egia ukhartzeko bazendu lagunaren kaltetan. Ezen bi bekhatu dira, gezur erraitea, eta bertan lagunari kalte egitea.

Gaizki erraitekotzat aitzin-ohorezko hitzik atheratzen, eta zotilleziarik, edo trufakeriarik, batak bertzearen artean erraiten dutenak, gaizki erraile guzietarik artezenak eta pozointsuenak dire. Zinetan nago, diote, hura dut maite, eta gainerakoaz gizon ongi egina da, bizkitartean ordea egia erran behar da, falta zuen halako traidorekeriarik egiteaz: Neskato hagitz bertutetsu da, bainan atzeman eta erori zen; orobat da bertze hitzetzko edergailluez. Ez othe duzu artea ikusten? Arkuaz aurtiki nahi duenak, tragaza bere gana ahal bezanbat tiratzen du, bainan ez tu hala egiten, bortitzkiago haren dardatzeko baizen. Badirudi horrelako bernizariak bere gaizki erranak erakhartze tuztela bere gana; bainan ez tute horrela egiten bere hitz gaixtoen tinketzago aurtikitzeko baizen, enzuleen bihotzetan barrenago sar ditezintzat. Trufaz bezala ereiten den gaizki errana guzietarik hilgarriena da oraino; zeren nola zeguta ezpaita berez pozoin hagitz khexagarri, bainan aski baratxetzko, eta errazki erremediatuzko, ordea mahatzarnoarekin edanik ezin khenduzko baita: halaber gaizki errana berez arinki beharri batetik sar, eta bertzetik ilkhi litekeiena, erraiten ohi den bezala, finkatzen da enzuten dutenen fuinean, presentatzen zaienean zenbait hitz zotilletan eta alegeretan. *Aspidearen pozoina dute bere espainetan*, dio Dabitek. Aspideak bere ausikia egiten du ezin kasik ikusizkoa, eta haren pozoinak berehala emaiten du atsegingarrizko hasgite bat, zeinaren bidez bihotza eta erraiak zabaltzen baitira, eta pozoina hartzen baitute, hala non ezpaita gero erremdiarik haren kontra.

Ezterrazula, horrelakoa da hordilari bat, hura ikusi duzularik horditurik: ez eta haragizko bekhatuzalea da, hura bekhatu hartan aurkitu duzularik, ez eta bere ahaidearekin lizunki dabilla, hura inkontru gaixto hartan kausitu baduzu ere; zeren beihingo obrak ez tute gauza bati izena emaiten. Iguzkia behin gelditu zen Iosueren biktoriaren faboretan, eta bertze aldi batez ilhundu zen gure Salbatzaillea hil zenean: hargatik nihork ez tu erranen Iguzkia ezin higituzkoa, edo ilhuna dela. Noe behin horditu zen, eta Loth bertze behin, eta Lothek, horditzez lekhora, gorputzez egin zuen bekhatu bere alabekin; badarik ere etziren hordilari izan ez bata ez bertzea, eta azkena etzen hargatik alabakoa: Iondone Petri oraino etzen odol-isurtzaille, behin odol isuri bazuen ere, eta etzen arne-



gari, behin arnegatu bazuen ere: Nihork bizio edo bertute baten izena hartzekotzat, behar da hartan aitzinatu eta ohitu den. Beraz falseria da erraiteaz gizon bat haserretsu eta ohoin dela, behin ikusi izan delarik haserretzen edo ebatsten.

Norbait luzeki biziotsu izan delarik, peril da nihork gezur erran dezan, biziotsuaren izena emaiten badio. Simon Sorhaioak erraiten zuen Madalena bekhatoreza zela, zeren ezpaitzuen denbora handi halakoa zela; badarik ere gezurra zioen; zeren etzen geiago bekhatoreza, baina penitent guziz saindu bat zen: hala ere gure Salbatzailea iari zen haren alde.

Fariseu erhoak publikanoa zedukan bekhatore handitzat, edo naski iniustutzat, emakhoitzat, arrogatzailletzat ere, bainan handiro enganatua zen, zeren oren hartan berean iustuturik zegoen. Helaz! Iainkoaren ontasuna hin handia denaz gero, non begi kheinu bat aski baita haren grazia-aren ardietsteko, zer seguranza ahal dukegu atzo bekhatore zena egun ere bekhatore dela? Aitzineko egunak eztu oraikoa iujeatu behar, ez eta orai-koak aitzinekoa: azkenak xoilki iujeatuko itu bertze ioan diren guziak.

Beraz ezin derrakegu gizon bat gaixtoa dela, gezur erraiteko perillik gabe: minzatu behar bada, erran dezakegun guzia, da, halako orduan obra gaixto bat egin zuela, gaizki bizi zela, orai gaizki egiten duela; ordea nihola ere ezin athera dezakegu atzoko egunetik nolakoa den egun, ez eta egungotik nolakoa ze atzo, eta gutiago are nolakoa izanen den bihar.

Guziz zuhurrak eta begiratuak egon behar dugularik lagunaz gaizki minzatu gabe, halarik ere begiratu behar gare batzuk egiten duten huts guziz bertze batetarik, zeinek, gaizkirik ez erraitea gatik, bizioa laudatzen baitute eta ederki aiphatzen. Kausitzen bada egiaz gaizki erraile denik, ezterrazula haren eskusatzea gatik, hura dela trebe eta idekia: ageriki banaloriatsu den batez ezterrazula bihotzduna dela eta ederki dabilala; trebanzia perillosak gatik ez erran naturalezaren oldeak direla. Eztezazula desobediencia zeloaren, arguilleria librotasunaren, eta haragizko lizunkeria adiskidetasunaren izenaz berniza. Ez, Filothe maitea, gaizki erraiteko bekhatuari ihes egin ustean, eztira bertzeak faboratu, lausengatu, edo mantentatu behar; aitzitik garbiki eta trebeki gaizkiaz gaizki erran behar da: eta on edo eder eztiren gauzak eztira laudatu behar: horrela eginez Iainkoaren loria aitzinatzen dugu baldin hari bagara erraitera noan kondizionekin.

Nihor ongi hartua eta laudatua izaitekotzat, bertzeren eskasen edo makhurren kontra minzo denean, behar da, nortaz ere minzo baita, eta nori ere minzo baitzaio, bataren eta bertzearen probetxuak nahi duen hala minza dadin. Halako neskaren eta halako mutillaren ageriz perillos diren

zuhur gabeko trebetasunak, horrelakoaren edo halakoaren erorgarri diren hitzezeko edo erremanguzko largoegitasunak aiphatzen dire neskatoen aitzinean, ni minzo ezpanaiz libroki halako gaizkiaren kontra, eta hura eskusatu nahi badut, halako solhasa entuzten duten arima gazteek eta uzterrek hartuko dute leku bere buruaren largatzeko zerbaiz halakorik egitera; beraz hekin kontra orduan berean largoki minza nadin, lekhat egon ahal banadi bertze ordu hobeago baten begira, hei serbitzu on haren egiteko, eta aiphatzen direnen kalte gutiagorekin.

Hortaz lekhora, behar da oraino ene eginbidea den halako gauzaren kontra minzatzea, hala nola konpainiako lehenetarik bat naizenean, eta minzo ezpanaiz, idurituko baitzaie bizioaren alde naizela; azkenetarik banaiz, eztut eskurik hartu behar deusik kontra erraiteko; guzien gainetik ordea behar naiz ere hitzetan hersiki xuxen kausitu, hala non hitz bat ere sobera erran eztezadan. Konparazionera, minzo banaiz gizon gazte edo neskato baten trebanziaren kontra, zeren sobera regel eta perillosegi den; O Iainkoa, Filothea, pizuak xuxen iduki behartut gauzaren ez emendatzeko izpi batez ere; iduripen arin bat baizen ezpada, eztut deus bertzerik erranen: ustegabetasun huts bat baizen ezpada, eztut erranen geiagorik; ustegabetasunik, edo gaizkirik delako iduripen egiazkorik ezpada, baina xoilki zenbait espiritu maliziosak handik hartu nahi badu gaizki erraiteko aitzakiarik, eztut erranen deus ere, edo hura bera erranen dut. Ene mihia, lagunaz minzo naizenean, ene ahoan dago, nabala berberaren eskuan bezala zainen eta hezurren artean ebaki nahi duenean. Behar da emanen dudana kolpea hain xuxen den, non eztezadan erran ez geiagorik ez gutiagorik, dena den baino. Finean bekhatuaren kontra minza zaitezinean, guzien gainetik orhoitu behar zare, hura egin duenaren ahalik arinkiena ukhitzeaz.

Egia da bekhatore itsusiez, feriatuez eta ageriez minza gaitzekela libroki, kondizionerekin hetaz minzatuko garela karitatezko gogoz, eta hekin urrikariz, ez ordea arguilluki eta burugogorka, ez eta bertzearen gaizkiaz atsegin hartzea gatik; zeren, azkeneko hunez bezanbat, bihotz erori eta ez deus baten egitekoa da. Guzien artetik lekhatzen tut Iainkoaren eta elizaren etsai famatuak, zeren ahal bezanbat oiuegin behar da hekin kontra, nolakoak baitira fedearen kontra iari direnen eta elizako batasuna zathitzen dutenen ozteak edo saldoak, eta hekin buruzagiak. Karitatea da otsoari oiuegitea ardiaren artean sartu denean, bai eta non ere baita.

Batbederak hartzen du esku prinzeaz minzatzeko eta iujeamendu emaiteko, hjerri eta erresuma osoez gaizki erraiteko, hekin aldera dituen





bertzelako eta bertzelako afekzioeen arauera. Filothea, eztagizula halako hutsik; zeren, Iainkoaren ofensaz lekhora, zure hitzek milla inkontru gaixto ekhar ahal liazakezute.

Nihor aditzen duzunean gaizki erraiten, ezar ezazu akusua dudatan, ahal badagizu arrazoinekin: ezin badaidizu, eskusa zazu akusatuaren gogoa eta intenzionea; hori ere ezine gin badadi, erakus ezazu hura duzula urrikari; urrun ezazu solhas hura, orhoitzen zarela, eta konpainia ere orhoitzen duzula hutsetan erorten ez tirenek jainkoari eskerrak eman behar diotzatela. Erakharzu gaizki erraillea bere gana zenbait antze mansoz; errazu zerbait bertze ongirik presuna ofensatuaz, bat ere badakizu.

## Bertze abisu batzu minzatzearen gainean

### HOGOI ETA HAMARGARREN KAPITULUA

Biz zure minzoa manso, eme, libro, idekia, egiati, xuxen eta fidel. Begira zaite bi ahotakotasunetik, artezietarik eta disumulatzetarik; on eztelarik bethi egia guzien erraitea, badarik ezta behin ere sori egiaren kontra minzatzea; kostuma zaite gezurrik sekulan ez erraitera iakiara, dela eskusaz, dela bertzela, orhoitzen zarela Iainkoa dela egiaren Iainkoa. Ustegabez erraiten baduzu gezurrik, eta hura berehala xuxen ahal badezazu, xuxen ezazu nolazpaiteko deklarazinoz, edo hura ongi datekeien bezala itzuliz; egiazko eskusa batek hagitz grazia eta indar geiago du nihoen eskusatzeko, gezurrak baino.

Batzutan egia zuhurki itzuli eta estali ditekeielarik zenbait hitz artezez, guziarekin ere hori ezta egin behar, lekhat kontuzko gauzetan eta Iainkoaren loriak, edo serbitzuak hala nahi dutenean baizen. Hortaz kanpoan arteziak perillos dira; zere hitz sakratuak dioen bezala, *espíritu sainduak eztu egoiterik espíritu disimulatu eta bi aldetarako batetan*. Ezta hain artezia onik eta desiratzeorik, nola sinpletasuna baita. Munduko zuhurziak eta haragizko artifizioak mende hunetako umeentzat dira, baina Iainkoaren umeak itzul-ingururik gabe dabilta, eta bihotz idekia dute, gorda-lekurik gabe *simpleki dabillana*, dio zuhurak, *fidanzarekin dabilla*; gezurra, bi mihikotasuna eta disimulamendua bethi dira espíritu flako eta erori baten seinaleak. San Augustinok erran zuen bere konfesioetako laugarren liburuan bere arima eta adiskidearena etzirela arima huts bat baizen, eta zeraman bizia higointzen zitziola, eta hura hastio zuela bere adiskidea hillez geroztik, zeren ezpaitzuen erdi bizi nahi; eta halaber orobat beldur zela hiltzeaz, bere adiskidea osoki hil eledintzat. Iduritu zitzaion gero hitz horiok artezegiak eta sobera afaitatuak zirela, hala non hek borratzen baititu, berak bere eskribuen kontra egiten duen liburuan, eta erraiten baitu halako hitzak direla erhokeria bat. Ikusten duzu, Filothea, arima saindu eta eder hura zein begiratu eta minbera den hitzezko afaitaduraz emaiten duen sentimenduan? Gertuz fidelki, egiaki, garbiki eta klarki minzatzeak edergaillu handia emaiten dio girstinoaren bizitzeari. *Nik erran dut behatuko derauet ene ioan ethorriei, ene mihiaz bekhatu eztagidan*



*gatik. He! Iauna, emoitzu guardiak ene ahoari; eta athe bat ene ezpainei hekin herteko, zioen Dabitek.*

San Luis Franziako erregeren abisuatarik, bat, da, nihoren hitzaz eztela erran behar, hura eztela hala, lekhat bekhatu bada, edo kalte handi baliz haren konsentitza: hori erraiten zuen ihardukimendu guzien khen-tzea gatik. Bada premia denean hitz egiteko norbaiten hitzaren kontra, eta bere ustearen klaratzeko haren erranaren kontra, xoil mansoki eta begiratu-tuki hari behar da, borondaterik gabe bertzearen espirituari borxa egiteko; berdin ezta probetxurik garratzki iartzeaz.

Lehenagoko zuhurrek hanbat gomendatu duten gutizko minzateaz, ezta aditzen hitz guti erran behar dela, baina bai eztela hainitz hitz alferrik erran behar; zeren minzateaz denaz bezanbatean, ezta konturik egiten zenbat minzo den nihor, baina nola eta zer minzo den. Ezen nihork nahi badu bere burua egin handi eta zuhuregi elkarren arteko konpartimenduetan egiten diren solhas familiaretan sartu, eta aldizka bertzerekin minzatu nahi gabez, badirudi edo hark eztuela fidanzarik aski bertzeen baitan, edo nolazbait mesprezitzen dituela; bertze alde, bethi minzateza eta erastea, bertzei bere gogara minzatzeko astirik eta lekurik eman gabe, hori xori buruaren eta airatuaren seinalea da.

San Luisek etzuen ongi hartzen nihor ixilik eta konseilluz minzo bazen konpainian eta beregainki mahaiean, arren idurikortasunik eman elezan bertzeaz gaizki minzo zela; *nork ere*, zioen, *mahainean eta konpainia onean dagoela, zerbait alegera eta plazergarri baitu erraiteko, hura erran behar du, guziek adi dezaketen bezala; kontuzko gauza bada, hura behar du ixilik iduki hartaz minzatu gabe.*

## **Pasa-tienpoez eta alegera-aldiez eta lehenik sori eta laudatzeko direnez**

### **HOGOI ETA HAMEKAGARREN KAPITULUA**

Bada eta ezpada gure espiritua eta gorputza ere batzutan utzi behar dira largo zenbait alegrianzaren hartzera. Kasianok kondatzen duen bezala, ihistari batek egun batez aurkhitu zuen Iondone Ioanis ebanjelista eper bat eskuaren gainean zedukala, eta hura balakutzen zuela dostetan bezala; ihistariak galdegin zioen, nolatan halako graduko gizon izanez denbora iragaiten zuen hain gauz aphurrean eta ezdeusean; eta Iondone Ioanisek erran zioen, zergatik zuk ere zure arkuaz eztarabillazu bethi bandaturik? ihardetsi zioen ihistariak, hala egiten dut beldurrez bethi makhurturik badadukat zabaltzeko indarra gal dezan aurtiki behar orduko. Eztezazula bada mirets, berriz erran zioen apostoluak, zeren neure espiritua aphur bat largatzen dudan bere hersitasunetik eta tinkhezko gogoetarik alegera aldi baten hartzeko, arren gero zeruko gauzen bizikiago miratzen hari nadin. Duda gaberik bizio da, hain hersi, hain larre eta basa-gizon izaitea, non berak eztuen nahi beretzat zanbait alegera aldi hartu, eta bertzeak ez utzi hartzera.

Airearen hartzea, pasajeatzea, solhas arraik eta amudiozkorik egite, gitarraz edo zenbait bertze soinu-garriz haritzea, kantatzea, ihisian ibiltea, hain ohorezko alegeragarriak dira, non hetaz ongi baliatzeko ezpaita bertzerik behar, ohiko prudenzia baizen; hark gauz guziei ordenatzen baite-raue zeini bere gradua, lekua, ordua eta neurria.

Iloak, zeinetan irabazia baita gorputzeko edo espirituko fetxotasunaren eta antzearen saria eta golardoa, nolakoak baitira pilotako, balonako, billartako, erhastunerako korsuko, esxetetako, tauletako iokoak, berez pasatienpo onak dira, eta sori da hetan haritzea; xoilki begiratu behar da, dela denbora, dela diru sobera emaitetik; zeren denbora sobera emaiten bazaie, ezta pasatienpo, baina bai lana da; gorputza ezta hetaz arintzen, aitzitik tontotzen da eta zapatzen. Bortz ezpa sei orenez esxetetan hariz gero, handik ilkirik unhatua da espiritua, errebelatua eta nahasia. Pilotan luzez haritzea, ezta gorputzaren arintzea, baina bai haren hondatzea da, ordea prezioa, erran nahi da, iokoan ezarten diren gauzen balioa handie-



gia bada, iokarien gogoak edo afekzionaek desordenatzen dira, eta hortaz lekhora, zuzenaren kontrako gauza da prezio handirik ezartea hain kontu gutitako eta ezdeusetako fetxotasunetan eta antzetan, nolakoak baitira iokoetakoak. Ordea guzien gainetik, Filothea, begira zaitte hortan guzian zure gogoarenedo afekzionaeren amarratzetik; ezen zenbat ere honesta baita pasatienpoa, bizio da hartan bihotza ega afekzionaemaitea. Eztiot eztuzula iokoan hartu behar atseginik, iokoan hari zarenean, zeren bertzela elizateke alegeratzerik edo arintzerik; baina badiot eztuzula zure afekzionaema iokoan ezarri behar, haren desiratzeko, hartan trikatzek, hari lotzeko eta itxekiteko.

## Ioko debekatuaz

# HOGOI ETA HAMABIGARREN KAPITULUA

Datuetao, kartetako eta bertze horrelako iokoak, zeinetarik irabazia kasuz prinzipalki eta sortez heldu baita, eztira xoilki errekreazione perillosak, danzak bezala, baina bertzerik gabe, eta diren bezala konsideraturik gaixtoak dira, baiatzekoak eta gaizki erraitekoak; hargatik debekatuak dire hala kortetako, nola elizako legeeaz. Ordea, erranen derautazu, zer gaizki handi da hetan? Halako iokoetan irabazia eztaheldu arrazoinaren arauera, bainan kasuak eta sortea emanik; hainizetan erorten baita fetxo eta antzatzugabez deus ere merezi etzuenana gana; beraz hortan ofensatua da arrazoina. Ordea hala egin dugu paktua, diozu. Hori ongi da erakusteko irabazten duenak ezterauela bertzei bidegaberik egiten, bainan ezta handik atheratzen paktua eztela arrazoinaz kanpokoa, eta iokoa ere; ezen fetxotasunaren sari izan behar den irabazia egiten da sortea sari; bada sortea ezta saririk bat ere merezi, hura gure eskuko nihola ere eztenaz geroztik.

Hortaz lekhora, ioko hei errekreazionea daritzte eta hartarakotz eginak dire, guziarekin ere eztira errekreazioneak niholatako maneraz, baina bai buruko lan eta egiteko bortitzak dire. Zeren ez othe da lan handia bethi gogoa idukitzea ardurako zelata batetan finkaturik, thematurik, sosegu gaberik, beldurturik eta khexaturik? Othe da gogorik iokariena baino tristeagorik, ilhunagorik, eta melankoliatsagorik? Hargatik ezta iokoaren gainean minzatu behar, ezta irri egiterik, etzaio biderik eman behar estulari, bertzela horra non tarritatzen diren iokariak.

Finean ezta iokoan bozkariarik irabazten duenarentzat baizen, eta bozkario hura ez othe da zuzenaren kontrakoa, ezin izan ditekenaz gero lagunaren kalteaz eta damuaz baizen? Bozkario hura gertuz itsusia da eta laidozkoa. Hirur arrazoin hek direla kausa iokoak debekatuak dire. San Luis errege handia, aditurik Anjuko kondea bere anaia, eta Gautier Nemursko iauna iokoan hari zirela, eri bazen ere iaiki zen, eta ahal bezala ioanik hekin ganbarara, hartu zituen taulak, datuak, eta diruaren parte bat, eta lehioetarik iraitsi zituen itsasora, hekin kontra hagitz haserreturik eta samurturik. Sara donzeilla saindua eta garbia Iainkoari minzo zaiola bere hobengabetasunaz; badakizu Iauna, dio, enaizela egundaino ibilli iokarien artean.



## Sori, baina perillos diren balez eta pasatienpoez

# HOGOI ETA HAMAHIRURGAREN KAPITULUA

Dansak eta balak bere izaitez eztira, ez on, ez gaixto; bainane giten ohi diren maneraren arauera konsideraturik, hagitz dira gaizkiaren aldera makhurtuak eta lixturtuak, eta halatan kasuz eta perillez betheak. Gauaz egiten dira, eta ilhunpean erraz da hainitz kasu ilhunbetsurik eta bioziosik sararazitzea, berenez hagitz gaizkirakor direnen artera. Hetan luzeki daude dansazaleak ohera gabe, gero biharamuneko goiztiriak galtzen dira, eta halatan galtzen da goizean Iainkoaren serbitzatzeko bidea eta ordua. Hitz batez, bethi erhokeria da guna gau egitea, argia ilhunbe, eta obra onak ergelkerietara itzultea. Halako biltzarretara batbederak banaloria darabilla, zeinek geiago; eta banaloria hain bide handia da afekziona gaixtoetara, eta amorio perillosetara eta baiatzekoetara, non errazki batak bertzea baitakharke dansetan.

Dansez diotsut, Filothea, midikuek ondoez eta gorringoez dioten bezala: hoberenek eztute deus balio, diote, eta nik erraiten derautzut dansa hoberenak on guti direla; guziarekin ere hetarik ian behar bada, beha zazu ongi aphain ditezin. Baldin ezin ederki itzul zaitezken okasio-nea gatik ioan behar baduzu dansara, beha zure dansa ongi den aphaindua. Ordea nola behar da aphaindu? modestiaz, zuhurzia, eta intenzione onaz. Ianezazu guti hetarik eta gutitan, diote midikuek, ondoez eta gorringoez minzo direla, zeren zenbat ere ongi aphainduakl baitira, hetarik hainitz iatea da pozoina. Dansa zazu guti eta gutitan, Filothea, zeren bertzela eginez perillean iarriko zara hetan zure gogoaren eta afekziona-aren ezarteko.

Ondoez eta gorringoek, Pliniok dioen arauera, barrenetik eta kanpotik umu izanez, diren bezala errazki edoskiten dute bere inguruneko aire gaixto eta lizun guzia, hala non sugeen aldean badira, sugeen pozoina hartzen baitute; Gauazko dansek eta halako batzarre ilhunek erakhar-tzen ohituzte leku batetan diren bizioak eta bekhatuak, lizkarrak, inbidia, eskarnioak eta amorio erhoak. Eta nola dansetan haritzeak egiten baitio gorputzeko izerdiari bide, hala ere bihotzeko bideak idekiten diotza zein ere nahi den erhokeriari. Hori hala dela, zenbait sugek hitz itsusirik, bala-kurik, hitztunkeriarik ekhartzen badu dansariaren beharrietara, edo zen-

bait basilikek aurtikitzen badio behatze lizunik, amoriozko begizatzerik, haren bihotza errazki atzematen da eta pozoatzen.

O Filothea, errekreazione ergel hek ohi dira perillosak: barraiatzen dute debozionaeko espiritua, flakutzen tuzte indarrak, hotzten dute kari-tatea, eta milla afekziona gaixto pitzten tuzte ariman; hargatik hetaz serbitzatu behar da zuhurzia handi batekin.

Guzien gainetik ordea, erraiten da ondoetarik ianez gero edan behar dela mahatz+arno preziosetik. Eta nik diot ezen dansatu ondoan hartu behar duzula zenbait konsiderazione on eta saildu, bidearen herste-ko agian hartu dukezun banaloriozko plazerak burura ekhar liatzaketzun gogorapen perillosei. Ordea nolako konsiderazioneak hartukoituz?

Lehenik, orhoitzaite zu dansetan zinen orduan berean hainitz arima erretzen zirela ifernuko suan dansa dela kausa, edo dansetan egin zituzten bekhatuak gatik.

Bigarrenean, hainitz fraide eta presuna debozionetsu oren hartan berean zeudezila Iainkoaren aitzinean haren laudorioen kantatzen, eta haren edertasunaren miratzen. O zein doatsukiago iragan duten bere den-bora, zuk zurea baino.

Hirurgarrenean, dansan hari izan zaren bitartean hainitz arima ioan direla mundu hunetarik herstura handitan; milla million gizonek eta emaztek bere ohetan, hospitaletan, karrketan pairatu dituztela oinhaze, dolore, nekhe handiak, hezurretako mina, harria, sukhar egosia eta errea. Helaz! eztute pausurik izan bat ere: etzaizkitzu bada urrikalduko? Eztuzu bada uste zu ere egun batez hek bezala auhenez egonen zarela, bertzeok dansatuko duten bizkitartean, zuk egin duzun bezala.

Laugarrenean, gure Salbatzailleak, Andre Dana Mariak, Angeruek eta sailduak ikusi zaituzte dansetan. Ha! zein urrikaldu zaitzen, zekusatela zure bihotza trikaturik hain ergelkeria handitan, eta erne zegoela ezdeuskeria hartara.

Bortzgarrenean, Helaz! han zinundenean denbora ioanda, herioa hurbildu da, mirazazu nola trufatzen den zutaz, eta nola deitzen zaituen bere dansara, non zare bekhatuen auhenak izanen baitira xiribikari, eta non ezpaituzu eginen urrats bat baizen bizitzetik heriotzera. Dansa hura hilkitzunen egiazko pasatienpoa da, halaz eta orduan amen batetan tien-potik sekulako ontasunetara, edo gaitzetara pasatzen direnaz gero. Konsiderazione labur horiok emaiten derauzkitzut, baina Iainkoak hainitz bertzerik ekharriko derautzu gogora fin hartarakotz, haren beldur bazare.



## Noiz sori den iokoan edo dansetan haritzea

### HOGOI ETA HAMALAU GARREN KAPITULUA

Sori izaitekotz iokatzea eta dansatzea, den guziaz egin behar da dos-tailuz ez afekzinez, denbora gutitako, ez unhatzeraino, edo zoratzerraino, eta oraino gutitan. Zeren hetan ohitzen denak errekreazioa egiten du lan. Ordea zer okasionetan hari naiteke iokoan eta dansan? Dansaren eta iokoaren ez on ez gaixto diren arrazoinetako okasioak maizago gertatzen dira; ioko debekatuenak bakhanago dira, nola halako iokoaz hagitzen perillosago baitira eta gaizkiago erraitekoak. Bainan, hitz batez deeradan, dansa zazu eta hari zaite iokoan erakusi derauzkitzudan kondizioeen arauera, noiz ere izanen zaren ohoretzko konpainiari amor eta atsegin egitea gatik, prudenziak eta deskreziotzak emanen baiterautzute konseillu bertzeek bezala egiteko, zeren nola amora karitatearen xerto bat baita, hark guzietara orobat diren gauzak egitentzu on eta perillosak egitentzu sori; bai eta gaixtorik dena khentzen du nolazbait gaixto direnetarik. Hargatik hasarteko iokoak, bertzela baiatzekoak balira ere, eztira gaizki erraiteko, baldin batzutan arrazoinetako amorak hetara bagaramatza. Konsolatu izan naiz San Xarles Borromeoren bizitzean irakurri dudanean hark amor egiten zerauela Susei gauza batzuetan, zeinetan bertzenaz hagitzen hersi eta zorrotz baitzen, eta San Ignazio Loiolakoa gonbidatua izan zenean, iarri eta hari izan zela iokoan. Santa Elizabeth Hongriako bezanbatean, noizik behin iokotan eta dansetan sartzen zen, athekarik egin gabe bere debozioneari, zeinak hain erro barrenak gin baitzituen haren ariman, non Errietteko lakuaren inguruan dauden arroak uhinek ioz handitzen diren bezala, halaber haren debozioa emendatzen baitzen, hura bere kondizioek sararazitzen zuen ponpiresunetan eta banalorietan. Su handiak pitztenago dira haizean, bainan su xipiak berehala hiltzen dira eramaiten ezpadire estalirik eta ehorzirik.

## Fidel behar dela okasione handietan eta xipietan

### HOGOI ETA HAMABORTZ GARREN KAPITULUA

Espos sakratuak badio kantiketan, ezen bere espos andreak eraman dioela bihotza bere begietarik batez, eta bere buruko ille-izpi batez. Bada gizonak gorputzan dituen kanpoko parte guzien artean ezta nobleagorik begia baino, dela konsidera dezagun nolako artifizioz egina den, dela nola bera dabillan eta hari den; ezta ere ezdeusagorik buruko illeak diren baino. Hargatik Iainkozko esposak nahi dua di arazi ez xoilki gogara zaizkola presuna deboten obra handiak, baina bai aphurrenak eta beheerak ere, eta haren serbitzatzekotzat bere gustura, artha handia behar dugula haren ongi serbitzatzekoz gauz handietan eta goretan xipietan eta beheertan, halaz eta orobat handiez eta xipiez hari bihotza gure amudioak ebats diozokeonaz geroztik.

Prepara zaite bada, Filothea, hainitz afliziotan handi pairatzera gure Iauna gatik, martirioa baliz ere; harezazu borondate hari emaiteko zer ere baituzu preziatuenik, hura hartu nahi badu, aita, ama, anaia, senharra, emaztea, umeak, bai zure begiak eta zure bizia bera. Ordea zeren Iainkoaren probidenzia ezpaitearantz igortzen hain afliziotan minik eta handirik, emoitzu bedere zure buruko illeak. Erran nahi dut, pairatzatzu emeki egun oroz heldu zaizkitzun atsekabe arinak, zerbaitezko eskasiak, deus gutitako kalteak; zeren okasione xehe hetaz gogo eta amorio onez baliatzen bazare haren amorioa gatik, haren bihotza osoki irabaziko duzu, eta hura oso eginen duzu zure egunorotzko aumoina xipi hek, buruko min hura, hortzetako oinhaze hura, burutikako ur iautste hura, senharren edo emaztearen bihurritasuna, behira hautsi izan den hura, esku larru, erhastun, mukanes galdu hura, hartzen den pena xipi hura muga onez ohera ioaiteaz eta goiz iaikiteaz, orazione egitea eta komuniatzea gatik, heldu den ahalketasun arin hura guzien aitzinean zenbait debozionetako akzionerik egiteaz; hitz batez pena xume hek guziak hartzen eta besarkatzen dira amorio onez, Iainkoaren ontasuna neurrigabeki kontentatzen dute; prometatu baiteraue bere fidelei doatsutasun guziko itsasoa behira bat ur gatik, eta zeren okasione hek ordu guzietan presentatzen baitira, hetaz ongi serbitzatzekoa eta baliatzea bide handia da hainitz aberatstasun espiritualik biltzeko.



Santa Katalina Sienkoaren bizitzean horrenbat espirituko eramaitza ega goramendu, horrenbat zuhurziazko hitz, bai eta hark egin predikua ikusi ditudanean, eztut egin dudarik bere zeruko esposaren bihotza eraman zuela kontenplazioneko begi hartaz; bainan orobat izan naiz konsolatu, hura ikusi dudanean bere aitaren kuisinan humilki gerrenaren biratzen, suaren aitzinatzen, haragien edo iakien aphaintzen, ogiaren orhatzen, eta etxeko serbitzu beheeren egiten bere Iainioa ganako karitatez eta amorioz betherikako bihotz batez eztut ere gutiago estimatzen ofizio ezdeus eta humilgarri hetan egiten zuen meditazioe xipia eta behera, hanbatetan izan zituen estasak eta eramaitzak baino, ikusirik agian etzitzakola eman izan bere humiltasun eta beheramendu haren saritzat baiden. Bada haren meditazioea hunelako zen, Iduri zegokan bere aitarentzat zer bait aphaintzen zuenean, hura gure salbatzailearentzat aphaintzen zuela, Santa Marthak bezala, bere amak zedukala Andre Dana Mariaren lekua, eta anaiek apostoluena. Manera hartan bere burua atzarturik zeruko korte guziaren gogoz serbitzatera, serbitzu putruz hetan hari zen gozotasun handi batekin, zeren baitzeakien halakoa zela Iainkoaren borondatea. Exenplu hura ekharri dut, Filothea, dakizuntzat zenbat doakun gure akzioe guzien, zenbat ere xipi baitira, Iainkoaren maiestarearen serbitzura ongi xuxentzeaz.

Hartarakotz ahal bezanbat konseillu emaiten derautzut Salomon handiak hanbat laudatu duen emazte bortitz haren imitatzeaz, zeinak, dioen bezala, eskua emaiten baitzuen gauza bortitzetara, handietara, goretara; zeina bizkitartean iruten hari baitzen eta ardatzaren erabilten. *Eskua eman du gauza bortitzetara eta haren erhieik erabilli dute artatza.* Zuk ere emazu eskua gauza bortitzetan, iar zaite orazione eta meditazioe egiten, usa zaite Sakramenduetan, egizu zure ahala arimei iainkoa ganako amudioaren emaiteko, inspirazione onik bihotzetan barrena isurtzeko, eta finean obra handirik eta kontuzkorik egiteko, daramazun bizitze thailuak agintzen duen eredura; ordea eztakizkitzula ahantz zure ardatza eta khilloa, erran nahi da, lot eta iarraiki zakizte gurutzearen aldean, loreak bezala, handitzen diren bertute xipiei eta beheei, zeinak baitira, pobreak serbitzatea, eriak bisitaztea, etxeko errekaitsuaz eta ukitzen zaizkon lanez artha idukitea, eta alferrik utziko etzaituen ernetasun agudoa. Gauza hekin guzien artean pitzazu orai aiphatu derautzudan Santa Katalinak pitzten zuen bezalako konsiderazionerik.

Iainkoaren serbitzateko okasione handiak bakhan heldu dira, baina xipiak noiznahikoak dire: Bada, *nor ere fidel izanen baita gauza gutitan*, dio salbatzaileak berak, *hura ezarriren da hainitzaren gainean.* Egitzu beraz gauza

guziak Iainkoaren izenean, eta guziak izanen dira ongi eginak. Dela ian, dela edan, dela lo egin dezazun, dela alegera zaitezin, dela gerrena bira dezazun, baldin badakizu zure lanez ongi baliatzen, hagitz probetxatuko zaren Iainkoaren aitzinean, gauza hek guziak egiten tutzula, zeren Iainkoak nahi duen egin detzatzun.





## Behar dugula espiritua iustu eta arrazoinezko iduki

### HOGOI ETA HAMASEIGARREN KAPITULUA

Ez gara gizon arrazoinaz baizen, eta bizkitartean gauza bakhana da gizon arrazoinezkorik kausitzea, zeren gure burua ganako amudioak maiz errebelatzen baigaitu arrazoinetik, eta sentitzen eztugarik eramaiten baigaitu milla iniustutasun eta bidegaberia xipietara, ordea perillosetara, zeinek, kantiketari erraiten den arauera azeari umeek bezala galtzen baitituzte mahatstiak, zeren nola xumeak baitira ezta hetaz konturik egiten, eta nola hainitz baitira, hala ere hainitz kalte egiten dute. Erraitera noazkitzunak ez othe dira zuzenaren eta arrazoinaren kontrako bideak?

Gauza aphurra gatik akusatzen dugu laguna, eta gure burua hagitz eskusatzen. Garestia saldu nahi dugu, eta merkhe erosi. Nahi dugu justizia egin dadin bertzeren etxean, eta gurean miserikordia, ez ikusi edo iakin iduri eginik. Nahi dugu gure hitzak har ditezin onera, eta beretzeren erranen gainean puntutsu gara eta zorrotz. nahi genduke lagunak bere dituen ontasanak utz liatzagun, hura pagatzen dugula, ez othe da zuzenago berak iduki detzala bere, guri gure dirua utzirik? Bekhaintzen gaizko zeren ezterauzkigun eman nahi, ez othe du arrazoin geiago damu izaiteko zeren edeki nahi diotzagun?

Gogoa emana badugu ofizio batetara, bertze guziak mesprezatzen-tugu, eta gure gustura heldu ezten guzia baiatzen dugu. Baldin gure azpiko batek ezpadu grazia onik, edo haren gainean behin hortza finkatu badugu, zer ere egiten baitu, hura gaitzera hartzen dugu, ez gara gelditzen haren tristatsetik, eta bethi hitzez hari gare haren putxatzen. Kontrara, baldin nihor gure gogarakoa bada zenbait gorputzeko grazia gatik, eztu egiten eskusa eztezagun gauzarik. Badira ume bertutetsuak, burhasoek ezin kasik ikus detzaketenak zenbait gorputzeko eskas gatik, badira bizioitsuak zenbait kanpoko grazia gatik maite direnak. Guzietan abantaila emaiten derauegu aberatsei pobreen gainean, pobreak baino kondizione hobegoko eta hek bezain bertutetsu eztielarik; bai eta ederkiago tresnatei aitzin-lekua eta ohorea emaiten derauegu. Nahi dugu gure zuzena hersiki paga dakigun, eta bertzeak korteski etor ditezin berearen eskatze-ra. Gure iar-lekuak puntutsuki begiratzen tugu, eta nahi dugu bertzeak iar ditezin humil, eta amor egin diazaguten. Errazki arrankuratzen gare lagu-

naz, eta eztugu nahi nihor gutaz arrankura dadin. Zer ere egiten baitugu bertzea gatik, bethi iduri dagoku hainitz dela, hark gure gatik egiten duena, ezta deus gure iduriz. Hitz batez, bi bihotz dituzten Patagoniak eperrak bezalakoak bare: ezen bihotz eme, grazios eta kortes bat dugu gure aldera, eta bertze bihotza dugu gogork hersi eta garratz laguna gana. Bi pisu itugu, bata gure deusen pisatzeko ahal dukegun abantail handienarekin; bertzea lagunaren ontasunen pisatzeko ahal ditekeien desabantailarekin. Ordea, eskiriturak dioen bezala, gezurrezko ezpainak minzatu dire bihotzean eta bihotzean, erran nahi da, bi bihotz dituzte, eta bi pisu izaitea, bata bortitz, hartzekoetan, eta bertzea arin, emaitekoetan, gauza madarikatua da Iainkoaren aitzinean.

Filothea, zaude iustu, xuxen eta berdin zure akzionetan, iar zaite bethi lagunaren laekuan, eta hura emazu zurean, eta horrela ongi iujeatuko duzu; egin zaite saltzaille erostean, eta erosle saltzean, eta zuzenki saldiko eta erosiko duzu. Zuzenaren kontrako tratu hek guziak dira xipiak, zeren ezpaitute obligatzen deusik bihurtzera, iakinik gu gaudezila dugunaren xoilki balia arazteko muga hersietan, badarik ere obligatzen gaituzte halakorik ez gegiako egitera; zeren hek dira, bai arrazoinaren, bai karitatearen eskasia handiak, eta guzien buruan tratu hetan ezta enganiorik eta falseriarik baizen. Eztu nihork deus galtzen, bizarki, nobleki, korteski, bihotz xuxen, arrazoinezko eta erregeri dagokan bezalako batez bizitzeaz. Orhoitzaite bada, Filothea, maiz zure bihotzaren iraultzeaz, ea halako denz lagunaren aldera, nolakoa nahi baitzenduke harena lizen zure aldera, haren lekuan bazinunde; zeren hortan da egiazko arrazoinaren puntua. Traianori erran ziotenean bere saietserako ongi ethorriek bere ustez sobe-ra familiertzen zuela enperadorearen maiestatea; bai bada, ihardetsi zuen, ez othe naiz halako enperadore iarri behar, nolako enperadore nahi bainuke kausitu neroni partikular baninz.



## Desirez

# HOGOI ETA HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

Batbederak daki begiratu behar dela gauza biziotsurik desiratzetik, zeren gaixkiaren desiratzek egiten baigaitu gaixto. Ordea geiago diotsut, ene Filothea, ezteztatzula desira zure arima perilletan ezar dezaketen gauzak, nolakoak baitira dansak, iokoa eta bertze harlako dostaketak, ez desira ere ohoreak eta karguak, ez ta bisioneak eta extasak; ezen hainitz peril, hainitz banaloriatze, eta hainitz enganio da halako gauzetan. Ezteztatzula desira urrun handi diren gauzak, erran nahi da, denbora handiren buruan baizen ezin gertha ditezkeienak, hainitzek egiten duten bezala, zeinek hala eginez bere bihotzak alferrik unhatzen eta barraiatzen baitituzte, eta bere burua ezarten baitute asaldu handiren perillean. Gizon gazte batek hagitz desiratzen badu kargu batetan sartzera, denbora hel baino lehen, othoi, halako desirak zer ekhartzen dio? Emazte ezkonduak desiratzen badu serora sartzeko, zer arrazoin du? Desiratzen badut ene hauzokoaren bere duenare erosteko, hark saltzeko borondatean duen baino lehen, ez othe dut neure denbora galtzen desir hartan? Baldin eri naizenean desira hartzen badut predikatzeke edo meza sailduaren erraiteko, bertze erien bisitatzeko, eta sendo direnei dagozten eginbideen egiteko halako desirak ez othe dira alfer, halaz eta denbora hartan halakorik ezin daididanaz geroztik. Eta bizkitartean desir alfer hek behar nituzkeien desiren lekua dadukate, zeren orduan hartzeko nukeien desira behr lizate pazienziatsu izaiteko, Iainkoaren eskuetan zinetan iartzeko, neure buruaren ongi bildumatzeko, obeditzeko, eta ene penetan eme egoiteko; zein baita Iainkoak nahi duena orduan egin dezadan; ordea hartzen ohi tugu emazte izorren desirak, zeinek nahi baitute gerezia berririk uda iragan denean, eta mahats freskorik uda-hastean.

Etzait nihola ere eder zenbait eginbidetan edo ofiziotan sartu den presuna iar dadin desiratzen bere eginbideari dagokan bizitze thailuko, ez eta bere orduko kondizionearekin eztagozkeien lanez bertzerik; zeren halako desirak bihotza barraiatzen du eta langiatzen premiazko lanetan. Desiratzen badut bakhar egoitea Xartrusa bezala, galtzen dut denbora, eta desir hark oraiko ofizioan ongi haritzeko behar dudan desiraren lekua daduka. Ez, enuke ere nahi nihork desira lezan espiritu eta iujeamendu

hobeagorik, duena baino; zeren halako desirak ezdeusak dire, eta batbederak nolako baitu espiritua, haren lantzeko behar duen desiraren lekua dadukate, are enuke nahi desira letzan Iainoaren serbitzatzeko eztituen bideak, baina nahi nuke dituen fidelki balia ledin. Ordea hori aditzen da bihotza alferrik dadukaten desirez, zeren desirkundeez bezanbatean, hek ezteute kalterik egiten, usu eta maizkoak ezpadira.

Eztezazula gurutzerik desira, gerthatu zaizkitzunak ongi iasan dituzketzun eredura baizen, zeren abusua da martirioa desiratzeta eta bihotzik ez izaitea hitz gaixto baten pairatzeko. Etsaiak hainitzetan pitzten derauku desir handirik urrun diren eta sekulan ethorriko ezturen gauzez, gure gogoaren aldaratzeko begietan eta eskuetan ditugunetarik, zeinetzaz, zenbat ere xipi baitire, hainitz probetxu egin baigenezake. Gogoz gudukatzen dugu Afrikako animalia harrigarrien kontra, eta eginez, guk behatu faltaz, bidean diren suge xumeak utzentugu gure hiltzera.

Eztezazula tentazionerik desira, zeren temerariotasuna da, baina balia zaite zure bihotzaz hei igurikitzeke gizon gisa, eta hei buru egiteko hel ditezinean.

Ianhariet, bertze eta bertze izanez (behintzat hainitz hartzen bada hetarik) bethi kargatzen dute estomaka, eta flako bada, hura galtzen dute. Eztezazula zure arima bethe hainitz desirez; ez mundukoez, zeren osoki gal zinitzakete, ez eta espiritualez, zeren nahas eta korapilla zinitzakete. Gure arimak, purgatuz eta garbituz gero, sentitzen duenean deskargatua dela bere azturazko ur gaixtoetarik, xoil du apheetitu handi gauza espiritualez, eta goseak hirritua baliz bezala, iarten da mortifikazioneko, penitenziako, humiltasuneko, karitateko, orazioneko eta bertze debozioneko milla eserziza eta lan suerterik desiratzen. Seinale ona da, Filothea, horrelako apheetitu on izaita; ordea mira zazu ongi, ea ian nahi duzun guzia eho dezakezun. Hautatzatzu bada zure aita espiritualaren konseilluz hain bertze desiren artetik orai egin eta konpli ditezkeienak; hek balia arazkitzu ongi, hori eginik, Iainkoak igorriko derautzu bertzerik, zeinak halaber obratuko baitituztu zein bere sasoinean, eta horrela eztuzu denbora galduko desir alferretan. Eztut erraiten galdu behar dela desir onetarik bat ere, badiot ordea bata bertzearen ondoan egiaz eta eginez erakusi behar direla, eta orai presenteon ezin obra ditezkeienak gorderik idukitzekoak direla zenbait bihotzeko zokholutan hekin erakusteko ordua dathorrenean, bitartean sasoinezkoak eta ondu direnak obretan eman behar direla; eta hori eztiot desir espiritualez xoilki, baina mundukoez ere; berdin hori gabe ezin bizi gaitezke asaldaturik eta khexaturik baizen.



## Abisuak ezkontuentzat

# HOGOI ETA HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

Ezkontza sakramendu handia da, bai diot Iesu Kristo eta haren eliza baitan; ohorezkoa da guzientzat, guzien baitan eta den guzian, erran nahi da, bere parte guzietan ohorezkoa da guzientzat, zeren birjinek berek hura behr dute ohoratu humiltasunarekin. Ohorezkoa da guzien baitan, zeren orobat saildua da hala pobreen nola aberatsen artean. Ohorezkoa da gauza guzietan, zeren bere lehen ordenatze danik saildua da, hartarik atheratzen diren probetxuak dire sailduak, haren egiteko moldea, eta zertaz egiten baita saildu da guzia girstinotasunaren mindegia da lurra fidelez bethetzen duena, hautatuen kontuaren zeruan konplitzeko, hala non ezkontzako ontasunaren mantenamendua neurrigabeki kontuzkoa baita komunarentzat; ezen haren xirripia guzien erroa eta ithurburua da ezkontza.

Iainkoak aillioitsa haren seme maitea gonbidatua lizen eztei guzieta-  
ra, Kanako hirikoetara gonbidatu izan zen bezala, sekulan elizateke hetan konsolazionezko eta benedizinozko mahats arno eskasik; ezen arrazoina zergatik ezkontzetan lehenbizi hastean komunzki arno guti baizen ezpaita, da, zeren hetara gure Iesus Iauna ekharri behar bidean Adonis dartzon amuiruskerietako iainkoa ekharten baitute, eta Benus iainkosa lizuna iararazitzen baitute Andre Dana Mariari eman behar liozoketen lekuan.

Nork ere nahi baitu Iakobek bezala bildots ederrik, nabarrik eta pikartik izan, hark bezala ere ardiei behar derauste hainitz kolorezko zigor-  
rrak eta zuhaitz adarrak begien aitzinera presentatu, elkharganatzan direnean batzeko, halaber nork ere nahi baitu zori onik ardietsi bere ezkontzatic, hark behar liozokeo sakramendu hunen saildutasunari eta handitasunari behatu; ordea hori egin behar bidean esteieran milla desordenu gerthatzen dira dostaketetan, bankezietan et hitzketetan. Ezta beraz zer miretsirik, baldin hetarik heldu diren obrak desordenatuak badire.

Guzien gaintetik, arrenez nagote ezkontduei har dezatela eskiritura saildutan espiritu sailduak hanbat gomendatzen derauen elkharganako amudioa. O ezkontduak, ezta deus erraitea, maita zazue elkhar amudio naturalaz, zeren uso tortoil pareak hori egiten du; ez eta erraitea, maita zazue elkhar gizonak gizona maite ohi duen bezala, zeren paganoek amu-

dio hura bethi iduki dute bere artean; baina nik diotsuet apostolu handia-  
ren ondoan, *senharrak maitatzazue zuen emazteak Jesu Kristok bere eliza maita-  
duen bezala; emazteak maitatzazue zuen senharrak elizak bere salbatzaillea maita-  
duen bezala.* Iainkoak Eba ekharri zioen Adam gure lehen aitari, eta hura eman zioen emaztetzat; eta Iainko hark berak, O ene adiskideak, bere ezin ikusizko eskuaz egin du zuen ezkontzako amarra sakratuaren korapilloa, eta bata bertzeari eman zaituzte, zergatik bada eztuzue elkhar maite amudio guziz saildu, guziz sakratu, eta guziz Iainkozko batez?

Amudio haren lehenbiziko obra da, bihotzen ezin urratuzko batasuna, bi pinu zathi kolaz elkharrekin iratxekiten badire, kola fina bada, hekin iratxekidura hain bortitz izanen da, non zathiak lehen arrailla bailitezke bertze lekuetan, ezen ez bere iratxekiduraren lekuan; ordea Iainkoak senharra eta emaztea egitentu bat bere odolean berean; hargatik batasun hura hain da bortitza, non arima lehen apartatu behar baita bataren eta bertzearen gorputzetik, ezen ez senharra emaztea ganik. Ordea batasun hura ezta bereziki aditzen gorputzaz, baina bai bihotzaz, afekzioneaz eta amudioaz.

Amudio hark egin behar duen bigarren gauza da, bataren bertzea ganako hautsi behar ezten fidelitasuna. Xaketak lehenago eskiribatua eta inprimatua ziren erhetako erhastunetan, eskiritura saildua bera lekuko den bezala. Huna bada esteietan egiten den zeremoniaren sekeretua. Elizak apezaren eskuz benedikatzan du erhastuna, eta hura gizonari lehenik emaiten dioela, erakusten du haren bihotza sakramendu hartaz sigillatzen eta xaketatzen duela, aarren sekulan geiago sar eztadin hartan bertze emakumeren izenik eta amudiorik, emaiten zaion emaztea bizi deino; gero esposak erhastun hura emaiten du bere esposaren eskuan, arren hark ere iakin dezan bere bihotzak eztuela sekulan hartu behar afekzionerik nihor bertze gizon gana, Iainkoak orduan eman dioena lurren dagoeino bizirik.

Ezkontzako hirugarren fruitua da, haurrak izaitea eta hekin aztea iainkoaren legearen arauera. Ohore handi zaitzue, O ezkontduak, zeren Iainkoak, nola nahi baitu hainitz eta hainitz arima eman mundura, hartzen baitzaituzte lagun eta lankide hain obra beregaineko baten egiteko, sekulakotz haren benedikatzeko eta laudatzeko; zuek emaitentuzuela gorputzak, zeinetara gero hark isurtzen baititu arimak zeruko xortak bezala, ezdeusetarik atheratzen dituenean berean.

Idukazue beraz, O senharrak, amorio samur, finko eta bihotzezko bat zuen emazteak gana; hartarakotzat Iainkoak emaztea athera du lehenbizio gizonaren bihotzaren hurbilleneko saietsetik, senharrak emazte



bihotzezago eta mundurikiago maite duen gatik. Zuen emazteak, dela bere gorpuzteko, dela espirituko flakotasunak eta eskasiak gatik, etzizkitzute higoindu behar; aitzitik emeki eta amoriozki urrikaldu behar zaizkitzue, dakizuela Iainkoak kreatu dituela halakoak, non, zuen menean daudezila, ohore eta errespetu geiago eman diazazueten, eta hek hala dituzuen lagun, non hekin buruzagi eta nausi zaudeten. Zuek ere, O emazteak, maitatzazue iainkoak eman derauzkitzuen senharrak samurki, bihotzezki, ordea amorio errespetuz eta erreberenziaz bethe batez; zeren egiaz Iainkoak hartarakotzat kreatu itu naturaleza sendoago eta nusiago batekin, eta nahi izan du emaztea lizen gizonaren zathi bat, haren hezurretarik hezur, haren haragitik haragi, haren saietsetik eta beso azpitik atherarik, erakustea gatik behar deuala egon senharraren eskuaren eta gobernuaren azpiko. Eskiritura saindu guziak azpikotasun hura hersiki gomentatzen derautzut, zein azpikotasun halarik ere eskiriturak berak egiten baiteratzue ezti; ikusirik ez xoilki nahi duela hartan iar zaitetzen amorio-rekin, baina oraino ordenatzen derauela zuen senharrei balia ditezila zuen gainean emaiten derauen bothereaz maitarasun, bihotzberatasun eta mansotasun handi batekin. *Senharrak*, dio Iondone Petrik, *zaudete zuhurki zuen emazteekin, untzi hautskorrako batekin bezala, ohore ekhartzen derauezuela.*

Ordea gonbidatzen zaituztedan bitartean elkharri zor diozuen amorioaren geiagotik geiagora berretzera, begirauzue hura eztaadin itzul zenbait ielosia suertera; zeren maiz gertatzen da ezen, harra sagar onduenetik eta hoberenetik sortzen den bezala; halaber ieloskortasuna sortzen dela ezkonduen amorio beroenean eta mindurienean, eta hura osoki gaixtatzen eta galtzen duela, zeren aphur bana ekhartzentu liskarrak, guduak eta elkharganikako apartatzeak. Gerthuz, ezta nihoiz ere ielosiarik gertatzen elkharren arteko amorioa zimendatua denean egiazko bertutearen gainean; hargatik ieloskortasuna da dudagabeko seinalea halako amorioa nolazpait dela sensuetarakoa, lodia, eta iarria bertute eskas, mudakor, eta guti fidatzeko bat aurkitu duen lekuan. Beraz erhoki lotiatzen da adiskidetasunaz nork ere hura nahi baitu handitu ielosiaz; zeren ielosia hala ere seinale da adiskidetasuna dela handia eta larria, ez ordea ona, garbia eta konplia dela iainik ezen adiskidetasunaren konplitasunak, bertzerik baino lehen, emaiten duela maite den gauzaren bertuteaz seguranza, eta ielosiak segurabetasuna.

Nahi baduzue, O senharrak, zuen emazteak fidel diren zuen aldera, egiezue lekzioea zuen exenpluaz. *Nolako bekokiz*, dio San Gregorio Nazianzakoak, *nahi duzuen zuen emazteek bere garbitasuna iduki dezaten, zuok lizunki bizi bazarete? nolatan emaiten ezteraezuenaren eske zagotzate? nahi duzue*

*garbi daudezin? zabilzate garbiki hekin aldera.* Eta Iondone Paulok dioen bezala; *batbederak iakin beza bere unziairen idukiten saindugarritasunean.* Baldin kontrara, zuok irakhatsten baderaezue doillorkeriarik, ezta mirakuillu desohorerik baduzue hekin galduran. Zuek ordea, O emazteak, zeinen ohorea ezin apartatuz bezala baitatxeko garbitasunari eta ohoretzasunari, begirazazue ieloskorki zuen loria eta ezteazuela lizunkeriarik bat ere utz zuen *aiphameneko xuritasunaren goibeltzera.*

Zarena, Filothea, hurbiltze suerte guzien beldur, zenbat ere aphurak baitira; ezteazuela lausenguzkeriarik nihoiz ere paira zure aldean. Nork ere heldu baita zure edertasunaren eta graziaren laudatzera, hartaz behar duzu dudatan iarri, zeren ezin eros diroen marxandiza laudatzen duena, ohi da handiro tentatua haren ebatstera. Ordea laudatzen zaituenak are mespreziorik egiten badu zure senharraz, hark neurrigabeki bidegabetzatzen zaitu, ezen gauza ageria da, ez xoilki galdu nahi zaituela, baina bai bazadutzala iadanik erdi galdua, tratuaeren erdia egin denaz gero bigarren merkataduriarekin, lehenekoa higoitzen denean.

Lehenagoko, bai oraike andreok kostuma dute hainitz perleria beharrietan dilindaka iratxekitzeko, duten atsegina gatik, dio Pliniok, hekin sentitzeaz kraskabillatzen, elkhar ukitzen dutenean. Nitaz bezanbatean ordea, nola baitakit Isak Iainkoaren adiskide handiak beharri dilindaketak igorri ziotzala Errebeka garbiari bere amorioen lehen seinaleztat, zinetsten dut edergaillu mistiko hark aditzera emaiten duela, senharrak emaztea ganik ardietsi behar duen, eta emazteak senharrari fidelki begiratu behar dioen lehen gauza dela beharria, arren aharantzarik edo azantzik bat ere hartan sar eztaadin hitz garbien eta zuhurren soinularitasun emea eta amudiozkoa baizen, eta hauk dira ebanjelioko perla orientalak; zeren bethi orhoitu behar da arimak pozoatzen direla beharriaz, eta gorputza ahoaz.

Amorioa eta fidelitasuna elkharrekin daudenean, bethi ekhartzen dute trebetasuna eta fidanza; hargatik senhar emazte sainduak hainitz ordainezko begitarte kostumatu dute bere ezkontzetan, begitarte gerthuz amolsuak, baina garbiak, baina mindurizkoak, baina trebeak eta idekiak. Hala Isak eta Errebeka, zeinak baitziren lehenagoko mendetako ezkonduen parerik garbienak, lehiotik ikusi izan ziren elkhar karesatzen zutela, hala non desohorezko gauzarik ezpazen ere, Abimelekek ezagutu baitzuen ezin ziratezkeiela senhar-emazte baizen.

San Luis Franziaiko errege handia, bere gorputzaren aldera garratza, eta orobat bere emaztea ganako amorioan begitartetsua, gaizki erraiten zen sobera zegoelakotz halako karesamendutan, egiaz lehen merezi zue-



larik laudorio, iakiteaz bere buru gerlatiaren eta bihotzdunaren largatzen ezkontzako amudioaren begiratzeko behar diren eginbide aphur hetara; zeren amudio garbiaren eta idekiaren seinaletxo hek bihotzak amarratzen eztituztelarik, guziarekin ere elkharganatzun tuzte, eta ederkitasun arrai bat emaiten diote elkharrrekiko bizitzeari.

Santa Monika izorra zenean San Augustino handiaz, hainitz ofrezimenduz hura ordenatu zuen giristinoen legera eta iainkoaren loriako serbitzura, bera lekhuko den bezala erraiten duenean, *Iadanik dastatu zuela iainkoaren gatza bere amaren sabelean*. Hori da irakasmendu handi bat giristino diren emazteentzat, bere sabeletako fruituak, kanpora ilkhi baino lehen ere, Iainkoaren maiesteari ofrezitzeaz, zeren nola Iainkoak bihotz humil eta borondatezko baten promesak ederetsten eta hartzen baititu, amaren afekzioei heltzen ohi zaizte erditzeko muga hartan. Lekhuko dira Samuel profeta, San Thomas d'Akin, San Andriu de Fiesola eta bertzerik hainitz. San Bernardoren amak, halako semearen merezizko ama baitzen, bere haurrak bere besoetan harturik sortu ziren bezain laster, Iesus gure Iaunari ofrezitzen ziotzan, eta orduan danik hek maite zituen errespeturekin, gauza sakratua eta Iainkoak begiratzera eman zioena bezala; eta hori hain zori onez gertatu zitzaion, non haren zazpi umeak izan baitziren guziz saildu.

Bainan haurrak munduraz gero, eta hasten direnean arrazoinaz baliatzen, burhasoek artha handi behar dute iduki Iainkoaren beldurtasunean sararazteaz hekin bihotzetan. Blanka zeritzon erregina prestuak eginbide hura beroki egin zuen S. Luis bere seme erregeren aldera, maiz erraiten zioela: *ene seme maitea, nahiago zinituket ene begien aitzinean hillik ikusi, ezen ez bekhatu mortal batez kutsaturik*. Hitz hura hain barrena sartu zen seme saildu haren bihotzean, non, berak zioen bezala, ezpaitzuen bizi izan zeneko egunik iragan, hartaz orhoitu gabe, bere ahal guzia egiten zuela iainkozko dotrina hari itxekitzeko. Gerthuz, arrazak eta leinuak gure hitzkuntzaz deitzen dira *etxeak*, eta hebraiekek berek haur egitearek erraiten diote *etxe egitea*. Ezen endellegu hartan errana da Iainkoak egin zerauztela etxeak Egypteko emaginei. Bada hori horrela da, erakusteagatik etxe on bat egitea, ez tela hainitz munduko onhasun hartara biltzea; baina bai umeak Iainkoaren beldurtasunean aztea eta alxatzea. Zein baita zertan ezpaita lan eta neke trailla lurrik bat ere guphida behar, halaz eta umeak aitaren eta amaren khoroa direnaz geroztik.

Horrela Santa Monika hain beroki eta fermuki iarri eta hari izan zen San Augustinen azta gaixtoen kontra gudukatzen, non hari itsasoz eta leihorrez iarraiki ondoan, hura zori hobeagoz egin baitzuen bere nigar

minen ume, haren arima Iainkoa gana itzuliz, haren odolaren ume izan zen baino, hari gorputza emanez.

Iondone Paulok artha utzten deraue emaztei etxeko mainadaz: hargatik hainitzek egiazko uste hau dadukate hekin debozitoneak probetxu geiago ekhartzen dioela mainadari, senharrenak baino; zeren nola senharrek ezpaitaude hain arduraki etxekoen artean, hargatik ezin xuxen detzaketete bertutera emazteek bezain errazki. Konsiderazione hunen gatik Salomonek dio bere proberbioetan, etxeko zori on guzia datxekola famaizen duen emazte sendo eta bortitz haren arthari eta antzeari.

Jenesako liburuan eskiribatua datza ezen Isaakek ikusirik Errebeka bere emaztea zegoela haurrik ezin izanez, Iainkoari othoitze egin zioela haren gatik, non Hebraiko minzoaren arauera, bere othoitza egiten baitzuen harekin batean saietsez saiets, bata baitzegoen othoitzikiko alde batetik eta bertzea bertzetik; hala ere senharren othoitza molde hartan eginik enzun izan zen. Senhar emaztearen batasunik handiena eta fruitutsuena da debozitone sailduan egiten dena, zeini nor hobeki iarraikitera batak bertzea behar baitu gonbidatu. Badira fruituak, irasagarra bezala, bere gozo minaz on guti direnak konfiturarik baizen. Badira bertzeak, uzterrez eta umuz ezin dirauketenak konfituratzen ezpadire, nolakoak baitira geresoak eta abrikotak; halaber emazteek behar dute desira bere senharrek konfitura ditezila debozitonez asuerean; zeren debozitonegaberiako gizona da animalia gaitza, garratza eta gogorra, eta senharrek behar dute desiratu bere emazteak debozitoneari iarraiki dakizkola; zeren debozitonegabeko emaztea hagitz da hautskor, erorkor eta goibelkor bertutean Iondone Paulok erran du *fedea ez taturan gizona saildutzen dela emazte fedetiarrak, eta fedea ez tuten emaztea senhar fededunaz*, zeren ezkontzazko ahaiko hersi haren bidez batak errazki ekhar baitezake bertzea bertutera. Ordea zer benedizino da senharemazte fidelek ekhar saildutzen dutenean Iainkoaren egiazko bertutean?

Gainerakoan, batoren eta bertzearen elkharganako sostengua hain behar da handi izan, non biak sekulan ez titezin bertan eta berehala gertaha haserrerik, arren hekin artean ikus ez tadin kontrestik eta gudurik. Erleak ezin daudezke oiarzunek, oiuek eta soinuek ihardetsten duten lekuan; segur Espiritu saildua ere ezin dagoke azantzik, liskarrik, oiurik eta gudurik den etxean.

Badio San Gregorio Nazianzakoak bere denboran ezkonduak besta egiten zutela bere ezkontzako urthaburuan; gerthuz on neritzake konstuma hura ekhar baledi, kondizinoekin ordea segi ezledilla munduko aphailluez eta sensuetarako dostaketez, baina senhar-emazteek egun hartan



ongi konfesaturik eta komuniaturik ohi baino berokiago Iainkoari gomenda liozotela bere ezkontzako aitzinamendua, bere gogo onak berrizaturik haren geiago eta geiago saildutzeko elkharreko adiskidetasun eta fidelatsun batez, eta hatz berri harturik gure Iauna baitan, bere bizitze thailuko nekhe-trabailuen isaiteko.

## Espos oheko ohoretasunaz

# HOGOI ETA HEMERETZIGARREN KAPITULUA

Espos oheak behar du notha gabea izan, Apostoluak dioen bezala, erran nahi da, eztela hartan ediren behar garbitasunaren kontrako gauzarik eta aiphatzeko ezten kutsurik. Hala ere ezkontza saildua lehenik ordenatu izan zen lur parabisuan, non egundaino oren hartaraino ezpaitzen izan guthiziamenduzko desordenurik, ez eta desohoretzko gauzarik.

Nolazpait elkhar dirudite ahalkegarrizko atseginek eta ian-edaneko plazerek, zeren biek orobat behatzen baitute haragira, lehenbizikoei bere abrekeriazko buelta gatik hutsik haragizkoak daritztelarik. Hetaz bada ezin derrakedana deklaratu dut ian-edana gatik erranen dudana.

Lehenik. Iana ordenatua da batbederaren mantentzeko, bada nola itatea, hutsik norbaiten azteko eta sendorik idukitzeko, gauza ona, saildua eta manatua baita; halaber ezkontza egiten dena, haurrik izaiteko eta munduaren hainitzeko, gauza ona eta guziz saildua da, zeren hau baita ezkontzen xede prinzipala.

Bigarrenean. Iatea ez biziaren mantentzeko, baina batak bertzeari zor diogun elkharreko tratua idukiteko eta amor egiteko, gauza xoil arrazoinezkoa eta ohoretzkoa da; orobat ere badio Iondone Paulok partida bien ezkontza sailduan elkharreko eta legeko batzea dela eginbidea; ordea hain eginbide handia, non ezpaitu nahi partidetarik bat bere oldez hartarik aparta dadin bere lagunaren borondatezko konsentimendurik gabe; ez eta debozionezko eserzizak gatik, zein baita zergatik erran baitut Komunionen sailduko kapituluan hartarakotz ezarri dudana hitza: zenbatena gutiago bada aparta ditek nihort eginbide hartarik bertuterako naitze enganarizkoak, edo haserraldiak eta higoindurak gatik?

Hirurgarrenean. Nola konpainiako eginbidea gatik iaten dutenek behar baitute trebeki ian, eta ez borxaz bezala, eta geiago are enseiatu behar baitira erakustera gogotik iaten dutela, halaber ezkontzako eginbidea bethi segitu behar da fidelki, trebeki eta haurrik izaiteko esperanzarik baliz bezala, zerbait dela kausa halako esperanzarik ezpaliz ere.

Laugarrenean. Iatea, ez bi lehenbizio arrazoinak gatik, bainan hutsik guthizien asetzea gatik, gauza pairaditekeiena da, ez ordea laudatzekoa.





Zeren ian-edaneko guthiziaren plazerak berak ezin duke arrazoinik aski, hala non obra bat laudatzekoa den, aski da pairaditekeiena den.

Bortzagarrenean. Iatea, ez aphetitua gatik xoilki, baina soberaniaz eta desordenatuki, gauza geiago edo gutiago baitatzekoa da, soberania handi edo aphur izanaren eredura.

Seigarrenean. Ordea ian-edaneko soberania eztatza xoilki soberata-sunean, baina oraino iateko moldean eta maneran edo erremanguan. Gauza miragarria da, Filothe maitea, erleentzat hain on eta osasungarri den ezta, guziarekin ere hain kaltegarri zaiela non batzutan eritzen baititu, hala nola hartarik sobera iaten dutenean uda hastean; zeren iate hark emaiten deraue iarietea, eta batzutan ezin itzulizko herioa ere, behintzat eztiatzatuak direnean buru aitzinetik eta bere hegalkoetarik. Egia erraitera hain saildu, hain zuzenezko, hain gomendatzeko, eta Komunarentzat hain premiazko den ezkontzako tratua, guziarekin ere zenbait ordu iakinetan perillos da hari darraizkontentzat, zeren batzutan hekin arimak hagitz eritzentzu bekhatu benialaz, soberania sinpletan gertatzen den bezala, eta zenbait aldiz hiltzentzu bekhatu mortalaz, gertatzen den bezala haurrik izaiteko bide ordenatuaz bertzerik hartzen denean; zein kasutan lege hartarik nihor geiago edo gutiago errebelatzen den eredura, bekhatuak geiago edo gutiago hastiogarriak dire, baina bethiere mortalak. Ezen nola ezkontzaren xede prinzipala eta lehena baita haurrak izaitea, nihor nihoiz ere ezin apartaditeke ordenaturikako legetik, zerbait bertzerik dela kausa haurrik ezin ditekeielarik gerthutzen den bezala umerik ezin ditekeienean emaztea agorra edo iadanik izorra izanez: zeren kausa eta ordu hetan halarik ere gorputzeko tratua da legezkoa eta saildua, haurrik izaiteko bideak eta legeak begiratzen badire, ikusirik ezteela gertatzen ezkontzako xede prinzipalak eman duen legea hauts dezaken gauzarik. Gerthuz, Onan zeritzonak bere ezkontzan egiten zuen obra itsusia eta madarikatzekoa Iainkoaren aitzinean hastiogarria zen Eskiritura sailduak Jenesakoa hogoi eta hemezortzigarren kapituluan dioen bezala. Eta gure mendeko Hignot batzuk (zeinak millatan gaizkiago erraitekoak baitira San Hieronimok Ephesakoak ganako Epistolaren gainean izendatzen dituen Zinikak baino) erran nahi izan dutelarik gizon gaixto haren gogoa eta intenzionea xoilki desgogara zitzaiola Iainkoari, badarik ere Eskiritura saildua bertze-la minzo da, eta bereziki seinatzen du gauza bera zela hastiogarrizkoa eta maradikatzeakoa Iainkoaren aitzinean.

Zazpigarrenean. Bihotz alfer, likhits eta putruz baten egiazko seinalea da haragietan eta ianharrietan gogoa sarturik idukitea othurunza baino lehen; eta are geiago, othurunzatzuz gero trikatzen denean jan-edanetan

hartu duen atseginean, hartan dagoela hitzez eta gogoz, eta bere espiritua iraultzen duela ahamenak iretstean hartu duen plazeraren orhoitzape-nean, egiten duten bezala barazkal-aitzinetik gogoa gerrenean eta barazkal-ondoan platetan dadukatenek. Halakoek merezi lukete mutil kuisina xukatzaile arri; *bere sabela*, Iondone Pauloren erranera, *egiten baitute Iainko*. Ohorezko jendeek ezte gogoa mahainean, hartan iarten direnean bizen, eta othurunza ondoan garbitzentuzte eskuak eta ahoa ian dutenazko gusturik eta usainik ez geiago izaitea gatik. Elefanta animalia lodi-larri bat da, baina lurraren gainean bizi direnetarik ohorezkoena, eta sensu geiago duena, hitz bat erran nahi derautzut haren ohoretasunaz. Ezte bere emeaz bertzerik nihoiz ere hartzen, eta behi hautatu duena samurki maite du, eta halarik ere ezta harekin batzen hirur urthetarik hirur urthetara bizen, eta hori bortz egunekotz xoilki, eta hain gordaka, non hura nihork ezpaitu nihola ikusten tratua hartan, bainan hala bada ere, agertzen da seigarren egunean, non bertze guziak baino lehen, xuxen baitoa zenbait ibaiara, zeinetan barrena gorputz guzia ikhuzten eta garbitzen baitu, nahi ezteula bat ere artaldera bihurtu non ezten lehenik osoki garbitu izan. Ez othe dire aztura eta atun ederrak eta honestak halako animaliaentzat? zeinetaz gonbidatzen baititu jende ezkonduak ez egoitera gogoz loturik bere bizitze thailuaren arauera hartu dituzten gorputzeko plazeretan, bainan hek iragan direnean, hetarik ahalik lasterrena bihotzaren eta gogoaren garbitzera gero arimako libertate osoz akziona garbiagorik eta goragorik egitea gatik. Abisu hortan datza Iondone Paulok Korintiakoei emaiten derauen dotrina exzelentaren obramendu osoa eta konplia: *Denbora labur da, dio, gainerakoa da emazte dutenak daudezila, ezpalute bezala*. Ezen San Gregorioren arauera, hark emazte du, bat ere ezpalu bezala, zeinak harekin gorputzeko konsolazionek hala baititu hartzen, non hargatik gogoa ezpaitzaio aldaratzen eginbide espiritualetarik. Bada zer ere erraiten baita senharraz, orobat aditzen da emazteaz. *Munduaz usatzen dutenak*, dio Apostoluak berak, *beude hartaz usa ezpalezate bezala* beraz guziak serbitza bitez munduaz; nor bere bizitze thailuaren eredura; ordea halako moldez non hartan gogoa amarratu gabe trebeki eta agudoki Iainkoa serbitza detzaten munduko traturik ezpalebillate bezala. Gizonaren gaitzik handiena, dio San Augustinok, da nahi izaitea gozatu, xoilki usatu behar duen gauzaz, eta nahi izaitea usatu, xoilki gozatu behar dituen: Gozatu behar gare gauza espiritualetaz eta xoilki serbitzatu gorputzekoez, zeinetaz serbitzatu behar bidean, heldu garenean hetaz gozatzera, gure arrazoinazko arima egiten baita animalia eta abre-arima. Uste dut erran dudala erran nahi nuen guzia, eta erran nahi eznuena adiarazi dudala, erran gabe.



## Abisuak alhargunentzat

### BERROGOIGARREN KAPITULUA

Iondone Paulok lekzione egiten deraue Elizako Buruzagi guziei bere Timotheo baitan, erraiten duela, *Ohoratzatu egiazki alhargun diren emazte alhargunak*; bada egiazki alhargun direntzat, gauza hauk behardira.

Lehenik, behar da emazte alharguna alhargun den ez xoilki gorputzez, bainan eta bihotzez ere, erran nahi da, behar du deliberatu ezin hautsizko deliberamendu batez bere buruaren begiratzera eta idukitzera alharguntza garbi batetan; zeren alhargun eztirenak birezkontzeko parada hel artean baizen, eztire gizonetarik apartatuak gorputzeko atseginaz bezanbat baizen, bainan hei datxezte bihotzez eta borondatez. Baldin egiazko alhargunak bere buruaren finkatzeko alharguntzako estatuan, botuz ofrezitu nahi baido Iainkoari bere gorputza eta kastitatea, edergailu handi bat iratxekiko dio bere alharguntzari, eta seguranza handi batetan ezarriko du bere erresoluzioea: Zeren, ikusirik botu eginez gero eztuela geiago eskurik bere kastitatearen utzteko, parabisua utzi gabe, hain ieloskor izanen da hartu duen gogoaz, non ezpaititu ezkontzazko gogoeta arinenak ere utziko bere bihotzean den gutiena trikatzera; hala non botu sakratu hartaz burdin-athe bortitz bat ezarriko baitu bere arimaren eta erresoluzioaren kontrako mandatuketan edo eskhaintzen artean. Gerthuz, San Augustinok botu hura handiro xoil konseillatzen dio alhargun giristinoari, eta lehenagoko Origenes iakinsuna aitzinago doa, zeren konseillu emaiten deraue emazte ezkonduen botu egiteaz alharguntzazko kastitatean egoiteko, baldin senharrak hiltzen bazaizte, berak baino lehen, arren bere ezkontzatan ahal dituzketen plazeren artean, badarik ere goza ahal ditezken alharguntza garbiaren merituz aitzindari-zko promez haren bidez. Botuak egitentz botuaz gerostik obrak Iainkoaren gogorakoago, bortitzten du bihotza hekin egiteko, eta eztiotza xoilki Iainkoari emaiten obrak, zeinak baitira gure borondate onaren fruituak bezala, baina konsekratzen oraino gure borondate bera, zeina baita gure obren eta akzioen arbola bezala. Kastitate sinpleaz gure gorputza prestatzen diogu Iainkoari, zilhegi gaudelarik bertze aldi batzuez haren utztera bere plazeretara, ordea kastitatezko botuaz emaitza oso eta ezinitzul arazizko bat egiten diogu hartaz gure buruari eskurik utzi gabe gure hitzaren iateko. Manera hartan, haren gathibu eta meneko iarten garela, zeinaren serbitzatea hobe baita erregetasun guzia baino. Bada nola bi Dotor handi hekin abisuak neurrigabeki on baitzaizkit, hala desi-

ra nuke hain doatsu izanen diren arimak, non hei iarraitzeko borondaterik hartuko baitute, hari litezila zuhurki, sainduki eta sailki egiteko hartan, bere bihotzeko indarrak ongi sondaturik zeruko inspirazioea eskaturik, eta Gidari zuhur eta debozionetsu baten konseillua harturik: zeren horrela den guzia probetxu geiagorekin eginen da.

Bigarrenean. Hortaz lekhora bigarren ezkontzazko ukho hura egin beharda garbiki eta hutsik bere afekzioe guziak iainkoa gana itzultzekoztat garbitasun geiagorekin eta bere bihotzaren alde guzietrik iosteko Iainkozko maiestatearen bihotzarekin; zeren umeak aberatsturik utzteko desirak, edo zenbait bertze munduko abantailik ardiesteko usteak alharguna alhargundurik badaduka, izanen du naski laudorio, ez ordea segur Iainkoaren aitzinean, halaz eta Iainkoaren begietan deusek ere egizko laudoriorik ezin dukeienaz gerostik Iainkoa gтик egiten denak baizen.

Geiago, behar da alharguna, egiazki alhargun izatekotzat, apartatua den eta borondatezki billusia mundurazko kontentamenduetarik. *Atseginketan bizi den alharguna*, dio Iondone Paulok, *hil da bizirik*. Nahi izaita alhargun izan, eta halarik ere atsegin artzea, begietsia, balakatua eta sohasatua izaita; nahi bada dansaketan eta bankezetan aurkhitu, nahi badu usainzaturik, berregindurik eta totildurik ibilli, hori da alhargun bizia izaita gorputzez, bainan alhargun hilla izaita arimaz bezanbatean. Zer ansia da, othoi, Adonisen eta amorio lizunaren etxeko bandera egin dadin kukurusta xuriz plumaia giza gotiturik, ala sedazko belo ixurtuz begitartean inguruan sare gisa hedaturik? aitzitik haintzetan banaloriaren emendailutzat beltza xuriaren gainean emaiten da haren kolorearen abantailatzea gatik. Alhargunak enseiatu duenean emazteek ohi duten gizonen begietan eder izaiteko antzea, beithaeta pitztura perillosagoak aurtikitzen hekin bihotzetara: beraz plazer ergel hetan bizi den alharguna, bizi delarik hil da, eta ongi erraitera, ezta alhargunaizuna edo alhargun itxura baizen.

*Ebakitzeko denbora ethorri da, usotortollaren boza enzun izan da gure lurrean*, dio Kantikak: Munduko soberaniak ebaki behar ditu nork ere debozioez bizi nahi baitu, guzien gainetik ordea ebakimendu hura premiazkoa da egiazko alhargunarentzat, zeina, uso+apal garbi bat bezala, bere senhar ioanaren gainean nigarrez, hartzbeherapenez eta auhenez orai berehala egon baita. Noemi bihurtu zenean Moabetik Betlemera, hura ezkondu berrian ezagutu zuten hiriko Andreak hasi ziren erraiten, ez othe da hori Noemi? Ordea ihardetsi zerauen: arren enazazuela izenda Noemi (ezen Noemi erran nahi da graziosa, arraia eta ederra) bainan izenda nazazue Mara, zeren Iaunak berretu baiteraut arima kharatstuzaz. Hori erraiten zuen zeren hil baitzizaion senharra: halaber alhargun debo-



tak eztu nahi behin ere eran dakion, eta estima dadin ederra eta graziosa dela, aski eritsten baitu Iainkoak nahi duen bezalako, erran nahi da, bere begietan humil eta xipi izaitea.

Lanpek, zeinetako olioia aromatika baita, usain gozoago banatzen dute argiak hillez: hala alhargunek, zeinen amorioa izan baita garbi ezkontzan, bertutezko eta kastitatezko usain hobeago eta handiago isurtzen dute, hekin argia, erran nahi da senharra, iraungi denean herioaz. Senharra maite izaitea bizi deino, gauza aski komuna da emazteen artean. baina senharra maite izaitea, hala non hura hillez gero, ez tuen emazteak bertzerik nahi, amoriozko gradu eta titulu da egiazko alhargunei baizen eztagotena. Iainkoa baitan esperanza izaitea, senharra iabe eta habe dago-eino, ezta gauza hain bakhana; baina Iainkoa baitan esperanza izaitea alhariabe hartaz gabetuz gerostik, hainitz laudorio merezi duen gauza da. Hargatik laharguntzan errazkiago ezagutzen da nihork bere ezkontzan izan dituen bertuteen perfekzioa.

Umeak dituen alhargunak haren ntzearen eta gidaritasunaren beharren daudenak, eta beregainki hekin arimari eta bizitzeko zimendamenduari behatzen derauezatzen gauzetako, ezin utz detzake niholatoko maneraz, eta ez titu ere utzi behar. Ezen Iondone Paulok klarki dio obligatuak direla hetaz artha idukitera bere burhasoei ordainaren bihurtzeko, eta are geiago zeren norbaitek ezpadaduka bere etxetiarrez eta beregainki bere mainadakoez artha eta kontu, hura gaixtoago baita fedea ez tuen baino, ordea halakoak badira umeak non ez tuten gidaren beharreik, orduan alhargunak behar ditu bere afekziona eta gogoeta guziak batetara erakharri, hetaz garbikiago baliatzekotzat bere buruaren aitzinatzeke Iainkoaren amoriora. Baldin zenbait borxazko borxak obligatzen ezpadu egiazko alharguna kanpoko nahasketara, nolakoak baitira hauziak, konseillu emaiten diot alhargunari hetan ez bat ere sartzeaz, eta bere egitekoen errekaitezko antze eta bide emeenari, bakezkoenari eta geldienari iarraikitezko ezpalirudi ere fruitutsuena lizela. Zeren munduko ioan ethorrietak fruituak xoil behar dira izan handi, konparatzekoak badira bake geldi eta saindu baten ontasunekin; bertze alde dela, hauziek eta bertze halako nahaskeriek barriatzen dutela bihotza eta hainitzetan athera idekiten derauezatela kastitatearen etsaiei, nihor iarten denean debozionaeren kontrako eta Iainkoari eder etzaizkon erremenguetan, noren ere faborearen beharra baitu, hari begitarte egiteko.

Biz orazionea alhargunaren ardurako eserziza, zeren nola ezpaitu amoriorik behar Iainkoarentzat baizen, eztu geiago hitzik ere kasik behar Iainkoarentzat baizen; eta nola burdina, ezin darraikidikeonean aimant-harriaren erakhartzeari, diamanta aitzinean edo bien artean izanez, oldar-

tzen baita aimanta gana, diamanta urrundu den bezain laster; halaber Iainkoa gana ezin osoki oldar ziteken alhargunaren bihotzak eta Iainkozko amorioaren deiei ezin zerraiki zikeienak senharra bizi zeino, berehala, hura hil denean, beroki egin behar du laster zeruko usain onetara, erran baleza bezala espos sakratuak dioena, *O Iauna, orai ni osoki neure naizenean har nazazu guzia zure, erakhar nazazu zure ondolik lasterka eginen dugu zure usain onak aditurik.*

Alhargun sainduari dagotzan eta besarkatu behar dituen bertuteak dire, ukho egitea ohorei, graduei, batzarrei, tituluei eta bertze horrelako banaloriei; haren egitekoa da pobreak serbitzatzea, eriak ikhertzea, ondikatuak konsolatzea, neskato gazteak bizitze debotera ekhartzea eta berori bertute guzietako mirail ageri iartzea emazte gazteen aldera. Xahutasuna eta doa dira hekin tresnen bi edergailluak; humiltasuna eta karitatea dira hekin akzionaen bi edergailluak; ohoretasuna eta mansotasuna dira hekin mintzoaren bi edergailluak; modestia eta ahalkekortasuna dira hekin begien bi edergailluak, eta Iesus gurutzatua da hekin bihotzetako amorio bakoitza.

Hitz batez, egiazko alharguna da elizan marxoko bioleta daritzon lore xumea, paregabeko ez tutasunik banatzen duena bere debozionaeren usainaz, eta bethi kasik gorderik dagoena bere xipitasunaren ostozabalen azpian, eta bere kolore guti biziz eta erdi ilhunez mortifikaziona erakusten duena. Sortzen da leku freskoetan eta ez landuetan, nahi ezpaitu hrtua izan munduko ibilketez bere bihotzeko freskuraren hobeki begirtzea gatik ontasunen, ohoreen edo are amorioen desirak ekhar liotzoketen pitztura guzien kontra; *doatsu izanen da*, dio apostoluak, *horrela badaga*.

Hainitz bertzerik erraiteko nuke gauza horren gainean; baina den guzia erran izanen dut, erran dukedanean bere estatuko ohoreaz ieloskor den alhargunak erneki irakur detzala San Hieronimo handiak eskiribatzen dituen guthun ederrak Furia, Salbia eta bertze andre prestuak gana, zeinak guziz zori onezkoak izan baitziren hain aita espirital handiren alaba espiritalak izaiteaz. Zeren ezin deusik iratxei dakidikeo erraiten derauenari abisu hau baizen, egiazko alhargunak nihoiz ere bertzeak ez tituela gaizki erran eta ez baiatu behar, zeren bigarreneko edo are hirugarreneko eta laugarreneko ezkontzetara iragaiten diren; ezen kasu iakin batzuetan Iainkoak hala ordenatzen du bere loria handienetan. Eta bethi behar da zaharren dotrina hau begien aitzinean iduki, alharguntzak eta birjinitateak ez tadakutela zeruan gradurik, humiltasunak ordenatzen derauena baizen.



## Hitz bat Birjinentzat

# BERROGEI ETA BATGARREN KAPITULUA

O birjinak! eztut hirur hitz hautaz bertzerik zuei erraiteko, zeren gainerakoa aurkhituko duzue berzetan. Baldin munduko ezkontzan sartu nahiak bazarete, idukazue bada ieloskorki zuen behenbiziko amorioa zuen lehenbiziko senharrarentzat. Uste dut enganamendu handi dela, bihotz garbi baten orde, bihotz higatu, amorioz nahasi eta erabilli bat ekhartzea. Ordea zori onak deitzen bazaituzte kastitatezko eta birjinezko eztei espiritualetera, eta nahi baduzue zuen birjinitatea sekulakotz begiratu: O Iainkoa! begirauzue zuen amorioa ahalik mindurikiena zuen Iainkozko esposarentzat; dakizuela, nola hura baita garbitasuna bera, eztuela deus garbitasuna bezain maite, eta hari gauza guzien premiziari zor zaizkola. San Hieronimoren guthunek emanen derauzkitzute premia dituztuen abisu guziak. Eta zuen kondizionaleak obediencia obligatzen zaituztenaz geroztik, hauta zazue gidari bat, zeinaren gidamenduz zuen bihotza eta gorputza saildukiago konsekratu ahal diotzotzuen Iainkoarn maiestateari.

## INTRODUKZIONEAREN LAUGARREN PARTEA

Maizgoko tentazioneen kontrako abisu premiazkoak dadutzana



## Eztela konturik egin behar munduko umeen erranez

### LEHEN KAPITULUA

Mundukoek ikusiko duten bezain sarri bizitze debotari iarraiki nahi zaizkola, aurtikhiko tuzte zure gainera milla tragaza bere burlakeriez eta gaixki erranez; gaixtoenek erranen dute itxuraz eta artez zabiltzala, munduak begitarte gaixto egin derautzula, eta hark zuri ukho eginez, bazoazila Iainkoa gana; zure adiskideak iarriko zaizkitzu milla eta milla abisu, bere ustez, zuhurrik eta karitatezkorik emaiten. Eroriko zara (erranen derautzute) zenbait melankolia beltzetan, galduko duzu munduan duzun kerdita, ezin pairatuzko eginen zara, zahartuko zare muga baino lehen, zure etxeko egitekoak gaizkituko dira, bizi behar da munduan munduko gisa, eta milla halako nahaskeria.

Ene Filothea, hori guzia ezta hitzkatze erhorik eta banaloriazkorik baizen; jende hek eztute ansiarik zure osasunaz, ez eta zure egitekoek; *mundukoak bazinete*, dio salbatzailleak, munduak bere duena onets lezake, baina zeren etzareten mundukoak, hargatik gaitzez dagotzue. Ikusi dugu aitonon semerik eta andrerik gau guziaren, bai hainitz gau osorik bata bertzearen ondoan datuetan, kartetan eta bertze iokotan iragaiten; othe da lan grinatsuagorik, tristeagorik eta gogoetatsuagorik hura den baino? guziarekin ere mundukoek etzuten hitzik erraiten, adiskideak etziren hargatik axolatzen, eta oren batetako meditazioea gatik, zeren ikusten duten lehen baino aphur bat goizago iaikiten garela komunione saindura prepartatzea gatik, laster egiten dute midikua gana gure senda arazitzeko ur beltzetarik eta horitasunetik; illabethe batetako gau guziak iraganen tuzte dansetan, nihork eztu arrankurarik, eta hutsik eguerri gaueko beilla gatik, eztula dute guziek eta marraskaz daude sabeleko minez biharamunean. Nork eztakusa mundua dela iuje gaixto bat, bere umeentzat eme eta begitartetsu, baina Iainkoaren umeentzat gaiz eta garratz.

Ezin gaudezke munduarekin ongi, harekin batean galtzen garenean baizen. Ezta biderik haren kontentatzeko, zeren sobera aldetara itzultzen da, *Ioanis etorri da*, dio gure salbatzailleak, *iaten eta edaten eztuela, eta badiozue deabrua duela; etorri da gizonaren semea, iaten eta edaten duela, eta badiozue Samaritano dela*. Egia da, Filothea, largatzen bagare konpainiari amor eginez irri gitera, iokatzea, dansatzera munduarekin, eskandalua hartuko du; harekin hari ezpagare, akusatuko gaitu itxurazkoak eta melankoliatuak garelako; ederki aldagarritzatzen bagara, erranen du zerbait egin nahiz gabiltzala; edergailluak utzten baditugu, usteko du bihotz eroria dugula;

erranen du gure alegrianzak direla largogegitasunak, gure mortifikazioeak direla tristeziak, eta horrela behatzen deraukuino begi gaixtoz, sekulan ezin garatezke haren gogorako. Gure eskasak emendatzentu eta leku guzietan erraiten du bekatu direla; gure bekatu beniala egiten du mortal, eta erorkorrez egiten ditugun bekatuak hartzentu, maoiziaz egin baginitu bezala. Iondone Paulok dio karitatea manso dela, eta mundua kontra gaizki egin nahi ada; karitateak eztu gaizkirik pensatzen, mundua kontra bethi gaizki pensatzen iarria da, eta gure eginak ezin akusa detzakeienean, akusatzentu gure intenzioeak, dela xikiroek duten adarrrik, dela eztuten, dela diren xuri, dela diren beltz, otsoak hargatik eztitu utziko ian gabe, ahal badagi.

Zer ere eginen baitugu, munduak eginen derauku bethi gerla; luzez bagaude konfesoaren aitzinean galdeginen du zer hanbat dugun erraiteko; guti bagaude, erranen du eztugula guzia erraiten; gure urrats guziak zelatatuhoitu, eta koleran largatuko dugun hitz arina gatik, leku guzietan banatuko du ezin pairatuzkoak garela; gure egitekoek izanen dugu artha idurituko zaio abarizia dela, eta gure emetasuna dela inozenkeria; munduko umeez bezanbatean, hekin kolerak, dire bihotz handitasunak, hekin abariziak dire zuhurziak, hekin trebetasunak dire ohorezko konpainienduak; finean armiermek bethi gaixtatzentuzte erleen lanak.

Utz dezagula mundu itsu hura, Filothea, dagoela oiuz nahiz bezanbat, hontza bezala, argiko xorien izitzeko; garela finko hartu dugun gogon, ezgaitezila itzul egin ditugun erresoluzionetarik; bethi puntui hortan bagaude, ageriko da ea egia denz zinetan sakrifiziatu gaizkola Iainkoari, eta bizitze debotean iarri garela. Izar adatsdunek eta finko dabiltzanek gure iduriz orobat hurren egiten dute argi, bainan adatsdunak gutiren buruan ilhuntzen dire, nola ezpaitira iragaitzako su batzu baizen, eta bertzeek bethi datxeten argia dute. Halaber itxurapenak eta egiazko bertuteak elkharren iduri handia dute kanpotik; baina bata bertzetik errazki ezagutzen da, zeren itxurapenak eztu irauterik eta barraiatzen da goiti doan khea bezala; ordea egiazko bertutea bethi dago fermu eta finko.

Ezta guretzat on guti gure debozionario hatsapenaren seguratzeko, haren gatik izaiten badugu laidorik eta gaizki errailleen ahotan erabilten bagare, zeren bide hartaz begiratzen gara banaloriaren eta urguillukeriaren perilletik, zeinak baitira Ejipteko emaginak bezala, hek manatu baititu iferuko faraonek hil detzatela Israeleko semeak sortuko diren egun berean. Gurutzean iosiak gare munduaz denaz bezanbatean, eta behar da mundua den gurutzean iosia gure aldera; hark xori+burutzat gadutza, dadukagun guk ere hura erhotzat.



## Bihotz ona behar dugula

### BIGARREN KAPITULUA

Argiak, ederra delarik eta desiratzekoa, lilluratzentu gure begiak, ilhunbetan luzeki egon direnean, eta herri batako jendekin treba artean, zenbat ere kortes eta begitartetsu baitire, halarik ere nolazbait izitzen gara. Naski, Filothe maitea, bizitzeko ganbiatze hunetan hainitz gogorapen alxatuko da zure barrenean, eta munduko erhokeriei erran derauezun adiu handiak zenbait tristezia eta flakeza emanen derautzu bihotzean; hori gertatzen bazaitzu duzun pazienza guti bat, othoi; zeren ezta deus izanen, ezta izidura guti bat baizen, bizitze berriak ekhartzen derautzuna, hura ioanez gero, hamar milla konsolazione izanen tutzu. Lehenbizian damutuko zaitzu agian zure banotasunetan erhoek eta burlariek emaiten zerautzuten oriaren utzteaz, bainan, O Iainkoa! nahi othe zenduke galdu Iainkoak egiaz emanen derautzun sekulakoa? Iar-egon, eta ioan-ethorri banaloriazkoek, zeinetan eman baititutzu zure aitzineko urtheak presentatuko zaizko oraino zure bihotzari, hura beithatu, bazkatu eta bere gana berriz erakharri nahiz, bainan othe zenduke bihotzik sekulakotasun doatsuari ukho egiteko hain arinkeria enganarizkoak gatik? Zinets nazazu bethi fermuki hari bazara eta finko bazaude, etzara hainitz egonen hain eztitausn gozorik eta plazergarririk hartu gabe, non aitortuko baituzu munduak ezuela behazun kharminik baizen ezti haren aldean, eta debozionario egun batek geiago balio duela milla munduko bizitzearen urthek baino.

Ordea ikusten duzu girstinoaren perfekzioeko mendia neurrigabe-ki dela gora; he! ene Iainkoa, diozu, nolatan ikhanen ahal naiz? bihotz zaitte, Filothea, erle-umeak hasten direnean bere formaren hartzen deitzen dire Ninfak, eta orduan ezin oraino hegaldita ditezke loretara ez mendietara, ez aldapa hurbilletara eztiaren biltzeko; bainan aphurka amek aphaindu derauezaten ezitik ianez, ninfa xume hek hartzentuzte hegalak, eta hala azkartzen dire, non gerro hegaldatzen baitira nora nahi berak bere bizikaiaren bilha. Egia da debozionario oraino erle-umetxoak gare, ezin ikhan gaitezke gure gogoaren arauera, zein gogo ezpaita gutiago, Girstinoaren perfekzioeko goren puntura ardietstekoa baizen: badarik ere hasten gara formaren hartzen gure desirez eta erresoluzioeez, hegalak hasten zaizkigu sortzen. Esperanza behar dugu bada egun batez iza-

nen garela erle espiritualak, eta hegaldatuko garela, eta han artean bizi gaitzen debot zaharrek utzi derauzkiguten irakhasmendueta ezti, eta dagiogun Iainkoari othoitz, dizkigula usoaren bezalako hegalak, ez xoilki oraiko biziak diraeino hegaldatzeko, bainan etorkizunekoaren sekulakotasuan doatsuan gozoki pausatzeko.





**Nolakoak diren tentazioneak,  
eta zer diferentzia den tentazionearen  
sentitzearen eta konsentitzearen artean**

**HIRURGAREN KAPITULUA**

Iduri bekizu, Filothea, Prinzesak gazte bat bere esposak neurrigabeki maite duena, eta zenbait gaixtok hura galdu eta haren espos-oheta lizundu nahiz, igorten dioela norbait amorezko mandatari lizun harekin bere nahi galgarriaz minzatzera. Lehenbizirik, mandatari hark Prinzesari erakusten dio bere nahiaren gogo. Bigarrenean, Prinzesak mandatua hartzen du, edo gogotik, edo ez gogotik. Hirurgarrenean, edo konsentitzen du, edo ez konsentitzen: halaber Satanek, munduak, eta haragiak, arima bat Iainkoaren semearekin esposaturik ikusirik, igorten diotzate tentazioneak eta gogoramenduak, eta hek direla bide, lehenik erakusten zaio bokhatua. Bigarrenean, gogoramendu hetan edo lakhetzen zaio, edo etzaio lakhet; finean edo konsentitzen du, edo ez konsentitzen; eta hauk dire laburki erraitera, hirur pausuak gaizki egitera iautsteko, tentazionea, atsegina, eta konsentimendua. Eta hirur akziona hek hain agerriz ezagun eztiarelarik bertze bekhatu suerte guzietan, badarik ere ezagutzen dira, ukhi ditezkeien bezala, bekhatu handietan eta gaixtoenetan.

Zein ere nahi den bekhatuaren tentazioneak iraun baleza ere, gure bizitze guzian, ezin egin ginitzake Iainkozko maiestatearen desgogarako, hartan lakhetzen ezpazaiku, eta konsentimendurik emaiten ezpadiogu. Arrazoina da, zeren tentazionea hari denean ezpaigara gu hari, baina pairatzen baitugu, bada hartan atseginik hartzen eztugunaz gero, ezin dukegu hobetik bat ere. Iondone Paulok denbora handiz pairatu zituen haragiaren tentazioneak, ordea ez xoilki etzen hargatik Iainkoaren desgogarako, aitzitik hek zirela kausa heldu zitzaion Iainkoari loria. Angela de Foligni doatsuak sentitzen zituen hain haragizko tentazione bortitzak, non urrikalkizuntzen baita hetaz minzo denean. Handiak ere ziren San Franzesek eta san Benediktok pairatu zituzten tentazioneak, batak elhorrirpetan, bertzeak elhurpean sartu eta erabilli baitzuten bere gorputza billusgorriturik, hekin iraungitzeko; badarik ere etzuten hargatik Iainkoaren grazia nihola ere galdu, aitzitik hura bere baitan hagitz emendatu zuten. Bihotz sendo bat behar duzu bada, Filothea, tentazioneen artean, eta ez sekulan iduki garaitua zarela zure desgogarako direino, bethi

dakizula eta orhoitzen zarela bertze gauza dela tentazionearen sentitzea, eta bertze bat haren konsentitzea. Ezen senti detzakegu, gure gogoaren kontrako badira ere, ezin ordea konsentidetzakegu hetan atsegin hartu gabe, iakinik atsegina komunski dela konsentimendura heltzeko urratza eta pausua. Beraz gure salbamenduaren etsaiek eskaini diazagutela nahiz bezanbat beitha eta baska, beudez arduraki gure bihotzeko athetan sartu nahiz, erran diazagutela nahi duten bezanbat elhe, baina gogoa dadukagino hetan atseginik ez hartzeko, Iainkoa ezin ofensa dezakegu, erran derautzudan Prinzesaren senhar Iaunak ezin gaizkira har dezakeien bezala, hark enzuna gatik igorri zitzaion mandatari lizuna, haren erranetan plazer suerterik hartu ezpadu.

Guziarekin ere diferentzia hau da arimaren eta Prinzesaren artean, zeren Prinzesak desohorezko mandatua enzun duenean, on bazaio kanpora dezake mandataria, hura geiago enzun gabe, baina eztago bethi arimaren ahalean tentazionearen ez sentitzea, bethi ahala duelarik haren ez konsentitzeko; hargatik tentazioneak luzeki diraelarik, kalterik ezin egin diazakegu, gure desgogarako deino.

Ordea tentazionearen ondoan etor ditekeien atseginaz bezanbatean, zeren bi parte baititugu gure ariman, bat beherekoa, bertzea gainekoa, eta beherekoak ezpaitarraio bethiere gainekoari, aitzitik bere lanak egiten baititu beregain, hainitzetan gertatzen da behereko parteak atsegin duela tentazionean gainekoaren konsentimendua gabe, aitzitik haren oldearen kontra: eta hori da Apostoluak deklaritzen duen gudua eta gerla, erraiten duenean bere haragia guthiziatzen dela espirituaren kontra; badutela mienbroek lege bat, eta espirituak bertze lege bat duela, eta hala bertze horrelako gauzez.

Ikusi othe duzu egundaino, Filothea, suko ikhatz gorri murre handi bat hautsez estalirik? nihor heldu denean hamar edo hamabi orenen buruan handik su bilha, ezta kausitzen guti bat baizen suhaldearen erdian, ta oraino nekhez; han zen bada, kausitzen denaz gero: eta hartaz bertze ikhatz lehen hillak berriz pitz eta irazeki ditezke: orobat da gure bizitze espiritualean tentazione handien eta bortitzen artean dagoen karitateaz. Zeren tentazioneak, bere atsegina sararazirik behereko partean, arima guzia hautsez, iduriz behintzat, estaltzen du, eta Iainkoaren amudioa den lekurik xipienean hertsten du: zeren ezta geiago ageri nihon ere bihotzaren erdian, espiritupean barrena baizen, badirudi ere eztela han eta nekhez aurkhitzen da. Badarik ere egiaz han da, halaz eta, gure arimako eta gorputzeko ondar guziak nahasiak direlarik, gogoa fermu dadukagunaz gero ez bekhatuaren, ez tentazionearen konsentitzeko, eta gure



kanpoko gizonak duen atsegina barrenekoari desplazaz zaionaz gerostik. Eta gure borondatearen ingurunetan dagoelarik, ezta halarik ere hartan barrena; hargatik ezagun da halako atsegina dela nahi gabezkoa, eta halakoa deino, ezin ditekeiela bekhatu.

## Bi exenplu eder horren gainean

### LAUGARREN KAPITULUA

Hanbat doatsu erran dudanaren ongi aditzea, non ezpaitut dudarik eginen zuri haren luzeki deklaratzear. San Hieronimok dio gizon gazte bat ohe guri baten gainean hedatu eta lotu izan zela firikuzko lokharri legunez, eta emakume lizun batek berariaz haren fermtasunaren inharrotseko, harekin etzanik eskuztatze eta balaku likhitz suerte guziez hura gonbidatzen eta ertxatzen zuela; hark ez othe zuen parerik eztuen haragizko pitzturarik sentitu behar? Haren sensuak ez othe ziren atseginduraz bethe behar? Haren burua eta fuina ez othe ziren ordu hartako bereko plazergarriez iragan behar? bai segur, eta halarik ere hura inguratzen duten hain bertze asalduren, eta atsegingarriren artean, tentazionetako bizuntza eta erauntsia izigarritzko haren erdian erakusten du bere bihotza eztela garaitua, eta borondateak eztuela nihola ere konsentitzen: halaz eta ikusi zuenean gauza guziak zituena bere kontra alxatuak, eta bere gorputzeko partetarik etzuela bat ere bere manuko mihia baizen, hura hortzez trinkatu eta aurtikhi zuenaz gero burreuek eztirez eta bertze errementez gorputza pena zezaketen baino kruelkiago hare arima zerabillan emazteki lizun haren begitartera; hala ere Tiranoak ez fidaz hari garai lekidikeola doloreez, uste izan zuen garaituko zitziola atseginez.

Santa Katalina Sienekoak gauza beraren gainean izan zuen guduaren historia guziz da miragarria: huna laburki nola den. Espiritu gaixtoak esku izan zuen Iainkoa ganik birjina saindu haren garbitasunaren akometatzeko ahal zukeien errabiadura handienaz, kondizionerekin ordea etzuela hura ukhituko: ekharri ziotzan bada bihotzera gogoramendu lizun motha guziak, eta haren geiago pitzete gatik, bera bere lagunekin gizon eta emakume iduriak harturik, milla eta milla haragizkotasan eta lizunkeria suerte giten zituen haren begien aitzinean, hura gonbidatzen eta ertxatzen zuela hitz eta sohas ahal diratezkeien itsusienaz, eta gauza hek guziak kanpokoak zirelarik, guziarekin ere sensuen bidez barrena sartzen ziren birjina garbi haren bihotzean, zeina, berak gero aitortzen zuen bezala, hetaz baitzen bethea, hala non ezpaitzizaion azkhendu lizunkeria eta haragizko atsegin lizunen uholdeak eta erauntsiak inharrosi etzuen gauzarik, gaineko borondate hutsa eta finena baizen. Gudu hartan denbora handiz egon zen, eta gure Salbatzailleak, egun batez hari bere begitarte erakusi zioe-



nean, erran zioen Andre saindu hark: Non zinen, ene Iauna maitea, ene bihotza ilhunbez eta lizunkeriez bethe zenean? Horren gainean ihardetsi zioen: Alaba, zure bihotzean ninzen. Eta nola, hark berriz, ene bihotzean zinunden hain bertze lizunkeriekin? hain leku likhitsetan egon nahi duzu bada? Eta gure Iaunak erran zioen: Erradazu, alaba, zure bihotzeko pensamendu hek emaiten othe zerautzuten plazerik edo damurik? khiratz othe ziren edo gozo? Enuen, Iauna, dio, neurrigabeko khiratstasunik eta tristeziarik baizen. Eta hark berriz: nork ezarten zuen khiratstasun eta tristezia handi hura zure bihotzean nik baizen ene goderik egonaz zure arimaren erdian barrena? Zinetzazu, ene alaba, zurekin orduan izan ez baninz zure borondatea inguratzen zuten eta ezin hauts zezaketen gogoramendu hek, dudagaberik hari garaituko eta barrena sartuko zitzaizkon, eta nola zure borondatea batera edo bertzera zilhegi baita, plazerki hartuko zituen, gero manera hartaz zure arimari herioa emanen zioten; baina zeren barrenean bainengoen ezarten nuen zure bihotzean frogatu duzun damua, eta tentazioneari athea ahal bezanbat hertsten zioen gudua; eta zeren ezin baitzidekeien nahi zuen bezanbat, hargatik desplazer eta gaitzeritze handiago sentitzen zuen tentazionearen eta bere burua beraren kontra: manera hartan pena hek merezimendu eta irabasia handi bat ziren zuretzat, eta zure bertutearen eta bortitztasunaren emendagaillu handia.

Ikusten duzu, Filothea, nola su hura estalirik zegoen hautspearan? nola tentazionea eta atsegina sartu ziren bihotzean barrena? nola inguratu zuten borondatea? Ikusten duzu, nola borondateak xoildurik, zihardukan eta guduka hari zen gogora ekhartzen zitzaion gaizkiaren kontrako khiratstasunez, desplazerez eta arnegamenduez, bethi finko zegoela konsentimendurik eman nahi gabez hura inguratzen zuen bekhatuari? O Iainkoa! zer hetstura Iainkoa maite duen arimarentzat, ez ikakiteaz nihola ere ea Iainkoa duenz bere baitan, edo ezduenz, ea zeina gatik dihardukan iainkoaren amorioa haren baitan osoki iraungia denz edo ez! halabaina zeruko amorioaren perfekzioneko lorerik fina eta punturik gorena da, amoriodonaren paira eta guduka arazitzea amorioa gatik, iakin dezan gabe ea duenz, zeina gatik eta zeinarekin batean horrela gudukatzen den amorioa.

## Bihotzgarria tentazionetan den arimarentzat

### BORTZGARREN KAPITULUA

Ene Filothea, akometadura handi eta tentazione bortitz hek Iainkoak eztitu nihoiz ere utzten etortzera, bere amudio garbi eta beregaineko hartara alxatu nahi dituen arimen kontra baizen, bainan ezta hargatik erran behar segur direla haren ardiesteko: zeren hainitzetan gertatu da akometatze bortitzetan fermu egon zirenak, Iainkozko laguntzari gero ez fidelki iarraikiz, erori direla tentazione arinetan. Hori erraiten dut, arren gertatzen bazara behin ere hain tentazione handiz akometaturik, iakin dezazun Iainkoak egiten derautzula ohigabeko faborea eta hartaz deklaraten derautzula nahi zaituela handi egin bere begien aitzinean; eta halarik ere bethi zaudezin humil eta beldurti, seguranarik hartzen ezituzula garaituko ahal zaitzela tentazione xehei, handiei garaitu zaitzalarik, Iainkoaren Maiestatearen aldera izanen duzun ardurako fidelitasunaz baizen.

Zer ere tentazione bada gertatuko baitzaitzu, eta zer ere atsegina handik etorriko, zure borondatea finko dagoeino bere konsentimendua eman gabe ez xoilki tentazioneari, bainan eta atseginari, etzaitzela hargatik asalda, zeren Iainkoa ezta bat ere ofensatzen.

Norbaiti bihotza flakatu zaionean, eta bizitzeko seinalerik geiago emaiten eztuenean, eskua emaiten zaio bihotzaren gainean, eta sentitzen bada den gutiena dabillala, iujeatzen da bizi dela, eta zenbait ur preziazuz edo bertze zenbait erremedio eginez, berriz erakhar dakidikeola indar eta sentimendua; hala batzutan gertatzen da tentazioneak borthitz izanez, badirudiela gure arimari indarrak osoki flakatu zaizkola, eta hatsik ezpalu bezala, jezuela geiago ez bizitze ez egite espiritualik, bainan ezagutu nahi badugu hartaz zer den, pausadezagun eskua haren bihotzaren gainean. Konsidera dezagun ea bihotzak eta borondateak dutenz oraino bere egite espirituala, erran nahi da, ea bere eginbidearen arauera tentazioneari eta atseginari konsentimendua ukhatzen dioten hari iarraiki gabe; zeren gure bihotza ukhoan dagoeteino bere baitan, segur gara ezen karitatea, zein baita gure arimako bizi, gure baita dagoela ere, eta Iesus gure Salbatzaillea aurkhitzen dela gure ariman, gorderik eta estalirik dagoelarik, hala non orazioneari arduraki iarraikiz, Sakramenduez usatuz, Iainkoa baitako fidanzan egonez beldurtuko baitzaizkigu gure indarrak, eta bizitze oso eta gozo batez biziko baigara.



## Nola tentazionea eta atsegina diratezkeien bekhatu

### SEIGARREN KAPITULUA

Aiphatu dugun Prinzesak eztu hobenet egiten zaion mandatu desohetza gatik, halaz eta, kasu emandugun bezala, bere gogoaren kontra heldu zaion gerostik: baina kontrara zenbait begitartez lekuri eman bazuen halako mandaturik hari egiteko, haren ondoan dabillanari berak lehenik amorio eman nahiz, dudarik gabe hobenduri lizate mandatu bera gatik; eta, minbera iduri egin baleza ere, mereziluke erantzute eta gastigu. Halaber gertatzen da batzutan tentazione hutsak bekhatutan ezarten gaituela, zeren geurok tentazionea bilhatzen baitugu. Konparazionera, bada, kit iokotan hari naizenean, zin eta burho errazki egiten dudala, eta tentazioneak hori ekartzen derautala, bekhatu egiten dut noiz ere iokotan hari bainaiz, eta hobenduri naiz iokoa etorriko zaizkidan tentazione guziez. Baldin bada kit zenbait konpainiak ekhartzen derautala tentazionerik eta erorterik, eta halarik ere hartaratzen banaiz neure gogoz, dudarik gabe hobenduri naiz han hartuko ditudan tentazione guziez.

Tentazionetik heldu den atseginari atea herts dakidikeonean, bethi bekhatu da hari idekita, hartarik hartzen den plazera, eta emaiten zaion konsentimendua handi edo xipi, luze edo labur den eredura. Bethi gauza baiatzekoa egiten du erran dugun Prinzesak, ez xoilki enzuten badu egiten zaion mandatu lizuna; baina oraino hura enzunez gerostik, hartan lakhetzen bazaio bere bihotza kontentamendurekin haren gainean erabiliz: zeren konsentitu nahi eztelearik egiten zaion mandatuaren arauera egiteko, guziarekin ere hartan hartzen duen kontentamenduz konsentitzen du bihotzak gogoz obra dezala: eta bethi gauza lizuna da obra lizunari edo bihotzez, edo gorputzez lotzea, aitzitik gauza lizunari bihotzez lotzea halako maneraz da lizuntasuna bera, non, bihotzak nahi eztelearik, gorputza lizuntzen bada, ezin baititeke bekhatu.

Tenta zaitezinean bada zenbait bekhatuaren egitera, konsiderazazu ea zure borondatez eman duzun lekuri tentatu izaiteko, eta orduan tentazioneak berak ezarten zaitu bekhatutan, zeroni sartu zare perilla gatik. Hori aditzen dela, baldin okasioneari errazki itzuli ahal bazaizko eta aitzinetik ikusi baduzu edo ikusi behar bazenduen tentazionea etorriko zitzaizula; baina eman ezpadiozu tentazioneari etortzeko biderik, niholaz ere ezteiteke zuretzat bekhatu.

Tentazionetik heldu den atseginari itzuli ahal gaizkonean eta ezpaizko itzuli, bada bethi zerbait bekhatu, hartan guti edo hainitz egon garen eredura, eta hartu dugun atseginari leku eman diogun arauera. Baldin emakume batek lekuri ez emana gatik solhastatua izaiteko, plazerik hartzen badu nihork hura solhasta dezan, gaizki erraitekoa da hargatik, hartan hartzen duen plazera heldu ezpada solhastaketatik baizen. Konparazionera, baldin hari amorio eman nahi dioen mutil totillak ederki ukhitzen badu gitarra, eta plazerik hartzen badu, ez zeren haren amorioaren ihisian dabillan, baina zeren ezteki eta ederki ukhitzen duen gitarra, ezta bekhatu izanen, luzez egon behar eztelearik plazer haren hartzen, beldurrez eman dezan lekuri, plazer hartarik iragaiteko mandatuaren hartzeko atseginera. Orobat bada, nihork irakhatzen baderaut zenbait arte pensuz eta artifizioz betherik ene etsaiari aspertzeko, nik plazerik hartzen ezpadut, eta konsentitzen ezpadut erraiten zaitan bezala aspertzeta, baina xoilki lakhetzen bazait halako pensuaren eta artifizioaren ikhasteaz, dudarik gabe, ezte bekhatu egiten; on eztelearik plazer hartan hainitz trika nadin, beldurrez aphurka eraman nazan aspertzearen beraren edozein atseginera.

Batzutan tentazionearen ondoan berehala zenbait atseginezko khilikamendu sartzen zaiku kasik akorda gaitezin baino lehen, eta hori ezin diteke bekhatu benial arin bat baizen, baina handiago egiten da baldin akordatuz gero zer gaitzetan gaudezin, ansigabez egoiten bagara deliberraten, ea atsegindura hartuko edo khenduko dugun; handiago are da, baldin hura sentitzen dugunean, hartan bagaude zenbait denboraz ansigabe hutsez, haren khentzeko borondaterik bat ere gabe; baina noiz ere borndatezki eta deliberatuki gogo hartzen baitugu halako atsegintasunean lakhetzeko, gogo deliberatu hura bera da bekhatu handi bat, gauza zergatik atsegin hartzen baitugu, seinalatuki gaixtoa bada. Emakumearentzat bizio handi bat da amorio gaixtorik iduki nahi badu, sekulan nahi eztelearik amurusari gorputza largatu.



## Tentazione handien kontrako erremedioak

### ZAZPIGARREN KAPITULUA

Tentazionerik sentitzen duzun bezain sarri, egizu haurrek egiten duten bezala otsoa edo artza larrean ikusten dutenean: ezen berehala laster egiten dute aitaren edo amaren besoetara, edo bederen oiur egiten diote heldakiela; zuk halaber laster egizu Iainkoa gana, eta gomendua zakizko haren miserikordiari eta helzakitzari: gure Salbatzailleak berak irakhasten duen erremedioa da, erraiten duenean: *zaudete othoitzez, tentamendutan eror zaitetzten beldurrez.*

Ikusten baduzu, halarik ere tentazioneak dirauela, edo berretzen dela, laster egizu gogoz Gurutze sainduaren besarkatzera, Iesus gurutzatua zure aitzinean ikus bazeneza bezala. Errozu zinetan eztuzula sekulan tentazionea konsentituko eta eska zakizko hel dakizula haren kontra, eta tentazioneak diraeino, zin zinez errazu eztuzula konsentitu nahi.

Ordea promezik egiten duzun eta konsentimendua ukhatzen duzun bizkitartean, eztezazula tentazionearen begitartera beha, baina xoilki beha diozozu gure Salbatzailleari; zeren behatzen baduzu tentazionea gana, behintzat bortitza denean, zure fermtasuna inharrots eta kordoka ahal liro.

Itzul ezazu zure espirtua zenbait lan onetara, zeren hek zure bihotzean sarturik eta lekua harturik, kanporako ituzte tentazione eta gogoramendu gaixtoak. Erremedio handia tentazione guzien, ala handien, ala xipien kontra da gure gidariari gure bihotza erakustea, eta heldu zaizkigun gogoramendu, sentimendu, eta afekzione guziak erraitea: zeren kontu egizu espirtu gaixtoak enganatu nahi duen arimarekin lehenbizi egiten duen paktua dela ixilik egoiteaz, egiten duten bezala bertzeren emazterik edo neskatorik enganatu nahi dutenek; debekatze baitituzte lehenbizitik eztiozotela ez senharrari, ez aitari parterik eman bere artean izan dituzten hitzez; kontrara Iainkoak bere inspirazionetan, gauza guzien gainetik, nahi du gure ganik, hek eman dietzegun gure Superiorei eta Gidariei eza gutzera.

Baldin haukin guzien ondoan tentazionea tematzen bada gure nekhatzen eta khexatzen, eztugu bertzerik egiteko, lekhat gu ere temagaitezin, zinetan eta zinetan erraiten dugula, eztugula konsentitu nahi: ezen

nola neskatoak ezin ezkon baititezke ez ez dioteino, hala arima, aldaratua izana gatik, ezin sekulan zaurt diteke ezean dagoeino.

Ez iharduki zure etsaiarekin, eta eztiozozula sekulan hitzik ihardets, gure Salbatzailleak haren ahalkatzeko eta ixiltzeko erranzioena baizen: *Urrun Satana, adoratuko eta serbitzatuko duk hire Iainkoa;* eta nola emazte garbiak ezpaitio hitzik erran, ez eta behatu behar zerbait desohorezki eragin nahiz darraion lizunari; bainan hura berehala largaturik behar baitu bere bihotza itzuli bere esposa gana eta prometatut dioen fidelitasuna berriz firmatu hitzketan iarrri gabe: halaber arima debotak ikusten duenean zenbait tentazioneek hura akometatzen duela, eztu nihola ere egon behar ihardukitzen eta ihardetsten; baina behar da sinpleki itzuli Iesus bere esposaren aldera, eta berriz zinetan prometatut behar dio leial izanzen zaiola, eta nahi duela sekulakotz osoki harena izan, nihori parterik eman gabe.



## Kontra egin behar zaiela tentamendu xehei

### ZORTZIGARREN KAPITULUA

Guduka hari behar garelarik tentazione handien kontra ezin garaituko bihotz batez, eta hekin gainean ardietsten dugun garaiaik xoil ontasun handi ekhartzen deraukularik; badarik ere probetxu geiago agian atheratzen dugu tentazione xeheen kontra ongi gudukatuz. Zeren handiek, bere handi izanaz xeheak xitzen dituzten bezala, xeheak ere hain neurrigabeki geiago dira, handiak diren baino, non hetarik eramaiten den garaia konpara baititeke handienetarik ardietsten den garaiarekin.

Otoak eta Artzak dudagabe perillosago dira uliak baino: badarik ere eztute gure pazienza asaldatzen, unhatzen eta frogatzen uliek bezanbat. Erraz da nihor hil gabe egoitea, baina gatz da ordu eta leku guzietan presentatzen diren kolera xipietarik itzultzea. Erraz da bertzeren senharrarekin edo emaztearekin lizundu gabe egoitea, baina ezta hain erraz begizatzerik edo amoriotzerik ez emaita edo hartzea grazia eta fabore xipirik ez eskatzea, edo igortzea, hitz maitagarririk ez erraitea edo enzutea. Erraz da senharrari eta emazteari ielosgarririk ez emaita gorputzez, baina ezta hain erraz halakorik ez emaita bihotzez; erraz da espos ohearen ez lizuntzea, baina gaitz da espos amudioaren ez zaurtzea; erran da bertzeren onhasunik ez ebatstea, baina gaitz da hartaz ez guthiziatzea; erraz da gezurrezko lekhukotasunik ez ierraitea iujeen aitzinean, baina gaitz da bertzeen artean gezurrik ez erraitea; erraz da ez horditzea; baina gaitz da neurriz iatea eta edatea; erraz da bertzeren herioaren ez desiratzea, baina gaitz da hari gaitzik ez desiratzea; erran da hari aiphamen gaixtorik ez emaita, baina gaitz da haren ez mesprezatzea. Hitz batez tentazione xeheak, nolakoak baitire, haserraldiak, idurikortasunak, bekhaitstasunak, amuruskeriak, ergelkeriak, banaloriak, bi-bihotztasunak, afaïaketak, arteziak, gogoratze lizunak, hek, diot dira debozioanean deliberatuenak diren arimen ardurako lanak eta eserzizak. Halakotz, ene Filothe maitea, behar gare artha handiz gudu hartara preparatu, eta zarella segur, zenbat garaia eramanen baititugu etsai xume hekin kontra, hain bertze harri preziatu iosiko direla Iainkoak bere Parabisuan preparatzen deraukun loriako kho-roan. Hargatik diot, iratzarririk gaudezila tentazione handien kontra agudoki eta bortitzki haritzeko, heldu badira, erneki eta azkarki hari behar dugula akometamendu xehe eta arin hekin kontra.

## Nolako erremedio ekhar diteken tentazione xeheen kontra

### BEDERATZIGARREN KAPITULUA

Ea beraz, banalorioazko, idurikortasunazko, grinazko, ielosiazko, amuruskeriazko eta bertze horrelako nahaskeriezko tentazione xeheak, uliak eta ulitxiak bezala, heldu zaizkigunean begietara, batean mazelan, bertzean sudurretan ausikitzera, nola ezpaigaudezke hekin oztetik osoki libratu, egin dakidikeien kontrarik hoberena da, hetaz konturik ez egitea; zeren, zenbat ere baitira, ezin egin diazakegute kalterik, unha gaitzaketelarik, tinkhetz bagaude Iainkoa serbitzatu nahiz.

Mesprezatatzu bada horrelako akometadura xeheak, eta etzarella orhoit ere zer erran nahi duten; baina utzkitzu buheskatzera zure beharrietara, eta huna hara zure inguruan ibiltera, uliak bezala, eta helditzezinean zure ausikitzera, ikusirik zure bihotzean nolazpait trikatzen direla, khenetzatu hala dagidans; etzaitezila guduka hari hekin kontra, eztiezela ihardets; baina egizu hekin kontrako akzionerik, nolako ere nahi den, beregainki ordea Iainkoa ganako amoriozkorik. Ezen sinetsten banauzu etzare thematuko sentitzen duzun tentazionearen kontrako bertuteari lotzera, zeren hori lizate kasik iartzea tentazionearekin ihardukitzen, baina epherik izan baduzu, nolako den tentazionea, ezagutzeko, buruz buru haren kontrako den bertuteazko akzione bat eginik, zure bihotza kheinu batez itzuliko duzu Iesus gurutzatuaren aldera, eta haren ganako amoriotze batez muzu emanen derauzue harenoin sakratuei. Hori biderik hoberena da etsaiari garaitzeko, dela tentazione xipietan, dela handietan: Ezen nola Iainkoa ganako amorioak bere baita bertute guzien perfekzione guziak eta bertuteek bere bano beregainkiago baitadutza, hura ere bizio guzien kontrako erremediorik beregainkoena da: eta zure arima kostumatzen bada heldu zaizkon tentazione guzietan ihes-leku jeneral hartara laster egitera, ezta obligatua izanen behatzera eta sondatzera nolako tentazioneak ituen, baina emero sentiturik asaldatzen dela, pausatuko du erremedio handi hartan, zein erremedio, hortaz lekhora, hain izigarria baita espiritu gaixtoarentzat, non dakusanean tentazioneek atzartzen gaituztela Iainkoaren amudiora; ixiltzen baita eta gelditzen gure tentatetik.

Horra zer den tentazione xehez eta maizkoez, zeinen kontra nihork nahi balu xehero buruz buru iarri, morfundi bailiteke eta ezipailede deusik.





## Nola bortitzu behar den bihotza tentazioneen kontra

### HAMARGARREN KAPITULUA

Konserazazu noizbaitetik noizbaitera zer pasionek nausitzenago duten zure ariman, eta hek ezagaturik, harezazu gogoz, hitzez eta obrez hekin kontrako bizitze manera. Konparazionera, sentitzen baduzu banaloriazko pasionek zaramatzala, orhoitzaite maiz munduko biziaren miseria, zein unhagarri izanen zaizkon konszienziari halako banaloriak heriotzeko egunean, zein ezta gosean bihotz handi bati, eztirela haurren iokak eta dostetak baizen; eta bertze horrelako gauzarik iraulezazu gogoan. Minzazaite maiz banaloriaren kontra, eta iduri zaitzularik zure oldearen kontra minzo zarela, etzaudezila hargatik banaloria zinetan mesprezatu gabe: ezen bide hartaz obligatua izanen zara, guzien aiphamenaz ere, haren kontra haritzera, berdin gauza baten kontra minzatur atzartzen gare haren gaitzetzera, lehenbizian hartarako afekzionerik genduelarik. Egizu beheramenduzko eta humiliagarritzko ahal bezanbat obrarik, iduri dagotzularik damurekin egiten tutzula, zeren horrela humiltasunean ohituz zure banaloria zapatzen duzu, hala non tentazionea datorrenean, zure inklinazionea ezin iarriko baita haren alde lehen bezanbat, eta indar geiago izanen baituzu hari gerla egiteko.

Abarizari emana bazare, egizu maiz gogoeta bekhatu haren erhoke-riaren gainean, gure serbitzuko baizen eginak eztiren gauzen gathibu egiten gaituela, bada eta ezpada heriotzeko orenean utzi beharko direla guziak, eta naski hek barriatuko dituen, edo bere kaltetan eta danazionetan hetaz serbitzatu den urliaren eskuetan. Minzazaite hagitz abariziarren kontra, laudazazu handiro munduak merezi duen pesrezioa, borxazazu zure burua hainitz aumoin eta karitatezko obrarik egitera, eta zenbait aldiz utzkitzu zerbaiten biltzeko okasioneak eta paradak.

Ohitua bazare amoriorik emaiten edo hartzen, maiz erabilezazu gogotan, zein perillos den, bai zuretzat, bai bertzeentzat, horrela egitea, zein itsusi den zure arimako afekzionerik nobleenaren emaita eta lizuntzea halako dostaketetan, zein bide zabal den erran erazitze burua neurrigabeki arin duzula; minzazaite maiz garbitasunaren eta bihotzeko sinpleziaren faboretan, eta egizu ahal bezanbateko akzionerik zuk erranen duzunaren arauera, ihes egiten duzula afitadura eta solhastakeria guzietatik.

Hitz batez, bake denboran erran nahi da, darraitzun bekhatuaren tentamenduek geiago khexa etzaitzatenen, egizu harne kontrako bertuteazko obra hainitz, eta horrela egiteko okasioneak heldu ezpadira, zoaz zu lehenik hekin bilha: zeren bide hartaz bortitztuko duzu zure bihotza ethrokizuneko tentazionearen kontra.



## Pausugabeaz, edo khexuaz

### HAMEKAGARREN KAPITULUA

Pausugabetasuna edo khexadura ezta tentazione simple bat, baina berekin hainitz tentazione ekhartzen deraukun ithurburua. Tristezia ezta bertzerik, lekhat bihotzean dugun damua gure baitan, nahi eztagularik, den gaitza, dela gaitz hura den kanpokoa, nola pobrezia, eritasuna, mesprezia, dela barrenekoa den, nola iakingabetasuna, idortasuna, gogoaren kontrakotasuna, eta tentazionea. Arimak bada sentitzen duenean zer bait gaitz duela, damutzen da haren izaiteaz, eta hori da tristezia, eta berehala desideratzen du hartarik ilkitea, eta haren khentzeko biderik aurkhitzea. Eta hunerainokoa badu arrazoin, ezen batbederak ona desideratzen du, eta gaitz delako uste duenetik ihezi doa.

Baldin arimak bilhatzen baditu bideak bere gaizetik libratzeko Iainkoari diadukon amorioa gatik, hek bilhatuko tu pazienziarekin, mansoki, humilki, eta bihotz pausaturekin, esperanzaturik Iainkoaren ontasunak eta probidenziak hura lehen libratuko duela, ezen ez berak ekhar dezaken travailluak, antzeak eta agudeziak. Baldin bere libranza bilhatzen badu bere burua ganako amudioa gatik khexatuko da eta beroki ibilliko bere buruaren libratzeko bideen bilha, ontasun hura haren baitan, Iainkoa baitan baino geiago baliz bezala. Eztiot halako usterik duela; baina diot khexatzen dela hala uste balu bezala.

Baldin berehala aurkhitzen ezpadu desira duen arauera, sartzen da asaldu eta despazienza handietan, eta nola ezpaitute aitzineko gaitza atheratzen, aitzitik hura berretzen baitute, arima sartzen da neurrik ezutzen hersturetan, bihotza eta indarrak hala flakutzen zaizkola, non iduritzen baitzaio bere gaitzak ezuela geiago erremediorik. Beraz ikustenduz lehenbizian zuzenezko den tristeziak ekhartzen duela gero bertze guziz perillosago den tristeziatzko emendaillua. Khexadura edo pausugabetasuna da arimari etordakidikeon gaitzik handiena, bekhatua lekhatu. Ezen nola hiri edo herri batetakoen artean alxatzen diren guduek eta kontrakotasunek hura osoki galtzen baitute eta edekiten baitiote bidea kanpoko etsaiari buru egiteko, halaber gure bihotzak bere baitan aldaratua denean, galtzen du ardietsi zituen bertuteen mantentzeko indarra, eta bidea ere etsaiaren tentazionei kontra egiteko, zein etsaik orduan egiten baitu bere ahal guzia ur nahasian, dioten bezala, arranzatzeko.

Pausugabetasuna heldu da nihork sentitzen duen gaitzetik libratua izaiteko, eta uste duen ontasunaren ardiesteko desir desordenatu batetarik; eta bizkitartean ezta gauzarik gaitza berretzenago eta ontasuna urruntzenago duenik pausugaberik eta khexadurak egiten duen baino. Xoriak zareetan eta lazoetan daude atzemanik, zeren hetan sartuz gero hegalak khexatuki baitarabiltzate ilki nahiz, eta horrela eginez, hanbatenaz korapillatzenago dira. Noiz ere bada zenbait gaitzetarik atheratzeko edo zenbait ontasunen ardiesteko desirak khexatuko baitzaitu, bertze guziak baino lehen, ezarezazu zure espiritua errepausuan eta bakean, iar arazizazu zure iujeamendua eta borondatea, eta gero emeki eta baratxe bilhazazu zure desiraren konplimendua, hartzentutzula bata bertzearen ondoan hartako on diren bideak. Eta erraiten dudanean, emeki eta baratxe hari zaitzezila, ez tute erran nahi ansigabeki, baina khexatu eta asaldatu gabe, bertzela zure desiraren konplimendua ardietsi behar bidean, guzia gaixkituko duzu, eta geiago hagitz nahasiko zara eta amarratuko.

*Ene arima ene eskuetan dago bethiere, Jauna, eta zure legea etzait ahantsi,* zioen Dabitek. Mirazazu egunean behin bano geiago, bederen ordea goizean eta arratsean, ea zure arima zure eskuetan duzun, edo ea zenbait pasionek eta asalduk ezterautzun eraman. Konsiderazazu ea zure bihoitza zure manuko duzun, edo ea etzaitzun itzuli eskuetarik zenbait afekzione desordenatuz zenbait herrari, inbidiari, gutziari, beldurrari, unhandurari, edo alegrianzari lotzeko. Errebelatua bada, zabilitza haren bilha bertzerik baino lehen, eta hura bihurezazu Iainkoaren presenziara, zure afekzione eta desir guziak ezarten ditutzula haren borondate sainduaren obedienziaren eta manuaren azpian. Ezen nola gauza preziatu baten galtzeko beldur direnek, hura hersiki baitadukate eskuan, halaber, Errege hark bezala, bethi erran behar dugu, O ene Iainkoa! perillean da ene arima, hargatik hura bethiere eskuetan dadukat, eta halatan etzait zure lege saindua ahantsi.

Eztemozutela zure desirei eskurik zure asaldatzeko, zenbat ere xipi eta kontu gutitako baitire; zeren xipien ondoen handiek eta kontu geiagokoek zure bihoitza kausi lezakete preparatuago aldaramendura eta desordenura. Senti dezazunean pausugaberik heldu zaitzula, gomendazakizko Iainkoari, eta zaude finko ez tuzula eginen zure desirak zure ganik nahi duen gauzarik, khexadura osoki iragan dadin artean, lekhat gerora ezin luza ditekeien gauzarik bada, eta orduan borxa edo enseiu eme eta bakezko batez zure desiratzen lasterkatasuna gelditu behar duzu, hura ahal bezanbat ematen duzula eta neurrira ekhartzen. Eta horren gainean, egizu egin behar dena, ez zure desiraren, baina bai arrazoinaren arauera.



Zure pausugabetasuna ager ahal badiozozu zure arimaren gidariari, edo ezpere zenbait adiskide leiali eta debozionetsuri, eztagizula dudarik berehala apazegatuko zarela; zeren elkharri bihotzeko minen erraiteak ariman egiten du, odol atheratzeak ardurako sukharra duenaren gorputzean egiten duen gauza bera: hura da erremedioen erremedioa. Hargatik San Luis Erregeak abisu hau eman zioen bere semeari: baldin bihotzean baduzu garririk hura errozu berehala zure Konfesorari edo zenbait gizon presturi, eta hala zure gaitza arinki iasanen ahal duzu hark emanen derautzun bortitzgarriaz.

## Tristeziak

### HAMABIGARREN KAPITULUA

*Iainkoaren araerako tristeziak*, dio Iondone Paulok, *obratzen du penitentzia salbamenduko: munduko tristeziak obratzen du herioa*. Beraz tristezia on eta gaixto daiteke, gure baitan egiten dituen hainitz manerako obren eredura. Egia da gaizkirik geiago egiten duela ongirik baino; zeren bi ontasun baiden ez ditu egiten, zein baitire miserikordia eta penitentzia, eta sei gaitz egintu, zein baitira bihotzeko herstura, nagitasuna, higointza, ielosia, inbidia, eta despazientzia. Hargatik erran du zuhurak: *Tristeziak hainitz hiltzentu eta hartan ezta probetxurik*, zeren tristeziaren ithurburutik sortzen diren bi xirripa onak gatik, sei hagitz gaixto heldu dire hartarik.

Etsaia baliatzen tristeziak bere tentazioneen erabilteko prestuen alde-ara: ezen nola enseiatzen baita gaixtoen boz arastera bere bekhatutan, halaber enseiatzen da prestuen tristatzena bere obra onetan: eta nola ezin eragin baitezake gaizkia, hari eder iduria emanez baizen, hala ezin itzul gaitzake ongirik, gaitz dela erakusiz baizen. Gaixto hari lakhetzen zaio tristeziaren eta melankolian, zeren nola bera triste eta melankoliatua baita, eta iza-eren ere sekulakotz, hargatik nahi luke guziak bera bezalakoak balire.

Tristezia gaixtoak nahasten du arima eta asaldatzen, legegabeko beldurtasunak emaitentu, orazionerik egiteko gustua edekiten du, fuina zapatzen du eta tontotzen, arima gabetzen du konseilluz, erresoluzioez, iujeamenduz, bertutez, eta indarrak flakutzen eta eramaitentu: hitz batez tristezia da lurreko edertasun guziaz ebakiten duen eta animalia guziaz har-paz motheltzen dituen negu gogorra bezala; zeren arimari edekiten dio bere gozo guzia, hura hurren hebaintzen du eta indargabetzen bere parte guzietan.

Sekulan gertatzen bazare, Filothea, tristezia gaizto hartaz akometaturik, balia zaite hemen diren erremedioez: *Nihor triste da?* dio Iondone Iakuak, *iarbedi othoitztan*. Othoitza da erremedio beregaineko bat; zeren arima goititzen du Iainkoa baitara, zein baita gure bozkario eta konsolazione bakhoitza, bainan othoitztez zaudenean hari zaiten Iainkoak ganako fidanzara eta amudiora eraman zaitzaten ala barreneko, ala kanpoko afekzioez eta hitzez, hala nola, O miserikordiazko Iainkoa, ene Iainko guziz ona, ene Salbatzaille bihotzbera, ene bihotzeko Iainkoa: ene bozkario, ene esperanza, ene espos ederra, ene arimare maitea, eta bertze horrelakoez.



Hari zaite biziki tristeziaramenduen kontra, eta iduri zaitzularik ordu hartan egiten duzun guzia egiten duzula hotzki, tristeki eta laxoki, halarik ere hari zaite egin ahalaren egiten. Zeren nola etsaiak nahi baigaitu tristeziak langia arazi obra onetan, dakusanean ez garela gelditzen ongi egitetik, eta obra onak bada eta ezpada egiten direnean geiago balio dutela, gelditzen da gure penatetik.

Kantazazu kanta espiritualik, zeren gaixto hark hainitzetan bide hartaz utzi du egiten zuena egin gabe: lekuko da Saul Erregea penatzen eta erabilten zuen espiritua, zemaren indarrak hautsi baiziren salmo kantaz.

On da kanpoko lanei lotzea, hainitz eta hainitz manerazko obra ahal bezanbat hartzea arimaren apartatzeko gauza trisagarrietarik, bihotzen garbitzeko eta berotzeko, ikusirik tristezia datxekola beronez hotz eta idor den azturari.

Egizu kanpoko obra berogarrizkorik, gusturik gabe hasi zarelarik, Gurutzefikaren imajina besarkatuz, haren oinak eta eskuak muzuskatuz, zure begiak eta eskuak zerura hedatuz, zure boza Iainkoa gana amoriozko eta fidanzazko hitzez alxatuz, erraiten duzula. *Ene maitea ene da, eta ni harenan naiz, ene maitea mirrhazko floka da enetzat, ene bulharren erdian egonen da. Ene begiak zure gainena, O ene Iainkoa, urtzen dire, erraiten dudala, noiz konsolaturen nauzu?* O Iesus, zarela enetzat Iesus, bizi bedi Iesus, eta ene arima biziko da. *Nork apartatuko nau ene Iainkoaren amudiotik?* Errazu bertze horrelakorik. Disziplina neurritz harturik ona da tristeziaren kontra, zeren borondatezko pena kanpoko hark barreneko konsolazinea ekhartzen du, eta arima, doloreak kanpotik sentiturik, ahansten da barrenekoez. Maiz errezebitze ezin erran diteke zein beregaineko erremedio den hartarakotz, zeren zeruko ogi hark azkartzen du bihotza eta espiritua bozkariotzen.

Zure tristeziatik heldu diren sentimendu, afekzione eta gogoramendu guziak agerdiotzotzu zure Gidariari eta Konfesoari humilki eta fideliki; bilhatzatzu presuna espiritualak, eta zabiltzokote ahalik maizena triste denbora hartan. ETa guzien buruan iarzaite Iainkoaren eskuetan preparaturik tristezia unhagarri haren, zure banaloriazko alegrian zen gastigu zuzenezko baten bezala, pazienziak pairatzera. Eta eztagizula nihola ere dudarik Iainkoak frogatu zaituenean libratuko zaituela gaitz hartarik.

## Konsolazione espiritualez eta sentitzen direnez, eta nola hetan gobernatu behar garen

### HAMAHIRURGAREN KAPITULUA

Iainkoak mantentzen du mundu handi hunen izaitea eta iraupena bethiko aldizkatze batetan, zeina dela bide eguna ganbiatzen baita bethi gauera, uda-hastea edo belhartzea udara, uda belhar ihartzera edo larazkhenera, larazkhena negura, eta negua uda-hastera; eta egunetarik bata ezta behinere bertzearen osoki berdin; ikusten dugu hedoitsurik, utitsurik, idorrik, haizetsurik, eta bertzelatze hark edertasun handi bat emaiten dio mundu huni guziari. Orobat da gizonaz, zeina baita, zahren erranera, mundua bera batetan laburki serraturik; zeren eztago behin ere estatu berbatetan. Haren bizia iarieten da lurraren gainean ura bezala, hainitz moldezko uhinetan bethi igerika dabillala, batean esperanzaz goititurik, bertzean beldurtasunaz beheititurik, aurki konsolazioneaz eskuinera, aurki afflikzioneaz eskerrera eramanik, eta nihoiz ere haren egunetarik ez eta orenetarik bat ezta osoki bertzea bezalakoa.

Hau da orhoitgarri handi bat. Enseiatu behar dugu bihotzeko ardurako eta ezin hautsizko berdintasun baten idukitzera hain berdingabeko gertanzen artean. Eta gauza guziak gure ingurunean hainitz maneraz itzultzen eta ganbiatzen direlarik, egon behar dugu fermuki higitu gabe, bethi behatzen dugula gure Iainkoagana, hara gogoz eta obrez ardietsi nahiz. harbezal Itsas-unziak nahizden bidea, abia dadilla Arratstirira, Goztztirira, Hegoara, Nortera, eta zein ere nahi den haizek hura eraman beza, badrik ere sekulan haren Itsas-orratsak ezta behatuko bere izan ederrera eta polora baizen. Itzul bedi den guzia azpitik gora, eztiot xoilki gure ingurunetan, baina are gure baitan, erran nahi da, dela gure arima triste, dela alegera, dagoela ezti, dagoela zaminki, bakean, tribulamendutan, argian, ilhunbean, tentazionean, errepausuan, gusturekin, gusturik gabe, idorturik, beraturik; hura Iguzkiak erre, edo ihinzak freska beza. Ha! behar da guziarekin ere bethi eta sekulakotz gure bihotzaren punta, gure espiritua, gure borondate gainekoa, zein baita gure itsas-orratza beha dagoen epherik gabe, eta arduraki heda dadin Iainko bere Kreatzaillearen, bere Salbatzaillearen, bere ontasun bakhoitzaeren eta guzien gainekoaren amudiora, *dela bizi garen, dela hil gaitzin*, dio Apostoluak, *Iainkoarenak gare, eta nork apartatuko gaitu Iainkoaren amudiotik eta karitatetik?* Ez! sekulan deusek



ere ezgaitu apartatuko amudio hartarik, ez tribulazioneak, ez hersturak, ez herioak, ez biziak, ez presenteko doloreak, ez etorkizuneko kasuen beldurak, ez espiritu gaixtoen arteak, ez konsolazione gorek, ez afflikziona barrenek, ez beratasunak, ez idortasunak, nahiz denak ezgaitu sekulan apartatu behar karitate saindu hartarik, zeina baita Iesus baitan zimendatua.

Hain tinkhezko erresoluzione hau ez sekulan Iainkoaren largatzeko, eta haren amudio eztiaren ez utzteko, da kontrapizu bat gure arimentzat hekin idukitzeko bere berdintasun sainduan bizitze hunetako kondizio-neak ekhartzen diotza hainitz manerazko erabilmenduen berdingabetasunean. Zeren nola erleek dakusatenean haizeak larrean akometatzen dituela, harri batzu besarkatzen baitituzte airean pisuago izaitea gatik, bizuntzak hain errazki eraman detzan beldurrez, halaber gure arima, bere erresoluzioneaz biziros besarkatu duenean bere Iainkoaren amudio preziosa, finko dago, ala espirituko, ala gorputzeko, bai kanpoko, bai barreneko konsolazioneen eta aflizioneen finkogabetasunean eta aldizkatzean.

Ordea dotrina jeneral hunetaz lekhora, zenbait irakhasmendu partikularren beharra dugu. Lehenik diot bada, deboziona ezatzala bihotzak sentitzen duen gozotasunean, ezttasunean, konsolazionean eta beratasunean, nigarra, eta hatzbeherapenak erakhartzen derauzkigularik, eta zenbait eserziza espritualetan satisfakziona laketgarririk eta gozorik emaiten deraukularik. Ez, Filothea maitea, deboziona eta hori ezтира gauza bera. Zeren badira arimak beratasun, eta konsolazione hek dituztenak, eta halarik ere hagitz bizios direnak: eta halatan ezttute egiazko amudiorik bat ere, eta gutiago are egiazko debozionerik. Saul bere ahal guziaz zerraiola haren begietatik Engadiko desertuetara ihesi zioan Dabit gaizoari haren hiltzeko, sartu zen bera bakharrik leze batatan, non baitzegoen Dabit bere jendekin gorderik: Dabitek ordu hartan hura millatan hil zukeielarik, bizia eman zioen, eta etzuen ere izitu nahi izan, aitzitik hura utsirik bere plazarekin ilkitera, deitu zuen gero, hari erakustea gatik hobenik etzuela eta bera erori zela haren menean eta esku izan zuela hari gaizki egiteko. Bada horren gainean zer etzuen egin Saulek erakusteko beratu zitzaioa bihotza Dabiten aldera? Hari erran zioen, ene semea, iarri zen nigarrez guzien aitzinean, hasi zen haren laudorioen erraiten, aitortu zuen guziz manso zela, milla othoitz egin ziotzan Iainkoari haren gatik, segurik iakin izan balu bezala erran zioen handi izanen zela etorkizunekat, eta berak bere ondokotzat utzi behar zituenak gomendatu ziotzan. Zer mansotasun eta bihotzberatasun handiago erakus zezakeien? badarik ere etzuen bere arima ganbiatu, aitzitik bethiere Dabiti zerraion lehen bezain garratzki:

horrelako batzu kausitzen dira, beratzen baitzaie bihotza Iainkoaren ontasuna eta Salbatzaillearen pasiona konsideraturik, hain sentimendu handiak baitituzte, non hatsbeherapen, nigar, othoitz eta eskermiak aurtikitzen baituzte, hala non erran bailiteke deboziona guziz handi bat dutela bihotzean: baina erranetk eginera etorri behar den orduan, ikusten da, nola uda bero batetako iragaiten diren uriak lurrera xort larriz eroriarik gatik ezpaitira hartan barrena sartzen, eta ezpaitira on, gorringorik iaio arazitzeke baizen; halaber horrelako nigarrek eta beratasunek bihotz biziotsu baten gainera eroriarik hartan barrena sartu gabez ezttotela ontasunik egiten; zeren gauza hek guziak gatik ere jende gaizo hek elezakete ardit bat utz dadutzaten ontasun gaizki ardietsietarik, eliozokete bere afekziona gaixtoetarik bati ere ukho egin, eta elukete den traillurik xipiena hartu nahi Salbatzaillearen serbitzua gatik, hainitz nigar egin dutelarik haren gainean; hala non izan zituzten sentimen onak ezpaitira kokoma eta kakutxa espiritual batzu baizen, zeinak ez xoilki ezpaitira egiazko deboziona, baina hainitzetan etsaiaren arte handiak baitira, zeinek arimak konsolazione xehe hetan trika arazirik hetaz kontenta arazitzen baititu, geiago ezttabiltzantzat deboziona egiazkoaren eta saillaren bilha, zeina baita iainkoaren gogorako gauzen egiteko borondate finko, deliberratu, agudo eta harilari baten izaitea.

Haur batek minki eginen du nigar ikusten badu amari emaiten zaiola lanzeta piko bat odol atheratzeko, baina orduan berean, zeina gatik nigar egiten baitzuen ama eskatzen bazaio eskuetan duen sagarririk edo konfituraririk, ezttu nihola ere utzi nahiko. Halakoak dira gure gehien deboziona minberak; ikusten dugunean Iesus gurutzatuarik bihotza iragaiten dioen lanza kolpea emaiten zaiola, minki iarten gare nigarrez. Helaz! Filothea, ongi da gure Aitaren eta Libratzaillearen herio eta Pasione dolozko haren gainean nigar egitea; zergatik bada ezttioguzin zinetan emaiten gure eskuetan dugun, eta zinetan eskatzen zaikun sagarra, erran nahi da, gure bihotza, zein baita Sabatzaille maite hark gure ganik nahi duen amoriozko sagar bakhoitza? Zergatik ezttiotzagu utzten afekziona, atsegin, bata bertzea ganako begitarte xehe hek, zeinak nahi baiterauzkigu eskue-tarik eraman eta ezin, zeren gure asukreak baitira, zeinetaz zaleago baigare haren zeruko graziaz guthiziatzen garen baino? ha! horiok dire haurren amudiotasunak, samur dira, baino flako, baina fantastiko, baina obra gabeko ere dira: deboziona beraz ezttatza beratasun eta sentimenazkko afekziona hetan, ikusirik batzutan heldu direla naturalezatik, zeina horrela baita uzterra eta erraza nork eman nahi dioen pleguaren hartzeko;





batzutan heldu dira etsaia ganik, zeinak gure iar araziteko trikamendu hetan, atzartzen baigaitu halako gauzarik gero egiteko gogoaren hartzera.

Bigarreanean, beratasun eta eztitasun afekzionetsu hek halarik ere batzutan guziz dire onak eta probetxu handitakoak: zeren arimako apeh-titua pitzten dute, espiritua indarztatzen eta debozionario agudotasunari emaiten diote arraitasun eta alegrianza saindu bat gure obrak kanpotik ere, eder eta plazent egiten dituen. Hura da Iainkoaren gauzetan nihork frogatzen duen gustua, zeina gatik oiuz bezala baitzegoen Dabid erraiten zuenean, *O Jauna zein ezti diren zure hitzak ene gangan, ezta baino eztiago dira ene ahoan*. Eta egiazki, debozionetik izaiten dugun konsolazionariok xipienak geiago balio du, nola ere nahi den, munduko alegrianza handienek baino. Iainkozko esposaren bulharrak eta ugatza, erran nahi da, haren faboreak hobe dira arimarentzat, lurreko plazeretarik ahal ditekekin mahats-arnorik preziatuena baino; nork ere dastatu baititu, bertze gaine-rako konsolazione guziak mintzat eta absintiotzat dadutza. Eta nola sziti-ka daritzon belharra ahoan dadukatenek hain eztitasun neurrigabeko bat hartzen baitute hartarik non ezpaitute sentitzen, ez goserik, ez egarsurik, hala nori ere Iainkoak eman baitio barreneko konsolazionezko eta gozo-tasunezko iaki zerukoa, hark ezin desira eta ezin har detzake munduko konsolazioneak, behintzat hetan gusturik hartzeko eta afekzionerik emai-teko. Sekulako gozotasunen gustu aitzindari xipi batzu dira, Iainkoak haren bilha dabiltzan arimei emaiten derauztenak; bihi azukreztatutak dire bere haurrei partitzen derauztenak, hekin beithartzeko eta erakhartzeko, ur bihotzgarriak dira eskaintzen derauztenak hekin indarztatzeko, eta batzutan ere sekulako errekonpensen aitzineko seinaleak eta bahiak dira. Erraiten da Alexandro handiak itsaso zabalean zebillala, ezagutu zuela lehenik Arabia doatsuari hurbiltzen zitzaioa, handik haizeak ekharten ziotzan usain onez, eta hargatik bihotztu zela eta lagunei ere piztu zeraue-la bihotza, halaber hainitzetan bizitze hilkizun hunetako itsasoan ezti-tasunak eta gozotasunak izaiten tugu, zeinek dudarik gabe sentiarazten bai-terauzkigute gogoz eta borondatez bilha gabiltzan zeruko herri hartako plazerak.

Hirugarrenean, ordea erranen derautazu, denaz geroztik sentime-nazko konsolazionariok on denik eta Iainkoa ganik heldu denik, eta bertze alde ez deusetakorik, perillosik, bai eta galgarririk, edo naturalezatik, edo are etsaia ganik heldu denik, nolatan ezagut dezaket bata bertzetik, eta zein diren gaixtoak edo ezdeusetakoak onen artetik? Dotrina jenerala da, Filothe maitea, gure arimetako afekzioneer eta pasioneer bezanbatean, ezagutu behar ditugula ekhartzen oi tuzten fruituetarik; gure bihotzak

dire arbolak, afekzionarioak eta pasionarioak dira hekin adarrak, eta obrak edo akzionarioak dire fruituak; ona da afekzionario onak dituen bihotza, eta onak dire gure baitan obra onik eta saindurik egiten duten afekzionarioak eta pasionarioak. Baldin eztitasunak, beratasunak, eta konsolazionarioak direla bide egiten bagara humillago, pazientago, akortago, karitatetsuago eta hekin gatik bihotzberago bagare lagunaren aldera, gure guthiziak eta aztu-ra gaixtoak berokiago sebatzen baditugu, fermuago bagaude gure lan espiritualetan, prestago bagare gure gainean esku dutenen obeditzera, sin-pleago bagare gure bizian, eta erremanguetan, duda gaberik Filothea, Iainkoa ganik dira; bainan eztitasun hek guretzat baizen ezti ezpadira, eta egiten bagaituzte kurios, garratz, puntutsu, urguillu, gogor lagunaren aldera, eta ustez iadanik saindu batzu garela, nahi ezpadugu geiago enzun gidaririk, ez eta xuxentzaillerik, dudarik gabe konsolazionario falsoak eta gal-garriak dire. Arbola onak eztaxharke fruitu onik baizen.

Halako eztitasunik eta konsolazionariok izan dezagunean, hagitz humildu behar gare Iainkoaren aitzinean, begira gaitezin eztitasun hekin gatik erraitetik: O zein naizen on! Ez, Filothea, zeren hek dire ontasunak hobetzen ezgaituztenak, eta erran dudan bezala, debozionario eztago gauza hetan, bainan erran dezagun, O zein on eta gozo den Iainkoa haren bai-tan esperanza dutenentzat, haren bilha dabillan arimarentzat! azukrea ahoan duenak ezin erran dezake ahoa ezti duela, baina bai azukrea ezti dela; halaber eztitasun espiritual hura xoil ona, eta hura emaiten deraukun Iainkoa guziz ona delarik, ezta hargatik atheratzen hura hartzen duena dela ona.

Ezagut dezagun haur xumeak garela oraino, eta ugatzaren beharra dugula, eta biho azukreztatu hek emaiten zaizkigula, zeren espiritua orai-no samurra, uzterra eta delikatua baitugu, eta hargatik halako beitharen eta baskarren beharra dugula gure erakhartzeko Iainkoaren amudiora.

Bainan haukin ondoan, jeneralki eta komunzki minzatzera, har detzagun humilki grazia eta fabore hek, eta zinets dezagun neurrigabeki handi direla, ez hanbat ,zeren handi diren bere baitan, nola zeren Iainkoaren eskuak emaiten derauzkigun bihotzera, ama batek bere hau-rraren ematzeko berak azukre bihiak bata bertzearen ondoan ahora eman liotzokeon bezala; zeren adimendurik balu haurrak, geiago preza lezake amak egiten dioen balakuaren eztitasuna azukrearen beraren eztitasuna baino; eta halatan hainitz da, Filothea, eztitasunak izaitea, bainan ezti-tasunen eztitasuna da konsideratzea Iainkoak bere esku amolsuaz ezarten derauzkigula ahoan, bihotzean, ariman eta espirituan.





Hek horrela humilki harturik, balia gaitezin hetaz arthatsuki, emaiten derauzkigunak duen intenzionearen arauera. Zertako uste dugu Iainkoak eztitasun hek emaiten derauzkigula? bat bederaren aldera eme, eta haren gana amoriotsu garen amorea gatik. Amak azukre bihia emaiten dio bere haurrari, hark ere musu eman diozon gatik. Demogun beraz musu hain bertze eztitasun emaiten deraukun salbatzaille maiteari. Bada salbatzailleari musu emaita, da haren obeditzea, haren manamenduen begiratzea, haren borondatearen egitea, haren deserei iarraikitea, hitz batez, haren besarkatzea maiteki, obedienziarekin eta fideltsunarekin; noiz ere bada zenbait konsolazione espiritual izanen baitugu, egun hartan iarri behar gara ernekiago ongi egiten, eta gure buruaren humiltzen.

Hortaz guziaz lekhora, ordutik ordura ukho egin behar derauegu halako eztitasunei, beratasunei eta konsolazionei, gure bihotza hetarik apartatzen dugula eta zinetan erraiten dugula, hek humilki hartzen eta maite ditugularik, zeren Iainkoak igortzen derauzkigun eta ekhartzen gaituzten haren amudiotara, badarik ere ez gabiltzala hekin bilha, baina bai Iainkoaren eta haren amudio sainduaren; gu ez gaudela konsolazionearen, baina konsolatzaillearen; ez eztitasunaren, baina salbatzaille eztiaren; ez beratasunaren, baina zeruko eta lurreko gozotasuna bera denaren begira, eta afekzione hartan preparatu behar gare Iainkoaren amorio sainduan fermu egoitera, sekulan gure bizitze guzian konsolazione garabik izan behar ezpagendu ere; eta hala iarri behar dugu, non borondatea dugun erraiteko orobat kalbarioko eta Tabor mendi gainean, O Iauna! on zait zurekin izaita, dela zaren gurutzean, dela zaren lorian.

Finean, baderautzut abisu hau; suertez gertatzen bazine zenbait frankia seinalaturik izaiten halako konsolazionez, beratasunez, nigarrez, eta eztitasunez, edo hetan zerbaite ohiz kanpikorik gerta balekizu, hetaz guziez fidelki minzatzeez zure gidariarekin, arren ikhas dezazun zer neurritz hartu behar dituzun, eta nola hetan gobernatu behar zaren. Zeren eskiribatua da: *Aurkitu duzu ezitia? ian ezazu hartarik aski den bezanbat.*

## Idorte eta agorte espiritualez

### HAMALAU GARREN KAPITULUA

Eginen duzu beraz orai erran derautzudan bezala, Filothe maitea, konsolazionerik izanen duzunean. Ordea denbora eder hark eztu iraunen bethiere; aitzitik gertatuko zaren batzutan debozinezko sentimenduz hala gabeturik, non uste izanen baituzu zure arima dela lur utzia, agortua, ezdeusetakoa, eta hartan ezteela ezbidetik, ez xidorrik iainkoaren aurkhitzeko, ez eta graziazko urik hura busti dezakeienik, agortasunak direla kausa, zeinek, iduriz, hura osoki alfertuko baitute. Helaz, zein urrikalkizun den estatu hartan dagoen arima, eta guzien gainetik gaitz hura bortitza denean! zeren orduan Dabit bezala bazkatzen da nigarrez gau eta egun; etsaia bizkitartena milla gogoramenduz hari esperanzaren gal arazitzeko, hartaz burlatzen da eta erraiten dio, ah gaizoa! non da hire Iainkoa? zer bidez hura aurkhituko ahal dun? nork sekulan bihurtuko ahal deraunan haren grazia sainduaren bozkarioa?

Zer eginen duzu bada muga hartan, Filothea? Begira nondik heldu zaitzun gaitza. Haintzetan geurok garela kausa idortasun eta agortasun hel heldu zaizkigu. 1. Nola amak ezpaitio azukreea emaiten bere haurrari xixariak dituenean; halaber Iainkoak edekiten derauzkigu konsolazioneak, hetaz banaloriazko plazerik hartzen dugunean, eta urguillukeriazko xixariak gure hertzetan egiten direnean; on da enetzat, O ene Iainkoa, zeren humildu nauzun, ezen humil nendin baino lehen utzi zinitudan. 2. Ansiarik eztugunean Iainkoaren amudiozko eztitasunen eta plazeren ordu denean biltzeaz eta hartzeaz, hark urruntzentu gure ganik gure nagitasunaren sensatzeko. Mana goiztirian biltzen etzuen Israeltarrak ezin bil zezakeien iguzkia ilkiz gero; zeren hura kausitzen zuen guzia urturik. 3. Batzutan bagauntza sensuetako atseginen eta konsolazione galkorren ohean, Kantiketako espos andre sakratua zetzan bezala; gure arimen esposak bulkatzen du gure bihotzeko athea, ertxatzen gaitu gure eserziza espiritualetara bihurtzera, bainan harekin hari gara baiezean deliberatzen, zeren damu baitugu banaloriazko trikamendu hekin utzteaz, eta kontentamendu falso hetarik apartatzeaz; hargatik urrunago iragaiten da, eta utziten gaitu geldirik lurrean etzanik, gero haren bilha gabiltzanean, nekhez hura aurkhitzen dugu; hala ere merezi dugu, hain leial gabeko izan garenaz gero haren amorioaren aldera, non hura utzi baitugu munduko gau-



zen amorioari irraikitea gatik. Ah! Ejipteko irina duzenaz gero, zeruko ianharia eztuzue izanen. Erleek gaitzestentuzte artifiziozko usain guziak, eta espiritu sainduaren gozotasunak ezin daudezke munduko atsegin artifiziotsekin.

4. Bere gidariarekiko solhas espiritualetan eta konfesioetan egiten den bi mihikotasunak eta fineziak ekhartzentu igorteak eta agorteak; ezen espiritu sainduari gezur erraiten diozunaz gero, ezta mirakuillu ikhatzen baderautzu bere konsolazionea; eztuzu nahi lano eta idekia izan haur bat bezala, eztuzu beraz haurren azukre bihirik izanen.

5. Ase zara munduko kontentamenduez, ezta mirakuillu nardatzen bazare plazer espiritualez; iadanik ase diren usoei, dio errefau zaharrak, gereziak zaizte samin eta khirats. Gose zirenak, dio andre dana Mariak, bethe izantu ontasunez, eta aberatsak utzi ditu hutsik; munduko plazerez aberats direnak eztira gai espiritualetara.

6. Ongi begiratu othe ditutzu aitzineko konsolazioeen fruituak? beraz izanen duzu berririk. Zeren duenari, eztuena ere edekiko zaion, erran nahi da, gabetuko da preparatu zitzaizkon graziez. Egia da, uriak bizia emaiten deraue ferdedurarik duten landarei, baina ferde eztirenei edekiten deraue eta eztuten bizia ore, zeren osoki busteltzen baititu. Hainitz halako arrazoin gatik galtzentugu debozioezko konsolazioeak eta spirituko idortasunean eta agortasunean erorten gara. Mira dezagun bada gure konszientzia, ea ikusiko dugunz gure baitan zerbait halako eskasik. Bainan orhoitzaite, Filothea, eztugula gure konszientzia khexurekin eta kurioskiegi miratu behar, baina gure ibil-bideak fidelki konsideratu ondoan, horrez bezanbatean, gure baitan aurkhitzen badugu gure gaitzaren ithurburua, Iainkoari eskerrak eman behar diotzagu; zeren erdi sendatua da gaitza, nondik heldu den ageri denean. Baldin kontrara ikusten ezpaduzu deusik pritkularki, zure ustez, idortasun hura ekharri derautzunik etzaudezila kurioskiago miratzen nondik eta nola heldu zaitzun, baina sinpletasun oso batez, partikulartasunik geiago fondatu gabe, egizu nik erranen derautzudana.

1. Humil zaite hagitz Iainkoaren aitzinean zure ezdeustasuna eta miseria ezaguturik. Helaz! zer da nitaz, neroni naizenean? Ez bertzerik, Iauna, lur idor bat, alde guzietarik irritua eta arraillatua bere egarsua eta zeruko uriaren nahia erakusten duena baizen; eta bizkitartean haizeak hura barriatzen eta hautsera igortzen du.

2. Zagotza Iainkoari oiuz, eta eska zakizko bere alegrianza. *Bihur diazadazu, Iauna, zure salbagarrizko alegrianza. Aita, egin ahal badadi, khi ezazu kalitza hau ene ganik.* Khen adi hemendik Norteko haize galgarria ene

arima ihartzen duana, zato zu konsolazionetako haize emea, sar zaite ene baratzean, eta haren afekziona sainduak usain gozoa banatuko dute.

3. Zoaz zure konfesora gana, zabal diozozu ongi zure bihotza, erakus diotzotzu zure arimako zoko-moko guziak; har etzatzu emanen derauzkitzun abisuak, sinplezia eta humiltasun handirekin. Zeren nola Iainkoak obediencia neurrigabeki maite baitu, hainitzetan gure probetxuko on egitentu bertzeren ganik, eta guzien gainetik arimetako gidarien ganik hartzen ditugun konseilluak, bertzenaz hetan on-iduri handirik eztelarik. Hala Eliseok ordenatu zioenean Naaman prinzeari maina zedilla Iordango uretan bere sorhaitasunetik garbitzeko, etzen munduko arrazoin iduririk, hartako onak zirela Iordango urak, badrik ere Iainkoak nahirik, sendatu zen hetan mainatuz.

4. Ordea guzien buruan, ezta hain gauza onik, hain probetxosik halako idortasunetan eta agortasunetan, nola hetarik libratua izaiteko afekzionario ez lotzea; eztiot eztugula libratua izaiteko desirkunderik aurtiki behar, baina badiot eztugula gogoia desir hetan ezarri behar; aitzitik Iainkoaren probidenzia bereziaren merxede hutsaren azpian behar dugula iarri; harren nahi duen bezanbat, serbitza dadilla gutaz aranze eta desir hekin artean. Derrogon beraz Iainkoari orduan, *aita egin ahal badadi, khi ezazu kalitza hau ene ganik*; berehala erran dezagun ere bihotz handiz; *badarik egin bedi zure borondatea, ez enea*; eta gaudezin horrela ahalik pausu geiagorekin. Zeren Iainkoak ikus gaitzanean orobatasun saindu hartan, konsolatuko gaitu hainitz graziaz eta faborez, Abraham patriarka egin zuen bezala; ezen ikusi zuenean hura deliberaturik zegoela bere semeaz gabetzera, aski eritzi zuen haren ikusteaz orobat iarria zela deliberazione oso hartan, eta hura konsolatu zuen ikuskari eder batez eta benedizino guziz eztiez. Bada gertatzen zaizkigun ala gorputzeko, ala arimako aflikziona guzietan, eta sentitzen ohi den deboziona errebelatzen edo eramaiten zaikunean, erran behar dugu bihotz guziaz, eta barrena humildurik, *Iaunak eman derauzkit kondolazioneak, Iaunak edeki derauzkit, benedika dadilla haren izen saindua.* Zeren finko bagaude humiltasun hartan, bihurtuko derauzkigu bere fabore plazersuak, Iobi egin ziotzan bezala, ikusirik halako hitzez baliatzen zela bere ondiko guzietan.

5. Finean, Filothea, gure idortasun eta agortasun guzietan, eztezagula bihotza gal, baina pazienziarekin gaudezila konsolazioneak bihur ditezin artean, garraizkon bethi gure bideari, eztezagula hargatik deboziona eginbiderik bat ere larga; aitzitik, ahal badakigu, emenda detzagun gure obra onak, eta gure espos maiteari ezin presenta badiokegu konfitura hezerik, eskaini diozogun idorrik; ezen guzia orobat zaio, baldin halako



rik presentatzen dioen bihotza osoki deliberatua bada haren maitatzera. Uda berria eder denean, erleek ezti geiago egiten dute, eta ume gutiago; zeren denbora eder deino, hanbat hari dire biltzen eta bere abuztuaren egiten loreen gainean, non ezpaitira orhoitzen umerik egiteaz. Bainan uda berria gaitz eta hedoitsu denean, ume geiago egiten dute eta ezti gutiago. Zeren ezin ilkhiz eztiaren biltzeko, hari dire bere pobluaren egiten eta bere kastaren emendatzen. Hainitzetan gertatzen da, Filothea, arimak ikusten duenean konsolazione espiritualeko udaberri ederra duela, hanbat trikatzen dela hekin biltzen eta edoskitzen, non plazer ezti hetaz gozatu, hagitx gutiago egiten baitu obra onik; eta kontrara, gaitzetasun eta agortasun espiritualetan, dakusanean debozionario sentimendu gozoez gabetua dela, hanbatenez zailkiago hainitzten dituela bere obra onak, eta bere baitan barrena egiazko bertuteak, pazientzia, humiltasuna, bere buruaren beheramendua, eta beronen ganako amudioazko ukhoa frankoki pitzten dituela.

Beraz hainitzen, eta bereziki emazteen enganio handia da, zinetstea gusturik gabe, bihotzeko beratasunik eta sentimendurik gabe Iainkoari egiten diogun serbitzua, gutienik dela haren majestate sainduaren gogara; gure akzioak direnaz gero arrosak bezala, zein arrosak ederrago direlarik freskoak direnean, badarik ere idorturik usain eta indar geiago baitute. Ezen orobat gure obra bihotz beratuz eginak gogarago zaizkigularik, guri diot, nola ezpaitugu behatzen gure atsegin partikularera baizen; halarik ere idortean eta agortean egiten direnean usain eta blai geiago dute Iainoaren aitzinean. Bai, Filothe maitea, denbora idorrean gure borondateak eramaiten gaitu Iainkoaren serbitzura, borxa borxatuz bezala, eta halatan behar da sendoago eta fermuago den beradurazko denboran baino. Ezta hain gauza handia prinze bat serbitzatzea bake denbora eme batetan, eta korteko plazeraren artean; bainan haren serbitzatzea gerlate gaitzean, tribulamenduen eta persekuzioenen artean, fermutasunaren eta fideltasunaren egiazko seinalea da. Angela de Foligny doatsuak dio Iainkoaren gogarago den orazinea dela borxaz egiten dena, erran nahi da, iarten garenean orazione egiten, ez hartzen dugun gustua gati, ez eta zeren gogoak hala agintzen deraukun; baina zeren garbiki Iainkoaren plazeraren egitea gatik, hartara gure borondateak garamatzen bihotzaren borxaz bezala, kontrara alxatzen diren idortasunak eta kontrastak borxaturik eta hautsirik. Orobat diot obra on suerte guziez; zeren zenbatenez, dela kanpoko, dela barreneko kontragarri geiago baitugu hekin egitean, hanbatenez estimatzenago dira Iainkoaren aitzinean eta prezatzenago. Zenbatenez gutiago bilhatzen baitugu gure amorio partikulara bertutei

garraiztenean, hanbatenez ageriago da Iainkoaren amudio hutsez hari garela. Haurrak gogotik musuztatzen du ama, azukrea emaiten dioenean, baina seinale da hura duena hagitx maite, musu emaiten badio hark absinthio edo khelderra eman dioen ondoan.



## Lehen erranak deklaritzen eta firmatzen dira exenplu seinlatu batez

### HAMABORTZGARREN KAPITULUA

Ordea dotrina hunen guziaren agerikiago erakuste gatik, hemen ezarri nahi dut peza ekzelent bat san Bernaten historioatik atherarik, hura eskiribatzaile iakinsun eta antzetsu baten eskiribuetan kausitu dudan bezala; hunela dio bada. Gauza aruntera da Iainkoaren serbitzatzen hasten diren guzientzat kasik, eta oraino frogatu eztutenentzat zer den Iainkoaren graziaz gabetzea, eta nola gauza espiritualak aldizkatzen diren, sentimenazko debozioneko gustu eta Iainkoaren bidean lehiatzera gonbidatzen dituen argi eder hura eskasten zaienean, bere hala, hats bahitzea, eta bihotz urritasunean eta tristezia erortea. Iakinsunek eta adituek arrazoin hau emaiten dute haren gainean: arrazoinezko naturalez aezin hainitz dagokeiela goseturik, eta zenbait, ala zeruko, ala lurreko plazerik gabe. Bada nola bera baino gorago alxaturikako arimak gaineko plazerak frogatuz, errazki ukho egiten baiterauezate ikusten diren gauzei; halaber, noiz ere Iainkoak hala ordenaturik, bozkario espirituala eramaiten baitzaie, ikusirik ere bertze alde gabetuak direla gorputzeko konsolazionez, eta oraino usatuak ez izanez pazienziarekin begira egoitera egiazko iguzkia bihur dakien artean, iduritzen zaie ezirela, ez zeruan, ez lurrean, eta bethiko gau batetan ehorzirik dauntzala, hala non, bulharretarik khentzen diren haur xumeak bezala, ehk ere bere konsolazionetako bulharrak galdurik, langiatzen, plainatzen, eta prinzipalki bere buruaren unharri egiten baitira. Hori bada erraiten dugun bidean gertatu zitzaion Geofre Peroneko zeritzon konpainiako bati, iarri berria zenean Iainkoaren serbitzuan; hura berehala idor eginik, konsolazionez gabeturik, barreneko ilhunbez betherik, hasi zen bere munduko adiskideez, ahaideez, utzi zituen onhasunez orhoitzen, eta bide hartaz hain tentazione bortitz batez akometatu izan zen, non hura ezin estaliz bere egitatetan haren fidagoe-tarik batek hori ezagutu baitzuen, eta hari sotilki hurbildurik, hitz emeez erran baitzioen ixilik; Geofre, zer erran nahi du horrek? Orduan Geofrek barreneko hatsbeherapen batez: ah! anaia, ihardetsi zioen, sekulan bizi naizeino enaiz alegera izanen. Bertze lagun hura halako hitzez bihotzean ukiturik anaiak ohi duen amudio batez, berehala ioan zitzaion San Bernardo bien aita espiritualari zen guziaren erraitera. Gizon saildu hura,

perilla ikusirik, sartu zen eliza handik hurbil batetan harentzat Iainkoari othoitz egiteko, eta Geofre bizkitartean tristezia hondaturik, burua harri baten gainean pausaturik, loakhartu zen. Baina gutiren buruan biak iaiki ziren, bata orazionetik eskatu zen grazia ardietsirik, eta bertzea lotarik, hain begitarte emerekin eta arraiarekin, non haren adiskide maiteak, hain mudanza handiz eta ustegabekoz espantaturik eta miretsirik, ezin egon baitzen hari bere arrankurak maiteki egin gabe lehenxe ihardetsi zioenaren gainean. Geofrek berriz ere erran zioen: lehen erran baderautzut eninzela sekulan alegera izanen, orai segurutzen zaitut enaizela sekulan triste izanen.

Horrela ioan zen gizon debot haren tentazionea: ordea historia hunen gainean orhoit zaite Filothe maitea.

Lehenbizirik, Iainkoak komunzki zeruko atseginak aitzinetik nolazbait dasta arazitzen derautzela haren serbitzuan sartzen direnei, hekin atheratzeko lurrekoetarik, eta hei bihotz emaitetoztat Iainkozko amorioaren ondoan ibilteko, ama batek egiten duen bezala, ezirik emaiten duenean bere dithi mokoaren gaiean, haurrari bulharraren hararazitzeko.

Bigarrenean, orhoi zaite Iainko amolsu hark berak halarik ere batzutan, bere ordenanza sainduaren arauera, edekiten deraukula konsolazionetako ugatza eta ezta, arren horrela hertsirik gadutzala dulzezikorik gabe ikhas dezagun nardaduretan eta tentazionetan frogaturikako debozione sendoago baten ogi idorretik eta sailletik iaten.

Hirurgarrenean, Iakin ezazu tentazione xoil handirik alxatzen dela idortasunen eta agorteen artean, eta orduan tinkhets iharduki eta hari behar dela tentazioneen kontra, zeren ezpaitira Iainkoa ganik heldu, baina idortasunak pazienziatzat iasan behar dire, Iainkoak ordenatu dituenaz gero gure indarrak frogatzea gatik.

Laugarrenean, eztugula nihoiz ere bihotza galdu behar barreneko ilhunbeak edo unhadurak gatik, ez eta erran Geofrek bezala, sekulan enaiz alegera izanen; zeren gaua denean iguriki behar diogu argiari; berriz ere ahal dukegun denbora espiritual ederrenean, eztela erran behar, enaiz sekulan unhatuko; ez, zeren zuhurak dioen arauaz, zori onezko egunetan orhoitu behar da zori gaitzaz. Esperanza behar da nekhe-trabailletan, eta beldur behar da ongi doakunean, eta batean bezanbat bertzean ere bethi behar da humil iarri.

Bortzgarrenean, beregaineko erremedio bat dela gure gaitza agertzea eta erakustea deskansa gaitzakeien adiskide espiritual bati.

Finen, hain premiazko abisu hunen serratzekotzat, orhoitzen zaitut gure Iainko onak eta gure etsaiak, gauza guzietan bezala, hautan ere elk-



harren kontrako xedeak eta nahiak dituztela; ezen Iainkoak nahi gaitu bihotzeko idortasunen bidez ekharri bihotzeko garbitasun handi batetara, nahi du ukho oso bat egin diezegun ukhitzen zaizkigun guziei, haren serbitzuaz doanean, bai eta gure buruaz beraz osoki billus gaitezin; ordea espiritu gaixtoa enseiatzen da nekhadura hetaz baliatzera guri bihotzaren galarazitzeko, gure bihurazteko sensuetaarako plazeretara, eta finean hala egiteko, non bertzeen eta are gure buruaren beraren unhagarri gerta gaitezin, debozione saindua baia eta gaizki aipha dadintzat; baina bazarraizte eman derauzkitzudan irakhasmenduei, hagitz emendatuko duzu zure prefekzioea penadura hekin artean eginen duzun lanaz eta eserzizaz, zein pneazko solhasa ezpaitut serratu nahi, oraino hitz hau zuri erran gabe. Batzutan gustugabetasunak, agorteak eta idorteak heldu dira gorputza ez ongi aurkituz, hala nola sobera beillatuz, nekhatuz, barurtuz, guzia kausitzen denean unhaturik, logaleturik, zapaturik eta bertze horrelako manieraz gaitzturik, zeren trabu hek gorputzari datxezkolarik, espirtua ere tratatzen dute, bata bertzearekin hersiki iuntatuak eta amarratuak izanez. Bada halako orduetan bethi orhoitu behar da bertuteko akziorik hainitz egiteaz gure espirtuaren eta gaineko borondatearen puntaz, zeren dirudielarik gure arima lo datzala eta logalez edo unhez tontorik dagoela, badarik ere gure espirituko akziorik xoil dire hargatik Iainkoaren gogara. Orduan ahal derrakegu espos sakratuak bezala; *ni natza lo, bainan ene bihotza dagor ernerik*. Eta lehen erran dudan bezala, baldin gustu gutiago bada horrela egiteaz, halarik ere merezimendu eta bertute geiago da; bainan horrelakork gertatzen denean erremedioa da gorputzari indar berriak emaita zenbait legezko arin eta alegeragarritz. Hala San Franzesek ordenatzen zerauen bere fraidei halako neurritz hari zitezila bere lanen egiten, non espirtuaren indarra elezaten sobera zapa.

Eta Aita lorios hartaz minzo garenaz gero, behin espirtuko melankolia hain barren batek hura akometatu zuen, non ezin baitzegokeien hura erakusi gabe bere egiteko maneretan; zeren nahi bazuen bere fraidekin solhasik egin, izen zezakeien, hetarik apartatzen bazen, gaizkiago zen, iangabeak eta gorputzeko sebadurak hura akabatzen zuten, eta orazioak berak hura etzuen nihola ere arintzen. Bi urthez egon zen erremangu hartan, hala non iduri baitzegokan iainkoak hura osoki utzi zuela; ordea azkenean halako tormenta garratza humilki pairatu ondoan, gure salbatzailleak berehalako aldi batez kalma eta bake doatsu bat bihurtu zioen. Hori erran nahi da Iainkoaren serbitzari handienak ere horrela inharrotsten direla, eta xipienek ezutela miretsi behar zenbait aldiz hala erabilten badira.

## INTRODUKZIONEAREN BORTZAGARREN PARTEA

Arimaren berriztatzeko eta debozionean finkatzeko eserzizak  
eta abisuak dadutzana



**Urthe guziez deliberazione onak  
berriztatu behar direla hemen diren eserzizez**

**LEHEN KAPITULUA**

Eserziza haukin lehenbiziko puntua da ongi ezagutzea zein kontuzko diren. Gizonaren naturaleza errazki erorten da bere afekzione onetarik gure haragiaren hautskortasuna eta inklinazione gaixtoa dela kausa; hark zapatzen baitu arima eta bethiere beheite eramaiten, maiz alxatzen ezpada goiti erresoluzioeen podorez; hala nola xoriak berehala lurrera erorten baitire, hegalak usu ezpadarabiltzate nahi duten bezanbat hegaldatzeko. Hartarakotzat, Filothe maitea, premia duzu hartu ditutzat Iainkoaren serbitzatzeko deliberazione onen maiz pitzteko eta berriztatzeko, beldurrez hori egin faltaz eror zaitez zure leheneko estatuan, edo are gaixtoagoan, zeren erorte espiritualek hori dute beregain, bethi beherago iraitsten baigaituzte, ginundezin estatua zen baino, goiti debozione-ra ikhan garenean. Ezta orenik, zenbat ere ona baita, egunean bietan, goizean, eta arratsean alxatu eta bandatu behar eztenik, eta gero hortaz lek-hora, urthean behin bederen haren peza guziak behar dira urratu, egin zaion herdoillaren khentzeko, peza makhurtuen xuxentzeko eta higatuen antolatzeko. Halaber nork ere egiazko artharik baitaduka bere bihotz maiteaz, hura behar du Iainkoa gana berriz alxatu arratsean eta goizean, lehen erakusi ditugun eserzizez; hortaz kanpoan, maiz behar du bere estatua konsideratu, xuxendu, antolatu eta guzien buruan behin ezpere urthean beregain eman eta xehero miratu behar ditu haren peza guziak, erran nahi da, haren afekzione eta pasione guziak, hetan ahal diratezkeien eskas guzien konplitzeko. Eta nola orengilleak zenbait olio guriz olioztatzen baititu bere orenaren arroda, erresorta eta higuigarri guziak, legunkiago ibil, eta gutiago herdoil dadintzat, halaber presuna debotak bere bihotzaren pezak urratu ondoan, haren ongi berriztatzekotz, hura behar du olioztatu konfesionen eta eukaristia sainduaren sakramenduez; horrela eginenez, denboraz ahitu zaizkitzun indarrak erreparatuko dire, eta zure espi-rituaren bertuteak birloratuko dira.

Lehenagoko girstinoak horrela egiten ohi zuten gure salbatzailea bataiatu izan zen urthaburuko egunean, hala non, San Gregorio Nazianzakoak dioen bezala, berriz egiten baitzituzten sakramendu haren hartzean egiten diren profesa eta promesak; dagigun guk ere hek bezala,

Filote maitea, prepara gaitzein eserziza hartara gogotik, eta iar gaitzein zinetan haren egiten.

Beraz hartarakotz on den denbora zure aita espiritualaren konseilluz hautaturik, lehen baino geixego, bai arimako, bai gorputzeko bakharlekuan sarturik, eginen duzu meditazione bat, ezpa bia, ezpa hirur, orai erranen derauzkitzudan puntuen gainean, bigarren partean eman derauz- zudan antzearen arauera.





**Konsiderazioneak Iainkoak egiten deraukun  
ontasunaren gainean bere serbitzura  
deitzen gaituenean, lehen eman dugun  
promes seinalatuaren arauera**

**BIGARREN KAPITULUA**

1. Konsideratzatzu zure promesaren puntuak. Lehena da, sekulakotz bekhatu mortal guzia utzi duzula, iraitsi, ukhatu, arbuiatu, arnegatu. Bigarrena, zure arima, zure bihotza, zure gorputza eta hei dagoten eta datxeten guzia konsekratu diozula Iainkoaren amorioari eta serbitzuari. Hirugarrena da, gertha bazindez zenbait akzione gaixtotan erorten, alxatuko zinela berehala Iainkoaren graziarekin batean; ordea ez othe dira erresoluzione ederrak, zuzenezkoak eta bihoz handiarenak? Egizu gogo-eta zure arimarekin promes hura zein den saildu, zein arrazoinetako, zein desiratzeko.

2. Konsidera zazu nori promes hura egin diozun, zeren Iainkoari egin diozu. Gizon bati eman diotzagun arrazoinetako hitzek hersiki obligatzen bagaituzte, zenbatenez geiago obligatuko gaituzte Iainkoari eman diotzagunek? *Ha! zuri, Iaiuna*, zioen Dabitek, *zuri ene bihotzak hori erran derautzu, hitz on hura athera du ene bihotzak; ez, sekulan etzait ahanzikoa*.

3. Konsidera zazu noren aitzinean egin duzun; zeren hura zeruko korte guziaren aitzinean eman duzu; Helaz! birjina saildua, San Iosep, zure angeru begiralea, San Luis, konpainia benedikatu hura guzia beha zegotzun, bozkariozko eta ongi etorri zinelako hatsbeherapenez zegoen zure hitzen gainean; ezin erranezko amorioen begiez ikusten zuen nola zure bihotza salbatzaillaren oinetan apaldurik konsekratzen zeikan haren serbitzuari; hargatik bozkario beregain bat egin zen zeruko Ierusalem hartan, eta orai ere orduko alegrianzaren orhoitzapena eginen da, bihotz onez berriztatzen badituztu zure erresoluzioneak.

4. Konsidera zazu zer bidez egin zenuen zure promesa. Helaz! zein eme, zein begitartetsu izan zeitzun Iainkoa orduan! Ordea, errazu egia, ez othe zinen gonbidatua espiritu sailduaren erakhargarri amolsuez? Sokhak, zeinetaz Iainkoak ekharri baitzuen zure barkhu xumea salbagarriko portu hartara, ez othe ziren amorioz eta karitatez eginak? nola orduan beithatu zaitu bere Iainkozko azukreaz, sakramenduez, liburu onez, eta orazioneaz? Helaz Filothea maitea, lo zinuendegin, eta Iainkoa zegoen ernerik zure gainean; gogoaz zedukala zure bihotzaren gainean

bakezko gogoetak zerabiltzan, eta zuretzat amoriozko meditazioneak meditatzen zituen.

5. Konsidera zazu noiz Iainkoak ekharri zinituen erresoluzione handi hetara; zure adinaren lorean segur. Ha! zein zori doatsu, muga onez ikhasteaz ezin dakikeguna berantegi baizen! San Augustino ikusirik hogoi eta hamar urthetako adinean ekharri izan zela Iainkoaren serbitzura, oiuz zegoen: *o aspaldiko edertasuna, nolatan horrein beranduan ezagutu zaitu? Helaz! ikusten zinitudan, eta etzinitudan konsideratzen*. Zuk ere ahal derrakezu, O aspaldiko ezitasuna, zergatik etzaitu lehen dastatu? Helaz! hala ere etzenduen orduan merezi hark beregana zinitzan; hargatik ezagutzen duzula zer grazia Iainkoak egin derautzun zure gaztetasunean, errazu Dabitek: *ene Iainkoa, argitu eta ukhitsu nauzu neure gazte danik; nik ere sekula sekulororaino aiphatuko dut zure miseriordia*. Zu ia zaharturik ekharri bazaitu bere gana, helaz! Filothea, nolako grazia, ikusteaz aitzineko urtheez horrela gaizki baliatuz geroztik, Iainkoak deitu zaituela bere gana, herioak eraman zinitzan baino lehen, eta zure bizitze gaixtoaren korsua hautsi duela, sekulakotz miseraitsu zinen denboran, bethi bere abiadura handian ibilli baliz.

6. Konsidera zazu Iainkoaren serbitzurako erakhartze hark zer egin duen zure baitan, aurkituko duzu ene ustez, ganbiamendu onik, konparatzen baduzu zer zaren orai, eta orduan zer zinen. Ez othe dadukazu zori ona dela zuretzat zeren dakizun nola Iainkoarekin minza orazionean? zeren gogo eta borondate duzun haren maitatzeko? Ez othe zaitzu gauza handi, ikusteaz asaldatzen zinituzten pasioneak edo guthiziak sebatu eta ematu dituztula? hainitz bekhatutarik eta konszientziako korapillotarik itzuli zarela? zeren finean zure Iesus maitearen gorputz preziosa maizago errebitu duzun, eginen zenuen baino, zu bat eginik sekulako grazien ithurburu beregaineko harekin? Ha! zein handi diren grazia hek! ene Filothea, pisatu behar dira pisu sailduetan, ezen hori guzia Iainkoaren eskuineko eskuak egin du. *Iainkoaren esku maiteak*, dio Dabitek, *egin du bertute; haren eskuinak alxatu nau. Ha! enaiz hillen; aitzitik biziko naiz, eta haren ontasunaren miragarriak leku guzietan erranen tut bihotzez, ahoz eta obrez*.

Konsiderazione haukin ondoan, zeinek dakusazun bezala, nahiz bezanbat afekzione onik emaiten baitute, zure orazionea sinpleki serratu behar duzu Iainkoari eskerrak emaiten diotzatzula, eta gogotik othoitzez zagozkala, dizula konsiderazione hetaz ongi probetxatzeko grazia; gero geldi zaitte humilki eta Iainkoa baitako fidanza handirekin, utzten duzula erresoluzioeen tinkhetz eta zinetan egiteko muga, eserziza hunen bigarren puntua erabil artean.



**Gure arimaren examinatzeaz  
bere bizitze deboterako aitzinamenduaren gainean**

**HIRURGARREN KAPITULUA**

Eserbizaren bigarren puntu hau luzexe da, eta erranen derautzut ezen, haren konplitezkotzat, eztela beharrik hura oso egin dezazun aldi batez, bainan hainitz alditan; behingo aldi batez hartzen duzula miratze-  
ra, nola ibilli eta hari izan zeren Iainkoaren aldera; bertze batez nola zau-  
dezin zure buruaren aldera, hirurgarrenean nola gobernatu zaren laguna-  
ren aldera, era azkhenekoan nola dabilzan zure pasioneak. Ezta behar, ez  
on ere zaudezin belhaunikaturik, ezpada hastean eta akabatzean non pitz-  
ten baitira afekzioeak. Examenaren gainerako puntuak probetxurekin  
egin detzaketzu non nahi zabiltzala, eta are probetxu geiagorekin ohean  
zauntzala, suertez etzanik bazaudezke zenbait denboraz logaletu gabe eta  
ongi iratzarririk; bainan horrela egitekotz behar da ongi irakurri ditutzun  
aitzinetik.

Guziarekin ere bigarren puntu hau guzia egin behar duzu luzenaz  
hirur egunen eta bi gauen barnean, hartzen duzula egun eta gau bakhoi-  
tzetik zenbait oren, erran nahi dut, zenbait muga edo ephe, zure ahal  
bezala. Zeren eserziza hau egiten ezpaliz bata bertzetik hainitz urrundu-  
rikako denboretan baizen, bere indarra gal lezake, eta gogo berri onak  
laxoegi liratzek. Examenaren puntu bakhoitzen ondoan, seinale eginen  
duzu zertan eskas zaren, eta zertan bereziki sentitzen duzun errebelatua  
zarella, gero haren deklaratzekotzat, kondeillu hartzeko, erresoluzione  
berririk egiteko, eta espirituaren bortitzteko. Eserziza hori eta bertzeak  
eginen ditutzun egunetan, mengoarik ezpada ere osoki aparta zaitez  
jendekin ibiltetik, badarik aphur bat apartatu behar zare, guzien gainetik  
arratsaldetan, muga hobeagoz ohera ahal zaitezkentzat, eta konsiderazio-  
neen egiteko premia den espirituko eta gorputzeko errepausua har deza-  
zun gatik. Egunaz hainitz hatsgorapen usu aurtiki behar dire Iainkoa  
gana, andre dana Maria gana, angeruak eta zeruko Ierusalemeko burjes  
guziak gana; behar duzu oraino den guzia egin Iainkoaren eta zure ari-  
mako prefekzioearen amolsuki bilha dabillan bihotz batez. Beraz exa-  
men horren ongi hastekotzat. Lehenik, iar zaite Iainkoaren presenzian.

Bigarreanean, espiritu saindua dei zazu zure gana, othoitzez zagoz-  
kala dizula argia zure buruaren ongi ezagutzeko, san Augustinok egiten

zuen bezala; oiuz baitzegokan Iainkoari bihotzez humildurik, *Arren, O  
Jauna, ezagut zaitzadan eta neure burua ere ezagut dezadan.* Eta san Fransesek  
bezala, galde hau egiten baitzioen Iainkoari, *zu Jauna, nor zare? eta ni nor  
naiz?* Errazu zin ginez, eztuzula zure aitzinaramendua ezagutu nahi, har-  
taz bozteko zure buruarekin, baina bai Iainkoa baitan; ez eta hartaz loria-  
tzeko, baina bai Iainkoari loria eta eskerrak emateko.

Promes egizu, baldin uste duzun bezala, ikusten baduzu guti aitzin-  
natu, edo gibelatu zarella, eztuzula nihola ere hargatik hartu duzun bidea  
hautsi nahi, ez eta zure burua utzi hotztera, zerk ere bihotza epel eta flaka  
diazakezun gatik; aitzitik nahi duzula bihotz geiago hartu, zure burua  
humildu eta Iainkoaren graziarekin batean zure eskasak erremediatu.

Hori eginik, konsidera zazu emeki eta bakerekin nola oraino ore-  
naino ibilli zaren Iainkoarekin, lagunarekin, eta zure burua berarekin.



## Examena nola dagoen gure arima Iainkoaren aldera

### LAUGARREN KAPITULUA

1. Nolado da zure bihotza bekhatu mortalaren kontra? Othe duzu zinetan deliberatu haren ez sekulan egitera zer ere ggera dakidikezun gatik? erresoluzione hura izan othe da finko zure promes seinalatua egin zenduen ordutik huneraino? Erresoluzione hartan datza bizitze espiritua-laren zimendua.

2. Nolako da zure bihotza Iainkoaren manamenduen aldera? Othe zaizkitzu on, ezti, eder? Ha! ene alaba, nork ere gustua baitu on, eta esto-maka sendo, iaki onen zale da, eta gaixtoak higoen zaizko.

3. Nolako da zure bihotza bekhatu egin gabe hemendik edo hortik, bainan ez othe da zenbait, zure inklinazionea partikulari dadukanik, eta zein bailizate gaixtoenik, othe da bat ere zure afekziona eta amudioa daramanik?

4. Nolako da zure bihotza eserziza espiritualetara? Maite othe tutzu eta prezatzen? Ez othe zaituzte fastikatzen eta nardatzen? zeinetan senti-tzen duzu gutiago edo geiago lakhet zaitzula? Iaikoaren hitzaren enzutea, irakurtzea, meditatzea, Iainkoa gana hatsgorapen egitea, konfesatzea, abisu espiritualak hartzea, komunioera preparatzea, errezebitzea, biho-tzeko afekziona hertstea, zer da hortan guzian zure gogoari garririk egin diozonik? Aurkhitzen baduzu zerbait zure bihotz hari gutiago lakhet zaionik, mira zazu nondik heldu den nardamendu hura, eta zerk hura dakharken.

5. Nolako da zure bihotza Iainkoaren beraren aldera? Lekhet othe du Iainkoaz orhoitzea? Hura gogora zaionean, sentitzen othe du eztitasun gozorik? *Ha! dio Dabitek, orhoitu naiz Iainkoaz, eta lakhetu zait.* Frogatzen othe duzu bihotzean amolsura begitartetsu bat haren gana, eta gustu partikular bat haren amudioa dastatzen duzunean? Zure bihotzak hartzen othe du atseginik Iainkoaren neurrigabetasuna, ontasuna, eztitasuna gogoan erabilteaz? Iainkoa gogoratzen bazaitzu munduko egitekoen eta banalorien artean, sartzen othe da zure bihotzean lekhu hartzeko? Othe dagotzu iduri zure bihotz hura itzultzen dela haren aldera, eta zen-bait maneraz ilkhiten zaiola bidera? Gertuz, bada horrela gertatzen zaion arimarik.

Emazte baten senharra urrutitik heldu bada, emazte hark dakien bezain sarri bihurtu dela, eta haren hitza enzuten duenean, egitekotan amarratua delarik, eta zenbait konsiderazione bortitzek hura bertzen artean badaduka ere, badarik haren bihotza eztago loturik, aitzitik bertze gogoeta guziak largatzentu, bere baitan solhas egiteko senhar ethorriare-kin. Orobat gertatzen zaie Iainkoa zinetan maite duten arime, hagitz amarratuak direlarik, Iainkoaren orhoitzapena hurbiltzen zaionean ahantzten dira kasik gainerako guziez, duten atsegina gatik ikusteaz orhoi-tzapen maite hura bihurtu zaiela, eta seinale neurrigabeki ona da.

6. Nolako da zure bihotza Jesus Iainko eta gizon amolsuaren alde-ra? Lakhet othe zaitzu haren aldean? Erlei lakhetzen zaie bere eztiaren ingurunean, eta abadotei usain gaixtoen aldean; halaber arima prestuek bere atsegina hartzen dute Jesusen aldean, eta amudio guziz mingera dute haren gana; bainan arima gaixtoek bere plazerak itutze banalorietan?

7. Nolako da zure bihotza Andre Dana Maria, zure angeru ona, eta sailduak gana? Othe itutzu hagitz maite? othe duzu fidanza berezirik hekin begitarte amolduan? Hekin imajinak, biziak, laudorioak othe zaiz-kitzu eder? othe dira zure gogara?

8. Zure mihi az bezanbatean, nola minzo zare Iainkoaz? Hartzen othe duzu atseginik hartaz solhas onik egiteaz zure bizitze thailuaren eta iakinaren arauera? Maite othe duzu haren laudoriozko kantarik kantatzea?

9. Obrez denaz bezanbat, mira zazu ea bihotzik duzun Iainkoaren kanpoko loriarentzat, eta zerbaiten egiteko haren ohoretan; ezen nork ere Iainkoa maite baitu maite du halaber haren etxearen edergaillua.

Orhoit othe zindezke zenbait afekziona utzi duzula, eta zerbaiti ukho egin diozula Iainkoa gatik? zeren seinale ona da nihor maite duela, zerbait bez gabetzen denean maite duena gatik. Zer utzi duzu bada hune-rainoan Iainkoari diadukozun amorioa gatik?



## Examena nola zaudezin zeroni zure buruaren aldera

### BORTZGARREN KAPITULUA

1. Nola maite duzu zeronek zure burua? Ez othe sobera mundu hunen gatik? Horrela bada, izanen duzu desira bethi hemen egoiteko, eta paregabeko artha idukiko duzu lur hunetan zure egoitzaren finkatzeaz; ordea zure burua maite baduzu zerukotz, zure desira izanen da hemendik ilkhiteko gure Iaunak plazer duenean, edo ezpere errazki obedituko duzu ilkhi behar orduan.

2. Othe daukazu zure burua ganako amudioa ongi ordenaturik? ezen ezta gure burua ganako amudioa ordenatugabeaz bertzerik galtzen gaituenik. Bada amudio ordenatuak nahi du maiteago dugun arima, gorputza baino, nahi du artha geiago iduki dezagun bertuteen bilhatzeaz, nahiz den bertzerik biltzeaz baino, kontu geiago egin dezagun zeruko ohoreaz, lurrekoaz eta erorkorraz baino. Bihotz ongi ordenatuak maizago erraiten du, *zer erranen dute angeruek, horrelakork gogoan badarabillat, iarten banaiz horrelakorik egiten? ezen ez, zer erranen du munduak?*

3. Zer amorio ekharten diozu zure bihotzari? Othe duzu damurik haren errekaitatzeaz bere eritasunean helaz! egin behar duzu hartaz kontu, hari heldu eta lagundu behar zaizko, errekaituak bilhatu behar diontzatzu, pasioneek hura gaizki darabillatenean, eta gainerako guziak behartzu hargatik largatu.

4. Zer uste duzu zarela Iainkoaren aitzinean, segur ez deus. Bada ezta humiltasun handirik uliak badaduka ez deus bat dela mendi baten aldean, ur xortak erraiten badu eztela deus itsasoarekin konparaturik, su inharrak aitortzen badu ezdeus dela Iguzkiaren aldean, ordea humiltasuna hunetan dago, beurok gure burua prez aeztezagula bertzeak baino geiago, eta ez nahi ere nihork nohir baino geiago preza gaitzan. Nola zare hortaz bezanbatean.

5. Eta mihiaz, ez othe zara bantatzen edo hunela, edo horrela; ez othe duzu zure burua lausengatzen, zutaz minzo zarenean?

6. Obrez bezanbatean, ez bide duzu zure osasunaren kontrako plazerik hartzen, erran nahi dut, banaloriazko plazerik, alferrik, mengoa gabeko beilla luzeegirik, eta bertze horrelakorik?

## Examena nola dagoen gure arima lagunaren aldera

### SEIGARREN KAPITULUA

Egia da amudio ezti eta eme, fermu eta finko batez onetsi behar direla senharra eta emaztea, eta lelhenik zeren Iainkoak hala ordenatu eta nahi duen. Orobat diot umeez, ahaideez, urkhoez, eta oraino adiskideez, zein bere graduaren eredura.

Ordea jeneralki minzatzera, nolako da zure bihotza lagunaren alde-  
ra? Hura othe duzu maite bihotzez eta Iainkoa gatik? Horren ongi eza-  
gutzekotzat, zure begien aitzinean ezarri behar tutzu jende unhagarri eta  
moldegaitz batzu, zeren hek maite baditutzu, hortan ezagun da laguna  
gana duzun amudioa, eta geiago hagitza baldin eginez edo erranez gaizki-  
rik egiten derautzutenak maite bditutzu. Mira zazu ongi ea zure bihotza  
lano eta idekia denz hekin aldera, eta ea nekhez eta bihotzaren borxaz  
maite ditutzun.

Ez othe zara emana berehala gaizki minzatzera zure lagunaz, bere-  
gainki ordea maite etzaituztenez? Ez othe diozu gaizkirik egiten lagunari,  
dela ageriz, dela ixilik. Arrazoinezkoa bazare hori errazki ezagutuko duzu.



## Examena gure arimako afekzioon gainean

### ZAZPIGARREN KAPITULUA

Horrela hedatu itut puntu horiok, zeren hek ongi miraturik ezagutzen baita nolako aitzinamendu espiritual egin dukegun. Bekhatuen examenaz bezanbatean, hura utzten dut debozioon aitzinatze gogorik ez tutenen konfesionentzat.

Badarik ezta penatu behar artikulu hautarik bakhoitzaren gainean emeki baizen, konsideratzen dugula nola hetaz bezanbatean egon den gure bihotza hartu dugun erresoluzioenez geroztik, eta zer huts seinalaturik egin dugun hekin kontra.

Ordea den guzia laburtzera, gure examena serratu behar dugu gure pasionek bilhatuko itugun kontuan; eta penarik badugu hain xeheroki konsideratzeaz erran dugun bezala, hunela examina gaitezke, nolakoak izan garen, eta nola bizi eta ibilli garen.

Nolako amorio izan dugun lainkoa gana, laguna gana, gure burua bera gana.

Nolako gaitzeritze ekharri diogun gure baitan, eta are bertzeen baitan kausitzen den bekhatuari; zeren desiratu behar dugu eta gure, eta bertzeren baitan aurkitzen den bekhatua borra, khen eta hil dadin.

Nolakoak diren gure desirak eta guthiziak onhasunez, plazerez eta ohoreez bezanbatean.

Nola beldur garen eror gaitezkin bekhatu egiteko perilletan, eta mundu hunetako ontasunak gal detzagun; zeren bataren sobera beldur gara, eta bertzearen gutiegi.

Zertan esperanza ezarten dugun, ea sobera munduan eta kreaturetan, edo gutiegi lainkoa baitan, eta sekulako gauzetan.

Ea tristeegi garen ezdeusetako eta banaloriazko gauzak gatik.

Ea sobera alegeratzen garen, eta merezi ez tuten gauzak gatik.

Finean nolako afekzioonek dadukaten gure bihotza amarraturik, zer pasionek hura nausitzen duten, zertan bereziki errebelatu den; ezen arimako pasionek miratuz, eta bata bertzearen ondoan ukhituz, ezagutzen du nihork zer estatutan dagoen; zeren nola soinuariak bere gitarraren zainak edo sokhak erhi puntaz ukhituz eta erabilliz, bide bezalako soinu emaiten ez tutenak behar neurria eta puntura ekhartzen baititu edo ban-

datuz edo largatuz, halaber gure arimako amorioa, gaizterizkoa, desira, beldurtasuna, esperanza, tristezia, alegrianza ukhituz eta sondatuz, kausitzen badugu ez tirela ongo heldu nahi dugun soinura, zein biata Iainkoaren loria, behar den elkarrekiko neurria ekhar detzakegu haren graziarekin, eta gure aita espiritualaren konseilluarekin batean.



**Examenaren ondoan  
pitztu behar diren afekzioeak**

**ZORTZIGARREN KAPITULUA**

Examenaren puntuak xehero eta emeki konsideraturik, eta zertan zaren ikusirik afekzionetara etorriko zare, hunela.

Eskerrak emoitzu Iainkoari zure erresoluzioea hartu zenduenetik huneraino zure bizitzean aurkhitu duzun aitzinamendu aphur haren gatik, eta aitor ezazu haren miseriak hutsak hura egin duela zure baitan, eta zuretzat.

Humil zaite hagitz Iainkoaren aitzinean, ezagutzen duzula ezen, hainitz aitzinatu ezpazare, hori egin dela zure faltaz, zeren etzaizten fidelki, zinki eta finki iarraiki orazionean eta bertzetan eman derauzkitzuz inpirazionei, argiei eta gogoramendu saindui.

Promes egiozu sekulakotz hura laudatuko duzula zure aldera egin dituen graziak gatik zure ekhartzeko zure inklinazionetarik oneramendu aphur hunetara.

Eska zakizko barkhamendu zeren etzaren fidel eta leial izan hari ihardetstera eta iarraikitera.

Egiozu ofrenda zure bihotzaz, arren iar dadin haren gainean iaun, iabe eta nausi.

Zagotza othoitzez egin zaitzala alde guziz fidel bere borondatetara.

Gomenda zakizte Birjina sainduari, zure angeruari, zure patroinari, San Iosepi, eta bertze saindui.

**Hartu ditugun gogo onen  
berriztatzeko konsiderazionez**

**BEDERATZIGARREN KAPITULUA**

Examena eginik, eta zenbait gidari zuhur eta presturekin ongi deliberraturik zure eskasen erremediatzeko bideen gainean, hartuko itutzu hemen diren konsiderazioneak: bat eginen duzu egun bakhoitzean meditazionez bezala, hartan emaiten duzula zure orazioneko denbora, eta bethiere preparazionearen egiteko eta afekzioen pitzteko antzea bera dadukazula, lehen parteko meditazionetan egin duzun bezala; gauza guziak baino lehen iarten zarela Iainkoaren prezentian, hari bere grazia eskatzen zaizkola zure ongi finkatzeko haren amorio eta serbitzu sainduan.





## Lehen konsiderazionea, gure arimaren ekzelenziaz

### HAMARGARREN KAPITULUA

Konsidera zazu zure arimaren noblezia eta ekzelenzia; nola duen adimendu bat, nola adimendu hark ezagutzen duen, ez xoilki ikusten den mundu hau guztia, bainan oraino badirela angeruak eta badela parabisu bat, badela Iainko bat, eta hura gauza guzietan guziz gainekoa, guziz ona eta ezin erranezkoa dela; hark daki badela sekulakotasun bat, eta are ezagutzen du zer den hoberenik ongi bizitzeko muneu hunetan, angeruen lagun iarteko parabisuan, eta Iainkoaz gozatzeko sekulakotz.

Geiago, badu zure arimak borondate guziz noble bat, zein borondatek Iainkoa onets baitezake, eta hura ezin gaitzets baitiro bere baitan Iainko bezala, mira zazu zure bihotza, zein on eta handi-nahia den; zeren nola erleak ezin gelditi bititezke ustelduretan, baina lorren gainean xoilki iarten eta trikatzen baitire; halaber zure bihotzak ezin duke pausurik Iainkoa batan baizen, eta ezta hura ase dezakeieen kreaturarik. Gogoratzatu zinetan zure bihotzean leku hartu zuten plazergerri mai-teenak eta minenak, eta egiaz iujea zazu, ea etzirenz betheak asaldu gaitzez, gogoeta errez eta grina khexoez, zeinen artean zure bihotz gaizoa baitzegoen ondikaturik.

Helaz gure bihotzak laster dagienean keraturetara, hara doa khexarekin, ustez hetan kausituko duela bere guthizien asetzekorik; bainan arukhitu dituen bezain sarri badakusa berriz hasi behar dela, eta eztela harentzat aski den gauzarik; Iainkoak ezpaitu nahi gure bihotza aurkhi dezan lekurik non pausa, usoak aurkhitu etzuen bezala Noeren untzitik ilkhi zenean, arren bihur dadin bere Iainkoa gana, zeina ganik ilkhi baita. Ha! zein eder den gure bihotza bere naturalezaz! Zergatik bada hura bere gogoaren kontra idukiko dugu kreaturen serbitzatzen.

Errazu beraz, O ene arima ederra, Iainkoa ezagut dezakezu, Iainkoa nahi ahal dukezu, zergatik geldituko zaren hura baino gutiago diren gauzetan? Hel zaitezke sekulako iraupenera, zergatik trikatuko zare laster iragaiten diren puntuetan? Seme gastosaren damuetarik bat zen ikusteaz, lehen plazerki bizi zitekeielarik bere aitaren mahainean, orduan likhitzki izaten zuela urdeen askan. O arima! Iainioaz gozatzeko gaia zare; zori gaitza zuretzat Iainkoaz baino gutiagok kontentatzen bazara. Alxa zazu hagitx zure arima konsiderazione hunen gainean, erakus diozozu nola bethierekoa den, eta nola bethieretasun doatsua ahal dukeien; hant diozozu bihotza hartarakotz.

## Bigarren konsiderazionea, bertuteen ekzelenziaz

### HAMEKAGARREN KAPITULUA

Konsidera zazu bertuteek eta debozioneak xoilki zure arima kontenta dezaketela mundu hunetan; mira zazu zein eder diren; elkhar etzazu bertuteak eta hekin kontrako bizioak; zein gozo eta plazersu den pazienza, mendekuren aldean? mansotasuna, haserretasunaren eta grinaren; humiltasuna, urguillukeriaren eta handi-nahitasunaren; liberaltasuna, abarziaren; karitatea, inbidiaren; doia, soberanien aldean? Hunetan miragarri dire bertuteak; bozten baitute arima paregabeko eztitasun batez, nihor hetan hariketuz geroztik, baina bizioek hura utzten dute neurrigabeki unhatu eta gaizki bilhakaturik. Ea beraz zergatik eztugu egin ahala eginen gozotasun hekin ardietsteko?

Bizioez bezanbategan, nor ere ezpaitu bizio guti baizen, ezta kontent, nor ere hainitz bizio baitu, deskontent da; ordea bertute guti baizen ez tuenak, iadanik bedere kontentamendu du, eta gero bethi geiago eta geiago. O bizitze debota, zein eder, zein ezti, zein arrai, zein gozo zaren! zuk tribulazioneak ematen, zuk deskonsolazioneak gozogarritzen tutzu; zu gabe on dena da gaitza, plazerak dire asalduz, nahasmenduz, eta eskasez betheak; ha! nihork ezagut bazinitza, ahal lerrake Samaritanak bezala, *Domine, da mihi hanc aquam*, Iauna, indazu ur hura. Hatsgorapen hori maiz atheratzen zuten Santa Theresak eta Santa Katalina Gennekoak, gauza diferentaen gainean horrela minzo zirelarik.



## Hirurgarren konsideraziona, Sainduen exenpluaren gainean

### HAMABIGARREN KAPITULUA

Konsidera zazu suerte guzietako sainduen exenplua zer eztute egin Iainkoa maitatzeko eta Iainkotiar debot izaiteko? Ikuskitzu bere erresoluzionetan ezin inharrosizko martirak; nolako penak eztituzten iasan eta pairatu hekin mantentzeko? ordea guzien gainetik bere garbitasunean azuzena baino xuriago, karitatean arrosa baino gorriago ziren andre eder eta lilitu hek, batzuk hamabi, bertzeek hamahirur, hogoi, hogoi eta bortz urthetan nahiago izan tuzte milla martirio suerte pairatu ezen ez ukhorik egin bere erresoluzioei, ez xoilki fedeazko profesari, bainan eta debozioneazko promesari ukhitzen zeitzen gauzetan; hetarik batzuk nahiago izan durte hil birjinitatea utzi baino, bertzeek erien serbitzatzetik, penetan zeudezinen konsolatzetik, eta hillen ehortzitetik gelditu baino. O Iainkoa! horrelako okasionetan zer fermutasun erakusi dute bere gorputz erorkorretan.

Beha zazu hain bertze konfesor sainduak gana. Nolako bertitzasunarekin mesprezatu dute mundua? nola ezin garaituzko egin dira bere erresoluzionetan? Deusek ere ezin itzuli hetarik; besarkatu, iduki eta mentenatu ituzte bat ere lekhatu eta utzi gabe. Ene Iainkoa! zer dio San Augustinok santa Monika bere amaz? Nolako sormutasunarekin itxeki dio hartu zuen borondateari Iainkoaren serbitzatzeko bere ezkontzan eta alharguntzan? eta San Hieronimok zer eztio santa Paula bere alaba espiritual maiteaz? zein finko egon zen hain bertze gudu, kasu, gertanza diferentean, ordea guk zer eztugu eginen hain molde ekzelenten gainean; gu garena hek ere ziren, egiten zutena egiten zuten guk ere dugun Iainkoa bera gatik, bertuteak berak gatik; zergatik gure kondizioan eta besarkatu dugun bizitze thailuaren arauera eztugu hek bezanbat eginen gure erresoluzioe maitea, eta promes saindua gatik?

## Laugarren konsideraziona, Iesu Kristok ekhartzen deraukun amorioaz

### HAMAHIRURGAREN KAPITULUA

Konsidera zazu amudiorekin Iesu Kristo gure Iaunak hain bertze pairatu duen mundu hunetan, eta beregainki Olibeteko baratzean, eta Kalbarioko mendiaren gainean. Amorio hura beha zegotzun, eta bere pena eta travaillu guziez Iainko aita ganik zure bihotzarentzat ardiesten zituen erresoluzioe eta protestazione onak, eta bide hartaz beraz ardiesten zerautzun premia duzun guzia erresoluzioe hekin mantentzeko, bortitzteko eta konplitzeko. O erresoluzioe! zein prezios zaren, zarenaz geroztik halako amaren alaba, nolakoa baita ene salbatzaillearen pasioe. O! zein onetsi, zenbat prezatu behar zaituen ene arimak, ene Iesusi hanbat gosta zaizkonaz gero! O ene arimaren salbatzaillea! hil zinen niri neure erresoluzioeak ardeitstea gatik. He! egidazu grazia, lehen hil nadin, hek gal detzadan baino.

Ikusten duzu, ene Filothea? Gauza segura da gure Iesus maitearen bihotzak gurutzearen gainetik ikusten zuela zure bihotza, eta hura zuela maite, eta amorio hartaz ardiesten ziotzala sekulan izanen dituzun ontasun guziak, eta bertzeen artean zure erresoluzioeak; bai, Filothe maitea, guziok ahal derrakegu Ieremiasek bezala; *O Iauna! nintzen baino lehen beha zinagozkidan, eta deitzen nenduzun neure izenaz;* zeren egia da Iainkoaren ontasunak bere amudioan eta miserikordian preparatu zituela gure salbamenduko bide jeneral eta partikular guziak, eta halatan gure erresoluzioeak. Bai dudarik gabe, emazte izorra batek mundura ekharri uste duen haurarentzat, oraino sortu eztelarik, sehaska, xatarrak, troxak, lokharriak eta are unhide bat preparatzen dituen bezala, gure Salbatzailleak ere bere ontasuna zedukala zutaz izorrarik, zutaz salbamendura erdi, eta zu bere alaba egin nahiz, preparatu zuen gurutzeko arbolaren gainean zuretzat premia zen guzia, zure sehaska espirituala, zure trapuak eta lokharriak, zure unhidea, eta zure zori onetako behar zen guzia; erran nahi da, bideak, deiak eta grazia guziak, zeinetaz gidatzen baitu zure arima, eta hura nahi baitu perfekzionera ekharri.

Ah! ene Iainkoa, zein barrena behar genduken hitz hau gogoan sartu! Egin othe diteke ene Salbatzailleak maite izan nauen, eta hain amol-suki maite, non nitaz partikulariki orhoitu den, eta kontu iduki duen bide



xehe hetaz guziez ene ekhartzeko bere gana? Hori guzia beraz zein maitatu, zein prezatu, zein ongi enplegatu behar dugun gure probetxuko? Bertze hitz hau ere xoil amolsua da: ene Iainkoaren amoriozko bihotzak gogoan zedukan Filothea, hura zuen maite, eta milla bide salbamendurako preparatzen ziotzan, munduan izan ezpalu bezala bertze arimarik hartaz orhoitzeko; hala nola iguzkiak lurreko kantoin bat argitzen duenean, hura ezpaitu gutiago argitzen nihon bertzetan argi ezpaleza, eta hura xoilki argi baleza baino; orobat gure salbatzailleak gogoa eta artha zedukan bere ume maite guziez, hala non gutariak batbederaz orhoit baitzen bertze gainerako guziez orhoitu ezpaliz bezala. *Maite izan nau*, dio Iondone Paulok, *eta eman du bere burua enetzat*, erran baleza bezala, bertze gainerakoentzat deusik egin ezpalu bezala. Hori, Filothea, behar duzu zure ariman sartu eta eskiribatu, hartu duzun erresoluzioearen ongi maitatzeko eta mantentzeko, hain prezios izan denaz gero zure salbatzaillearen bihotzean.

## **Bortzgarren konsiderazionea, Iainkoaren alderako egundainozko amorioaz**

### **HAMALAU GARREN KAPITULUA**

Konsidera zazu Iainkoak egundainotik ekharri derautzun amorioa; zeren iadanik Iesu Kristo gure salbatzailleak, gizon bezala gurutzean zure gatik paira lezan baino lehen, Iainkoaren majestateak zutaz deliberatzen zuen bere guzien gaineko ontasuna baitan, eta neurrigabeki maite zinituen. Ordea noiz hasi zen zuri amorio ekhartzan? Hasi zenean Iainko izaiten. Eta noiz hasi zen Iainko izaiten? Ez egundaino; zeren bethi izan da Iainko, hasterik gabe, eta finik ere gabe, eta orobat bethi izan zaitu maite egundainoz geroztik; hartarakotz preparatzen zerauzkitzun egin derauzkitzun graziak eta faboreak. Hala dio profetaren ahotik minzo zaitzula, bertzerik nohori bezain ongi, *maite izan zaitut bethiereko karitatez eta halatan athera zaitut eta erakharri, zutaz urrikaldurik*. Beraz bertzeak bertze direla, kontu iduki du orai haren serbitzatzeko ditutzun erresoluzioeen zure eragiteaz.

O Iainkoa! nolako erresoluzioeak diren, Iainkoak pensatu, medita-tu, deliberatu dituenak bere egundainotasunaz geroztik! zein maite, zein prezios behar ditugun iduki! zer ez genduke pairatu behar hetarik den punturik, den izpirik aphurrena utzi baino lehen, ez bat ere segur, mundu guzia galdu behar baliz ere, zeren mundu guziak ezta arima bat balio, eta arima batek ezta deus balio guare erresoluzioeak gabe.



**Afekzione jeneralak  
erran diren konsiderazioneen gainean,  
eta eserzizaren konklusioea**

## HAMABORTZGARREN KAPITULUA

O erresoluzione maiteak, zuek zarete bizitzearen arbola ederra, ene Iainkoak, ene bihotzaren erdian bere eskuz landatu duena, ene salbatzailleak bere odolaz ihinzatu eta busti nahi duena, hari fruitu erakartzeko; lehen hil badilla millatan haizerik bat ere uts dezadan baino lehen zuen atheratzera. Ez segur, ez banaloriak, ez plazerek, ez aberatstasunek, ez atsekabeek, guziak batetan bilduak balira ere, sekulan ezterautate atherako edo eramanen hartu dudak gogoa eta borondatea.

Helaz Iauna! zuk ordea hura landatu duzu, zuk zure aitazko bulharretan egundainotik arbola eder hura iduki eta begiratu duzu ene baratze-ko; helaz! zenbat arma dire nik bezanbat fabore izan eztutenak? Nolatan betaz sekulan aski humil nindeke zure miseriardiaren azpian?

O erresoluzione ederrak eta sailduak, begiratzen bazaituztet, begiratuko nauzue; bizi bazarete ene ariman, ene arima biziko da zuetan. Bizi zaitzte bada sekulakotz, O ene Iainkoaren miseriardia baitan egundainokoak zareten erresoluzioeak; zaudete eta bethierekotz bizi zaitzte ene baitan; sekulan etzaitzatedala utz edo larga.

Afekzioeen ondoan hautatu behar tutzu bide partikularak erresoluzione maite haukin mantentzeko, eta zinetan prometatu behar duzu, nahi duela hetaz fidelki baliatu, iarraikiko zaitzela orazioneari, sakramenduei, karitatezko obrei, eserzizaren bigarren puntuan zure ezagutu dituzun eskasak erremediatuko tutzula, ihes eginen duzula okasione gaixotarik hartarakotz emanen zaizkitzun abisuak hartuko, idukiko eta begiratu dituzula.

Hori eginik, hats eta indar berri harturik bezala zinetan eta millatan errazu itxekiko derauezula zure erresoluzioei, eta zure bihotza, zure arima, zure borondatea, eskuetan baziniduka bezala, konsekra eta sakrifizioa diozozu Iainkoari, prometatzen diozula promes bezala zure borondatea ezutzula geiago zuretuko, bainan hura utziko duzula haren maiestate sailduaren eskuan, haren ordenanzei gauza guzietan eta non nahi osoki iarraikitze; othoitz egiozu Iainkoari zaren guzia berri zaitzala, benedik

eta bortitz dezala zure promesaren berriztamendua. Gomenda zakizte birjina sailduari, zure angeru begiraleari, san Luisi, eta bertze sailduei.

Zure bihotz bero hartan zoaz zure aita espiritualaren belhaunetara, akusa zaitte zure konfesioe jeneralaren ordutik orhoitu zaren huts principalez, eta har ezazu absoltzioea, lehen egin zenduen manera berean; bihotzez eta ahoz egizu hren aitzinean zure zinezko promesa edo protestazioea, eta emazu zure seinalea haren gainean, eta finean zoaz zure bihotz berrituaren aldareko sakramendu sailduan iuntatzera bere ithurburuarekin eta salbatzaillearekin.



## Eserziza hunen ondoan iduki behar diren sentimenduez

### HAMASEIGARREN KAPITULUA

Berrimendu hura egin dukezun egun hartan, eta gerokoetan, maiz eta maiz bihotzez eta ahoz erran behar tutzu Iondone Pauloren, San Agustinen Santa Katalina Gennekoaren eta bertze sainduen hitz hauk: *Ez, enaiz geiago neure, dela bizi naizen, dela hil nadin, ene salbatzailearena naiz; eztut geiago nirik, ez neurerik: ene ni da Jesus, ene neure da harena izaitea; O mundua! zu bethi zarena bera zare, eta ni bethiere nintzena bera izan naiz, bainan hemendik hara enaiz geiago izan naizena bera izanen.* Ez, ezgare geiago garenak berak izanen, zeren bihotza izanen dugu ganbiatua, eta hanbat enganatu gaituen mundua izanen da enganatua; ezen nola zpaitu gure ganbiamendua ikusiko aphurka baizen, usteko du Esau ohikoak gaudezila, eta edirenen da Iakob egiazkoak garela.

Eserziza hek guziek behar dute gure bihotzean pausatu, eta konsiderazionetik edo meditazionetik ilkhi gaitzezinean, emeki eta baratxe sartu behar gara egitekoetan eta jendartetan, beldurrez gure erresoluzioeen gozoa berehala isur dadin; zeren sartu eta iragan behar du gure arimako parte guzietan barrena, badarik ere den guzia egin behar da borxarrik egin gabe ez espirituari, ez gorputzari.

## Nola ihardetsi behar den introdukziona hunen kontra ekhar ditezkeien bi punturen gainean

### HAMAZAZPIGARREN KAPITULUA

Munduak erranen derautzu, ene Filothea, eserziza eta abisu hauk hanbat eta hainbertze direla, non nihork nahi baditu begiratu, eztuela behar izanen zer egin bertzerik. Helaz! Filothe maitea, bertzerik ezpage-neidi, aski geneidike, egin genezakeienaz gero mundu unetan egin behar duguna; ordea ez othe dakusazu artea? Eserziza horiok batetan guziak egin behar balire egun guziez, egiazki gure denbora guzia eraman liazakegute; bainan eztira egin behar, ordu eta leku iakinean baizen, zein bere mugaren arauera. Zenbat lege dauntza iustizia-liburuetan eskiribaturik? Guziak begiratu behar dira, bainan hori aditzen dela dasuek agintzen duten eredura, ez ordea behar direla guziak egun guziez obretan eman. Zer ere baita, Dabit erregea xoil egiteko gaitzez bethea zen, eta halarik eserziza espiritual geiago hagitz egiten zuen, nik eman derautzudan baino. San Luis errege miragarriak, ala gerlan, ala bakean, artha paregabeko batez iustizia-kortean hari zelarik bat-bederari bere zuzenaren baliatzen, eta berak bere erresumako egitekoak errekaizatzen zituelarik, egun guziez enzuten zituen bi meza, bezperak eta konpletak erraiten dituen bere apezarekin, egiten zuen bere meditazionea, bisitatzen zituen hospitaleak orzira guziez, konfesatzen zen, disziplina hartzen zuen, xoil maiz enzuten zituen prdikua, hainzeta gizon espiritualak biltzen zituen Iainkoaren gauzez minzatzeko; guziarekin ere erresumako kanpoko ontasunari beha zekion okasionerik etzuen utzten, hura hartu, ordenatu eta behar zen burura erneki ekharri gabe; bizkitartean haren Korteia ederrago eta loreago zen, egundaino haren aitzinekoen mendetan izan zen baino. Egitu beraz ausartki zure eserziza horiok eman derauzkitzudan bezala, eta Iainkoak emanen derautzu astirik eta indarrik aski zure gainerako egitekoen egiteko, bai eta iguzkia geldi arazi behar balu ere, egin zuen bezala Iosueren denboran. *Bethiere aski egiten dugu, Iainkoa gurekin hari denean.*

Munduak erranen du nik kontu egiten dudala neure hitz guzietan kasik ene Filotheak orazione mentalaren egiteko donua duela, eta halarik hura eztuela guziek, hala non introdukziona hori ezpaita guzientzat on izanen. Egia da, dudarik gabe; kontu hura egin dut, eta egia da oraino



eztuela guziek orazione mentalaren donua; ordea egia ere da, hura guziek kasik ardiets dezaketela, bai eta adimendu motzenek ere, baldin gidari onik badute eta gauzak merezi duen bezanbat travaillu nahi badute hartu haren ardiets teko. Eta edireiten bada donu hartan parterik bat ere eztuenik (uste eztudalarik gerta ditekielela halakorik guti eta bakan baizen) aita espiritual zuhurak errazki konpli araziko deraue eskas hura, irakhasten baderaeu meditazionetan ezarri ditudan konsiderazioneen erneki irakurtzen, edo enzuten.

## Hirur azkhen abisu prinzipalak introdukziona hunetako

### HEMEZORTZIGARREN KAPITULUA

Illabetheko lehen egun guzietz berriz egizu lehen partean den protestaziona edo promes seinalatua meditazionaeren ondoan, eta noiz nahi den errazu, zin zinez hura nahi duzul iduki eta begiratu, erraiten duzula Dabitekin; ez, ene Iainkoa, sekulan zure iujeamendu sainduak etzaizkit ahantziko; zeren hetan eman derautazu bizia. Eta senti dezazunean barraiamendurik zure ariman, har ezazu zure protestaziona edo promesa eskuan, eta espirituzko humiltasun batez apaldurik, hura errazu eta iraul ezazu zure bihotz guziaz, eta arintza handi bat aurkhituko duzu.

Errazu guzien aitzinean ageriki nahi duzula debot izan; eztiot erran dezazula, debot zarela, baina nahi duzula debot izan, eta etzarela ahalke Iainkoaren amudiora gidatzen gaituzten akziona komunez eta premiazkoez; aithor ezazu ausartki enseiatzen zarela meditaziona egitera; nahiago zendukeyela hil, ezen ez bekhatu mortalik egin; nahi zaiztela iarraiki sakramenduei, eta zure gidariaren konseilluei (hainitzetan premiarik eztelarik hura izenda dezazun hainitz arrazoin gatik) zeren horrela trebeki erraita eta erakustea Iainkoa serbitzatu nahi duzula, eta afekziona berezi batez haren amudioari konsekratu zaizkola, da haren maiestate sainduari hagitz gogara zaion gauza; ezpaitu nahi nihork duen ahalkerik hartaz, ez eta haren gurutzeaz. Gero ere trebetasun hark bidea ebakiten dio bertzela haritzera eta bizitzera hainitz oldez eta moldez gonbidatu nahi giniguzken munduari, eta omenaz beraz obligatzen gaitu debozionaeri iarraikitera. Filosofek leku guzietan erraiten zuten filosofo zirela, bertzeek utz letzaten gatik filosofo gisa bizitzera; guk ere erakusi behar dugu debozionaeraz guthiziatzen garela, debotki bizitzera utz gaitzaten gatik. Norbaitek erraiten baderautzu debotki bizi ditekielela nihor abisu eta eserziza horietan iarri gabe, eztezazula ukha, bainan ihardets diozozu arraiki, zure flakotasuna hain handia dela, non hargatik bertzeek baino beharago duzula norbait hel eta lagun dakizun.

Finean, ene Filothe maitea, arrenez nagotzu zeruan eta lurrean saindurik eta sakraturik den guziaz, ardietsi duzun bataioaz, Iesus haurrak hartu zituen ama birjinaren bulharrez, hark ekharri derautzun bihotz karitatetsuaren amorioaz, eta esperanzatzen zaituen Iainkozko miseriordia-





ren erraiez, zatxezko orai, eta bethiere bizitze debotaz hartu duzun zori onezko borondateari. Badoazi gure egunak: *Tronpetak*, dio San Gregorio Nazianzakoak, *etxera-seinalea emaiten du, batbedera presta bedi; zeren iujeamendua hurbil da*. San Sinforianen amak, ikusirik hura eramaiten zela martiriora, oiuz, zegokan, ene semea, ene semea, orhoit adi sekulako biziaz, behazak zerura, mira zazu han dagoen erregea, hurbil duan finak sarri ephatuko dik bizitze hunetako korsu laburra. Ene Filothea, orobat erranen derautzut, beha zazu zerura, hura eztezazula utz lurra gatik beha zazu ifernura, eztezazula zure burua hartara egoitz bizitze hunetako puntu laburrak gatik, beha zazu Iesu Kristo gana, eta eztezazula hartaz ukha mundua gatik; eta iduri dakizunean bizitze debotaren trailla gaitz eta gogor dela, kanta zazu San Franzesekin; *Uste ditudan ontasunak gatik, trailla pasatienpo zaizkit*.

Bizi dadilla Iesus, hari aitarekin eta espiritu sainduarekin batean ohore eta loria, orai, eta bethiere, eta sekula sekuloronekotz. Biz hala.

## BIZI DADILLA IESUS

*Xapeletaren debotki erraiteko, eta andre dana Mariaren ongi serbitzatzeko antzea.*

Zure xapeleta hartuko duzu gurutzetik, hartaz seinaturik musu emanen diozu, eta Iainkoaren prezianzian iarririk, erranen duzu Kreso guzia.

Lehenbiziko biho larriaren ganean, Iainkoari gomendatuko zaizko, othoitzez zagozkala onera har dezala egin nahi diozun serbitzua, eta bere graziez hel zaitzala haren ongi erraitera.

Hirur lehenbiziko biho xeheen ganean othoitzen egiten diozu Birjina sakratuari gertha dakizula ararteko: lehenbiziko bihian hura salutatuko duzu Iainko aitaren alaba maiteena bezala; bigarrenean, Iainko semearen ama bezala; eta hirugarrenekoan Iainko espiritu sainduaren espos guziz onetsia bezala.

Hamar bakoitzaren ganean gogoan erabilliko duzu arrosarioko misterioetarik bat, astirik dukezun arauera, orhoitzen zarela hautatu duzun misterioaz, beregainki izen saindu hauk, Iesus eta Maria, aipha detzatzunean, hek ahoan erabilten tutzula bai bihotzeko, bai gorputzeko erreberenzia handi batekin. Heldu bazaitzu bertze sentimenik (hala nola zure bekhatu iraganezko damua, edo onratzeko gogoa) hura meditatzen ahal duzu ahalik hobekiena xapeleta osoki erran artean, eta orhoituko zaren sentimendu hartaz, edo bertze batez, Iainkoak gogora ekharriko derautzun arauera, bereziki atherako ditutzunean hitz sakratu hauk, Iesus eta Maria. Azken hamarraren buruan den bihi larrian eskerrak emanen diotzatzu Iainkoari, zeren eman derautzun grazia xapeletaren erraiteko. Gero hirur ondoko biho xehetara iraganik, salutatuko duzu birjina sakratua, othoitzen egiten diozula lehenbiziko bihiaren ganean, ofrenda diozola zure adimendua aita eternalari, sekulakotz haren miserikordiak konsidera ahal detzatzun gatik. Bigarrenaren ganean othoitzen egiten diozu zure memoriaren ofrezitzeaz bere semeari, arren gogoan haren herioa eta pasionea arduraki iduki ahal dezazun. Hirugarrenaren ganean, othoitzen egiten diozu zure borondatea presenta diozola espiritu sainduari, sekulakotz haren amorio sakratuaz irazeki ahal zaitezintzat. Xapeletaren buruan den bihi larrian othoitzen egiten diozu Iainkoaren maiestateari, den guzia har dezala bere loriatan, bere elizaren aitzinamendutan, bere besotetan eta alzoan iduki zaitzala, eta hartara erakhar detzala errebelatu diren guziak eta zure adiskideak gatik othoitzen eginek, hasi zaren bezala,



azkenean ere eginen duzu fedezko aithorra, *Kredoa* erranez, eta gurutzeaz seinaturik.

Xapeleta ekharriko duzu gerrikoan, edo bertze leku ageri batetan, seinaleztat, iakin arazi nahi derauezula guzietan zure desir guzia dela Iesus gure salbatzailearen eta Andre dana Maria birjina haren ama sakratuaren serbitzari leial izaiteko, eta eliza katolikoa, apostolikoa eta Erromako sailduaren egiazko ume batek behar duen bezala bizitzeko eta hiltzeko. Biz hala.